

JAKIN

JAKIN

JOSEBA JAKA GOGOAN.
EUSKAL KULTURGINTZAZ ZENBAIT GOGOETA

JAKIN

TESTULIBURUAK ETA EUSKAL HERRIA

LORE ERRIONDO

EUSKAL CURRICULUMA?

IMANOL MURUA URIA

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASMATERIALARI
GAINBEGIRATUA

ASKOREN ARTEAN

ARGITALETXEEN IRIZPIDEAK

ASKOREN ARTEAN

IRITZI-BILKETA

XABIER ISASI / LORE ERRIONDO

TESTULIBURUAK AUKERAN

MARKOS ZAPIAIN

FOUCAULT ETA MEDIKU PSIKIPELMAK

ASKOREN ARTEAN

EGUNEN GURPILEAN

93-94

MARTXOA-EKAINA 1996



JAKIN

93-94

MARTXOA-EKAINA 1996



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Turismo Departamendua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	URE IRITZIZ	9
	JAKIN	
	JOSEBA JAKA GOGOAN. EUSKAL KULTURGINTZAZ ZENBAIT GOGOETA	
		19
	JAKIN	
	TESTULIBURUAK ETA EUSKAL HERRIA	
G	AI NAGUSIA	25
	LORE ERRIONDO	
	EUSKAL CURRICULUMA?	
		45
	IMANOL MURUA URIA	
	LEHEN HEZKUNTZAKO IKASMATERIALARI GAINBEGIRATUA	
		97
	ASKOREN ARTEAN	
	ARGITALETXEEN IRIZPIDEAK	
		109
	ASKOREN ARTEAN	
	IRITZI-BILKETA	
		133
	XABIER ISASI / LORE ERRIONDO	
	TESTULIBURUAK AUKERAN	
G	AI AK	153
	MARKOS ZAPIAIN	
	FOUCAULT ETA MEDIKU PSIKIPELMAK	
E	GUNEN GURPILEAN	175
	JOXERRA GARZIA	
	IÑIGO ARANBARRI	
	IMANOL AGIRRE	
	LONTXO OIHARTZABAL	
	KIKE AMONARRIZ	
I	IBURUAK	205
	IDAZKARITZA	
	JASO DITUGU	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1996ko PREZIOAK

<u>BARRUAN</u>	<u>HARPIDEDUNA</u>	<u>EZ HARPIDEDUNA</u>
Harpidetza	5.000 pta.	—
Ale arrunta	850 pta.	1.225 pta.
Ale bikoitza	1.050 pta.	1.500 pta.
<u>KANPOAN</u>		
Harpidetza	5.500 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	925 pta. (40 FF)	1.400 pta. (60 FF)
Ale bikoitza	1.150 pta. (50 FF)	1.725 pta. (74 FF)

SUMMARY

IN MEMORY OF JOSEBA JAKA

JAKIN

The editorial team of Jakin reflects on the development of the Basque cultural activity, in an editorial article published in memory of and to pay homage to Joseba Jaka, a militant of Basque Culture and a manager of the editorial Elkar, who recently passed away.

In the article it is confirmed that the example Joseba Jaka gave is one to be followed in order to effectively develop the Basque Cultural activity. The article also underlines Joseba Jaka's capability to combine militancy with professionalism.

SCHOOL BOOKS TO EXAMINE

VARIOUS AUTHORS

The principal work of this double number of Jakin is about school books published in the Basque Country. In the first article the editorial team of Jakin reports the differences, as far as social and cultural contents are concerned, between the text books published by Basque editors and the materials distributed by Spanish publishers are advised. In the second article of the dossier, Professor Lore Erriondo of the University of the Basque Country (U.P.V.), argues that the Basic Curricular design determined by the Basque Government is void of contents and claims a Basque curriculum developed from the Basque national perspective. The journalist Imanol Murua Uribe in his article compares

the different educational projects which publish school books in Basque. He analyses the differences between them when dealing with social and cultural themes in the Basque Country. In the following sections the publishing houses report the criteria used in the creation and production of the text books. The Department of Education of the Basque Government, P.N.V., H.B., E.L.A., L.A.B. and the Association of «Ikastolas» (network of teaching through the Basque Language) also give their opinions. Professors Lore Erriondo and Xabier Isasi talk about the criteria used in school when choosing text book in the final article of the dossier.

MICHEL FOUCAULT

MARKOS ZAPIAIN

Markos Zapiain, in his article, synthesizes the evolution of thought of the French philosopher Michel Foucault. The author presents him as a philosopher who is extremely critical of the state and committed to different social

movements. He, Foucault, mellowed in his last years both in his political attitude and his literary style. The author of the article studies in depth two themes which were objects of Foucault criticism: psychiatry and sex.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we are closely following culture, entertainments, university, socio-

linguistic and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joxerra Garzia, Imanol Agirre, Lontxo Oihartzabal, Kike Amonarriz and Iñigo Aranbarri.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 93-94 zenbaki bikoitza da eta 1996ko bigarrena eta hirugarrena.

Joan berri zaigun Joseba Jaka gogoan dugula *Jakin*-eko erredakzioak euskal kulturgintzaz egindako zenbait gogoeta aurkituko dituzu *Gure iritziz* saileko lehenengo lanean. Josebari eskerronezko eta mirespenezko aitopena egin ondoren, euskal kulturgintzaren aurrerabideari begira burutazio batzuk biltzea eta jaulkitzea da idazki honen helburua.

Nagusitzat hartu dugun gaiari buruzkoa da *Gure iritziz* ataleko bigarren lana: «Testuliburuak eta Euskal Herria». *Gai nagusia* sailean luze aztertzen dugun arloaren inguruko ondorio nagusiak jaso ditugu lehenengo lan honetan.

Euskal Curriculum-aren gabeziak gogoeta egiten du Lore Erriondo EHUko Pedagogia Fakultateko irakasleak hurrengo artikuluan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Curriculum Garapenerako Dekretuak edukien aldetik hutsune garrantzitsuak dituela argudiatzen du Erriondok.

Euskarazko ikasmaterialari gainbegiratu ematen dio Imanol Murua Uria kazetariak ondorengo lanean. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloan sei argitaletzek plazaratu dituzten testuliburuaren azterketa egin du, Euskal Herriari buruzko gai sozial eta kulturalen tratamenduari arreta berezia jarritz.

Euskarazko eskola-liburuak sortu eta argitaratzeko orduan zein irizpiderekin jokatzen duten galdetu diegu sei argitaratzaileei, eta Elkar-GIE, Erein, Giltza-Edebé eta Ibaizabalen erantzunak jaso ditugu. Irakaskuntzaren alorrean zeresana duten erakunde, alderdi eta elkarteengana ere jo dugu, eta hauen erantzunak bildu ditugu hurrengo artikuluan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, EAJk, HBk, ELAk, LABek eta Ikastolen Elkarteak igorri digute euren iritzia.

Xabier Isasi eta Lore Erriondo irakasleek eginga da testugintzari buruzko azken lana. Ikastetxeetara bidalitako galdetegia oinarri hartuta, ikastetxeek eskola-liburuak zein irizpiderekin aukeratzen dituzten argitzen digu artikulua honek.

Ikuspegi ezberdin eta ugaritatik begiratu diogu, beraz, euskarazko ikasmaterialgintzari. Gaiaren garrantziak neurri honetako azterketa eskatzen zuela uste dugulako egin dugu ahalegin hau, eta orrialdeotara ekarri ditugun gaiak ohikoa baino leku zabalagoa behar zutelako erabaki dugu zenbaki bikoitza argitaratzea. Merezi izan duelakoan gaude.

Gaiak sailean Markos Zapiainek Michel Foucault filosofo frantsesari buruz moldatutako artikulua dator. Filosofoaren pentsaerari eta jarrearen bilakaeraren berri eman ondoren, *Eromenaren Historia* eta *Jakingura. Sexualitatearen Historia* liburuetan agertzen dituen ideien azterketa egiten du.

Egunen Gurpilean sailean, ohi bezala, kultura, literatura, ikuskizunak, unibertsitatea eta soziolinguistika alorren inguruko gaurko hainbat gai jorratzen dituzte Joxerra Garzia, Iñigo Aranbarri, Imanol Agirre, Lontxo Oihartzabal eta Kike Amonarri idazleek.

GURE IRITZIZ

JOSEBA JAKA GOGOAN

EUSKAL KULTURGINTZAZ ZENBAIT GOGOETA

Apirilaren 16an Joseba Jakaren heriotzaren berri jakitean, euskalgintzako eta euskal kulturgintzako jende asko eta asko geratu zen zur eta lur, bereziki beraren hurbileko lankideak eta lagunak. Gauza nabaria izan zen hori ondoko egunetako hainbat lagunen adierazpenetan, eta hilaren 20an Aizkorriren magalean eta hurrengo egunean Donostian egindako omenezko eta oroitzapenezko ekitaldietan.

Baina konmozioak ez zuen lur jota utzi jendea, eta bere halakoa izan zen erreakzioa. Aurrera egin beharra dago eta hark irekitako bideari, eragindako dinamikari eta abiatutako proiektu eta enpresei etenik gabe heldu beharra: horixe izan zen alde guttietatik mezua. Lankideek eta lagunak aurrenik, euskal kultur-

gintzako jende askok horiekin batera, bere erantzukizuntzat hartu du Josebak bultzaturiko euskal kulturako proiektu handia. «*Denon artean eratu duguna denon artean behar dugu aurrera atera*», aldarrikatu zuen Beundeko ekitaldian Joxe Mari Sorsek, Josebaren lankide hurbilenetakoak, enpresaren eta bertako langileen izenean, desafioari erantzuteko horien gertutasuna eta bizkortasuna nabarmenduz; eta han bildutako guztiei gogorarazi zien, bakoitzak eta guztiek eutsi beharra euskal kulturagintzan aurrera eramandako proiektu handi eta zabalari: «...*Proiektu honen handitasuna, azken batean, hemen zaudeten guztion eta euskaltzale guztien apoioak egin du posible. Aurrerantzean ere, zuen solidaritasuna behar dugu*», zioen berak.

Hainbat burutazio baliozko agertu zen egun haietan komunikabideetan ere, euskal kulturagintzaren hariak lotu eta dinamika aritu nahian. Aukera egokia eskaini digu Joseba Jakaren e reduak euskal kulturagintzari buruzko gogoeta zabaltzeko eta garrantzizko jarraibide zenbait nabarmentzeko.

*Jakin*ko erredakzioak, hari eskerronezko eta mirespenezko aitortpena egin ondoren, orduko konmozio latza gaindituz eta ondorengo erreakzio bizkor eta kementsuaz poztuz, euskal kulturagintzaren aurrerabideari begira bere burutazio batzuk gaineratu nahi ditu. Gogoeta nagusi batzuk biltzea eta jaulkitzea da idazki honen helburua, Joseba gogoan dugula.

EUSKAL HERRIAREN KULTURAZKO AUTODETERMINAZIOA

Arestim «aitaren etxea» eraikitzearen sinboloa erabili du batek, hil berriaren proiektu eta lanaren zentzua definitzeko: Euskal Herria eraikitzea, alegia; herrigintzari begira ulertu baitzuen berak euskal kulturagintza, eta uste baitzuen kulturagintzarik gabe ez dagoela herrigintzarik.

Euskal Herria eraikitzeko funtsezkoa da burujabetza, bere buruaren jabe izatea, bere nortasunaz jabetuz eta bere indarren jabe izanez. Zuzeneko ondorioa du horrek euskal kulturagintzarako: beti irekia egon behar du mundu zabalari, baina bere buruaren baieztapena egin behar du, hasteko, euskal kultu-

rak, arrotzaren mirespen zozoa eta bertakoaren gutxiespen le-loan erori gabe. Badakigu txikia dela euskal kulturaren munda, xumeak direla horren produkzioa eta kontsumoa, larria dela horren biziraupenaren arazoa. Baina bere buruarekiko konfiantza suspertu edo sendotu beharra dauka horrek. Euskal kulturaren galtzailearen sindromea alde batera utzi eta irabazlearen erabakimena behar dugula aldarrikatu zuen eta erakutsi Joseba Jakak.

Konfiantza, ordea, ez da aldarrikatzen, landu egiten da, etsipenera garamatzaten elementuei aurre eginez, eta geure nortasuna defendatzeko eta garatzeko beharrezko ditugun baliabideak sortuz eta indarrean ipiniz. Horixe da nor bere buruaren jabe izatearen beste alderdia, guttiz garrantzizkoa: bakoitzak bizitzeko eta garatzeko behar dituen tresnak bere eskutik edukitzea, inoren menpekotasunetik alde eginez.

Azken aldian sarritan salatu izan da, eta seguruenik arrazoiz, Euskal Herriko kultur industriak duen ahulezia, neurri oso handian kanpokoaren menpean dagoelako. Askoz larriagoa da hori, jakina, euskal (euskarazko) kulturagintzari begiratzen badiogu. Zenbaki honek berak honela erakusten du testuliburu kasua aztertuz. Salaketa horrek, ordea, ez ditu ezkutatu behar euskalgintzan eta euskal kulturagintzan aspalditxoko urteotan erakutsitako ekimen soziala eta horrek izan dituen lorpen garrantzizkoak, kultur azpiegiturak eratzen eta finkatzen. Euskal kulturako hainbat sailetan nabari izan da ekimen sozial bizia eta ahalegin eutsia, kultur erakundeak sortu eta finkatzeko, ekimen eta sormen pertsonalen pizgarri eta euskarri ere izango direnak: eskolan eta irakaskuntzan, komunikabideetan, euskararen irakaskuntzan, liburugintzan eta edizioetan, antzerkian eta bestelako zenbait adierazpen kulturaletan, euskararen korpusa lantzeko alorrean, euskarari eta euskal kulturari teknologia berriak aplikatzeko eremuan, euskal kulturako sektore profesioaletan, euskararen aldeko eragintza sozialean. Horieta-ko batzuk xumeak dira, beste batzuk handiagoak; batzuk hauskorak dira, beste batzuk finkoago eratuak. Denak dira aintzakotzat hartzekoak, dinamika sozio-kultural bizia eta zentzuzkoa erakusten duten neurrian: lan-taldeak eta mintegiak, hiz-

kuntz zerbitzuak eta zentro kulturalak, kultur elkarteak eta konfederazioak, liburu-dendak eta banaketa-zerbitzuak, kultur enpresak eta fundazioak, kulturako kooperatibak eta elkarte profesionalak. Hutsetik hasita, mila modutako eragozpeni aurre eginez, sarritan erdarazkoen konkurrentzia desorekatu eta biziaren plazara irtenez, herri-ekimenak irabazitako desafioak dira horiek denak, harrotzeko eta konfiantza hartzeko modukoak.

«Ezina ekinez egina» filosofiaren gain eta militantzi izpirituz eta gaitasun profesionalaz lortuak dira horiek gehienak. Filosofia horrekintxe eta bide horretatixe jardun zuen Joseba Jakak, eta lorpen guztiz garrantzizkoak utzi dizkigu euskal kulturako enpresa-munduan. Alor asko dauka euskal kulturak irabazteko, bere eskuetan hartzeko, maila handiak igotzeko. Bidea seinalata dago.

Nork bere burua bere kontzientziaren erdigunean ipintzea eskatzen du askatasunak; bazterrean geratu gabe. Horrelako afirmazioaren gain ireki behar du euskal kulturaren munduak kultura unibertsalaren mundu zabalera, konplexurik eta beldurrik gabe, zelai zabal horretan bere jokoa jokatzeko. Ez daukagu zertan neurtzen ibili beharrik «kultura handiak» deitzen ditugun horiekin; aski dugu geure mailan eta tamainan Euskal Herriaren afirmaziorako eta garapenerako geure kultur baliabideak lantzea eta geure eskuetan edukitzea. Aski da, eta asko da, jakina.

KULTURGINTZAREN AUTONOMIA

Euskal kulturak bere autonomia bilatu behar du euskal herrigintzaren barruan, bere eremu propioa eta librea eratuz. Sarritan kultura zer politikoaren bazterreko eta azkeneko kapitulua izan ohi da; eta zer ekonomikoaren menpean egon ohi da, senide pobre gisa. Baina kultura ezin da ulertu mundu politiko edo ekonomikoaren azpiko kategoria soiltzat, etengabe horre n menpeko; bere eremua eratu behar du kulturgintzaren munduak, mundu politiko eta ekonomikora ere zabalduko dena. Kultur munduaren autonomia baieztatuz, ez dugu kulturak apolitikoa eta lege ekonomikoetatik apartekoa izan behar due-

nik adierazi nahi; hiru munduek, politikoak, ekonomikoak eta kulturazkoak, etengabeko elkarreraginean behar dutela uste dugu.

Euskal kulturgintzako munduak bere eremua sortu beharra dauka, non bakoitzak ez baitu derrigorrez halako talde ideologiko edo alderdi politiko jakin batekin identifikatu beharrik, aintzakotzat hartu ahal izateko, alde batetik, eta automatikoki baztertua geratzeko arriskuarekin, beste aldetik. Eta kulturgileen edo kulturako langileen afiliazio politiko edo kidetasun ideologiko eta inplikazio sozio-politiko ezberdinen gain, bere eremu zabal eta irekiaren premia du euskal kulturaren munduak, bere plataforma eta bere azpiegitura propioak eta indartsuak eratu ahal izateko. Ezaguna da, azken urte luzeetan sarritan identifikazio politikoa erreferentzia bakar edo guztiz nagusi bihurtu dela gure artean, edonor jendaurrean eta sozialki situatzeko. Bada garaia, kulturazko erreferentzia zuzenekoaren substantibotasuna —ez adjektibotasuna— tinko erebindikatzeke.

Zer politikoari buruz autonomo izanik, kultur politika definitu behar du euskal kulturgintzako munduak, kulturalismoari ihes eginez. Horrela bakarrik eduki ahal izango du bere itzala eta eragina erakunde publiko eta politikoen aurrean. Horrek ez du esan nahi euskal kultur munduaren homogenizazio «totalizatzailearik», oro-hartzailearik. Euskal kultur proiektu politikoak e re ezberdinak izan daitezkeelako. Baina zalantzarik gabe, plataforma eta eremu bateratuak bilatzeko garaia da euskal kulturgintzan.

Kulturgintzak ez dio, bere aldetik, perspektiba ekonomikoari ihesik egin behar, ezta kontsumo-planteamenduari ere. Areago, bere planteamendu enpresarial eta komertziala egin behar du, konplexu kulturalistak alde batera utziz; kulturaren kontzeptu produktibista eta merkantilistan erori gabe, hala ere. Kultur sortzailearen eta kultur hartzailearen artean, kultur merkantzia zerbituko duen banatzailea ere behar beharrezkoa da, sortzaile-ekoizle-kontsumitzaileen zirkulu kultural-ekonomikoa ixten duena. Horixe erakutsi digu, hain zuzen ere, Joseba Jakaren ereduak.

Euskal kulturaren autonomiak badu, beste alderik ere. Ere-mu autonomoa izanik eta ez mundu politikoaren edo ekonomikoaren azpisail edo kategoriatan hutsa, bere eragina behar du horiei buruz eta aurrez aurre. Euskal kulturgintzak bere itzala eta bere hitza behar du handitu mundu politikoaren aurrean eta bere erakarmena zabaltu mundu ekonomikoaren barruan. Izan ere, Euskal Herriko mundu politikoak benetan aintzakotzat hartuko duenean euskal kulturaren ahotsa eta mundu ekonomikoak benetan bere interesa jarriko duenean euskal kulturaren, orduan uste ahal izango dugu Euskal Herriaren eraikuntza politikoa eta ekonomikoa ere bide hobetik doazela.

SORMEN PERTSONALA, EKIMEN SOZIALA ETA POLITIKA INSTITUZIONALA

Kulturgintza sormen pertsonalean eta ekimen sozialean sustraitzen da. Euskal kulturak kultur sortzaileak behar ditu: irakasleak, artistak, idazleak, aktoreak, ikertzaileak, pentsatzaileak, musikagileak, kantariak, dantzariak... Baina kultur sortzaileak kultur hartzaileak behar ditu, kulturaren zirkuitoa osatzeko. Kulturaren adiera komunitario horrek indar are handiagoa hartzen du, gaurko euskal kulturaren egoerari eta dinamizari begira, euskara berreskuratu edo modernotua erangain Herri honen identitatea kultur proiektu kolektiboaren gain osatu eta sendotu nahi dugunean. Horregatik dute hain indar handia euskal kulturaren dinamikan ekimen sozialek, talde-lanek eta proiektu kolektiboek. Gaurko euskal kulturgintza ekimen sozial, komunitario horretan dago funtsean oinarrituta, eta ez aristokrazia kulturalen batean, non kulturgilea bere sormen indibidualistan eta bere dorre elitistan sartuta baitago. Egia esan, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu euskal kulturgintza-aren zerbitzu-zentzu komunitarioa, kultura norberaren burua asetzeko eta nabarmentzeko soilik ulertzen duen zentzu subjektibostatik urruti, eta era berean kultur lanaren funtzionarizazio agorretik ihesi.

Baina horrek erakunde publikoek euskal kulturgintzan duten egitekoa aztertzea garrantzitsua da. Nekez jar genezake zalantzan Euskal Herriko erakunde publikoen egiteko guztiz garrantzitsua.

tzizkoa euskal kulturari begira, horren defentsarako eta horren babeserako; baina euskal kultur dinamika sormen pertsonaletik eta ekimen sozialetik dator. Ez dugu ukatuko, ezta ere, erakunde publikoen eskubidea eta betebeharra euskal kulturako bere politika markatzen; baina horren oinarriak eta iturriak gizarte-dinamikan egon behar du. Goiko administrazio-bulegotan planifikaturiko euskal kulturgintzak ez du benetako dinamizarik piztuko, ez baldin badago etengabeko elkarrizketarik eta elkarreraginik erakunde publikoen eta mundu kulturalaren artean. Erakunde publikoen egitekoa da dinamika soziala asumitzea, indartzea eta sendotzea; horri begira joan behar du gobernuan dagoen kultur politikak funtsean. Kultur ekimen sozial ugaria bultzatzea dagokie erakunde publikoei, kultur produktiorako eta zabalkunderako bideak irekitzeko eta finantzatzeko laguntzak emanez bereziki. Politika hori definitzen euskal kulturaren munduak berak hartu behar du parte noski, horretarako sortuko dituen indar eta erakundeen bitartez.

Administrazio publikoaren aldetiko kulturazko gidarismoa ukatzen badugu, aldi berean euskal kulturaren politika argia eskatzen diegu erakunde publikoei, mundu horretan diharduen jendeari zor zaion duintasunean eta horren autonomian oinarritua. Euskal kulturak erakunde publikoen subentzio-sistematik egoterik ez daukala esan ohi da. Bat gatoz, horien bidez kanalizatuko bada nagusienik ekimen sozialaren eta ekimen instituzionalaren arteko harremana, edota subentzioen sistema nagusitzeak moteldu egingo badu ekimen sozialaren dinamika. Uste dugu zuzeneko dirulaguntzak edo subentzioak beharrezkoak direla eta izango direla euskal kulturgintzan, batez ere alor berriak irekitzeko edota errentagarriak ez diren kultur jardunak laguntzeko. Horregatik, subentzioak edukitzeko eskubideari eutsi behar zaio, eta errebindikatu behar da.

Hori esan ondoren, ozenki gaineratu behar dugu, euskal kulturako ekimen sozialeko taldeek, elkarteek eta enpresek bere ekonomia propioa eratzen saiatu behar dutela, ahal duten gutxien egoteko erakunde publikoen subentzioen zain. Eta hori bezain ozenki esan behar da gainera subentzioena limosna-sistema lotsagarri bihurtu duela sarritan administrazioak,

zor zaion edozein laguntzatxo ere aitortzera behartzen duenean hartzailea, betirako administrazio publikoarekiko zordun dagoela agertu beharrean edo.

MILITANTZIA ETA PROFESIONALTASUNA

Funtzionarioaren eta indibidualismoaren aurrez aurre, militantzia da euskal kultur munduan eurrez erabiltzen den hitza. Amateurismo arinez, erdipurrika eta profesionaltasun serio eta zorrotzik gabe egindako gauzen doinua darama askorentzat horrek. Kulturgintzako militantzia, ordea, ez dago profesionaltasunaren aurka. Biak batzearen, militantzia profesionalaren, eredutzat har ditzakegu Joseba Jaka, Klaudio Harluxet, Joxemi Zumalabe, bakoitza bere alorrean eta bere erara: euskal kulturaren munduko hiru egile eta eragile apartak, hiru urteren buruan joan zaizkigunak. Bihoakie hiruei gure omenaldia militantzia efikazak formula ezberdinak aurkitzen baititu. Berrito ere esanez, kulturaren funtzionarioaren —edota indibidualismoaren— aurrez aurre dagoela funtsean militantzia, ez profesionaltasun argiaren aurka. Bihotz bero, ideia argi eta proiektu zabalari plangintza zehatza, aurrekontu hotza, lan metodikoa eta kontrol zorrotza lotzen dizkio profesionaltasunez kanalizaturiko militantziak. Gaurko euskal kulturgintzan horrelako militantzia daukagu landu beharra.

Badu beste konnotaziorik kulturako militantziak, euskalgintzan eta euskal kulturgintzan esanahi eta indar bereziak dituenak: helburuarekiko atxekimendu pertsonala eta horren zerbitzura norberaren lana eskaintzeko jarrera eskuzabala. Euskal kulturgintza ez da seguruenik negozio handiak egiteko eta irabazi oparoak lortzeko biderik egokiena; hala ere, bere mailan eskain dezake horretarako ahalbiderik ere; eta batez ere lanbide eta ogibide lasairik eskain dezake gaur egun, oparotasun e rosoan bizitzeko ez bada ere. Profesionaltasun militantez lan egiten duenak ez ditu bere orduak gutxiesten, eta bai balioztatzen, doan edo erdi doan ematen dituen horiek; era berean profesionaltasun militantez euskal kulturako enpresa edo proiektua aurrera daramanak ez ditu inola ere gutxiesten horrek ematen dituen etekin ekonomikoak —alderantziz—; baina

etekin horiek, irabazbide pribaturako erabili beharrea, berrinbertitu egiten ditu helbururako proiektu eta plan berritan. Horrelako militantzia, txalotzekoa ezezik, beharrezkoa dela uste dugu, euskal kulturagintzan. «*Lana, irabaz-asmoz baino sorke-ta eta zerbitzu-grinaz bizitzea*», definitu du idazleetako batek, Joseba Jakaren militantzia. Zorionez, era bateko edo besteko militantez beteta ikusten dugu euskal kulturaren mundua.

Horien guztien ekarpen handia aitortuz eta balioztatuz, garaia da euskal kulturako militantearen estatus sozial eta laborala errebindikatzeko. Bere militantzia eskaintzen duen langileari, edo militantzia eskatzen zaionari, baldintza ekonomiko eta laboral duinak zor zaizkio, eta bere lanerako baldintza eta tresna egokiak batez ere.

Militantziatzko lanak taldea eskatzen du, bestalde; ezinezkoa da militantziaren suari eustea, nolabait kolektiboa ez baldin bada su hori. Euskal kulturako militantzia burutsuak eta organizatuak talde-lana eskatzen du gainera —«auzo-lana», «elkarlana», «lankidetz»—. Euskal kulturagintzan ekimen eta irudimen pertsonala balioztatu eta bultzatu behar da noski (kulturagintza-ren maila guztietan: sortzean, produzitzean, banatzean, kontsumitzean); baina taldeak eratzea eta horiei eragitea benetako kultur eragintza da. Eta talde-lan militanteak partaidetza esan nahi du; diru-irabazitan hartzen ez duena, laneko eta erabakietako partaidetzan zor zaio militanteari.

Euskal kulturako militantziak militantziaren kultura, militantzia profesionala edo profesionaltasun militantea lantzea, eskatzen du. Militantziak badu zerikusirik norberak barruan daraman karisma, espiritu eta suarekin —«*Josebak piztu zuen suak eta espirituak gurekin jarraitzen baitu bizirik*», agindu zuen hizlariak omenaldikoan—. Euskal kulturaren karismatikoak behar ditugu; baina aldi berean, azpiegitura, erakunde eta enpresa sendo ugari, profesionaltasun osoz eraikiak eta kudeatuak, behar ditu euskal kulturak. Kultur egile eta eragilearen aldetik, euskal kulturako enpresa edo erakundeak behar duen arrazionaltasun profesionalarekin batera, militante-karismaren su beruari eustean dago euskal kulturaren dinamikaren eta garapenaren gakoak. Denon artean bakarrik aterako dugu aurrera.

GURE IRITZIZ

TESTULIBURUAK ETA EUSKAL HERRIA

Testuliburuaren garrantziaz ez dago zalantza handirik. Pedagogi sistema batetik bestera alderik badago ere, denetan du munta handia, bai teoriak eta bai —batez ere— praktikoki.

Lehen bezala orain testugintza legez arautu egiten da, ematen zaion garrantziaren seinale. Han eta hemen edukiak seinatu eta markatu egiten dira, asko edo gutxi.

Aukera paregabea izan genuen irakaskuntza erreforma zela eta, 1992an, hain zuzen ere Euskal Herriari dagokion proiektu jator eta egoki bat egin ahal izateko. Baina huts egin dugu. Aukera galduen historia honetan, bat gehiago.

Aurrera jarraitu aurretik esan dezagun proiektu desberdinak ditugula hiru esparru administratibotan, EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Garrantziagatik eta pisu espezifikogatik EAekoaz arituko gara hemen. Izan ere, merkaturik handiena hor dago, eta testugintzaren produkzioa osoki berton moldatzen da, Eusko Jaurlaritzaren legediaren arabera.

Eusko Jaurlaritzak egin hezkuntz proiektuak, huts nabarmenak egiten ditu:

Bat, euskara ez duela irakaskuntz hizkuntzat hartu. Bi, gureari lotuagoa: Euskal Herriari dagozkion edukien eskasia.

Euskal Herria aipatu egiten da dekretuan, baina Euskal Herriaz ari denean zertaz ari den zehaztu gabe; eta zehazten duen kasu bakanetan, Euskal Herriko Autonomi Elkartea aipatzen du. Horrela, Euskal Herria bere osoan aintzat hartzen ez duten hezkuntz proiektuek arazorik gabe jasotzen dute Eusko Jaurlaritzaren onespena, Dekretuak ezartzen dituen oinarriak bete egiten baitituzte.

Posible zen bestela jokatzea. Posible zen Curriculum Garapenerako Dekretua edukiz betetzea, eta euskal testugintzan ari diren Estatuko argitaletxeak Euskal Herriaren errealitatea aintzat hartzera behartzea. Baina ez zen egin. Katalanek edukiez bete dute historia eta bere naziotasunaren esparrua. Aukera galdu dugu guk, berriz diogu.

Markoaren definizio horren barruan egin ohi da, hortaz, euskal testugintza.

Nagusiki sei hezkuntz proiektu zabaltzen dira gure artean: Elkar-GIE, Erein, Ibaizabal, Giltza-Edebé, Zubia-Santillana, Bruño. Aski aniztasun, beraz.

Edukien trataeran marra handi batek bereizten ditu proiektuok: hezkuntz proiektuaren jatorriak, alegia, Euskal Herrian ala Estatuan eginak izan. Oro har esan daiteke kanpoko hezkuntz proiektuek, batzuetan eskas eta gehienetan gaizki tratatzen dutela Euskal Herria bere historian, bere geografian, bere hizkuntzan. Legea beteko dute, zaila ere ez da eta, baina gure ikuspegitik tratu txarra ematen diote Euskal Herriari.

Euskal Herriari buruzko gaiak nola ematen (edo ematen ez) diren ez da arazo bakarra, gainera. Oinarrian hezkuntz proiektu espainiarra duen testuliburuak —matematikako liburua izanda ere— ikuspegi espainiarretik azaltzen ditu edukiak, testuinguru espainiarretik ekartzen adibideak. Ikasleari eskaintzen zaizkion erreferentziak kanpokoak dira sarri. Sarriegi.

Ikuspegi abertzale eta euskaltzale batetik, edo euskal ikuspegi batetik ere soil-soil, nekez uler dezakegu Euskal Herria aintzat ez hartzea bere osoan, eta ikasleari eskaintzen zaizkion erreferentzia hurbilak, hainbat kapitulutan, Euskal Herrikoak ez izatea. Ulergaitza iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritza batek (gehiengo abertzalekoak, alegia) nola eman diezaiekeen eite horretako testuei bere onspena.

Edukien eta beronen onspenaren hedadura politikoaz gain badago besterik ere. Ekonomikoki luzarora bertoko produkzio propioak lanak izango ditu. Zaila da, inolako babesik gabe, kanpoko etxe handi horien aurka konpetitzea. Itzulpen-moldapen sistemaren bidez aise eta dezente merkeago egin ohi dituzte testuak. Bitartean, hemengoek proiektua landu behar dute, eta lantaldeak eratu eta finantziatu egin behar dituzte. Produkzio propio eta bereziak dituen kostuaren zati txiki bat dute besteek. Nola ziurtatu, aurrera begira, ekoizpen propioa, ekonomi baldintza hauetan? Alegia, gure geure ikuspegitik geure historia ezagutzea, geure geografia markatzea, geure herri nortasunaren identitate-ezaugarriak ziurtatzea? Badirudi kulturaren eta hezkuntzaren ezin direla planteatu beste alorretan, ekonomian adibidez, egiten diren babes-planteoak, edo baieztapen positiboak.

Egoeraren eta joerazko arrisku hauen kontzientzia hartzea behar beharrezkoa da. Testugintza horren moldaera ezagutu behar dugu eta testu horien edukien berri izan. Jakin zer ematen zaien gure neska-mutilei.

Orain arte bertoko testugintza nagusitu bada, bertoko enpresen meritua izan da, inizatiba eta aurea hartu izana, merkatua irekitzea eta ondorioz, merkatuan iada inplantaturik egotea. Baina arriskuak luzarora zutik dirau.

Lege-aldetik hutsune handi hori bete egin beharko luke legegileak, Hezkuntza Sailak. Testu-egileek beraiek ere berraztertu egin beharko lituzkete edukiak eta geure herrira osoki egokitu. Irakasle, guraso eta ikasleek ere badute zer esanik: beren esku dago, azken batean, zein hezkuntza proiektu indartu eta zein baztertu. Zentruak, eskola publiko nahiz pribatuak, konfiantza izan beharko lukete hori beren testuak hautatzerakoan.

G AI NAGUSIA

LORE ERRIONDO
EUSKAL CURRICULUMA?

IMANOL MURUA URIA
LEHEN HEZKUNTZAKO IKASMATERIALARI
GAINBEGIRATUA

ASKOREN ARTEAN
ARGITALETXEEN IRIZPIDEAK

ASKOREN ARTEAN
IRITZI-BILKETA

XABIER ISASI / LORE ERRIONDO
TESTULIBURUAK AUKERAN

EUSKAL CURRICULUMA?

LORE ERRIONDO

Curriculum, E. Becchi-k¹ dioen modura, instituzioen birtartez, gizatalde desberdinek garaian garaiko ezagutza eta ideiak hautatu, antolatu eta transmititzea helburu duen prozesua da.

Hezkuntzaren Erreforma dela-eta indar handiz agertzen zaigu termino hau, behin eta berriz azaltzen baita agindu, txosten, eskakizun bai eta irakasleen prestakuntzarako ikastaroetan ere. Dagoeneko ezaguna egin zaigun Oinarrizko Curriculum Diseinua, Erreformaren planteamendu orokorra besterik ez da.

Hau dela eta, lehenik eta behin eta hasierako errenkadetan aipatu dugun definizioa ahaztu gabe, *curriculum* hitza ager-

tzen denean zer den honekin uler daitekeena argitu nahi genuke. Honela beraz, bi dira hautatutako definizioak: bata, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoan agertzen zaiguna, guztiok eskura duguna alegia, eta bestea, Euskal Autonomi Elkarteko Hezkuntza Sailak egiten duena (Estatuko Hezkuntza Sailaren definizio bera):

Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoan (1993):

curriculum. PEDAG. 1. Hezkuntza-programa. Bertan programaren hezkuntz xedea, xede hori lortzeko beharrezko diren edukin, irakaskuntza-prozedura eta ikaskuntza-esperientziak eta, azkenik, helburuak lortu diren ala ez egiaztatzeko zenbait baliabide zehazten dira.

236/1992 Dekretuan, uztailearen 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena:

Hezkuntz Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren laugarren atalax xedatzen du Gobernuak ezarri behar dituela curriculumaren edo irakaskuntz minimoen oinarritzko aspektuak Estatu osorako, Hezkuntz Administrazio desberdinen eskumena izanik lurralde eremu bakoitzari dagokion curriculumax xedatzea. Halaber, legearen ondorioetarako, curriculumat hartu behar dela, irakaskuntz iharduera erregulatzen duen hezkuntz sistemaren maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitateen helburu, edukin, metodo pedagogiko eta ebaluazio irizpideen multzoa.

Dekretu horretan bertan adierazten denez, ikastetxeek zehaztu eta osatuko dute curriculumax. Horretarako, etapako curriculum-proiektuak landu beharko dira, bertan azaltzen diren helburuak, edukiak, izaera orokorrako irizpide metodologikoak eta ebaluaketa-prozesuari buruzko erabakiak, gizarte, ekonomi eta kultur testuinguruari erantzuteaz gain, ikaslegoaren ezaugarri eta premietara egokitu behar direlarik. Halaber, 12. atalean jasota dagoenez, irakaslegoak ebaluatuko ditu ikasleen ikaskuntzak, irakaskuntza-prozesuak eta bere irakas-jarduna. Aldi berean, ondokoak ere ebaluatu beharko di-

tu: abiarazitako curriculum-proiektua, irakas-programazioa eta curriculumaren garapena, Ikastetxearen hezkuntza-premiei eta ikasleen berariazko ezaugarriei egokitzen ote zaizkion kontuan harturik. Azkenik, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko aldaketak proposatu beharko ditu edo eta erabaki egokiak hartu.

M. Fernandez Enguitak² dioen modura, egun curriculumaz ari garela, ia guztiaz ari gara; hau da, ikastetxean ikaslea ikas-tera eraman dezakeen kontestu oroz, nahiz eta zentzu heretsian edukiaz ari. Hala ere, bere hitzetan, egitarau oro, hautaketa baten ondorioa da eta honexek garamatza ezkutuko curriculuma aipatzera. Baina zer ote da ezkutuko curriculuma? Barton-en³ ustetan ezkutuko curriculuma, agerikoa garatzeko moduari dagokiona da; edota Apple-k⁴ dioen modura, nola azaltzen diren ingurunea eta natura jakintza-arloak, gizarte-gatazka ukatu edo inpizitoki aitortzen ote diren.

Asko dira ezkutuan gelditzen diren gaiak nahiz eta berebiziko garrantzia eduki, hala nola: gizartearen izaera bera, kultura, instituzioak eta hauen betekizuna, errealtate politikoa, estereotipoak, gizatalde edo gizarte-maila jakin batzueganako jarrera eta jokabidea etab. Zenbait eskola-sistemek bere gain hartzen dituzte ardura hauek ageriko curriculumean barnesartuz, baina agerian edo ezkutuan egon, argi dagoena da aipatutakoak jaso egiten dituela ikasleak.

Hezkuntzaren Erreforma lantzen hasten denean, argi gertatzen da Delval-ek⁶ dioen modura:

El Ministerio especifica que se trata de una Reforma abierta, que tiene que ser concretada por los distintos agentes e instancias que participan en la educación, desde las autoridades educativas de las Comunidades Autónomas, hasta los centros o los profesores.

Honela beraz, Erreforma indarrean jartzeko Estatuak markatzen ditu ildo nagusiak eta ondoren autonomi elkarte bakoitzak berea egin behar du dagozkion egokitzapenen bitartez. Hala ere, beste hau ere badio autore berak⁶:

Se señala que el currículum tiene un grado máximo de apertura y flexibilidad, que tiene un carácter orientador, pero que tiene igualmente un carácter prescriptivo. Ambas cosas suelen entenderse como incompatibles: o se orienta y se deja que uno elija, o se dice lo que hay que hacer y se prescribe.

Hemendik aurrera, Euskal Autonomi Elkarteko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Oinarrizko Curriculum Diseinuen azterketa kritikoa egingo dugu, agerian zein ezkutuan dagoena azalaraziz. Garrantzitsua iruditu zaigu legearen azterketa egitea, izan ere berak markatzen baitu derrigortasuna. Honekin batera Kataluniako egokitzapena ere aztertuko dugu, bertakoarekin erkaketak egin asmoz eta era berean, oraindik are egoera okerragoa duen Ipar Euskal Herria aipatzearen, Frantziako hezkuntzako legezdiaren aipamena ere ekartzen dugu.

HIZKUNTZA

Xedapen orokorretatik hasita, ikus dezagun Katalunian egiten duten zehaztapena, hizkuntza dela eta:

Decret 75/1992, de 9 de març, pel qual s'estableix l'ordenació general dels ensenyaments de l'educació infantil, l'educació primària i l'educació secundària obligatòria a Catalunya.

Decreto. Capítol 1. Disposicions generals. Article 3:

3.1. El català, com a llengua pròpia de Catalunya, ho és també de l'ensenyament. S'utilitzarà normalment com a llengua vehicular i d'aprenentatge de l'educació infantil, de l'educació primària i de l'educació secundària obligatòria. (9. or.)

Hau da, Kataluniako jatorrizko hizkuntza katalanera denez, berau izango da eskola- eta irakaskuntza-hizkuntza.

Kataluniako egokitzapenean hastapenetatik honelako zehaztapenak egiten dituztela ikusirik, zentzuzkoa litzateke bertakoan ere honelakorik irakur ahal izatea, baina ez dugu antzekorik topatzen Euskal Autonomi Elkartekoan, izan ere oraindik inda-

rrean dauden hizkuntz ereduak aipatu besterik ez baitu egiten, inolaz ere ez delarik hurbiltzen «Euskal Herriko hizkuntza euskara denez, hau izango da era berean eskola- eta irakaskuntza-hizkuntza» esatera. Honen ordeez, hau da aurki dezakeguna:

236/1992 Dekretua, uztailaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Haur Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena.

Gure gizarteak bere burua elebiduntzat definitu du. Horren ondorioz, gure Hezkuntz Sistemaren funtsezko ezaugarria interbenzio elebiduneko eskola espazioaren itxuraketa da, eskolatze lehen mailatan garrantzi berezia duelarik, hizkuntzak azkar ikasteko neska-mutilen plastizitate eta harrera dela medio.

Zer dela eta elebitasuna aldarrikatu behar hau? Zein gizartek definitu du bere burua elebiduntzat? Non agertzen da definitzio hori? Argi dagoen gauza bakarra da euskal gizartean badaudela euskaldun direnak eta ez direnak, azken hauek hizkuntzen arteko ukipen egoera dela eta, euskara gutxiagotua izateagatik; baina Katalunian ez bezala, eskola-hizkuntza baten aldarrikapen naturala egin beharrean (kasuan kasuko salbuespen guztiak kontuan harturik noski), gure burua elebiduntzat definitzen omen dugu. Eta hizkuntza gutxiagotuaren (euskara) berreskuraketa-prozesuari ekin beharrean, ikastetxe eta bertako irakaslegoaren borondateari lotzen zaio honako hau.

Nafarnako egoera are okerragoa da, izan ere, euskara eman daitekeen lurraldea bera mugatu egiten baitute «Euskararen Legea» delakoan eta euskaldun bezala difinitutako eremuetan besterik ez daiteke eman Euskal Autonomi Elkartearen egoera elebiduna.

Egoera txarretik okerragoa jotzerik badago oraindik; izan ere, Ipar Euskal Herrian gertatzen denari so eginez, bertan, Frantziako Gobernuak hezkuntza eta hizkuntza arautzen dituztenean oso argi uzten baitu Frantziako kultura eta hizkuntza bakarra frantsesa dela eta bestelakoak etorkinenak direla; ez dutela beraz euskarak eta antzekoek izaterik ere.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak eskolarako ezarritako helburuei kasu eginez, bere hirugarren ataleko bigarren

f) puntuan, hurrek, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean, bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela adierazi da eta, jarraian dio, «euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz».

Hori horrela, lege hauen testuetan irakur daitekeenez, euskarak gazteleraren maila bera lor lezake baina inoiz ez gehiago. Azkenengo dekretuetan euskara aipatzen denean gaztele-
ra ere aipatzen da, baina euskararenak dira gero gehien eta zorrotzen arautzen direnak. Esaterako, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean, euskarari idazpuru oso bat eskaintzen zaio baina honela zehazten da: «euskara ta gaztelania *nahitaez* sartuko dira Euskal Eskola Publikoan...». (18. Atala, geronek azpimarratuta).

Aurreko horrek, nonbait, balio lezake euskara eta euskarazko irakaskuntza erdaldunen artean zabaltzeko baina, aldi berean, gazteleraren irakaskuntza izanik errealitateak euskaldunen artean ezartzen duena eta ez alderantziz.

Izan ere, gazteleraren irakaskuntza arautu behar ez den bezala, berez ematen delako, «Jaurlearitzak, hizkuntz ereduaren eskaintzaren plangintza zehazteko oinarritzko irizpideak arautuko ditu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak *gurasoen edo tutoreen nahia eta zonaldearen gizarte eta hizkuntza-egoera kontutan izanik*, ikastetxe bakoitzean eman beharreko hizkuntz ereduak izendatuko ditu». (21. Atala, guk azpimarraturik).

Gerta liteke beraz, gehiengoaren eta berdintasunaren ize-nean, euskara eskolatik kanpo gelditzea. Hau al da ikastetxe-ko euskararen normalkuntzarako plangintza?

Oro har, jatorrizko euskaldunak derrigorrez elebidundu behar diren bitartean jatorrizko erdaldunak, inguru erabat euskaldunetakoak ez beste, ez dute halakorik egin beharrik. Horrela, Hezkuntza Sistemaren bidez ingurune erdaldunetakoak ez dira euskalduntzen eta, nola gehiengoa erdalduna den, euskarak ez du Hezkuntza Sistemaren sarbiderik eta Hezkuntza Sistemaren bitartez nekez euskaldun daitezke zonalde erdaldunak, eta nola gehiengoa erdalduna den... Gurpila zoroa!

Antzerako moduan, Lehen Hezkuntzako Curriculumua ezartzen duen Dekretuan ere agertzen zaigu lehentxoago aipatutako elebitasuna, hizkuntza desberdinen tratamendu berdinarekin bitartez ziurtatzen omen delarik hizkuntza desberdinen jabetza, hizkuntza desberdinak berdinak bailiran, egoera eta estatus berarekin:

237/1992 Dekretua Abuztuaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Lehen Hezkuntzako Curriculumua ezartzen duena.

Lehen Hezkuntza 6 urtetatik 12 urtetara doa eta derrigorrezko hezkuntzaren oinarritzako etapa da.

4. Atala.- ... Gaitasun hauek gara ditzaten lagunduko die:

g) g.1. Euskaraz eta erdarazko ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertu eta ematea, asmo eta komunikazio testuinguru desberdinetan.

g.2. Hizkuntza atzeritar batean, testuinguru jakin bateko ahozko eta idatzizko mezu errazak ulertu eta ematea.

Hizkuntzaren trataeran autore ospetsu baten ideiak darabiltzate, Jim Cummins-enak alegia, baina ahaztu egiten zaie autoren erreak berak egiten duen zehaztapen bat aipatzea; hau da: beti ere hizkuntza hauek ez badaude ukipen-egoeran nagusitasun/menpeko estatusetan. Honela izatekotan, haurra elebiduntzea nahi badugu behintzat, gutxitutako hizkuntzan eskolatu behar da haurra (murgiltze bidez haur erdaldunak eta hizkuntza gutxituan, euskaraz, euskaldunak).

Ez zaie baina beste zehaztapen bat egitea ahazten, irakurketa-idazketa ikaskuntzarako hizkuntzarena. Ikus:

237/1992 Dekretua Abuztuaren 11koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Lehen Hezkuntzako Curriculumua ezartzen duena. Lehen Hezkuntzaren curriculumaren garapen dekretuaren I eranskina. Etapako orientabide orokorrak:

b) irakaskuntz-ikaskuntzarako eta ebaluaziorako irizpideak.

Lehen Hezkuntzan zeharreko Hizkuntz trataera egokirako irakasle-taldeak, Ikastetxeko hizkuntz-eredu/aukerak eta Haur Hezkuntzan jarraitutako eskola ibilbidea kontutan hartuz, etapan zehar jarraitu beharreko prozesuari buruzko erabakiak hartu be-

harko ditu: hizkuntz bakoitzaren presentzia eta aurrerapena bitarteko arloak, lehenetasunezko metodologi ihardunbideak, bultzatuko diren oinarritzko erabilera moduak... Garrantzi berezia hartzen du irakurketa-idazketaren ikaskuntzarako erabiliko den hizkuntzara pasatzeko era eta momentuak, baita etapa honetan zehar hirugarren hizkuntz baten ezarpenak. Ahozko hizkuntza eta hizkuntz idatziaren arteko harreman estua kontutan izanik, irakurketa-idazketaren ikaskuntzari nahiz euskaraz nahiz gaztelera ekin ahal izango zaio, beti ere hizkuntza bakoitzaren aurretiko ezaugupe- nek hori egitea ahalbidetzen badute.

Zehaztapenekin aurrera jarraituz, ondoren ikus dezakegun bezala, euskara eta gaztelera arteko balizko berdintasuna aipatzen jarraitzen da (hau da, zenbait kasutan euskarak gaztelera maila bera izan dezake baldin eta ikastetxearen boro n- dateak eraginda, eta Gobernuak onartuz gero beti ere, honela bultzatzen bada) baina ikus dezagun Helburu Orokorren hirugarren puntuak, euskarazko eta gaztelera bertsioetan esaten dena ez dela gauza bera batetik, eta bestetik, berdintasun- egoera honen desberdintasun nabarmena: euskara aipatzen de- nean ez-ohizkoa den fenomeno modura, eta «errespeto» eta «ber- dintasunaren» izenean, gertakizun kultural aberasgarri modu- ra hartu behar dena. Ez al da gutxienik kezagarria? Hara:

2. Helburu orokorrak.

Lehen Hezkuntzan Gaztelania eta Euskararen irakaskuntzaren helburua, ikasleengan ondoren zerrendatzen diren gaitasunak garatzen laguntzea da. Hizkuntza bakoitzean helburu hauen lor- tze maila noski, ikasleak hasiera batean duen hizkuntz egoera eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntz aukeren arabera desberdina izango da.

3. Estatu Espainiarraren eta gizartearen aniztasun linguistikoaz jabetzea, bere existentzia kultur gertakari aberasgarri gisa balo- ratuz.

3. Reconocer y apreciar la diversidad lingüística en la sociedad, en el Estado español y en la zona de influencia del euskera, valo- rando su existencia como un hecho cultural enriquecedor.

«Berdintasun» egoera honetan berriz ere argi gera dadin «berdin» egiten gaituena, gaztelera dela.

Hezkuntzaren planifikazioa, hizkuntzarena bezala, helburu jakin batzuen arabera gauzatu beharra dago. Hitzetik hortzera aipatzen den gizarte «elebiduna» ez dago lortzerik norabide horretarako helburuak finkatzen ez badira; argi esanda, *Euskal Herriko Hezkuntz Sistemaren helburutariko bat edozein ikastetxetan Lehen Hezkuntzaren amaierarako euskarazko gaitasuna lortzea da*, eta ez besterik, zeren eta hizkuntza jakin baten biziraupena ez baitago, ezin sekula izan, norbanakoaren esku.

NORTASUNA

Hizkuntzaren atalean egin bezala, Kataluniako egokitzapenaren aipamen batekin emango diogu atal honi hasiera:

Decret 95/1992, de 28 d'abril, pel qual s'estableix l'ordenació curricular de l'educació primària.

... A Catalunya, l'escola ha de ser l'espai on l'alumne adquireixi els senyals d'identitat nacional propis de la nostra personalitat col·lectiva: la història, la cultura, el patrimoni, les tradicions i, sobretot, la llengua pròpia han de ser-hi presents de manera fonamental per tal de desenvolupar la comunicació i l'expressió, el sentiment de pertinença i estimació al país, la relació amb l'entorn, l'obertura al món i la iniciació a participar en la societat que els envolta.

Decreto. Article 2:

2.9. Conèixer els trets fonamentals de Catalunya en els eus aspectes naturals, socials, culturals i històrics, en tant que medi definidor de la identitat nacional i personal i progressar en el sentiment de pertinença al país.

2.13. Conèixer i gaudir del patrimoni cultural, participar en la seva conservació y respectar la diversitat lingüística i cultural des pobles i les persones.

Oraingo honetan ere argitasuna dugu nagusi Katalunian, bertako biztanleak, katalandartzat hartu behar dute beraien burua, eta eskolak badu zereginik identifikazio-prozesu honetan. Honen antzerako aipamenak egiten dituzte Estatu guztiek jakin badakitelako Hezkuntza Sistema tresna boteretsua dela kultur eta nazio identifikazioa, besteak beste, transmititzeko.

A rgi ikus genezake Ipar Euskal Herrikoa arautzen duen Frantziako legedian:

Programmes et instructions pour l'école élémentaire (1985). Histoire et géographie. 1. Nature et objectifs.

C'est à l'histoire et à la géographie qu'il appartient de les fournir, et de le conduire, par transitions mesurées, à une compréhension organisée du monde et de la société. Pour cela, cet enseignement lui donne, en petit nombre, des connaissances claires et précises sur l'histoire et la géographie de la France, située dans l'Europe et dans l'ensemble des nations. La connaissance de notre héritage historique, l'assimilation du patrimoine politique et culturel de la France, la découverte des richesses de notre peuple et de notre pays sont indispensables à la formation du citoyen français. L'histoire et la géographie participent à l'apparition chez l'élève de la conscience nationale; il peut ainsi apprécier l'apport des autres cultures, qu'il découvre par l'étude, le voyage ou la fréquentation des communautés immigrées. (113. or.)

Ez dago argiago azaltzerik. Ez dute inolako oztoporik, edozein gizarte normalizatuan gertatzen den modura, beraien kultura eta nazioa aldarrikatzeko eta eskolaren ardura azpimarratzeko haurraren gizarteratzean eta kontzientzia nazionala duen frantses hiritarraren prestakuntzan. Berezkoa zaie beraz, berezkoa dena. Ez dute baina inolaz ere onartzen beraien artean beste kulturarik egon daitekeenik eta lehentxoago aipatu bezala, beraien hitzetan hurrek beste kulturak ezagutzeko bideak, bidaiak edota etorkinekin dituzten harremanak izango dira.

Nahiz eta Ipar Euskal Herrian ere poliki-poliki urratsak ematen hasiak izan (ikastolak, euskararen eta eredu elebidunen sarrera ikastetxe publikoetan, euskaraz azterketaren bat edo beste egiteko aukera, irakaslegoaren prestakuntzarako ustez burutu daitekeen hitzarmena...) oraindik ere argi dago utzi egiten zaigulako dela; hau da, legean ez da inola ere arautzen ez eta inolako aipamenik ere egiten eta frantziar Estatuak zenbait ekimen ez ditu oztopatzen eta ez besterik. Honetara mugatzen da beraien eskuzabalkeria eta euskal kulturarenganako laguntza eta begirune guztia.

Ikusi ahal izan dugunez, ingurunearen arloari lotuta agertzen dira gehienetan kultur eta nazio-identifikazio aipamenak. Azter dezagun beraz Euskal Autonomi Elkarteko Oinarrizko Curriculum Diseinuaren Inguruaren Ezaguera arloa. Lehenik eta behin, ingurunea kontzeptuaren definizioa agertzen zaigu:

Inguruaren Ezaguera. I.Sarrera. 1. Ingurunea. Kontzeptua:

— Ingurunea, pertsonen iharduerak ematen diren testuingurua osatzen duten elementu, faktore edota gertaera desberdinen multzoa da. (11. or.)

— Ingurunea, beraz, pertsonak, animaliek, landareek, elementu fisikoek, erliebeak, klimak, gizakiak burutu obra eta eraikuntzek, masa komunikabideek, ekandu eta ohitura sozialek... osatzen dute. Azken batean, ingurunea «osotasun» bat da, elementu elkarlotu eta elkardependenteen multzo konplexu bat. (11. or.)

— Proposatzen diren ikasketak, esanguratsuak izateko, ezaguera esperientzian eta bizi izandako ezagueratik abiatu ohi dira, eta arian-arian ezagueraren zirkuluak hedatuz joan ohi dira espazio eta denboran gero eta zabalago, konplexuago eta urrunagoak diren errealitate natural, sozial eta kulturalaren espektuak besarkatzen heldu arte. Ezaguera hori gero eta objektiboagoa, arrazionalagoa eta konpartituagoa izango da talde sozialeko partaideen aldetik. (12. or.)

Definizio honetan agertzen den bezala, bertatik abiatuz, nor garen ezagutuz, mundura zabal gaitzke, baina egokitzapena izanik, harrigarria gertatzen zaigu zehaztapenik eza, *euskaldun*arena alegia. Jarrai dezagun:

Inguruaren Ezaguera. 3. Curriculumaren iturriak eta arloen funtsaketa:

— Iturri soziologikoak: ... ingurunean existitzen den kultura, eskolak transmititu behar duela, eta ondorioz, arlo guztietako curriculumean funtsezko edukin bezala behar du inkorporatua izan. (13. or.)

— Iturri pedagogikoak: Lehen Hezkuntzaren hezkuntz helburuen artean, besteak beste, honako hauek nabarmenduko ditugu: ekintza-autonomiaren garapena ingurunean, oinarrizko tresnen sozializazio eta lorpena hala nola gaitasun komunikatiboa, ingurunean in-

tegratzeko gaitasuna zein era aktibo eta kritiko batez parte hartze-ko gaitasuna, eta kulturarekiko identifikazioa eta indibidualki zein kolektiboki, inguruneko bizitza sozialean parte hartzea... (13. or.)

Agertzen dira bai agertu ere kultur identifikazioaren ideia, eskolak transmititu behar duen kultura ingurunean ematen dena dela, bizitza sozialean parte hartzearena etab. baina zergatik ez zaizkio izen abizenak jartzen? Euskal kulturaz ari ote da? Gerta ote liteke inguru horretako kultura beste bat izatea? Hala izatekotan beste kultura hori al litzateke eskolak transmititu beharrekoa? Hala balitz ere, non zehazten da kultura hau, nola antzeman dezakegu, nola bereganatu haurrek...? Ez al dira galdera gehiegitxo arautegi bidez gauzak finkatu eta zehazteko helburua (beti ere irekitasunean eta begirunean bai eta aniztasunean ere) duen oinarrizko edukiak markatzen dituen curriculum-diseinuari egin beharrekoak?

Behin baina aipatzen da azken pasartean Euskal Komunitate Autonomoa, Estatu Espainiarra eta Europako Elkartearen maila berean eta antzerako identifikazioaz. Ez dirudi Euskal Herria denik ere, ez eta euskaldunak ere, badirudi apropos daudela hiztegian ezabaturik, nola liteke bestela halako aipamen gutxi agertzea?

Inguruaren Ezaguera. 3. Curriculumaren iturriak eta arloen funtsaketa:

— Ikasleengan berauek partaide diren eta erreferentzia gisa dituzten talde sozialekiko identifikazioaren garapena; aipatu identifikazio hau, familia eta eskolatik abiatuz, Euskal Komunitate Autonomoa, Estatu Espainiarra eta Europako Elkartea bezalako kolektibitate edo taldeetara heldu arte era konzentriko batez zabalduz doazen zirkuluetan burutzen da. (14. or.)

Beha dezagun azkenik zer den arlo honetan Katalunian arautzen dena:

Annex. Curriculum de l'Educació Primària. Àrea de Coneixement del Medi Social i Cultural.

La finalitat de l'ensenyament del coneixement del medi social i cultural, especialment de la geografia i de la història, és potenciar

en l'individu unes determinades capacitats intel·lectuals, formar-lo en una sèrie de coneixements, habilitats i actituds, perquè pugui comprendre millor la societat i el món d'avui i pugui accedir-hi amb maduresa i responsabilitat. Aquesta finalitat principal ha d'anar acompanyada de components sociabilitzadors, i d'aprenentatges d'hàbits democràtics i de la consciència de pertinença a la societat i nacionalitat catalanes en una perspectiva humanista i universal.

Objectius generals.

7. Reconèixer i explicar esdeveniments, llocs, símbols, monuments, personatges, institucions del passat i del present, definidors de la geografia, la història de Catalunya i de la seva realitat social, territorial i nacional que li permetin progressar en el sentiment de pertinença al país.

Continguts.

2.3. Sistemes naturals i sistemes humans a Catalunya.

2.4. La població. L'organització territorial i la població a Catalunya.

2.5.* La jerarquia religiosa i la distribució territorial a Catalunya.

3.1. L'agricultura i les activitats primàries, la indústria i les activitats secundàries, els serveis i les activitats terciàries. Activitats econòmiques de Catalunya i d'Espanya.

3.5.* La influència del fet religiós en l'organització de la vida social i econòmica a Catalunya.

4.1. Símbols d'identitat cultural i nacional de Catalunya.

4.3. Organització política del municipi, de Catalunya i d'Espanya.

4.6.* L'art religiós a Catalunya.

5.3. Fets i persones rellevants en la història de Catalunya i d'Espanya.

5.5.* La influència del fet religiós en alguns esdeveniments de la història de Catalunya.

3.1. Sentiment de pertinença a Catalunya.

Objectius terminals.

13. Identificar les principals unitats de relleu de Catalunya, les característiques de les costes, del clima i la xarxa hidrogràfica, de la vegetació i la fauna.

19. Indicar les principals característiques de l'agricultura, la ramaderia, la pesca i d'altres activitats primàries a Catalunya.
20. Identificar i classificar els diferents tipus de fonts energètiques i saber l'origen de l'energia que es consumeix a Catalunya.
21. Indicar els principals tipus i característiques d'indústries existents a Catalunya.
22. Distingir diferents tipus de paisatges agro-pecuaris, industrials i terciaritzats de Catalunya, Espanya, l'àrea mediterrània i Europa.
23. Situar activitats econòmiques de Catalunya dins el conjunt d'Espanya, les Comunitats Europees i el món.
24. Situar en els mapes el territori de Catalunya i aquells territoris que per causa de la llengua, els símbols o la història han tingut una estreta relació amb Catalunya.
27. Indicar alguns trets de les formes de vida a Catalunya durant la Prehistòria, reconèixer algunes característiques de la romanització i identificar els principals elements de l'herència romana.
28. Identificar algunes de les característiques de la civilització islàmica a la Catalunya Nova, València i Mallorca i de la cultura hebraica a les nostres terres.
29. Situar la formació de la nació catalana en l'Alta Edat Mitjana i a partir de la Marca Carolíngia i conèixer alguns trets de la vida als castells i als monestirs i alguns personatges importants d'aquest període.
30. Indicar alguns trets de la vida a les ciutats i del gran desenvolupament del comerç a la Baixa Edat Mitjana a Catalunya.
31. Indicar fets i personatges importants del període on es va produir la Guerra dels Segadors i la Guerra de Successió i conseqüències per a Catalunya d'ambdós conflictes.
32. Indicar fases, fets i personatges inculats amb el període de modernització i industrialització de Catalunya durant els segles XIX i XX.
33. Situar alguns fets relacionats amb la història recent de Catalunya: la Generalitat, la República, la Guerra Civil, el Franquisme, la restauració de la Generalitat, i identificar alguns personatges rellevants institucionals relacionants amb el període.
34. Conèixer els principals esdeveniments històrics d'Espanya i del món i relacionar-hi els propis de Catalunya.

38. Identificar i respectar els símbols nacionals i les institucions de Catalunya, els d'Espanya, i els d'altres nacions i pobles.

48.* Relacionar fets religiosos amb determinades organitzacions socials i econòmiques que s'han produït al llarg de la història de Catalunya.

54.* Indicar les relacions i influències de la religió en l'origen d'alguns esdeveniments històrics a Catalunya i les seves conseqüències.

Honi, atalaren hasieran aipatutakoa gehitzen badiogu, zalan-tza gutxi izan ditzakegu transmititu beharreko kultura dela eta. Baina ildo bera da jakintza-alor guztietan agertzen dena Katalu-niako egokitzapenean. Begira bestela musika- eta plastika-adie-razpen arloetako Haur Hezkuntzako egokitzapenak dioena:

Area 3: Intercomunicacio i llenguatges. Llenguatge musical. Proce-diments. Continguts i objectius terminals.

2.3. Memoritzar algunes cançons i danses pròpies de Catalunya seleccionades o adaptades.

1.5. Mostrar interès per les manifestacions musicals pròpis de la cultura catalana.

Llenguatge plàstic.

1.3. Reconèixer les obres d'interès artístic presents en el propi entorn i algunes de les més significatives de Catalunya.

Erlijioan ere kultur eta nazio-identifikazio argia nabari du-gu ziklo bereko arautegian:

Area 4: Religió. Religió catòlica (Currículum proposat pels bisbes de les diòcesis de Catalunya).

... Ahora, l'infant, quan neix, rep una herència sociocultural cons-tituïda per factors que s'han anat construint en un llarg procés sò-cio-històric d'intercanvi entre la humanitat i el medi; en el nostre cas: creences, tradicions, art, testimonis... L'educació de l'infant no pot prescindir d'aquest fet. Concretament, es tracta d'iniciar-lo al descobriment del fet religiós a Catalunya, especialment de la tradició catòlica, en el marc de la cultura mediterrània.

Inguru naturalean ere present dute nondik abiatzen diren, zer diren, zer den hastapenean ezagutu behar dutena beraz:

Area de Coneixement del Medi. El Medi Natural.

10. Conèixer les principals riqueses i mancances de l'entorn natural, especialment de Catalunya. Adquirir actituds de respecte, conservació i aprofitament dels recursos humans, naturals i tècnics.

31. Enumerar algunes espècies protegides a Catalunya i la situació dels parcs naturals del nostre país.

Ez dago inolako modu berezian aztertu beharrik ez eta irakurketa sakonik egin beharrik ere, Euskal Autonomi Elkartekoa (eta Nafarroakoa antzera) baino askoz ere urrutirago doala ikusteko. Hasteko Katalunia, herria, nazioa, bertako kultura, etab. zenbatetan aipatzen diren kontuan hartu eta Euskal Herria, euskara, euskal kultura, euskalduna... zenbatu ondoren erkatuko bagenitu inolako antzarik ez lukete elkarren artean.

Honetaz gainera, Kataluniakoan, jakintza-arlo bakoitzean zehaztasun osoz adierazten du herria eta kulturarekiko identifikazio-bidea. Ez dago zalantzetarako lekurik, baina hau dela medio ez du gainerako autonomi elkarteetakoek, Estatukoak barne, baino begirune, aniztasun edo berdintasun gutxiago adierazten. Argiagoa bai, dudarik ez dago irizpide argiak direla dituztenak eta garrantzitsua eta eskolaren betekizuna dena uste duten hori ez dutela inoren borondatepean uzten. Jakina, katalandarrak, agerian dagoenez, gu baino askoz demokratikoagoak eta unibertsalagoak dira.

Izan ere eta beraiek egiten dituzten aipamen eta zehaztasunak zuzenak eta baliagarriak direla uste baldin badugu herri baten kulturaren biziraupenerako eta bertako herritarrak non goak diren eta berea dena zer den jakiteko, zer dela eta ez dugu guk ere honen antzera arautzen? Aukerak, beraienak bezalakoak dira gureak ere pentsatzerik legoke nonbait. Zergatik uzten dugu bada aukera hau ikastetxearen edota irakasleren baten borondatearen esku? Argi baino argiago dago beraz maila honetan orokorrean Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe guztiek beraien ikasleak gizarteratzerakoan ingurunearekin eta Euskal Herriarekiko duten ardura eta betebeharra: *hutsaren hurrena*.

Izan ere, ez bada bertakoa aipatzen, honek ez du esan nahi beste eredu batzuk ez direnik azaltzen eta bertakoa ere ez denik munduan modu jakin batean kokatzen. Beraz egiten da egin aukeraketa. Honela dio Swaan-ek⁷:

Los educadores de todo el mundo intentan inculcar a sus alumnos los conceptos del bien y del mal, de los derechos y las obligaciones, implícitamente a través de una «pedagogía oculta» y explícitamente mediante clases de religión e ideología.

Hau adierazi nahi dugu beraz behin eta berriz aipatzen dugunean arautegian zehazten ez dena ikastetxeak edota irakasleagoak egin behar izaten duela, bere eginbeharra delako eta egunerko lanak eskatzen diolako. Hau bera, norbanako batzuen borondatea aipatzen dugunean. Aditu guztiek onartzen duten ideia berau azpimarratzen du Ana Sacristán-ek⁸ ere:

Resulta evidente, como se ha dicho hasta la saciedad, que la escuela es una de las instituciones básicas de socialización, por cuanto transmite determinados significados, valores, normas, etc. que los niños y las niñas interiorizan como pautas o marcos legítimos para gobernar su propia conducta y su pensamiento; muy pocos pueden eludir una presencia continuada en las aulas a lo largo de muchos años de su vida.

Nongo curriculuma da beraz Hezkuntzaren Erreformarekin batera Euskal Herriko ikastetxeetan eskolatutako haurrek jasotzen ari direna?

1. Becchi, E. (1994): «Le curriculum. D'un point de vue didactique à une perspective historique». *Histoire de l'Education*, 61. zenbakia, 61-73.
2. Fernandez Enguita, M. (1990): «Reforma y Curriculum». *Acción educativa*, 63. zenbakia, 23-27.
3. Barton, L.; Meigham, R. eta Walker, S. (Arg.) (1980): *Schooling, Ideology and Curriculum*. Barcombe, England, The Falmer Press. 163. or.
4. Apple, M. (1979): *Ideology and Curriculum*. London, Routledge and Kegan Paul.
5. Delval, J. (1990): «La Reforma de las Palabras». *Cuadernos de Pedagogía*, 182. zenbakia, 75. or.
6. Delval, J. (1990): «La Reforma de las Palabras». *Cuadernos de Pedagogía*, 182. zenbakia, 75. or.
7. Swaan, A. d. (1991): «El curriculum elemental como código nacional de comunicación». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 208. or.
8. Sacristán Lucas, A. (1991): «El curriculum oculto en los textos: una perspectiva semiótica». *Revista de Educación*, 296. zenbakia, 245. or.

Bibliografia

- Aierbe Etxeberria, P. (1990): «Hizkuntzaren Ikuspegia Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean». *Isilik* 12. zenbakia, 40-45.
- Aierbe Etxeberria, P. (1990): «Oinarrizko Kurrikulum-Diseinua». *Isilik*, 12. zenbakia, 21-26.
- Aierbe, P.; Garagorri, X. *Hezkuntzaren berrikuntza eta erreforma. Curriculum eta antolamenduko alderdiak*. Servicio editorial Universidad del País Vasco.
- Alonso, I. (1984): «Nuevos pasos en el desencantamiento: La sociología del currículum». *Infancia y Aprendizaje*, 25. zenbakia, 115-130.
- Apple, M. W. (1989): *Maestros y textos*. Paidós-MEC. Barcelona.
- Apple, M. W. (1993): «El libro de texto y la política cultural». *Revista de Educación*, 301. zenbakia, 109-127.
- Arano, R. M.; Larringan, L. M.; Ocio, B. (1987): «Azalpen teorikorako eskola liburuak eta testu ereduak». *II. Mundu Biltzarra. Euskara*.
- Baqués, M.-C. (1994): «Les effets d'un enseignement culturel en histoire». *Revue Française de Pédagogie*, 106. zenbakia, 55-65.
- Becchi, E. (1994): «Le curriculum. D'un point de vue didactique à une perspective historique». *Histoire de l'Éducation*, 61. zenbakia, 61-73.
- Benavot, A.; Cha, Y.-K.; Kamens, D.; Meyer, J. W.; Wong, S.-Y. (1991): «El conocimiento para las masas. Modelos mundiales y curricula nacionales». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 317-345.
- Bozal, V. (1991): «Las imágenes de la enseñanza. La enseñanza de la imagen». *Revista de Educación*, 296. zenbakia, 217-245.
- Carmena, G.; Egido, I.; Delgado, M. (1991): «Política curricular y descentralización administrativa. Estudio de seis países». *Revista de Educación*, 296. zenbakia, 329-349.
- Catalunya., G. d.; d'Ensenyament, D. (1992): *Educació infantil i educació primària: ordenació curricular*. Servei de Difusió i Edicions. Barcelona.
- Catalunya., G. d.; d'Ensenyament, D. (1992): *Educació secundària obligatòria: ordenació curricular*. Servei de Difusió i Edicions. Barcelona.
- Chartier, R. (1995): «Médiologie, sociologie des textes et histoire du livre». *Le Débat*, 85. zenbakia, 17-22.
- Chervel, A. (1991): «Historia de las disciplinas escolares. Reflexiones sobre un campo de investigación». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 59-113.
- Delval, J. (1990): «La Reforma de las Palabras». *Cuadernos de Pedagogía*, 182. zenbakia, 75-80.
- Englund, T. (1991): «Replanteamiento de la historia del currículum. Hacia una nueva orientación teórica». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 113-133.
- Erriondo, L. (1994): «Euskal curriculum?». *U.E.U. Pedagogia Saila. Euskal Curriculum*. Iruñea.
- Etxeberria, F. (1990): «Euskal Curriculum berezia». *Tantak*, 4. zenbakia, 73-87.
- Fernandez Enguita, M. (1990): «Reforma y Curriculum». *Acción educativa*, 63. zenbakia, 23-27.
- Fernández Huerta, J. (1966): «Comparación multivariada de los textos escolares». *Perspectivas Pedagógicas*, 18. zenbakia, 213-226.
- Fierro Bardaji, A. (1993): «Los libros escolares». *Infancia y Sociedad*, 21-22. zenbakia, 33-53.
- García Arto, F. (1995): «Guía para la evaluación de materiales curriculares impresos». *Aula de Innovación Educativa*, 40-41. zenbakia, 77-81.
- García Márquez, N. (1990): «El Curriculum como herramienta». *Acción educativa*, 61. zenbakia, 5-9.
- García, M. (1962): «El libro de texto en medio siglo de legislación sobre Bachillerato en España (1900-1950)». *Bordón*, 14, 105. zenbakia, 15-31.
- Gimeno Sacristán, J. (1988): *El currículum: una reflexión sobre la práctica*. Morata. Madrid.
- Goodson, I. F. (1991): «La construcción social del currículum. Posibilidades y ámbitos de investigación de la historia del currículum». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 7-39.
- Hamilton, D. (1991): «Orígenes de los términos educativos 'clase' y 'currículum'». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 187-207.
- Hopmann, S. (1991): «El movimiento de enseñanza mutua y el desarrollo de la administración curricular: enfoque comparado». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 291-317.

- Hopmann, S. (1991): «Las múltiples realidades de la elaboración de la política curricular». *Revista de Educación*, 296. zenbakia, 43-73.
- Jaurilaritza, E. (1992): *CEL. IDC. Curriculum Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Jaurilaritza, E. (1992): *Oinarriko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Etaparako Sarrera. Zehar-Lerroak. Gaztelania eta Euskara. Atzerriko Hizkuntzak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Bilbo.
- Jaurilaritza, E. (1993): *Haur eta lehen hezkuntzako etapetako curriculum-egokitzapenak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Jaurilaritza, E. (1993): *Haur hezkuntzan ebaluaketa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Jaurilaritza, E. (1993): *Lehen Hezkuntzan Ebaluaketa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Jaurilaritza, E. (1993): *PEI Erreformatarako Ikastetxeko Prestakuntza Egitamu Intentsiboa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Jaurilaritza, E. (1994): *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Curriculum garapenerako dekretua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- Jaurilaritza, E. (1992): *Oinarriko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza. Inguruaren ezaguera. Matematika. Gorputz Hezkuntza. Arte Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Bilbo.
- Llavador, F. B. (1992): «La reforma del currículo». *Revista de Educación*, extra zenbakia, 193-290.
- López Atxurra, R. (1994): «Las instituciones forales en los libros de texto. La Historia como medio para una educación en la cultura política y participativa». *Príncipe de Viana*, 201. zenbakia, 59-89.
- Lopez Mojarro, M. (1991): «Evaluación en el área matemática. El marco teórico». *Acción educativa*, 65. zenbakia, 5-15.
- Lucas, A. S. (1991): «El curriculum oculto en los textos: una perspectiva semiótica». *Revista de Educación*, 296. zenbakia, 245-263.
- Mascaró Florit, J. (1955): «Una breve defensa». *Cuadernos de Pedagogía*, 235. zenbakia, 66-68.
- Miret, I. ; eta Reyzabal, M. V. (1990): «La propuesta». *Cuadernos de Pedagogía*, 181. zenbakia, 8-12.
- Miret, I., eta Reyzabal, M. V. (1990): «Metodología y secuenciación de contenidos». *Cuadernos de Pedagogía*, 181. zenbakia, 24-27.
- Nafarroako Gobernua eta Hezkuntza eta Kultura Departamentua. (1992): *Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntza Kurrikulo-Dekretua*. Nafarroako Gobernua.
- Perez Gomez, A. I. (1990): «La formación del profesor y la Reforma educativa». *Cuadernos de Pedagogía*, 181. zenbakia, 84-87.
- Remacha, J. A. (1990): «Consideraciones en torno al proceso aprendizaje-enseñanza de la lengua (primaria I)». *Acción educativa*, 63. zenbakia, 27-31.
- Remacha, J. A. (1991): «Consideraciones en torno al aprendizaje-enseñanza de la lengua (Primaria II)». *Acción educativa*, 67. zenbakia, 5-9.
- Rodriguez Bornaetxea, F. (1994): «Curriculumari buruzko lumak». *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 39, 2. zenbakia, 458-461.
- Sacristán Lucas, A. (1991): «El curriculum oculto en los textos: una perspectiva semiótica». *Revista de Educación*, 296. zenbakia, 245-263.
- Swaan, A. d. (1991): «El curriculum elemental como código nacional de comunicación». *Revista de Educación*, 295. zenbakia, 207-291.
- Urruzola, M. J. (1995): «Influencia del curriculum oculto en el fracaso escolar». *Comunidad Educativa*, 225. zenbakia, 10-11.
- Zabaleta, P. (1990): «Vascuence'aren legea». *Jakin*, 56. zenbakia, 107-129.

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASMATERIALARI GAINBEGIRATUA

Gai sozial eta kulturalak euskal
testuliburuetan

IMANOL MURUA URIA

Lehen Hezkuntzako euskarazko testuliburuak Euskal Herriari buruzko edukiak zein ikuspegitik lantzen dituen aztertzea da lan honen helburu nagusia. Horretarako, bigarren eta hirugarren zikloetako (hiru, lau, bost, eta seigarren mailak) ikasmateriala hartu dugu aztergai, eta Ingurunea alorrekoiei jarri diegu arreta berezia.

Sei hezkuntz proiekturen ikasmaterialak izan ditugu eskuartean: Bruño, Elkar-GIE, Erein, Giltza-Edebé, Ibaizabal eta Zubia-Santillana. Zergatik sei hauek? Lehen Hezkuntzako ziklo eta arlo nagusietan euskarazko materiala argitaratu dutenak direlako.

Euskarazko ikasmateriala izan dugu aztergai nagusia, baina material honen jatorria ezagutzeko beharrezko iritzi diogu aipatutako hezkuntz proiektuek gazteleraz (Espainiarako edota EAERako) edo katalanez argitaratutako liburuei begiratu ematea. Euskal Herrian zabaltzen diren liburuen mamia non landua den zehazten ere ahalegindu gara, beraz, ondoko lanean.

Testuliburu hauek guztiak Eusko Jaurlaritzaritzaren Hezkuntza Sailak dekretu bidez plazaratutako curriculum-diseinuan dute oinarria. Jaurlaritzaren dekretua oinarrian hartuta hezkuntz proiektu bakoitzak bere curriculum lantzen du eta hor zehaztutako irizpideen arabera moldatu ikasmateriala. Eusko Jaurlaritzaren onespina jasotzen dute guztiek, testuliburuak plazaratu aurretik. Aurrerago zehaztuko ditugu onespenezko prozeduraren nondik norakoak.

Gai sozial eta kulturalen azterketan barrena sartu aurretik, hezkuntz proiektu bakoitzaren argitarapenen deskribabena egingo dugu, proiektuz proiektu eta arloz arlo.

HEZKUNTZ PROIEKTUAK BANAN BANAN

Bi multzo nagusi egin behar dira aztergai ditugun sei hezkuntz proiektuen artean.

Batetik, Euskal Herrian diseinatutako curriculum oinarri dutela bertako lan-taldeek jorratutako materiala eskaintzen dutenak ditugu; osoan bertako produkzioa egiten dutenak, alegia. Elkar-GIE eta Erein proiektuak dira lehen multzo honetakoak.

Gainerako lauek Estatu osorako diseinatutako hezkuntz proiektuak dituzte oinarrian, nahiz eta, neurri desberdinetan, bertako hezkuntz proiektuen araberrako material propioa ere argitaratzen duten. Santillana argitaletxe espainiarrarekin egiten du lan Zubia-Santillanak, Edebé talde katalanarekin Giltza-Edebé, Edelvives proiektuarekin Ibaizabal argitaletxeak, eta Bruñok izen bera erabiltzen du Espainia osoan nahiz Euskal Herrian.

GILTZA-EDEBE

Giltza-Edebé taldeak Euskal Autonomi Elkarterako argitaratu duen irakaskuntza-materialak Edebé argitaletxe kataluniarrek Espainia osorako diseinatu eta argitaratutako testuliburuetan du jatorria. Edebé argitaletxea salesianoek sortua da; EDB (Ediciones Don Bosco) zen lehengo izena.

Giltza-Edebék euskaraz nahiz gazteleraz plazaratu du Lehen Hezkuntzako ikasmateriala, beti ere Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxeetarako. Nafarroako ikastetxeetarako materiala gazteleraz baino ez du plazaratu.

Matematika

Gaztelerazko matematika-liburuak berdinak dira Madrilen eta EAEn, nahiz eta argitaldaria Edebé den batean, eta Giltza-Edebé bestean. Euskarazko liburuak haien itzulpena dira.

Horrela, esate baterako, plano batean nola orientatu erakusten duen ikasgaian, Palma kalea (Calle de la Palma, erdarazkoan), Olibondoen kalea (Calle de los Olivos) edota Nekosten kalea (Avenida de los Cipreses) dituzte adibidetzat seigarren mailako euskal ikasleek. Distantziekin-eta ariketak egiteko mapa eta grafikoetan Espainiako lurraldeak eta hiriak ageri ohi dira beti, euskarazko nahiz gaztelerazko liburuetan.

Giltzaren testuliburuak erreproduzio hutsa edo itzulpen hutsa diren arren, ez da horrelakorik aitortzen. «Proiektua, zuzendaritza eta orientabide pedagogikoa» Giltza-Edebé taldearena dela esaten da, eta «argitaraldiaren zuzendaria» Miren Agur Meabe dela —Edebéren jatorrizko liburuan J. M. Maideu Puig da zuzendaria—.

Hizkuntza eta literatura

Giltzaren euskarazko testuliburuak euskal testuekin euskal ikasleentzat propio landuak dira, proiektu pedagogikoa (ikasgaien egitura, edukien antolaketa, ariketa-proposamenak...) Edebék gaztelerazko liburuetan darabilenaren parekoa bada ere. Giltzak EAEko ikasleentzat argitaratutako gaztelerazko liburua Edebéren jatorrizkoaren berdina da.

Ingurunea

Azterketa egiteko maila bakoitzeko lau bertsio hartu ditugu eskuartean Ingurunea alorrean: Edebék gaztelera Madrileko ikasleentzat argitaratua, Kataluniako ikastetxeetarako katalanez egindakoa, Giltza-Edebék EAerako ateratako gaztelera-koa eta Giltza-Edebéren euskarazkoa. Giltza-Edebéren euskarazko eta gaztelera-ko bertsioak bata bestearen itzulpena dira, inon aitortzen ez den arren. Madrilerako testuliburuak eta EAekoak berdinak dira ikasgai gehienetan, eta lurralde bakoitzari egokitutako edukiak ematen dituzte autonomi elkarteari buruzko ikasgaietan. Katalanezkoak desberdintasun handiak ditu edukietan. Aurreragoko atal batean aztertuko ditugu katalanezko bertsioen desberdintasunak.

Giltzaren bosgarren mailako liburua, esate baterako, Madrilerako bertsioaren itzulpena (euskarazkoa) eta hitzez hitzeko erreproduktzioa (Giltzaren gaztelera-koa) da gehiena. 220 orrialdeko testuliburuan 43 orrialdetan ageri da egokitzapenen bat (irudiren bat aldatu, testuak apur bat edo erabat aldatu, ariketa - proposamen egokitu...), eta 56 orrialdeko ariketa-liburuxkan hiru orrialdetan baino ez dira egokitu ariketak.

Testu-egileak ezberdinak dira Madrilerako eta EAerako liburuetan, eta berberak dira EAerako guztietan, gaztelera-ko nahiz euskarazkoetan.

Seigarren mailako testuliburuetan aldeak txikiagoak dira. Edebék Madrileko ikasleentzako argitaratua duen testuliburuak eta Giltza-Edebé taldeak EAerako argitaratu dituenek eduki bera dute, bost orrialdeko salbuespenarekin. Lau ataletan banatutako hamalau ikasgaitan dago antolatua liburua eta, horietarik hamahirutan, gaztelera-ko bi liburua, hitzez hitz eta irudiz irudi, berdinak dira, eta euskarazkoa gaztelera-koaren itzulpena.

Ikasgai bakarrean («Denboran zehar: gure autonomi elkartearen azterketa monografikoa») egokitu dira testuak eta irudiak, neurri txikian hala ere: hogeita bat orrialdetik hamazazpi berdin-berdinak dira Madrilerako liburuan nahiz EAerakoetan, eta lau orrialdetan bakarrik dituzte testu eta irudi egokituak: Eus-

kal Autonomi Elkartearen ezaugarri nagusiak azaltzen dira bi orrialdetan, eta EAEn historia beste bi orrialdetan. «Gure autonomi elkartearen azterketa monografikoa» iragartzen duen ikasgaiaren azaleko argazkia bera da liburu guztietan: Madrileko Plaza del Sol.

Seigarren mailarako *Langaiak (Cuaderno de Campo)* ariketa-liburuek ez dute inolako ezberdintasunik ez testuetan ez irudietan. Madrilerako liburuxka eta EAEn gaztelerazkoa berdin-berdinak dira, eta euskarazkoa itzulpen hutsa.

Baina egileak desberdinak dira, bai ariketa-liburuxkan eta bai testuliburuan. Madrilerako liburuan eta liburuxkan honako hauen ageri dira egile: M. A. Orpinell, J. Otón, N. Palau, B. Rodríguez, X. Soriano, C. Vargas eta Equipo Edebé. EAEnko liburu nahiz ariketa-liburuxketan, gaztelerazko nahiz euskarazkoetan, honako hauek dira «testu-egileak»: I. Apraiz Landeta, B. Asua Abasolo, M. E. Larrea Garai, eta Giltza-Edebé taldea. Ilustratzaileak, argazkilariak, kartografia-arduradunak eta azalaren egilea berberak dira guztietan. Euskarazko liburuak itzulpenak edo egokitzapenak direnik ez da inon aitortzen.

BRUÑO

Espainia osorako materiala argitaratzen du gazteleraz Bruño editorialak —La Salletarren argitaletxea— eta, aztergai ditugun arloen artean, Ingurunean eta Hizkuntzan argitaratu du euskarazko ikasmateriala Lehen Hezkuntzako ziklo guztietan. Matematika alorrean lehen zikloan baino ez dute plazaratu euskarazko materiala. EAEn egokitutako gaztelerazko materialik ez dute.

Hizkuntza

Hizkuntza alorreko euskarazko eta gaztelerazko testuliburuek diseinuan eta edukien antolaketan badute zerikurisik baina, bata euskara lantzeko eta beste gaztelera lantzeko direnez, era berezian egindako testuliburuak dira. Itzulpenik ez dago, beraz, eta euskal ikasleentzako propio egindako materiala da euskarazkoa.

Ingurunea

Euskarazko testuliburuak, *Haritza* izenekoak, gaztelerazkoen —*Paisajes*— itzulpen egokituak dira. Ikasgai gehienak hitzez eta irudiz Madrilen egindako materialaren itzulpen hutsa dira, ikasgai batzuetan testuen itzulpenak egokitu egin dira eta zenbait irudi aldatu, eta atal gutxi batzuetan testuak zein irudiak erabat aldatu dira.

Haritza 3-n, esate baterako, egokipena urria da: 190 orrialdeko testuliburuan bi orrialdetan baino ez dituzte egokitu testuak eta irudiak («Herrien eta kaleen izenak» eta «Jaiak eta ohiturak»), eta gainerako guztia erdarazkoaren itzulpena da. «Herriak eta hiriak» ikasgaian hiru argazki aldatu egin dira.

Laugarren mailako liburuan gehiago egokitu dituzte edukiak: bost ikasgaietako (hamabostetik) zenbait testu eta irudi egokitu egin dira, baina jatorrizko ereduaren nolokotasuna nabarmen geratzen da egokitze mugatu batzuetan. Esate baterako, *Haritza*-ko «Euskal Herrian zehar» ikasgaia *Paisajes*-eko «Viajes por España» kapituluaren egokipena da: testuak aldatu diren arren, irudi gehienak bere horretan utzi direnez, Euskal Herriko maparik ez da ageri «Euskal Herrian zehar» ikasgaian, baina Espainiako lau mapa bai. Arabako lautadako, Enkarterrieta-ko eta Donostiako argazki banaren ondoan, Valentziako, Bartzelonako, Aranda de Dueroko, Teideko eta Gaztela-Leongo argazki bana ageri dira, beti ere «Euskal Herrian zehar» ikasgaian. EAEko hiru mapa datoz bukaeran.

Euskal Herriko ikasleentzat propio landutako hiru ikasgai ditu *Haritza 5*-ek (geografia, jarduera ekonomikoak eta kultur aniztasunari buruzkoak), eta gainerako guztietako testuak itzulpena dira. Bi ikasgaietan («Espazioa adierazteko era» eta «Nola aztertzen da autonomi elkarte bat?») zenbait irudi aldatu egin dituzte, Espainiako erreferentzia geografikoen ordez Euskal Herrikoak jarritz.

Proporzio berean da itzulpena seigarren mailakoa. Hamabost ikasgaietatik hiru ikasgai —historiari buruz— Euskal Herriaren errealitatera egokituta datoz. Gaztelerazko testuliburuan Espainia da historiaren erreferentzi nagusia, eta euskaraz-

koan, hiru ikasgai horietan, Euskal Herria. Beste hamabi atalak itzulpena dira.

Haritza liburuen fitxa teknikoan ez da, hala ere, itzulpen egokitua denik aitortzen. Madriren argitaratutako *Paisajes en zapi* testu-egileei (R. Batllori, M. Espinet, J. Franch, A. Gavaldá, J. Molla, A. Saintisteban eta J. Plagés) beste lau izen (A. Ansoategui, A. Apiñariz, J. C. Audicana eta V. Rodríguez) —itzultzaile-egokitzaileak— gehitu eta denak egiletzat aurkezten dituzte.

ZUBIA-SANTILLANA

Zubia-Santillanak euskaraz nahiz gazteleraz argitaratzen ditu Lehen Hezkuntzarako Ingurunea alorreko ikasmaterialak. Matematikan eta Hizkuntzan, aldiz, euskaraz baino ez ditu plazaratzen, gaztelerazkoak Santillanak Espainia osorako argitaratutakoak baliatzen baitira EAEen ere. Zubia-Santillanaren matematika-liburuak Santillanaren gaztelerazko testuen itzulpen hutsa dira, Ingurunea alorrekoak itzulpen moldatuak dira eta hizkuntzaren gainekoak, berriz, jatorrizkoak.

Matematika

Zubia-Santillanaren euskarazko matematika-liburuak Madrilgo argitaletxe nagusiak gazteleraz Espainia osorako argitaratzen dituenen itzulpena dira. Zubiaren *Matematika* eta Santillanaren *Matemáticas* liburuak berdin-berdinak dira irudi aldetik, azala salbu (diseinu bera baina irudi ezberdina).

Zenbait pertsona-izen aldatzen dituzte (Santillanan Celina dena, esaterako, Zubian Iratxe da, eta Pedro, berriz, Peru) eta, kasu bakanetan, adibidetan ageri diren hiri espainiarren izenak euskal hirien izenekin ordezkatu dira, beti ere egokitze horrek irudi-aldaketarik eskatzen ez badu. Honela, autobus-geltokiko prezio-taulan Madriletik abiatzen dira autobusak hirugarren mailako gaztelerazkoan, eta Bilbotik, aldiz, euskarazkoan.

Baina irudiz hornituta datozen testuetan (grafikoak, mapak...), irudiak egokitzen ez direnez, «adibide espainiarrak» da-

kartza Zubiaren testuliburuak ere. Hirien arteko kilometro-kopuruak neurtzeko Madril-Toledo-Aranjuez, Madril-Avila-Se-govia, eta Madril-Guadalajara-Cuenca ibilaldiak proposatzen zaizkie hirugarren mailako euskal ikasleei, Espainiako hiru mapatxoekin hornituta datorren orrialdean. Laugarren mailan ere liburu osoan ageri den mapa bakarra Espainiakoa da, baina testua aldatzeko aukera ematen duen mapa da, bertan Bilbo ere ageri baita: kalkulatu beharreko distantziak Bilborekikoak dira Zubiaren testuliburuan.

Euskarazkoak gaztelerazko bertsioreen itzulpena direla agerikoa den arren, testuliburuaren fitxa teknikoan ez da halakorik aitortzen. Honela, itzultzaile bide direnak (Xabier Kintana, Xabier Mendizabal eta Gotzone Miranda) Santillanaren *Matemáticas* argitarapenaren egileekin (Pilar García, Magdalena Rodríguez eta José Gil) batera datoz Zubiaren *Matematika* liburuaren egile-zerrendan.

Hizkuntza

Hizkuntzari buruzko testuliburuetakako edukietan batere zerikusirik ez dute Zubiaren *Hizkuntza*-k eta Santillanaren *Len-gua*-k. Zubiako argitarapenetan Euskal Herriko gaiak jorrazten dira batik bat, euskal literaturako testuekin. Hala ere, edukien egituraketaren, ariketa-proposamenen eta testuliburuaren diseinu orokorraren parekotasunean nabari da proiektu pedagogiko beraren arabera landu dituztela gaztelerazko nahiz euskarazko liburuak.

Hirugarren mailako testuliburuetan, esate baterako, bosna ikasgaiako hiru atal nagusitan antolatatu dituzte edukiak Zubiak nahiz Santillanak: «Animaliak eta landareak» («Animales y plantas», erdarazkoan), «Lurra eta ura» («La tierra y el agua») eta «Paisaia eta lanbideak» («El Paisaje y los trabajos»). Parekotasun bera dute, beste atal-izen batzuekin, laugarren mailakoek. Azken bi mailetakoan parekotasuna ikasgai bakoitzaren azpialtalen antolaketan nabari da: ikasgai bakoitzean «Komunikazioa», «Narrazio-testua», «Gramatika», «Lexikoa», «Idazketa», «Azalpeneko testua» eta «Bertsolaritza» lantzen dira *Hizkuntza* liburuetan, eta «Comunicación», «Texto narrativo», «Vocabulario», «Gramáti-

ca», «Ortografía», «Composición», «Texto expositivo», eta «Texto poético» *Lengua* liburuetan.

Ingurunea

Ikasmaila bakoitzean hiruna liburuxka argitaratu ditu Zubia-Santillanak Ingurunea arloan: ingurune naturalari buruzko bi eta ingurune sozialari buruzko bat, hiru eta bosgarren mailetan, eta ingurune naturalaren gaineko liburuxka bat eta gai sozialen gaineko bi, lau eta seigarren mailetan.

Santillanak Madrileko autonomi elkarterako argitaratutako materiala eta Zubia-Santillanak EAERako euskaraz nahiz gazteleraz plazaratutakoa ikusita, honako ondorio hauek atera daitezke testuen eta grafikoen jatorriari buruz: ingurune naturalari buruzko testuliburuetan, Zubia-Santillanaren agitarape-nak Santillanaren materialaren itzulpena (euskarazkoan) edo erreprodukzioa (gaztelerazkoa) dira —egokitze gutxi batzuk salbu—, eta ingurune sozialari buruzkoetan mamia euskal errealitatera egokitzen da; EAeko gaztelerazkoa Santillanak Espainia osorako egin bide duen oinarrizko testuaren egokipena da, eta euskarazkoa egokipen horren itzulpena, Zubia-Santillanaren bi bertsioak bata bestearen itzulpena baitira.

Moldatze neurria aldatu egiten da urte batetik bestera. Hirugarren mailako *Paisaia eta Lanbideak* liburuan kasu bakane-tan sumatzen da egokitzea: Madrilekoan Sonia dena Leire da EAeko bietan, eta herri arrantzalearen adibide Asturiasko Cudillero ren argazkia ageri bada batean, Elantxobeko irudia para-tu dute besteetan.

Neurri bertsuko egokitzea antzematen da hurrengo ikastur-teko *Paisaia eta herrialdeak* argitarapenean —eguraldiaren mapa, esate baterako, Espainiakoa ikusten dute Madrileko ikasleek eta Euskal Herrikoa EAekoek, eta errepede-mapa Le-bantekoa hangoek eta EAekoa hemengoek—, baina agokitze esanguratsuagoa du *Gauzen Historia* liburuxkak: hari nagusia itzulpena da, baina irakurgai osagarriak ezberdinak dira hemen-go materialean; honela, Numanciako gerra datorren lekuan Calahorrako setioa dator EAeko testuetan, eta Ameriketako aur-kikuntzaren lekuan Elkanoren mundu-itzulia.

Bosgarren mailako *Euskal Herria/País Vasco* eta *Comunidad de Madrid* liburuxkak edukiz erabat ezberdinak dira noski, ikasgaien eta atalen egituratan parekotasun osoa duten arren. *Ingurugiroa* Madrileko *El Medio Ambiente*-ren itzulpena da neurri handienez, baina egokitze pare bat bada: Cabrerako Parke Nazionalaren ordezkari Bidasoako ibaia dute aztergai, eta Mantxako aintziren lekuan euskal kostaldeko padurak.

Azken ikasturteko euskal testuak Madrilekoaren itzulpena dira neurri handienez: *Espainia eta Europa* liburuxka *España y Europa*-ren itzulpena da, eta *Historiaren Uneak Momentos de la Historia*-ren itzulpena, egokitze txiki batzuk salbu. Historia-liburuko ikasgai bakoitzean, hamasei orrialdetik orrialde-heren batean egiten da jatorrizko testuaren moldapena, Euskal Herriko gertakari baten aipamena eginez; gainerakoan itzulpena da.

Testuliburuaren fitxa teknikoetan ez da, ordea, itzulpena edo itzulpen egokitua denik aipatzen. Itzultzaile-moldatzaile bide dena egileen artean jartzen da, beste zehaztapenik gabe. Horrela, Madrilerako *Momentos de la Historia* eta *España y Europa* liburuen egileak Cristina Zarzuelo, Enrique Juan, Juan Jose Juste, Felipe Hernando eta Teresa Trence badira, *Historiaren Uneak* eta *Espainia eta Europa* liburuen egileak horiek beraiek dira, gehi Xabier Kintana. Ez itzultzailezik ez moldatzailezik ez da ageri. Berdin jokatu da hiru, lau eta bosgarren mailetako liburuetan ere.

IBAZABAL

Lan honetan aztergai ditugun ziklo eta arloetan, Ibaizabal argitaletxe bizkaitarrak argitaratutako ikasmaterialak, neurri handi batean, Edelbives hezkuntz proiektua du oinarrian. Proiektu propioaren araberrako materiala ere argitaratzen du, Haur Hezkuntzan batik bat, baina Lehen Hezkuntzako zerbait ziklo eta arloetan ere bai. Lehen Hezkuntzari dagokionez, gazteleraz nahiz euskaraz argitaratzen ditu testuliburuak Ingurunea alorrean, eta euskara batuan zein bizkaieraz arlo guztietan. Euskara batuan argitaratutako materiala hartu dugu kontuan azterketa honetan.

Matematika

Ibaizabal argitaletxearen euskarazko matematika-liburuak —*Bi ta bi* dute izenburu— Edelvivesen liburuen itzulpena dira. Azala dute erabat ezberdina, baina gainerakoan edukiak eta irudiak berberak dira, egokitze batzuren salbuespenarekin.

Edelvives-en *Matemáticas*en Manuel dena, esate baterako, Manu da *Bi ta bi* liburuan, eta Maria, Miren. Grafikoren bat edo beste aldatu da: Espainiako maparen lekuan Euskal Herrikoa paratu dute hirugarren mailakoan. Eta adibideren batzuk ere egokitu dira: Errenteria-Ibardinaren arteko etaparen profil grafikoa Cangas de Onis-Narancoren ordean laugarren mailan, edo Espainiako pertsonaia historikoen lekuan Euskal Herrikoak bosgarren mailako liburuan.

Baina gehiago dira liburuaren jatorria Euskal Herritik kanpokoak dela nabarmen uzten duten adibideak: laugarren mailako meteorologia mapa Espainiakoak da, mapa batean baino gehiagotan ageri dira «Euskal Herria» (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Nafarroa bereizita Espainiako maparen barruan, tren ordutegiaren adibidea AVErenak da —«*Madrid (Pta. de Atocha) - Ciudad Real - Puertollano - Córdoba - Sevilla (Sta. Justa)*»— bosgarren mailako testuliburuan, eta ibaien luzera kalkulatzeko ariketan Tajo, Guadalquivir, Miño, Segura eta Ebro neurtu behar dituzte seigarren mailako ikasleek.

Bi ta bi testuliburuetakoko fitxa teknikoetan ez da itzulpena direnik aipatzen. Egilea Ibaizabal-Edelvives taldea da hiru, lau eta bosgarren mailetakoko liburuetan; seigarrenekoan, aldiz, egilea (Rosalía Mariscal), moldatzaileak (Mari Karmen Alzola eta Sabin Gorrotxategi) eta testua batuerara bihurtu duena (Jose Antonio Sarasola) aipatzen dira.

Hizkuntza

Ibaizabalen hizkuntza-liburuetakoko edukiak ez dute zerikusirik Edelvivesen argitarapenetako edukiekin, euskal gaiak euskal testuekin lantzen baitira. Baina, beste argitaletxetan gertatzen den moduan, liburuaren diseinuan eta ikasgaien egitura-ketan antzekotasun handiak daude.

Ibaizabalen *Txor Txor* eta Edelvivesen *Lengua* liburuetakoko ikasgai bakoitzaren bukaeran datozen zenbait ariketetan nabari da parekotasuna. Hara ze ariketa proposatzen zaien ikasleei *Txor Txor 3*-ko aurreneko ikasgaiko «Ebaluazioa» atalean:

Lehenengo, kartulinaz 12,5 x 7,5 cm-ko fitxak egin. Fitxa daukazu-nean hitz berria letra handiz idatzi, alboan marrazkitxo bat eginez.

Ariketa bera proposatzen dute *Lengua 3*-n, aurreneko ikasgaiko «Evaluación» atalean:

Primero tienes que conseguir fichas de estas medidas: 12,5 cm. x 7,5 cm o de tamaño similar. Una vez que tienes la ficha, escribe con letras grandes la palabra nueva, acompañandola de un dibujo.

Ariketa-mota berberak proposatzen dizkie hirugarren mailako ikasleei *Txor Txor* liburuak nahiz *Lengua*-k, ikasgai bakoitzeko (hamabina ikasgai dituzte biek) aipatutako ataletan.

Txor Txor 5 eta *Lengua 5* testuliburuetan ere gai berberak modu bertsuan lantzen dituzte hamabi ikasgaietako «Teknikak» eta «Evaluación técnica» ataletan. Ikasgai bakoitza ere antzera antolatzen dute: «Irakurketa», «Aho-Hizkuntza», «Hiztegia», «Gramatika», «Aditza», «Testua komentatzen», «Hizkuntza idatzia», «Literatura», «Teknikak» eta «Ebaluazioa» euskarazkoan, eta «Lectura», «Expresión oral», «Vocabulario», «Gramática», «Ortografía», «Expresión escrita», «Literatura», «Comentario de texto» eta «Evaluación técnica» gaztelerazkoan.

Txor txor liburuen fitxa teknikoan ez da Edelvives proiektuarekiko loturarik adierazten.

Ingurunea

Ibaizabalek Ingurunea arloan plazaratutako *Txepetx* testuliburuak jatorri desberdinekoak dira zikloaren arabera. Lehen bi zikloetako (lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak) materiala Euskal Herrian propio landutakoa da, euskal egileek euskal ikasleentzat egina. Hirugarren zikloko (bost eta seigarren mailak) testuliburuak, ordea, Edelvivesen *Conocimiento del Medio* testuliburuetan dute jatorria. Azken ziklo honetako libu-

ruetan, ingurune naturalari buruzko ikasgaiak itzulpena dira eta irudi berberak erabiltzen dituzte, eta eduki sozialen inguruko ikasgaietan itzulpen moldatuak dira gehienak.

Txepetx 3 eta *Txepetx 4* testuliburuetan ikasgai guztiak bertan landuak dira eta egileak, beraz, bertakoak dira (Marisa Elorriaga, Mari Eli Ituarte, Belinda Isasi). Ikasgaien antolaketak eta liburuaren diseinua Edelvivesen liburuaren parekoa den arren, mamian ez dago itzulpenik.

Txepetx 5 testuliburuan, halabaina, zazpi ikasgai Edelvivesen liburuaren itzulpena dira, eta bost ikasgaietako edukiak Euskal Herriko errealitatera moldatuta datoz, beti ere Edelvivesen eskemak eta testuak oinarritzat hartuta. Fitxa teknikoan ez da itzulpen moldatua denik aitortzen: egilea Ibaizabal-Edelvives taldea da.

Seigarren mailako liburuan, ordea, ez dago inolako egokipenik, geografia, historia, politika eta abar Espainiakoa ditu irakasgai *Txepetx 6*-k; Edelvivesen *Conocimiento del Medio 6*-ren itzulpena da. Azala da, erabat ezberdina irudiz eta diseinuz —Gernikako Arbola da irudi nagusia—, bereizgarri bakarra. *Txepetx 6*-ren egile-zerrenda *Conocimiento del Medio*-ren egile-zerrenda bera da, eta itzultzaile bide direnak (Marisa Elorriaga, Belinda Isasi eta Jabi Artaraz) moldatzaile gisa agertzen dira.

ELKAR-GIE

Elkar argitaletxeak eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak elkarlanean moldatutako hezkuntz proiektua da Elkar-GIE. Lehen Hezkuntzako alor guztietarako materiala argitaratu du euskaraz, eta gaztelania hizkuntza gisa lantzeko testuliburuak gaztelera.

Matematika

Euskaraz baino ez ditu argitaratu matematika-liburuak Elkar-GIE proiektuak, eta nabari da jatorrian euskaraz landutakoak direla. Adibide askotan ikusten da euskal ikasleentzat propio egindako ikasmateriala dela. *Matematika 3*-n, esate baterako, Baionako planoaren gainean proposatzen da ariketa bat, eta bosgarren mailako adibide batean Bilbo-Azpeitia-Aretxaba-

leta-Eibar-Zumarraga ibilbidea egiten du autobusak. Harrijasotzaileak, estropadak edota ETBko programazioaren ordutegia agertzen dira, besteak beste, adibideetan.

Hizkuntza

Hizkuntzan bi lerro ditu Elkar-GIEk: euskara lantzekoa batak, eta gaztelera lantzekoa bestea. Bigarren zikloko *Euskara* testuliburuek eta bigarren eta hirugarreneko *Lengua Castellana* liburuak egile berberak dituzten arren —Roke Esnaola eta Iñaki Lasa—, ez dute parekotasunik ez edukietan, ez liburuaren egituran, eta ez diseinuan. Izan ere, euskara lehenengo hizkuntzat hartuz lantzen da *Euskara* ikasmaterialean, baina gaztelera bigarren hizkuntza gisa jorratzen da *Lengua Castellana* testuetan. *Lengua Castellana* 3-ren sarrerako testuak garbi adierazten du hori:

¡Hola amigos! Soy vuestro nuevo amigo Peli y voy a acompañaros en este libro, que será vuestro manual de Lengua Castellana. Seguro que me diréis: ‘Como que castellana? ¡Pero si hay que hablar en euskara!’. Sí, ya sé que normalmente hacéis las cosas en euskara, sobre todo en la ikastola. Pero seguro que, en la calle o en casa, también veis, oís y hacéis muchas cosas en castellano. (...) Aunque el euskara es la lengua en la que casi todos vivimos, a nuestro alrededor se usa también el castellano. Así es que tenemos que conocerlo bien. (5. orrialdea)

Gaztelerrari buruzko zenbait ariketetan euskarazko adibideekin konparazioak egiten dira: euskaraz K-rekin idazten dena gaztelerraz C edo Q-rekin idazten dela, Z desberdin irakurtzen dela euskaraz eta gaztelerraz, euskaraz galdera-ikurra esaldi-burkaeran bakarrik idazten da baina gaztelerraz hasieran ere bai... Finean, Elkar-GIEren *Lengua Castellana* materialen berezi tasun nagusia zera da, ikaslea euskalduna dela eta ikasketak euskaraz egiten ari dela kontuan hartuta egiten direla azalpenak.

Ingurunea

Ingurunea alorreko materiala euskaraz baino ez du argitaratu Elkar-GIEk. Euskal Herriaren ikuspegitik landutako materiala da.

EREIN

E rein argitaletxeak euskaraz nahiz gazteleraz argitaratu du Matematika eta Ingurunea alorretako ikasmateriala. Hizkuntzaren alorrean, euskara lantzeko testuliburuak baino ez ditu plazaratu.

Matematika

E rein argitaletxeak euskaraz nahiz gazteleraz argitaratu ditu Lehen Hezkuntzarako matematika-liburuak. Jatorrizko testuak gaztelerazkoak dira, Luis Peredak egina, eta euskarazko testuliburuak haren itzulpena dira —Iñaki Iñurrieta da euskaratzailea—, argitarapenen fitxa teknikoan aitortzen denez.

Testuliburuei gainbegiratua emanda, gaztelerazko jatorrizko testuak zein ikuspegitik landuta dauden zalantzan geratzen da. Lurralde-erferentzia Espainia da adibide askotan —Espainiako mapak baino ez dira ageri hiru, lau, bost eta seigarren mailetako liburuetan (gutxi batzuk, hori bai), euskarazkoetan nahiz erdarazkoetan—, eta distantziak neurtzeko ikasleei proposatzen zaizkien bidaietan sarri abiapuntua Bilbo izan arren, Madril, Bartzelona, Burgos eta Malaga izan ohi dira helmuga. Distantziei buruzko ariketa ugarietan, inoiz ez da proposatzen Euskal Herriko herrien arteko eragiketarik; Bilbo eta hiri espainiarren artekoak dira ia beti. *Matematika 6* liburuan ageri diren Espainiako mapetako bat autonomi elkarrean egituratuta dator: «Euskal Herria» eta «Nafarroa» bereizita ageri dira. Gaztelerazko bertsiotan ere «Euskal Herria» esaten zaio EAERI.

Baina edukiak euskal ikasleentzat landuak direla adierazten duten detaileak badira, bestalde. *Matematika 6*-ko estatistika-ariketetan Gasteiz eta Donostian urte osoan egindako eurien taulak, Gipuzkoako biztanleriaren bilakaeraren grafikoa, EAeko hizkuntz gaitasunari buruzko taula, EAeko hauteskunde-emaitzak eta abar ematen dira Espainiako populazioari eta langabeziari buruzko koadroen ondoan.

Gaztelerazko adibideetako pertsonaien izenetan aldaketa nabari da bigarren zikloko (hiru eta laugarren mailak) testuliburuetatik hirugarren ziklokoetara (bost eta seigarren mailak): bi-

garren zikloan Juan, Pedro, Javier, María, Marta, Ana... dute izena haur guztiek. Azken zikloan, erdal izenak nagusi diren arren Begoña, Txomin, Mikel eta abar ere agertzen dira.

Hizkuntza

Bi lerro ditu hizkuntzarako Erein proiektuak: *Euskara* testuliburuak batetik —D ereduko ikasleentzat—, eta *Kalakari* batetik —B nahiz D eredueta koentzat—. Esan gabe doa Erein proiektuaren arabera bertan landutako materiala dela guztia.

Ingurunea

Euskarazko eta gaztelarazko testuliburuak argitaratu ditu Erein-ek Ingurunea alorrean. Itxuraz eta edukiz berdinak dira *Ingurunea* eta *El Medio* liburuak. Egileak ere berberak dira euskarazkoetan zein gaztelarazkoetan —Iñaki Begiristain eta Koldo Zubeldia bigarren zikloan, Ximon Goia eta Juan Manuek Rodriguez hirugarrenean— eta, itzulpena zein den adierazten ez denez, bi bertsioak orijinaltzat jo daitezke; egileek beraiek bi hizkuntzetan landu dituztela, alegia.

Testuetako erreferentzia eta adibideetan nahiz irudi eta argazkietan nabari da Euskal Herrian landutako materiala dela. Gai orokorre buruzko ikasgaietan ere adibideak eta irudiak Euskal Herrikoak dira, nonbaitekoak izatekotan.

TIRADAK

Euskarazko testuliburuaren batezbesteko tiradek izan duten bilakaera dator ondoko koadroan. Argitaletxe bakoitzak urtez urte argitaratutako testuliburuaren batezbeste zer tirada izan duten adierazten da koadroan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko EIMA egitasmoaren datuetan oinarrituta. Matematika,

Hizkuntza eta Ingurunea alorretako euskarazko argitarapenak hartu ditugu kontuan, argitaletxe bakoitzaren urteko batezbestekoa ateratzeko. Lehen argitaraldien tiradak dira —EIMA egitasmoan dirulaguntza jaso zuten urtekoak—, berrargitarapenetako tiraden datuak ez baititugu.

Euskarazko testuliburuaren batezbesteko tiradak

<i>Argitaletxea</i>	1992	1993	1994	1995
Bruño	5.300	5.100	2.629	2.200
Giltza-Edebé	4.333	3.166	1.766	2.000
Elkar-GIE	5.000	6.000	6.166	6.166
Erein	3.137	3.200	2.600	3.100
Ibaizabal ¹	6.000	6.000	3.900	4.066
Zubia-Santillana	5.600	3.583	3.750	4.250
<i>Guztira</i>	29.370	27.049	20.811	21.782

Iturria: EIMA (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila).

1. Ibaizabalek testu berak bizkaieraz eta euskara batuan argitaratzen ditu. Mila bat ale gehiago batuan bizkaieraz baino. Batu egin ditugu bi bertsioren tiradak.

GAI SOZIAL ETA KULTURALEN TRATAERA

Ingurunea alorreko testuliburuaren mamia aztertzerakoan, lau puntutan jarri dugu arreta berezia: lehenik eta behin, hezkuntz proiektu desberdinek lurraldetasuna nola tratatzen duten aztertu dugu, eta ikasleari «gure herritzat» edo «gure lurraldetzat» zer aurkezten zaion; bigarrenik, Euskal Herriaren kulturaz eta hizkuntzaz proiektu bakoitzak zein eduki ematen duen; hirugarrenik, historiari buruzko ikasgaietan nongo historia azaltzen duten, eta zein ikuspegitik; eta azkenik, gizartearen antolamendu politiko-administratiboaren gaineko gaiak nola landu dituzten.

LURRALDEA

Norberaren herriaren eta eskualdearen ezagupenetik abiatuta eremu zabalagoak ezagutzen joatea da Lehen Hezkuntzako ikasleari ezartzen zaizkion helburuetako bat. Eremu zabalagoetara jotzean, baina, irizpide oso ezberdinak dituzte aztergai ditugun hezkuntz proiektuek.

Sei proiektuetatik bostek, eremu zabalagoetara jotzean, aintzat hartzen dute Euskal Herria bere osotasunean; bakarra da erreferentzia bakartzat Euskal Autonomi Elkarte eta Espai-

nia hartzen dituen. Euskal Herria aintzat hartzen dituenen artean, hala ere, bada alderik: Euskal Herria dute erreferentzia nagusi bakarra batzuek —eta kanpoko lurraldeak aztertzean jotzen dute Espainia edo Europa aztertzean—, eta Euskal Herria aintzat hartu arren EAE edo Espainia dute batzuetan erreferentzia nagusi bestek.

Finean, lurraldetasuna nola lantzen duten aztertze soilarekin antzeman daiteke zein ikasmaterial dagoen bertako hezkuntz proiektu baten arabera landua, eta zein den kanpoko proiektuaren arabera moldatuko materiala: bertako proiektuen arabera egindako testuliburuetan Euskal Herria da erreferentzia nagusia eta irizpide nahasketarik ez dago; oinarrian kanpoko proiektuak dituzten materialetan ikasleari ez zaio azaltzen garbi, nolabait esateko, zein den «gure herria».

Euskal Herririk ez

Giltza-Edebé

Giltza-Edebéren liburuetan ikasleari ez zaio azaltzen Euskal Herria zer den: EAE eta Espainia baino ez dira ageri lurralde erreferentzia gisa. Euskal Autonomi Elkarteak da gure komunitatea, eta gure komunitatea Espainiaren parte da.

Bigarren zikloko ikasleek ikusten dute lehenengo mapa eguraldiarena da, *Inguruaren Ezaguera* 4-ko 89. orrialdean: EAEko hiru probintziak baino ez dira ageri, eta Arabak Trebiñori dagokion zuloa du erdian. Honelako hamazazpi mapa ikusiko ditu ikasleak. «Euskal lurraldeetako mugak» zein diren adierazten da 169. orrialdean:

Euskal Autonomi Elkarteak Espainiaren iparraldean dago. Iparraldean, Kantauri itsasoarekin egiten du muga, hegoaldean Errioxarekin, ekialdean Nafarroako Foru Elkartearekin eta Frantziarekin, eta mendebaldean Kantabria eta Gaztela-Leonekin. Gure elkarteak hiru herrialdez osatuta dago. Haietako bi, Bizkaia eta Gipuzkoa, Kantauri itsasoak ureztatzen ditu. Hirugarrena, Araba, barrualdekoa da.

Hiru probintzien lurraldeari Euskal Autonomi Elkarteak deitzen zaio eta, Euskal Herriko mapa osorik birritan agertzen

den arren, «Euskal Herria» hitza ez da sekula erabiltzen. Zati bat «Euskal Autonomi Elkarte» da, «Nafarroako Foru Komunitatea» bestea eta «Arlo frantsesak» bestea. Hara nola arrazoitzen den hiru lurralde hauek mapa bakarrean agertu izana:

Mapan agertzen den herrialdean hizkuntza, kultur agerpen eta ohitura amankomunez lotutako herriak bizi dira. (213. or.)

Ez da Euskal Herria hitza aipatu ere egiten.

Horren arrazoia antzematen ez da zaila. Gaztelerazko bertsioan EAEko mapa agertzen den bakoitzean «Pais Vasco» esaten zaio; nola deitu orain «Pais Vasco» osorik irudikatzen duen mapari? «*En el territorio que aparece en el mapa vive un conjunto de pueblos...*». Eta euskarazkoa itzulpena denez, «ahaztu» hori Euskal Herria dela aipatzea.

Kontua da, Giltzaren testuliburuak darabiltzan ikasleak Euskal Herriko mapa ikusiko duen aldi bakarra dela goian aipatutakoa. EAEko hamahiru mapa eta Espainiako hamabi ageri dira *Inguruaren Ezaguera 5* liburuan. Seigarren mailakoan, berriz, Espainiako hamaika mapa, Espainiako zati ezberdinetako zortzi, EAEko lau eta Europako Batasuneko bost.

Inguruaren Ezaguera 6 liburuan Espainiako lurraldeak aztertzeke lau zatitan banatzen dira autonomi elkarteak: Nafarroa «Espainiaren barrualdean» kokatzen dute Gaztela eta Leon, Errioxa, Aragoi, Madril, Extremadura eta Gaztela-Mantxarekin batera, eta EAE «Espainiako iparraldean» Kantabria, Asturias eta Galiziarekin batera. Elkarren arteko loturak azalduta dagoz:

Penintsula Iberikoaren ipar eta iparmendebaldean Atlantiar ozeanoaren eragina duten lurralde hauek klima, landaretza eta ezaugarri ekonomiko-historiko amankomunak dituzte. Espainia atlantiarra Euskal, Kantabriar, Asturiar eta Galiziar autonomi elkarteek osatzen dute. (7. or.)

Eta ezaugarri amankomun horiek aztertzen dira ondorengo hamalau orrialdeetan. Nafarroarekiko ezaugarri amankomunen arrastorik ez dago.

EAE, Euskal Herria eta Espainiaren artean

Giltza-Edebék ez bezala, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen dute Bruñok, Zubia-Santillanak eta Ibaizabalek, baina ez beti. Euskal Herria zazpi probintziak osatzen dutela irakur dezakete argitaletxe hauen ikasmateriala darabilten ikasleek, baina sarritan Hego Euskal Herrira edo EAERA mugatuko zaizkie aztergaiak, eta Espainia osora zabalduko beste askotan.

Bruño

Ikasmateriala Bruño argitaletzekoa duten haurrek mapekin duten lehenengo kontaktuan, hirugarren mailan, Espainiako mapa ikusten dute «Demokrazian bizi gara» atalean, autonomi elkarte bakoitzak kolore berezia duelarik. «Euskadi» arrosa kolorean eta «Nafarroako Foru Komunitatea» laranja kolorean; Iparraldeari dagokion lekuan Frantziaren (eta Portugal eta Afrikaren) grisa ageri da. Beste maparik ez dute *Haizea 3* liburuan.

Ikasleei lurralde-erreferentzia argirik ez die ematen *Haizea 4* liburua. Ematen dituen azalpenak eta irudiak nahasgarriak dira ere esango nuke: mapa gehienak Espainiakoak dira, baina azalpen gehienetan Euskal Herria hartzen da erreferentzia nagusitzat. Hirugarren ikasgaiari dator lehenengo adibidea: eguraldiari buruzko mapa Espainiako da (autonomi elkartek banatuta), baina testuan proposatzen den ariketa Euskal Herriko eguraldiari buruz da, nahiz eta Euskal Herriko eguraldi-maparik ez den agertzen.

Deigarriagoa da hamaikagarren ikasgaikoa: «Euskal Herrian zehar» du izena ikasgaiak, eta ez testuetan ez irudietan ez da azaltzen garbi Euskal Herria zer den. Espainiako lau mapa eta EAeko hiru ageri dira ikasgaian; Espainiako mapetan «Euskadi» eta «Nafarroako Foru Komunitatea» bereizita agertzen dira. Iparralderik ez da inon ageri. Baina mapetan adierazten denaz bestera, nafarrak eta zuberotarrak Euskal Herrikotzat hartzen ditu testuak. Hara zer dioten testu nagusiak:

Agurtzanek, Aitziberrek, Iñakik, Josebak, Igonek eta Xabierrek udalekuetan elkar ezagutu dute. Agurtzane nafarra da, Aitziber gi-

puzkoarra eta Iñaki bizkaitarra. Joseba eta Igone nebarrebak dira eta arabarrak. Baina gehien erakartzen duena Xabier da, zuberotarra delako (...). 'Udan bakean' lelopean, egin da Zarautzeko udalekuetan Euskal Herriko eta Espainiako beste autonomi elkarte batzuetako topaleku. Espainiako beste elkarte batzuetakoak daude. Batzuk andaluziarrak dira... (128. or.)

Ariketa bateko adibidean, Agurtzane Altsasukoa denez, bere probintzia Nafarroa eta bere «autonomi elkarte» Euskal Herria dela adierazten da; eta ondoan «Euskadi» eta «Nafarroako Foru Komunitatea» bereizi egiten dituen Espainiako mapa. Euskal Herria osorik hartzen duen maparik ez da ageri liburu osoan.

Bosgarren mailan argiago azaltzen da Euskal Herria zer den eta Espainia zer, nahiz eta edukietan koherentzia ez den erabatekoa. Kontzeptu orokorrak irakasteko Espainia hartzen da erreferentziatzat: hirien arteko distantziak, erliebeak eta klima nola adierazten diren Espainiako mapen gainean azaltzen da. Dena den, «Euskal Herria» izeneko ikasgaiean Euskal Herria osorik ikusiko dute ikasleek mapetan, eta honako definizioa irakurri:

Euskal Herria zazpi probintzian banatuta dago: Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Hego Euskal Herrikoak dira, eta estatu espainiarreko autonomi elkarte bat osatzen dute. Nafarroa ere Espainiako Autonomi Elkarte da. Beste probintziak estatu frantziarrean daude. (142. or.)

Baina erliebea, garraiabideak eta klima Euskal Herri osoko mapen gainean azaldu ondoren, Hego Euskal Herrira mugatzen dira uren erabilerari, biztanleriari eta industriari buruzko mapak eta azalpenak. Lehen Iparraldeko hiru herrialdeak agertzen ziren lekuan «Frantzia» irakur daiteke orain.

Zubia-Santillana

Zubia-Santillanaren testuliburuetan hiru errealitate hartzen dira aintzat: Euskal Herria (hego eta ipar) batetik, Euskal Autonomi Elkarte bestetik, eta Espainia (eta bere autonomi elkarteak) hirugarrenik.

Laugarren mailako *Paisaia eta Herrialdeak* liburuxkan, adibidez, «Klima eta paisaia» ikasgaiako mapa nagusia Euskal Herrikoa da, baina klimari buruzko ariketa Espainiaren maparen gainean egin behar dute. «Herrialdea» ikasgaian udalerriak, eskualdeak, erregio naturalak, autonomi elkarteak eta Estatuak zer diren azaltzen da, Espainiako autonomi elkarten maparekin hornituta (EAE eta Nafarroa kolore ezberdinetan eta Iparraldearen lekuan Frantzia).

Ingurunea alorreko bosgarren mailako hiru liburuxketako bat *Euskal Herria* izenekoa da. Euskal Herria kultur elkarte gisa definitzen da aurrena.

Euskal Autonomi Elkarte osatzen duten hiru herrialdeek, Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriarekin batera —Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa—, kultur elkarte bat osatzen dute, Euskal Herria izenekoa, hau da, euskaraz mintzatzen den herria. (6. or.)

Segidan Euskal Autonomi Elkartearen azterketari ekiten zaio: neurriak, mugak, sinboloak, biztanleria, hiri nagusiak... «Gure Elkartearen sinboloak ikurrina eta armarrria» direla irakur daiteke, baina «bandera hau Euskal Herriko sinbolotzat erabiltzen» dela ere esaten da gero. Lehenengo ikasgai honek —«Euskal Herria» du izenburu—Euskal Herriko mapa bat, Espainiako autonomi elkarteena beste bat eta Euskal Autonomi Elkartearen hiru mapa dakartza.

«Paisaia: erliebea eta kostaldea» ikasgaian Euskal Herria osorik hartzen da aintzat erliebea eta ibaiak aztertzeko orduan —bost mapa—, baina «Euskal Kostaldea» atalean EAE bakarrik hartzen da kontuan: «Frantziarekin» muga egiten duen Hondarribian amaitzen da euskal kostaldea.

Antzeko gora-beherak sumatzen dira hurrengo ikasgaian: Euskal Herria osotasunean klima eta landaretza aztertzeko, baina EAEko hiru probintziak baino ez ekonomi jardueri buruzko ikasgaian; Euskal Herrikoak kultura tradizioak, monumentuak eta pertsonaiak, eta EAEkoak erakunde politikoak.

Seigarren mailan, aldiz, Espainia da aztergai nagusia: *Espainia eta Europa* liburuxkako bost ikasgaietatik lau Espainiako

gora-behera geografikoei eta ekonomikoei buruzkoa da. Azken ikasgaian Europa da gaia: osotasunean aurrena, eta Europako Batasuna modu espezifikoan gero.

Ibaizabal

Ibaizabalen ikasmaterialean ezberdintasunak daude maila batzuetatik bestetara. *Txepetx 3, 4* eta *5* liburuetan Euskal Herria, osotasunean hartua, da lurralde-erreferentzia nagusia —barkarra, lehenengo bietan—, eta Espainia, berriz, *Txepetx 6*-en.

Bigarren zikloko ikasleek ikusten duten lehenengo mapa Euskal Herrikoa da: *Txepetx 3*-ko «Euskal Herritik Euskal Herriara» ikasgaien topatuko dute. Zazpi probintziak banan banan aztertzen dira ikasgai horretako hamalau orrialdeetan. Euskal Herrikoa ez den maparik ez dute ikusiko ez hirugarren mailan ez laugarrenean. *Txepetx 4*-en ere bada «Euskal Herritik Euskal Herriara» ikasgaia: eskualdeak, mendiak, kostaldea, ibaia, klima eta ekonomia aztertzen dituzte, besteak beste. Euskal Herria osotasunean hartuta.

Bosgarren mailako testuliburuan ere Euskal Herrian zentratzen dira geografia-gaiei buruzko ataletan. «Non bizi gara» galderari «Euskal Herrian» erantzuten zaio. Euskal Herria non dagoen eta nola banatua dagoen adierazten da hasieran:

Euskal Herria Iberiar Penintsularen Iparraldean dago. Euskal Herriaren barruan Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroako Foru Komunitatea eta Frantzialdean Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea daude. (53. or.)

Euskal Herria da, beraz, erreferentzia nagusia, baina ez barkarra. Autonomi Elkarteari buruzko ikasgaian Espainia da erreferentzia: «Horrelaxe antolatu dugu Espainia» du izena hasierako atalak, eta Espainiakoak dira «gure autonomi elkarteak».

Mapen erabilerak adierazten du, modu zehatzean ez bada ere, erreferentzia bakoitzak zein pisu duen: liburu osoan Euskal Herriko hemezortzi mapa eta Espainiako zortzi ageri dira; EAEko bat ere bai, eta Espainiako autonomi elkarte bakoitzaren mapatxo eta bandera bana bi orrialdetan.

Txepetx 6-en erabat aldatzen da hiru eta laugarren mailetan erabilitako ikuspegia: Espainia da aztergai bakarra, eta «gure ibaiak» eta «gure basoak» dira Espainiakoak.

Euskal Herria, gure herria

Proiektu propioa duten bi argitaletxeek, Elkar-GIEk eta Ereinek, Euskal Herria osotasunean hartuta aztertzen dute ikasmaterial guztietan. Euskal Autonomi Elkarteak ez da aztergaia; izatekotan ere, Euskal Herriaren egitura administratiboa zein den azaltzeko aipatzen da EAE. Euskal Herria baino zabalagoak diren lurraldeak aztertzen dira, baina «beste lurraldeztat» joz. Ezberdintasun bat bada bi proiektuen artean: Euskal Herriatik Europara jotzen du zuzenean Elkar-GIEk, Espainia Europako beste estatuen parean aztertuz, eta Espainia modu bereizian aztertzen dute Ereineko testuliburuek.

Elkar-GIE

Ingurunea alorrean Elkar-GIEren ikasmateriala darabilen haurrak Euskal Herria izango du lurralde-erreferentzia nagusia ikasturte guztietan eta, Lehen Hezkuntzako azken ikasturtean eremu zabalagoak aztertzeko orduan, Europa da ikasgaia. Espainia, Europatik berezirik, ez da inon ageri; eta Euskal Autonomi Elkarteak, Euskal Herriatik berezirik, ere ez. Euskal Herria eta Europa (osotasunean, ez Europako Batasuna bakarrik) eza-gutzen ikasten dute ikasleek, beraz, Elkar-GIE testuliburuekin.

Ingurunea 4 testuliburuan ageri dira lehenengo mapak. Bi dira liburu osoan, eguraldiari buruzkoa lehena eta Euskal Herriko eskualdeei buruzkoa bigarrena. *Ingurunea 5*-en sakontzen da Euskal Herriko erliebe, klima, garraiobide, ekonomia eta demografia-gaietan, besteak beste. Euskal Herria munduan kokatzea da lehenengo lana; munduko, Europako eta Euskal Herriko mapa banarekin hornitu dute azalpena:

Bi mapa hauetan Euskal Herria munduan non kokatua dagoen, hau da, zein kontinentetan aurkitzen den ikusten da. Horrela, Euskal Herria Europako hegomendebaldean kokatua dago. Pirineo mendikateak iparraldeko eta hegoaldeko probintziak bereizten ditu. Iparraldeko hiru probintziak Frantziako estatuan aurkitzen

dira eta hegoaldeko lau probintziak Espainiakoan. Ezkerreko mapa horretan agertzen dira Euskal Herria inguratzen duten lurraldeak. Behatu arretaz mapa eta esan ahoz Euskal Herria mugatzen duten lurralde horien izenak. (8. or.)

Kantabria, Gaztela, Errioxa, Aragoa, Biarno eta Landak dira lurralde horiek. Behin hau zehaztuta, Euskal Herriaren ezagupenean murgilduko da ikaslea.

Behin Euskal Herriaren gora-beherak aztertuta, Europari buruzkoak ezagutzeari ekiten diote azken ikasturtean. Euskal Herriarekin egin bezala, Europa osoaren erliebea, hidrografia, klima, paisaia, populazioa, ekonomia eta abar aztertzen dute, eta Europako Batasunari buruzko ikasgai laburra ere bada bukaeran. Europari buruzko edukietan Espainia beste estatuen pare agertzen da, ez du protagonismo berezirik. Esaterako, Espainiako populazio piramidea paratu dute orrialde batean, baina Frantziakoa eta Danimarkakoa ditu ondoan.

Elkar-GIEren hezkuntz proiektuak ezarritako helburuei erantzuten dio, azken finean, jokabide honek. «Norbera eta ingurune fisiko-geografikoa eta gizakiaren eragina» ataleko helburuetan behin baino gehiagotan zehazten denez, ezagutza-eremuak «Euskal Herritik Europara zabalduz joanik» ikastea da xedea. Hona, adibide gisa, helburuetako bat:

Ezagutza eremuak zabalduz joanik, Euskal Herritik Europara nagusiki, bertako landaredia eta fauna berezitasunak adierazten dituen elementu nagusiak ezagutu eta elkarren artean sortzen diren erlazioak aztertu. (*Beleko gidaliburua*, 37. or.)

Erein

E rein proiektuko materiala baliatzen duten ikasleek laugarren mailan ikusiko dute lehenengo mapa: Euskal Herriko eskualdeen mapa. Ikasgaiaren helburua norberaren eskualdea aztertzea denez, ez da Euskal Herriari edo probintziei buruzko azalpenik ematen. Hurrengo ikasturtean ekingo diote lan horri.

Ingurunea 5 testuliburuan Euskal Herria da lurralde-erreferentzia bakarra. Euskal Herri osokoak dira mapa guztiak, eta

Euskal Herriaren gainean aztertzen dira herrialde historikoak, biztanleria, erliebea, ibaiak eta abar. «*Hona hemen Euskal Herriaren mapa, bizi garen herrikoa*», irakur dezakete ikasleek mapa lehenengoz agertzen zaienean. «*Bizi garen herri*» horrek zazpi herrialde historiko dituela irakasten zaie. Eta inguruan, Kantabria, Gaztela-Leon, Errioxa, Aragoi eta Biarno ditugula.

«Beste lurralde batzuk» aztertzen dituzte *Ingurunea 6* liburuan. «*Euskal Herriarekin zerikusi handia duten lurraldeak aztertuko dituzu: Espainiako estatua eta Europa*», esaten zaio ikasleari «Beste lurralde batzuk aztertzen» ikasgaiaren aurkezpenean.

Honela, Iberiar Penintsularen ezaugarri fisikoak aztertzen dira aurrena, Iberiar Penintsularen «partizio politikoa» gero —«*Iberiar penintsulako lurra hiru estatutan banatu da: Portugal, Andorra eta Espainiako estatua. Azken hau, berriz, autonomi komunitateetan banatu da, mapan ikus dezakezunez*—, eta Europa bere osotasunean azkenik. Espainiaren biztanleria, migrazio-mugimenduak, ekonomia... eta Europako Batasunari buruzko gora-beherak dituzte irakurgai aurrerago.

HIZKUNTZA ETA KULTURA

Lehen Hezkuntzako azken zikloan aztertzen dira batez ere kulturari eta hizkuntzari lotutako gaiak, proiektu gehienetan bigarren zikloan gaiari buruzko sarrera moduko bat ere egiten den arren. Herri-kultura jorratzean, euskal kultura dute aztergai testuliburu guztietan, nahiz eta bakarren batek EA Eren eremuan kokatzen dituen bai euskal kultura eta hizkuntza. Euskal kulturaren eta hizkuntzaren azterketaren abiapuntu Espainiako Konstituzioa duenik ere bada.

Giltza-Edebé

Kultur agerpenak eta hizkuntza ere Euskal Autonomi Elkartearan ikuspegitik azaltzen dituzte Giltza-Edebéren testuliburuak. Testu honekin azaltzen dute *Inguruaren ezaguera 4* liburuan euskararen eremua zein den, Euskal Herri osoko mapatxo batez hornituta:

Gure elkarteak bere hizkuntza du, euskara. Lehen, euskarak esparru zabalagoa hartzen zuen gaur baino. Gaur egun Euskal Autonomi Elkartean, Nafarroako zenbait toki eta Frantziako hegoaldean hitz egiten da. Euskal Autonomi Elkartean izaera ofiziala du, gaztelerak bezala. (214. or.)

Bosgarren mailako testuliburuan euskal jaiei buruzkoa da azken orrialdea, eta ez da San Ferminei buruzko aipamenik egiten. Bilboko Aste Nagusia, Gasteizeko Andra Mari Zuria eta Donostiako danborrada dira «euskal jai» nagusiak. Hona kapitulu honen sarrera:

Euskal Autonomi Elkartean bizirik mantentzen dira tradizio herrikoiak. Bere hiru probintzietako hiriburuetakoa jaiak alaiak eta biziak dira. (220 or.)

Bruño

«Kultur aniztasuna» izeneko ikasgaiean euskal kultura eta hizkuntza aztertzen dira Bruño-ren *Haritza 5* testuliburuan. Ikasgaiaren abiapuntua Espainiako Konstituzioa da:

Konstituzioak honela dio: «...mugakide izanik eta historia, kultura eta ekonomi ezaugarri berdintsuak dituzten probintziak, irla lurraldeak eta historikoki herrialde nortasun bat izan dutenek bere autogobernua lor dezakete eta Erkidego Autonomo bat sor dezakete». (168. or.)

Hizkuntzari buruzko lehenengo azalpena ere Espainiako Konstituzioko artikulua batekin dator hornituta:

Euskaldunok elkarrekin komunikatzeko euskaraz hitz egiten dugu. Hizkuntza komunikazio bide bat da, eta herrien nortasunaren ardatz garrantzitsuenen artean dago. Euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetako bat da. Duela milaka urte jaio zen, baina ez dago garbi non eta noiz gertatu zen. Euskal Herrian, euskaraz ezezik, gazteleraz ere hitz egiten da. Konstituzioaren 3. artikulua honela dio: «Espainiako hizkuntza mota desberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da». (171 or.)

Euskararen dialektoen eta euskara batuaren berri ematen da hurrena, eta Euskal Herriko kultur agerpenak aipatzen dira gero, hala nola ohiturak, jaiak, mitoak, musika, dantza, herri kirolak eta janariak.

Zubia-Santillana

Zubia-Santillanaren *Euskal Herria* liburuxkan (bosgarren maila) hamar orrialdeko ikasgai berezia du kulturak. «Euskal herri-kultura» atalean azokak eta jaiak, folklorea, herri-eskulangintza, gastronomia, monumentuak eta pertsonaia ospetsuak dituzte aipagai; Euskal Herri osokoak beti ere. Bi urte lehenago, hirugarren mailako liburuxkan orrialde beteko atalean herriko ohiturak, jaiak eta sinboloak aipatzen dira.

Ibaizabal

Ibaizabal argialetxeak laugarren mailako liburuan jorrazten ditu euskal kulturari buruzko gaiak, «Gure Iragana» izeneko ikasgaian. Santa Ageda eta ihauteriak nabarmentzen ditu jaien artean eta Mari eta Basajaun, pertsonaia mitologikoen artean. Euskal Herriko musikari eta dantzei orrialde pareka eskaintzen die, eta beste hainbeste herri kirolei. Eta orrialde bannatan ematen da euskararen eta bertsoaritzaren berri. Hamalau orrialde, guztira, euskal kulturaren gaineko gora-beherei buruz.

Txepetx 3-n gaiaren sarrera moduko bat egiten da «Zure bizilekuaren jatorria» atalean, ikasleari bere herriko ohitura, dantza, jai eta abarri buruz galdetuz.

Elkar-GIE

Elkar-GIEren *Ingurunea 5* liburuan arreta berezia jartzen zaio euskal kulturari. Orrialde gehien eskaintzen dizkiona bera da bederen. Liburuaren azken hemezortzi orrialdeak «Herri kultura» izeneko ikasgaiari dagozkio. Bertan folklorea, ohiturak, jaiak, musika-tresnak, dantzak, bertsoak, herri kirolak, euskal komunikabideak eta euskara dituzte ikasgai. Euskalkien eta euskara batuaren berri dute, besteak beste, ikasleek, eta hizkuntzaren garrantziari buruzko esaldirik ere bada:

Herri batek bere hizkuntza kontserbatzen duen bitartean bere identitatea mantentzen du. (180. or.)

Komunikabideei buruzko ilustrazioetan, ETBren egoitzaren eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren azalaren argazkiak agertzen dira adibide gisa.

Bi urte lehenago ere, *Ingurunea 3*-n, euskal kulturaren inguruko hainbat gai jorratzen dira «Amonaren ipuinak» ikasgaian: euskal folklorea, kirolak, mitologia, festak...

Erein

Ereinen *Ingurunea 5* a gitarapenak bost orrialde eskaintzen dizkio hizkuntzaren gaiari. Euskalkien mapa eta guzti, ondoko azalpenarekin hasten da euskarari buruzko atala:

Orain urte asko, Euskal Herrian bizi ziren pertsonak hizkuntza batez mintzatzen ziren: euskaraz; seguruenik, Iberiar Penintsulako eta Europako hizkuntzarik zaharrena izango da. Gaur egun aurreko mapan ikus ditzakezun zonetako biztanleri-zati batek hitz egiten du euskaraz. Besteak gaztelaniaz edo frantsesez mintzatzen dira, hegoaldean edo iparraldean euskaldun gehienak ezagutzen dituzten hizkuntzetan alegia. (130. or)

Euskarak «galzorian» jarraitzen duela eta «*hori gerta ez da din*» «*pertsona eta instituzio asko ahalegin handia*» egiten ari direla irakur daiteke. «*Gure hizkuntzak garrantzi handia du, eta denon artean gehiago erabil dadin lortu behar dugu. Bai euskarari!*», esaten da ikasgaiaren bukaeran.

HISTORIA

Ezberdintasun handiak nabari dira gertakari historikoak azaltzeko modu eta ikuspegietan. Oinarrian kanpoko hezkuntza proiektuak dituzten gehienek —ez guztiek— espainiar ikuspegiatik landutako testu historikoen moldapenak aurkezten dituzte, Euskal Herriaren historiari buruzko testu osagarriekin hornituta, eta bertako proiektuekin ari direnek euskal ikuspegiatik landu dituzte historia-gaiak.

EAE-ren historia*Giltza-Edebé*

Ikuspegi berezi samarretik azaltzen dira gertakari historikoak Giltza-Edebén. Seigarren mailako testuliburuan datoz iraganeko kontuak. Euskal Autonomi Elkartearen aurrehistoria «Espainiako iparraldearen» barruan aztertzen da, eta Nafarroa ere «Espainiaren barrualdearen» barne. Antzin Aroa eta Erdi Aroa ere batera aztertzen da «Espainiaren barrualdean». Gaztela da protagonista, noski, eta Nafarroa aipatu ere ez da egiten.

«Denboran zehar: gure autonomi elkartearen azterketa monografikoa» izenburuko ikasgaia Historiaren aroak modu orokorrean bereiziz abiatzen da, XX. mendeko Espainiaren gorabehera historikoak azaltzen dira bi orrialdetan, eta «Euskal Autonomi Elkartearen historia» beste bitan

EAEn aurrehistoria azaldu ondoren, baskoiak, barduliarak, karistiarak eta autrigoak aipatzen dira Antzin Aroan; mapa Bidasoa artekoa da, eta akitanoak ez dira ageri. Erdi Aroari buruzko pasartean Nafarroako Erresuma behin aipatzen da, baina euskal lurraldeetatik bereizita, Gaztelaren eta Asturiasen pare:

Euskal lurraldeak Asturias, Gaztela eta Nafarroako erreinuen helburu izan ziren. XIII. mendetik aurrera Gaztelaren kontrolpean egongo dira euskaldunak. (...) Bizkaian eta Gipuzkoan alderdiak sortu ziren; garrantzitsuenak oinaztarrak eta ganboarrak... (86. or.)

Hona euskal historia nafarrak kontuan hartu gabe idazteko modu berria. «Aro Modernoa», «Orain aroa» eta «Gaur egungo EAE» atalak ere ikuspegi berarekin aztertzen dira.

Euskal nahiz espainiar ikuspuntua

Historia bi ikuspegitik azaltzen da Zubia-Santillanaren eta Ibaizabalen materialetan. Zubia-Santillanak ikuspegi espainiarretik egina du hari nagusia, baina euskal ikuspegitik egin dako testuekin hornitzen du. Ibaizabalek, aldiz, euskal ikuspegitik kontatzen du historia ikasmaita batzuetan, baina Espainiako historia «gure historiatzat» aurkezten du seigarren mailan.

Zubia-Santillana

Zubia-Santillanak liburuxka bana eskaintzen die gertakari historikoei lau eta seigarren mailetan. *Gauzen historia* (laugarren maila) liburuan gizakiaren bizimoduaren bilakaeraren berri ematen da. Modu orokorrean ematen dira azalpen nagusiak, leku geografiko jakinetan kokatu gabe, baina ikasgai bakoitzak osagarri duen irakurgai guztiak Euskal Herriko gertakari historikoei lotuta daude: Santimamiñe kobazuloan gertatzen da «*orain dela milaka urteko*» pasadizoa, Calahorrako setioa dator gero, Oneka printzesa nafarraren istorioa ondoren, Elkanoren itzulia hurrena eta Ameriketarako emigrazioa azkena.

Seigarren mailako *Historiaren uneak* testuan historia unibertsalaren bost garai esanguratsutako gora-beherak azaltzen dira bost kapitulutan: «Egipto eta Israel», «Grezia eta Erroma», «Islama eta Kristautasuna», «Errenazimendua» eta «Industri Aroa».

Ikuspegi orokorretik aztertzen dira garaiok, baina ikasgai bakoitzean Espainiaren historiako gertakari ere erreparatzen zaie «Gure Historia» ataletan eta, atal honen barruan, Euskal Herriari lotutako ataltxoak —«Baldin bazina...»— ere bada. Honela, «Egipto eta Israel» ikasgaiko «Gure Historia» atala Iberiar Penintsulako lehen biztanleei buruzkoa da, eta «Baldin bazina» azpiatanean Santimamiñe eta Ekaingo haitzuloak aipatzen dira. «Errenazimendua» ikasgaian «Gure Historia» Espainiar Inperioa da, eta Loiolako Basilika aipatzen da pasarte berezi batean.

Ibaizabal

Gainerako gaietan bezala, ezberdintasun handia dago Ibaizabalen ziklo bateko ikasmaterialetik beste ziklokora.

Txepetx 3-n, gertakariak oso modu orokorrean azaltzen diren arren, euskal ikuspegitik ekiten zaio iragana aztertzeari: Historiaurrean Santimamiñeko kobazuloak aipagai dira, erromatarrak Euskal Herrira heldu ziren garaiaz hitz egiten da, eta Jose Migel Barandiaran ageri da pertsonaia historiko ospetsuen adibide gisa. Laugarren mailakoan, Juan Sebastian Elkano, Inazio Loiolakoa, Jose Mari Iparragirre eta Jose Migel Barandiaran nabarmentzen dira pertsonaia ospetsuen artean.

Txepetx 5 liburuan ere Euskal Herriko historia da aztergai, nahiz eta pasarte batzuetan ezagun duen jatorrian Espainiaren historiari buruzko testua duela, eta horren egokipena egin dela. Foruei buruzko edo foruen galerari buruzko aipamen zuzenik ez da egiten; zeharka behin ukitzen da gaia:

1839. urtean, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroari Espainiako erregetzaren batasun konstituzionala ezartzen zaie, lehen gerra karlista galdu ondoren. (192. or.).

Baina *Txepetx 6*-en «Gure Historia» izeneko ikasgai osoa Espainiako historiari buruzkoa da. Ikasgaiaren sarreran egiten zaio ikasleari edukien aurkezpena:

Espainia, jada, hobeto ezagutzen dugu: bere ingurune fisikoa, biztanlegoa eta beren ekintzak, bere antolamendu sozial eta politikoa. (...) Gure gaur egungo gizarte hau ulertezina litzateke bere historia, gure historia azken batean, alde batera utziz gero. Gure historia ezagutzea gu geu hobeto ezagutzea da. (180. or.)

Iberoak, Al-Andalus, Birkonkista, Errege Katolikoak, Borboiak eta Cadizko Konstituzioa dira, besteak beste, «Gure Historia»-ren protagonista nagusi, *Txepetx 6* argitarapenarmarabera.

Euskal Herria protagonista

Hezkuntz proiektua bertakoa duten bi argitaletxeek ezezik, Bruñok ere euskal ikuspegitik azaltzen ditu gertakari historikoak. Historiaren protagonista Euskal Herria da hiru proiektuetako testuetan; eta historia unibertsalari buruzko gaiak ere euskal ikuspegitik aztertzen dira.

Bruño

Bruño argitaletxearen materialaren barruan zerbait Euskal Herri osoaren ikuspegitik aztertzen bada, hori Historia da. *Haritza 6* argitarapenean, aurrehistoriatik hasita gaur egunera arte, zazpi probintziak barnean hartzen dituzten gertakari historikoen berri ematen da. Hona, adibide gisa, Frantziako Iraultzaren aipamenean zer nabarmentzen den:

Frantziako Iraultza 1789an hasi zen, Luis XIV.ak «Estatu orokor-
rrak» deitu zituenean. Bertara Lapurdi eta Zuberoako ordezkariak
joan ziren, foruak defendatzeko asmoz. Estatu Orokorrak ez
zituzten euskaldunen planteamenduak onartu eta 1790ean Behe
Pirinioetako departamendua osatu zuten, euskaldunak eta biarnotarrak
bilduz. Horrela desagertu ziren Iparraldeko foruak. (150 or.)

Erein eta Elkar-GIE

E rein eta Elkar-GIE proiektuak, jakina, Euskal Herriaren
ikuspegitik azaltzen dituzte gertakari historikoak. Seigarren
mailako testuliburuetan jorratzen dituzte, besteak beste, Nafarroako
Erresumaren, foruen eta abarren inguruko gertakariak.

GIZARTE-ANTOLAMENDUA

Hiru argialetzek baino ez dituzte lantzen modu zabalean
gizartearen antolamendu politiko-administratiboari buruzko
edukiak. Gaiak lantzeko ikuspegia espainiarra da gehienetan,
eta Espainiako Konstituzioa da ikasi beharreko lege nagusia.

Espainiako Konstituzioa aztergai nagusi

Euskal Autonomi Elkartearen antolamenduari buruzko
azalpenak ere ematen diren arren, Espainiako Konstituzioa
eta Espainiako erakunde politikoei jartzen diete arreta handiena
Giltza-Edebé eta Ibaizabal proiektuetako testuliburuak.

Giltza-Edebé

Gizarte-antolaketari buruzko lehenengo edukiak *Inguruaren
ezaguera 5* testuliburuaren azken ikasgaian irakur ditzateke
Giltza argialetxearen materiala darabilten ikasleek. Bozketa,
gehiengoa, hauteskundeak eta antzeko kontzeptuak modu
orokorrean aztertu ondoren, «Espainiako Konstituzioa» da
antolaketa politikoari buruzko lehen atala.

Besteak beste, Konstituzioak dioena «*denok bete behar*» dugu
gula dio testuak:

Konstituzioa da herri baten legerik garrantzitsuena, hiritarren
elkarbizitza antolatzen duten arauak jasotzen baititu. Espainiako

Konstituzioa hainbat alderdi politikoren ordezkariak egin zuten. Ondoren, espainiar gehiengoak onartu egin zuen, erreferendum edo kontsulta baten bidez 1978ko abenduaren 6an. Konstituzioan espainiar, erakunde politiko, Espainiako lurralde eta Estatuaren antolakuntzarekin erlazionaturiko aldeekin zerikusia duten eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira. Denok bete behar dugu Konstituzioak dioena. Gure betebeharrak eta elkarbizitzarako arauak errespetatu behar ditugu eta gure eskubideak erabili, lana eta iritziekin parte hartuz. (212 or.)

Konstituzioaren lehenengo artikuluko aurreneko bi atalak datoz gero hitzez hitz. «*Nazio-subiranotasunak herri espainiarrean*» duela «*oinarria*» dio bigarrenak.

Konstituzioari buruzko erreferendumean Euskal Herrian zer emaitza izan ziren ez da adierazten. «*Espainiar gehiengoak*» onartu egin zuen.

Konstituzioaren azalpenaren ondoren, Espainiako antolaketa politikoaren azalpen orokorra egiten da: Juan Carlos I.a Espainiako errege edo monarka da, Estatuako erakundeak hiru bozteretan zatitzen dira, Estatu espainiarrak hamazazpi autonomi elkarte ditu eta bakoitzak bere autonomi estatutua du. Buzkaeran, Euskal Autonomi Elkartek Estatutua 1979an onartu zuela eta «gure autonomi elkarteak» eskumen bereziak eta gobernu-organoproioak dituela adierazten da hiru esalditan.

Inguruaren ezaguera 6 testuliburuan lerroaldi luze bat dago «Gaur egungo Euskal Autonomi Elkartea»ri buruz, «Euskal Autonomi Elkartearen historia» ikasgaiaren barruan:

Euskal Autonomi Elkartea Estatu espainoleko hamazazpi elkarte autonomoetako bat da. Bere Estatutua erreferendumez onartua izan zen 1979ko urriaren 25ean. Bertan, Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntza euskara dela esaten da; beraz, gaztelaniarekin batera, bi hizkuntza ofizial daude. Bandera ikurrina da. Estatutuak gobernu organoak eta beren kompetentziak ezartzen ditu. Eusko Legebiltzarrak, bere 75 parlamentarik osaturik, legeak egiten ditu. Lehendakariak eta sailburuek osaturiko Eusko Jaurlaritzak betearazpen eta administrazioko funtzioak betetzen ditu. Lehenda-

kariak eta Kontseilariak osatzen dute. Batzar Nagusiak udalen ordezkariak dira eta hauek, foru aldundien bidez, zergak biltzen dituzte. (87 orr)

Ibaizabal

Gizarte-antolamenduari buruzko ikasgaia Euskal Herria «*bi naziotan*» zatituta dagoela esanez abiatzen da Ibaizabalen *Txe - petx 5* liburuan:

Gizon-emakumeak lurralde desberdinetan bilduta bizi dira: bilgune horiek nazioak, autonomi elkarteak... dira. Euskal Herria bi naziotan zatituta dago: Espainia eta Frantzia, eta bertako populazioa arau batzuk errespetatuz bizi da. Arau horiek bi dokumentutan agertzen zaizkigu: Espainiako Konstituzioan eta Frantziako Konstituzioan. (148 or.)

Behin hori azalduta, Espainiako Konstituzioaren azterketan sakontzen da. Besteak beste, «*espainiar guztiek Konstituzio espainiarrari baietza edo ezetza emateko aukera*» izan zutela eta «*Espainiako herriaren gehiengoak bere botuaren bidez baietza*» eman ziola Konstituzioari adierazten da. Ondoren, 2. artikulua-ren pasarte bat jasotzen da hitzez hitz:

Konstituzioa Espainiako Nazioaren batasun disolbaezinean oinarritzen da, Espainia espainiar guztien aberri zatiezina baita, eta Konstituzioak Espainiako nazionalitate eta eskualdeen autonomi eskubidea eta beren arteko solidaritatea onetsi eta bermatzen ditu. (149. or.)

«Horrelaxe antolatu dugu Espainia» izeneko atalean, «*Nazioaren Gobernua*» esaten zaio Madrileko Gobernuari, eta hurrengo atalean «*subiranotasun nazionala herritarren esku*» dagoela baieztzen da. «Gure autonomi elkarteak» ataleko azalpen gehienak Espainiako edozein autonomi elkarteri buruzkoak izan daitezke, autonomi elkarteren «eginkizunak», «legeak», «erakundeak» eta «zerbitzuak» modu orokorrean adierazten baitira, nongo autonomi elkarteri buruz ari den zehaztu gabe. Izan ere, Edelbives argitaletxeak Espainia osorako argitaratutako testu-liburuko azalpenen itzulpena da, argazkiak eta grafikoak alda-

tuta baina. EAEk eta Nafarroak Hazienda propioa dutela dioen pasarteak da euskal ikasleentzako propio idatzitako bakarra.

Txepetx 6-en gehiago sakontzen da Espainiako Konstituzioaren eta Espainiako antolaketa politikoaren ikasketan. Konstituzioari buruzko azalpenek sei orrialde oso hartzen dituzte. Besteak beste, «*gure eskubideak*» eta «*gure betebeharrak*» zein diren zehazten da, azalpen nahikoa luzeetan. «Espainiaren defentsan parte hartzea» da betebeharrak bat:

Subiranotasun nazionalaz baliatzeko eskubidea badugu, defendatzea geure betebeharra izango da. Konstituzioak betebeharrak militarrek ere biltzen ditu, hau da, denboraldi batez soldadu lanak egitea eskatzen die gizonaekoei. Baina kontzientzia-arrazoia medio, soldadutza egin nahi ez dutenentzat —objetoentzat— ere bada lekua: trukean, zerbitzu zibilak bete beharko dituzte. (153 or.)

Konstituzioa, Estatutua eta gatazka

Bruño

Bruño argitaletxearen bosgarren mailako testuliburuan Euskal Autonomi Elkartearen egitura politikoarekin abiatzen da antolamendu politikoari buruzko azalpena, «Euskadiren autogobernua» atalean. Honela dio hasieran:

Euskadiko komunitate historikoak hizkuntza, historia, nortasun eta ohitura propioak ditu, beste elkarteenak ez bezalakoak. Gernikako Estatutua 1979an onartu zen; Euskadiko oraina eta etorkizuna antolatzeko balio du, eta Euskadiren kompetentziak eta gobernu-organoak jasotzen ditu. Gernikaren Estatutuaren lehenengo artikulua honela dio: «Euskal Herriak, nazionalitatea izanik, bere autogobernua eskuratzeko Espainiako Autonomi Elkartea bat eratzen du, Euskadi edo Euskal Herria izenekoa, Konstituzioaren eta bere oinarriko legea den Estatutuaren arabera». (175. or.)

Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Batzar Nagusiak, eta «Autogobernua ren sinboloak» dituzte aztergai ondoren.

Espainiako antolamenduaren gaineko azalpenak «Espainiako Konstituzioa» atalarekin hasten dira. Espainiako antolamen-

du politikoaren printzipioak «*herriaren subiranotasuna, aniztasun politikoa eta botereen banaketa*» dira, eta «*herri baten legerik garrantzitsuena Konstituzioa da*». Garrantzi horren zergatiak azaldu ondoren, «*Herriaren subiranotasuna*» zertan datzan adierazten da:

Herriaren subiranotasuna pertsona guztiek arazo publikoetan parte hartzeko duten eskubidea da, hau da, beraiengan eragina duen elkarbizitzaren edozein ataletan parte hartzeko eskubidea (...). Hurrengo eskeman ikusten da nola gauzatzen den Espainiako herriaren subiranotasuna eta bertatik sortzen diren botereak. (184 or.)

Bosgarren mailako testuliburuan Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko antolamendu politikoaren aipamenik ez da egiten, baina seigarren mailakoan Nafarroa bederen agertzen da, modu laburrean bada ere, eta Euskal Herriko egoera politiko ez normalduari buruzko azalpen bat ere bada, «Demokrazia eta Gernikako Autonomi Estatutua» atalaren barruan. Franco hil ondoren Juan Carlos I Espainiako errege izendatu, Konstituzio berria onartu eta Estatuaren egitura autonomikoa onartu zela azaldu ondoren, honela dio testuak:

Egitura zentralista duen Estatu batetik Autonomi Elkartean oinarritutako beste batera pasatzen da. Elkartean horien artean Euskal Autonomi Elkartea, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak osatua eta Nafarroako Foru Elkartea daude. Euskal Autonomi Elkartean Gernikako Estatua dago indarrean, eta Nafarroan Foruaren Amejoramentua. (154 or.)

Gernikako Estatuaren lehenengo bi atalak irakur daitezke ondoren —Nafarroak «*Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren partaide*» izateko eskubidea duela dio bigarrenak—, eta egungo gatazka politikoaren azalpen laburra dator gero:

Euskal gizartearen zati batek, politika alorrean Herri Batasunak ordezkatzeko duena, ez du autonomiaren bidea onartzen, eta autodeterminazio eskubidea lortzeko borrokatzen du. ETaren atentuek Euskal Herrian sortu duten indarkeria egoeraren ondorioz, Eusko Legebiltzarraren ordezkariak duten alderdi guztiek, HBk izan

ezik, 1988an Euskal Herriaren Normalizaziorako eta Bakebidera-ko Akordioa sinatu zuten, Ajuria-Eneko Ituna izenez ere ezagutzen dena. (154. or)

Lehen Hezkuntzako euskarazko testuliburuetan gaur egun-go euskal gatazka politikoari buruz aurkitu dugun aipamen bakarra da.

Aipamen laburrak

Gizartearen antolamendu politiko-administratiboari buruzko gaiei leku handirik ez diete eskaintzen Zubia-Santillana, Erein eta Elkar-GIE proiektuek Lehen Hezkuntzako zikloetan.

Zubia-Santillana

Zubia-Santillanaren testuetan bi aldiz irakur daitezke egitura politikoei buruzko azalpenak. Bosgarren mailako *Euskal Herria* ren azken bi orrialdeetan Euskal Autonomi Elkarteko oinarrizko egitura politikoaren berri ematen da: «Euskal Herriko Autonomi Estatutua», Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza.

Seigarren mailako *Espainia eta Europa*-n demokraziari buruzko azalpenak ematen dira azken ikasgaian: «Demokraziaren ezaugarriak», «Europa, demokraziaren aitzindari» eta «Demokraziaren adibide bat: Espainia» dira, besteak beste, azken bi orrialdeotako atalak.

Erein

Erein proiektuak argitaratutako materialean, *Ingurunea 5* liburuko pasarte bakarrean topatu dugu erakunde politikoei buruzko azalpena. Bertan EAEko eta Nafarroako erakundeen berri ematen da: Eusko Legebiltzarra eta Jaurlaritza, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako Gobernua, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak eta udalak. Espainiako arau eta egitura politikoen azalpenik ere ez da ematen.

Elkar-GIE

Elkar-GIE proiektuaren testuliburuetan ez da antolamendu eta erakunde politikoei buruzko ikasgairik. Antolaketa poli-

tikoari buruzko aipamen bakarra *Ingurunea 5*-eko lehen ikasgaiean aurkitu dugu:

Pirineo mendikateak iparraldeko eta hegoaldeko probintziak bereizten ditu. Iparraldeko hiru probintziak Frantziako estatuan aurkitzen dira eta hegoaldeko lau probintziak Espainiakoan. (8. or.)

BESTELAKO JOKAERA KATALUNIAN

Testuliburuak Estatu osora banatzen dituzten hiru hezkuntz proiektu nagusiek Kataluniarako argitaratutako zenbait argitarapeni ere eman diegu begiratua, bertako errealitate-ra eta arauetara nola egokitzen diren aztertzeko. Edebé, Santillana (Grup Promotor izenez) eta Edelvives-en (Baula izenez) Ingurune alorreko liburuak hartu ditugu eskuartean.

Ondorio nagusia garbia da. Argitaletxe hauek jokabide desberdina dute Katalunian: Estatu osorako prestatutako materiala neurri txikiagoan erabiltzen dute, eta gai sozial eta kulturaltan edukiak Kataluniako errealitatera egokituta datoz erabat.

Irizpideen ezberdintasun honen atzean oinarrizko curriculum diseinuen ezberdintasuna dago. Lore Erriondo irakasleak *Jakin*-en zenbaki honetan bertan argitaratutako lanean argi asko ikus daiteke Kataluniako erakundeek, EAEkoek ez bezala, edukiz bete dutela oinarrizko curriculumak, eta argitaletxeek, testuliburuak ikastetxe katalanetan banatu nahi badituzte, edukiak Kataluniako errealitatera —Kataluniako Oinarrizko Curriculumak ezarritako irizpide zehatzetara, hain zuzen ere— egokitu behar dituztela.

EDEBE

Edebék Madrilerako eta Euskal Autonomi Elkarterako argitaratutako testuliburuak elkarren artean dituzten parekotasunak ez dira nabari katalanezko liburuetan. Edukien antolaketan arraz ezberdina da eta Madrileko eta EAEko testuliburuetan errepikatzen diren —itzulita batzuetan, moldatuta bestee-

tan— ikasgai asko ez dira agertzen katalanezkoan: bertan sortutako material gehiago dago.

Materiala bera ere, bosgarren eta seigarren mailan batez ere, ugariagoa dute. Maila bakoitzean bat barik bi liburu dituzte —*Coneixement del Medi Natural* bata, eta *Coneixement del Medi Social i Cultural* bestea—, eta ikasgai nahiz orrialde-kopurua handiagoa da.

Katalanezko argitarapenetako ingurune naturalari buruzko ikasgai asko ez dira Madrileko eta EAEkoetan agertzen, beste batzuk modu ezberdinean landuta datoz eta besteak berdinak dira, itzulita daude. Bosgarren mailako testuliburuko hamalau ikasgaietatik sei dira itzulpenak. Euskarazko testuliburuetan, ingurune naturalari buruzko testu guztiak dira itzulpen.

Coneixement del Medi Social i Cultural 5 liburuko hamalau ikasgaiak Kataluniaren ikuspegitik landuta daude. *Ingurunea -ren Ezaguera* 5 liburuan, konparazio baterako, arlo sozial edo kulturalekotzat jo daitezkeen zazpi ikasgaiak Madrileko testuliburuko oinarri berbera dute: itzulpena da hari nagusia, eta EAera egokitzen dituzte eduki espezifikotako pasarteak.

Ikasgaien izenburuek nahikoa garbi adierazten dute ikuspegi ezberdina. Gaztelerazkoan eta euskarazkoan «La Poblacion» / «Biztanlegoa» dena, «Les persones del nostre país» da katalanezkoan, eta lehenengo bietan «La vida en sociedad» / «Giza bizimodua» dena, bestean «El nostre país» da, bi ataletan banatua: «L'organització de Catalunya» eta «La nostra identitat». Beste bertsioetan parekorik ez duten ikasgaiak ere baditu katalanezkoak: «El nostre passat» atalak bost ikasgai ditu Kataluniako historiari buruz, «La naixença de Catalunya» izenekoa azkena. «El nostre país», «La nostra identitat», «El nostre passat» eta abarri buruz ari direnean, herri, nortasun eta iragan katalanari buruz ari dira, jakina.

Seigarren mailan, Espainiari buruzko ikasgaiak badituzte ikasle katalanek ere —ez dira, hala ere, Madrileko eta EAEko bertsioen itzulpena—, baina Historiari buruzko sei ikasgaiak Kataluniaren historiaren ikuspegitik landuta daude, nahiz eta nazioarteko zein Espainiako historiako gertakarien berri ere

ematen duten. EAEko eta Madrileko liburuak, aldiz, Espainiako historia kondatzen dute, autonomi elkarte bakoitzeko historia laburbiltzen duten bi orrialdeetan salbu.

BAULA / EDELVIVES

Baula proiektuarekin argitaratzen ditu testuliburuak Edelvivesek Katalunian, baina oso bestelakoa da Ibaizabal-Edelvives erlazioa eta Baula-Edelvives harremana, hirugarren zikloko Ingurunea arloko argitarapenetan bederen.

Azalean eta diseinuan oso antzekoak dira Edelvivesek gazte-leraz argitaratutako liburuak eta Baulak Kataluniarako argitaratutakoak, baina mamian zerikusirik ez dute. Katalunian Baula proiektuaren arabera egiten dute, ez Baula-Edelvives proiektuaren arabera. Egileak ere ezberdinak dira.

Batzuen eta besteen mamia alderatuz gero, behe-zikloetan berdintsu jokatzeko dutela ikusten da —Ibaizabalek produkzio propioa du lehenengo lau mailatan—, baina ezagun du hirugarren zikloan lanerako metodoa eta edukiak lantzeko ikuspegiak erabat desberdinak direla.

Har ditzagun bosgarren mailako testuliburuak. Paisaiari buruzko ikasgaietan eduki espezifikokoak lantzeko, *Conocimiento del Medio 5* (Edelvives) liburuak Espainiara begiratzen du, *Txepetx 5*-ek (Ibaizabal) Euskal Herrira eta *Conixement del Medi Social i Cultural 5*-ek (Baula) Kataluniara.

Baina gizartearen antolamenduan, Espainiako Konstituzioarekin ekiten diote Ibaizabalek nahiz Edelvivesek, eta autonomi elkartei buruzko azalpenak berberak dira euskal ikasleentzako liburuan eta Madrileko argitarapenean.

Honela, *Txepetx 5*-eko «Gure autonomi elkarten jatorriaren bila» eta «Gure Autonomi Elkarteko legeak eta erakundeak» ataletan azaltzen denak berdin balio du Euskal Autonomi Elkartarako, Nafarroako Foru Komunitaterako, Madrilerako nahiz Valentziarako. Irudiak aldatu dira (ikurriña, Eusko Jaurlaritzaren argazkia...), baina testuak Edelvivesen testuaren itzulpena dira. Autonomi Elkarten baliabideei buruzko azken ata-

lean egin da egokipen bakarra, EAEk eta Nafarroak Hazienda propioa dutela adierazteko.

Maila bereko Kataluniarako testuliburuak bestelako edukiak dakartza. Espainiako antolamenduarekin hasi aurretik Kataluniakoa azaltzen dute. Esanguratatsua da ikasgaiaren titulua: «Catalunya, un petit país d'Europa». Hara zer dioen sarreran:

Catalunya és un petit país europeu per tradició històrica i realitat geogràfica. Els nou-cents quaranta-cinc municipis són la unitat bàsica de convivència dels catalans. Mitjançant l'Estatut d'Autonomia es regulen les relacions amb l'Estat espanyol, un dels dotze que pertanyen a la Comunidad Económica Europea. (57. or.)

Bost ataleko ikasgai honen ondoren ekiten dio «L'Estat espanyol, un estat democràtic» ikasgaiari. Dena den, testuliburu-ko Espainiari buruzko ikasgai bakarra da. Egin ditzagun kontuak: hamahiru ikasgaietatik hamaika Kataluniako eduki espezifikoei buruzkoak dira (horietarik zazpi Kataluniako historia-ren gainekoak), bat Espainiari buruz eta bat orokorra (nola orientatu denboran eta espazioan).

Txepetx 5-eko eduki sozial eta kultureko bost ikasgaietatik, hiru Euskal Herriari egokituta datoz, eta bik Espainiako errealitatea dute ikasgai.

Baina seigarren mailakoetan handiagoa da aldea. Ibaizabalen liburua Edelvivesenaren itzulpena da osorik eta, beraz, eduki espezifikoak jorratzen dituzten ikasgai guztiak (paisaia, populazioa, giza jarduerak, gizartearen antolamendua eta historia) Espainiari buruzkoak dira. «Gure Historia» Espainiako da, alegia.

Baula proiektuan Kataluniatik kanpora gehiago begiratzen dute seigarren mailako testuliburuan. Baina ez Espainiara, mundura baizik: kontinente bakoitzak ikasgai bat du, eta nazioarteko nahiz Kataluniako historiari buruzkoak dira gainerako ikasgai guztiak (Espainiako historiari buruzko ikasgairik edo atalik batere ez). Kataluniako gertakariei eta pertsonaiei arreta berezia jartzen zaie: «Catalunya sota l'absolutisme reial», «Joan Casanovas, un pagès durant la guerra», «El càstig de

Catalunya després de la pèrdua de la guerra», «La Universitat de Cervera», «El creixement de Catalunya al llarg del segle XVIII», «Narcís Monturiol: un inventor liberal», «El tren de Barcelona a Mataró», «Una ciutat que creix i es transforma: L'Exemple de Barcelona»...

GRUP PROMOTOR-SANTILLANA

Grup Promotor-Santillanaren ikasmaterialean ingurune naturalari buruzko gaietan ere nabari da Kataluniako errealiterako egokitzea, nahiz eta neurri handi batean Santillanaren jatorrizko materialaren itzulpena ere baden.

Coneixement del Medi Natural 3 liburuan, esaterako, ikasgai gehienak (hamabostetik hamar) gaztelerazko *Animales y plantas* liburutik itzuli eta moldatuak dira —EAEko liburuetan ikasgai guztiak dira itzulpen moldatuak—, baina ikasgai hauek ere EAERako liburuetan nabari ez den moldapen-lana ikusten da: euskarazkoan «Fruitarbolak» atala Espainiako fruitarbolaz ari da —itzulpen hutsa— baina katalanezkoan «Arbres fruiters de Catalunya» da atalaren izena. Gauza bera gertatzen da basa animaliekin: animalia berberen berri dute Madrileko nahiz EAEko ikasleek, baina Kataluniako ikasleek bertako animalia berezien berri ere badute «Animals protegits de Catalunya» atalean.

Ingurune naturaleko hurrengo ikasturtetako testuliburuetan desberdintasun bera nabarrituko dugu: Zubia-Santillanaren liburuetakoa ikasgai guztiak dira itzulpen moldatuak, eta Grup Promotor-Santillanaren testuliburuetan batzuk itzulpen moldatuak dira, baina beste ikasgai batzuk bereziak dira. Itzulitako ikasgaietan ere egokitzea handiagoa da Grup Promotorren testuetan Zubiaren testuetan baino.

Bosgarren mailako liburuetan, konparazio baterako, atal hauek irakurgai dituzte Katalunian, ingurugiroari buruzko gai orokorren barruan: «Un Ocell Nou a Barcelona», «L'Ametlla de Mar», «El Massís de Garraf», «L'Albera», «El Delta de L'Ebre», «Els Aiguamolls de L'Emporda», «El Montsant», «La ozna volcànica d'Olot», «Les Glaceres del Pirineu», «Les Mines del Bergueda»,

«Els Ports de Beseit», «Ecosistemes terrestres de Catalunya», «El Massis del Montseny», «Les Illes Medes» eta «Espais protegits de Catalunya». Kataluniako leku eta fenomeno konkretuekin hornitzen dituzte, hain zuzen, ingurugiroari buruzko azalpen orokorrak. Aipatu atal guztiek orrialde bana dute gutxienez.

Adin bereko euskal ikasleek ere badituzte ingurugiroari buruzko ikasgaiak, baina bina orrialdeko bi adibide baino ez dituzte Euskal Herrira egokituta: «Bidasoako ibaia» eta «Gure kostaldeko padurak». Beste bi adibideak Madrileko liburuan aurki daitezkeen berberak dira: «Pirinioak» eta «Europako Gailurrak».

Inguru sozial eta kulturaleko liburuetan ere desberdin jokatzen dute Zubia-Santillanak eta Grup-Promotor-Santillanak.

Coneixement del Medi Social i Cultural 3 liburuko hamar ikasgaietako hari nagusiak gaztelerazko *El Paisaje y los Trabajos*-en du jatorria, baina Kataluniako eduki espezifikoei arreta berezia jartzen zaie; Horrela, mendiei buruzko ikasgaiean orrialdebete hartzen du «Muntanyes de Catalunya» atalak, eta beste horrenbeste, hurrengo ikasgaietan, «Planes de Catalunya», «Costes de Catalunya», «Ciutats de Catalunya» eta «Ajuntaments de Catalunya» atalek. Zubia-Santillanaren materiala darabilten hirugarren mailako euskal ikasleek ez dute horien pareko atalik irakurriko.

Coneixement del Medi Social i Cultural 5-en Katalunia da aztergai nagusi eta bakarra: geografia, biztanleria, ekonomia, gizarte-antolamendu, historia... Hamabost ikasgai eta 140 orrialde Kataluniari buruz. Lehenengo ikasgaiko —«Catalunya»— lehen atalean —«El nostre país»— honela dio:

Catalunya és el nostre país, un país ric i divers. Els paisatges, les poblacions, les activitats de les persones que hi viuen, els costums i la història, les institucions de govern, la llengua i la cultura tenen unes característiques pròpies que defineixen la personalitat de Catalunya. Una personalitat que ens defineix també a tots nosaltres, les persones que hem nascut o vivim a Catalunya. (7. or.)

Adin bereko euskal ikasleek *Euskal Herria* testuliburua dute, baina gaiak ez dira Katalunian besteko sakontasunez azter-

tzen. Orrialde-kopuruan ere bada alderik: hamabost ikasgai (140 orrialde) eskaintzen dizkiote Kataluniari, eta bost ikasgai (60 orrialde) Euskal Herriari. Beste diferentzia nabarmena: ikasle katalanek euren herriaren historiari buruzko bost ikasgai dituzte —«El Naixement de Catalunya» ikasgaitik hasita «L'Autonomia de Catalunya» ikasgaira arte—, eta batere ez euskal ikasleek.

Hurrengo ikasturtean ekingo diote historiari EAEko ikasleek. Baina aurretik esan dugun bezala, historia unibertsala dute ikasgai, Espainiako eta Euskal Herriko adibide xume batzurekin hornituta. Gainerakoan, Espainia eta Europa dituzte aztergai *Espainia eta Europa* izeneko argitarapenean.

Baina Kataluniako ikasleak ez dira Espainia eta Europara mugatzen. Izan ere, Katalunia dute abiapuntu *Coneixement del Medi Social i Cultural 6*-ko lehenengo bost kapituluek —«Catalunya en el mon», «Catalunya a Europa», «Catalunya en segle XX»...—, eta ondoren datoz Espainiari buruzko bost ikasgai.

ONESPEN-PROZESUA

Euskal Autonomi Elkarteetako ikastetxeetan banatzen diren ikasmaterial guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onespena behar dute. Hezkuntza Sailak hiru alorri begiratzeko ikasmaterial bati onespena eman aurretik: teknika, hizkuntza eta edukia. Argitarapena —inprimatua, ikus-entzunezkoa nahiz informatikoa— teknikoki egokia den aztertzen da batetik, erabiltzen den hizkuntza zuzena den bestetik, eta ematen diren edukiak Administrazioak ezarritako irizpideen araberrakoak diren azkenik.

Onspena jasotzeko, besteak beste, EAerako oinarrizko curriculumaz ezartzen duen dekretuak —237/1992 dekretua, abuztuaren 11koa— ematen dituen irizpideekin bat etorri beharra dute ikasmaterialetako edukiek.

Ingurunea arloko gai sozial eta kulturaleri buruz dekretuak ematen dituen irizpideak ez dira batere zehatzak: interpreta-

zio zabalerako aukera uzten dute. «Euskal Herria» aipatzen denean, esaterako, ez da zehazten Euskal Herria osotasunean hartzea edo aztergaiak EAera mugatzea denik irizpidea.

Ingurunea arloko hamahiru helburu oro korrenartean aipatzen da «*inguru sozionaturala elementuetan, denbora iragatea - ren indarrez izandako aldakuntzak errekonozitzea*» eta «*inguru soziokulturalaren elementuak identifikatzea*» helburu direla, baina inguru hori zein den zehaztu gabe beti ere.

Eta zehaztasunetan sartzen denean, norberaren herriaren eta eskualdearen ezagupenetik abiatuta eremu zabalagoetara jotzean aintzat hartu beharreko eremuetaz ari denean hain zuzen, «*herria, eskualdeak, herrialdeak, Autonomi Elkarteak, Estatu Espainiarra eta Europako Komunitatea osatzen duten herriak*» aipatzen ditu 237/1992 dekretuak.

Materialen gainbegiratuari eta onespenerari buruzko arauak 143/1993 dekretuak —1993ko ekainaren 14ko EHAA argitaratua— zehazten ditu. Sarreran dioenez, «*Administrazioak eza - rritako curriculum-bidearekiko ikasmaterialek koherentzia bermatu eta hizkuntz erabilpen zuzenetara egokitu*» behar dute ikasmaterialek Hezkuntza Sailaren onespenera jasotzekotan.

Dekretuaren zortzigarren ataleko lehenengo puntuan, 1/1990 LOGSE legeari erreferentzia eginez, gehiago zehazten dira kontuan hartu beharreko oinarriak:

Ikasleentzako ikasmaterialek argitalpen-proiektuetara egokituko dira. Bai testuan eta bai irudietan, eta 1/1990 LOGSE legeak bere 2. atalean adierazitakoaren ildotik, honako oinarriok aintzatzat hartuko dira: sexuen eskubide-berdintasuna, diskriminazio orori aurre egitea, kultura guztienganako errespetua, jokaera demokratikoaren aldeko ohitura indartzea eta balore etiko eta moralak kontuan hartzea.

Edukien gainbegiratu eta onespenerari buruzko 1982ko dekretuak zioenez, EAEn zabaltzen zen ikasmaterialek guztiak banan banan aztertu behar ziren: testuliburuz testuliburu eman behar zen onespenera. Baina ez zen araua betetzen: EIMA egitasmoan sartzen ziren ikasmaterialek baino ez ziren begiratzen,

dirulaguntza eman edo ez eman erabakitzeko. Gaztelerazko argitarapen guztiak eta EIMAtik kanpo geratzen ziren euskarazkoak ez ziren ez aztertzen ez onesten.

1993ko dekretuak aldatu egin du prozesua. EAEko ikaste-txeetan banatuko diren ikasmaterial guztiak onestu behar dira, euskarazkoak nahiz gaztelerazkoak, baina testuliburuak banan banan aztertu beharrean, argitaletxe-proiektuak gainbegiratu eta onesten dira. Alegia, argitaletxe batek ziklo jakin baterako (bi ikasturte) arlo bateko materialaren proiektua aurkezten du, ikasgai-eredu batekin hornituta, Curriculum Eratzeko Institutuak proiektua aztertu eta txostena bidaltzen dio Hezkuntza Sailari, eta honek azkenik proiektua onetsi edo gaitzesten du. Onespena, batzuetan, aldaketa batzuk egiteko baldintzapean ematen dute, eta aldaketa-gomendioak ematen dituzte beste zenbaitetan.

Gero, azken produktua onetsitako proiektura egokitu ez bada, onespena ken dezake Hezkuntza Sailak. Baina praktikan, behin proiektua onetsita, nekez egiten da azken produktuaren azterketarik.

AZTERKETAN ERABILITAKO TESTULIBURUAK

BAULA

- Coneximent del Medi 3.* Bartzelona 1993.
Coneximent del Medi 4. Bartzelona 1993.
Coneximent del Medi Natural 6. Bartzelona. 1995.
Coneximent del Medi Social i Cultural 5. Bartzelona. 1994.
Coneximent del Medi Social i Cultural 6. Bartzelona. 1995.

BRUÑO

Euskaraz

- Ekintza 3. Euskara.* Bilbo 1993.
Ekintza 4. Euskara. Bilbo. 1993.
Haizea 3. Inguruaren Ezaguera. Bilbo. 1993.
Haizea 4. Inguruaren Ezaguera. Bilbo. 1993.
Haritza 5. Inguruaren Ezaguera. Bilbo 1994.
Haritza 6. Inguruaren Ezaguera. Bilbo. 1995.
Hitza 5. Euskara. Bilbo. 1994.

Gaztelera

- Enclave 3. Conocimiento del Medio.* Madril. 1993.
Enclave 4. Conocimiento del Medio. Madril. 1993.
Leyenda 3. Lengua Castellana. Madril. 1993.
Leyenda 4. Lengua Castellana. Madril. 1993.
Paisajes 5. Conocimiento del Medio. Madril. 1994.
Paisajes 6. Conocimiento del Medio. Madril. 1995.
Rima 5. Lengua Castellana. Madril. 1994.

EDEBE

Gaztelera

- Lengua y literatura 3.* Bartzelona. 1993.
Lengua y literatura 4. Bartzelona. 1993.
Lengua y literatura 5. Bartzelona. 1994.
Lengua y literatura 6. Bartzelona. 1995.
Matemáticas 3. Bartzelona. 1993.
Matemáticas 4. Bartzelona. 1993.
Matemáticas 5. Bartzelona. 1994.
Matemáticas 6. Bartzelona. 1995.

Katalanez

- Coneximent del Medi Natural 3.* Bartzelona. 1993.
Coneximent del Medi Natural 4. Bartzelona. 1993.
Coneximent del Medi Natural 5. Bartzelona. 1994.
Coneximent del Medi Social i Cultural 3. Bartzelona. 1993.
Coneximent del Medi Social i Cultural 4. Bartzelona. 1993.
Coneximent del Medi Social i Cultural 5. Bartzelona. 1994.
Coneximent del Medi Social i Cultural 6. Bartzelona. 1995.

EDEBE-GILTZA

Euskaraz

Hizkuntza eta literatura 3. Sondika. 1993.
Hizkuntza eta literatura 4. Sondika. 1993.
Hizkuntza eta literatura 5. Sondika. 1994.
Hizkuntza eta literatura 6. Sondika. 1995.
Inguruaren Ezaguera 3. Sondika. 1993.
Inguruaren Ezaguera 4. Sondika. 1993.
Inguruaren Ezaguera 5. Sondika. 1994.
Inguruaren Ezaguera 6. Sondika. 1995.
Matematika 3. Sondika. 1993.
Matematika 4. Sondika. 1993.
Matematika 5. Sondika. 1994.
Matematika 6. Sondika. 1995.

Gaztelera

Conocimiento del Medio 3. Sondika. 1993.
Conocimiento del Medio 4. Sondika. 1993.
Conocimiento del Medio 5. Sondika. 1994.
Conocimiento del Medio 6. Sondika. 1995.
Lengua y literatura 3. Sondika. 1993.
Lengua y literatura 4. Sondika. 1993.
Lengua y literatura 5. Sondika. 1994.
Lengua y literatura 6. Sondika. 1995.
Matemáticas 3. Sondika. 1993.
Matemáticas 4. Sondika. 1993.
Matemáticas 5. Sondika. 1994.
Matemáticas 6. Sondika. 1995.

EDEBE-MADRID

Conocimiento del Medio 3. Bartzelona. 1994
Conocimiento del Medio 4. Bartzelona. 1994
Conocimiento del Medio 5. Bartzelona. 1994
Conocimiento del Medio 6. Bartzelona. 1995

EDELVIVES

Conocimiento del Medio 3. Zaragoza. 1993.
Conocimiento del Medio 4. Zaragoza. 1993.
Conocimiento del Medio 5. Zaragoza. 1994.
Conocimiento del Medio 6. Zaragoza. 1995.
Lengua 3. Zaragoza. 1993.
Lengua 4. Zaragoza. 1993.
Lengua 5. Zaragoza. 1994.
Lengua 6. Zaragoza. 1994.
Matemáticas 3. Zaragoza. 1993.
Matemáticas 4. Zaragoza. 1993.
Matemáticas 5. Zaragoza. 1994.
Matemáticas 6. Zaragoza. 1995.

ELKAR-GIE

Euskaraz

- Beleko. Hirugarren zikloko gidaliburua.* Donostia. 1994.
Euskara 3. Donostia. 1995.
Euskara 4. Donostia. 1995.
Euskara 5. Donostia. 1995.
Euskara 6. Donostia. 1995.
Ingurunea 3. Donostia. 1994.
Ingurunea 4. Donostia. 1995.
Ingurunea 5. Donostia. 1995.
Ingurunea 6. Donostia. 1994.
Matematika 3. Baga-Biga. Donostia. 1995.
Matematika 4. Baga-Biga. Donostia. 1995.
Matematika 5. Baga-Biga. Donostia. 1995.
Matematika 6. Baga-Biga. Donostia. 1994.
Otsoko. Bigarren zikloko gidaliburua. Donostia. 1995.

Gaztelera

- Lengua Castellana 3.* Donostia. 1994.
Lengua Castellana 4. Donostia. 1994.
Lengua Castellana 5. Donostia. 1995.

EREIN

Euskaraz

- Euskara. Bigarren zikloa 1.* Donostia. 1992.
Euskara. Bigarren zikloa 2. Donostia. 1993.
Euskara 5. Donostia. 1994.
Euskara 6. Donostia. 1995.
Ingurunea. Bigarren zikloa 1. Donostia. 1992.
Ingurunea. Bigarren zikloa 2. Donostia. 1993.
Ingurunea 5. Donostia. 1993.
Ingurunea 6. Donostia. 1995.
Kalakari 3. Donostia. 1993.
Kalakari 4. Donostia. 1994.
Kalakari 5. Donostia.
Kalakari 6. Donostia. 1990.
Matematika. Bigarren zikloa 1. Magnitudeak eta geometria. Donostia. 1993.
Matematika. Bigarren zikloa 1. Zenbakiak eta eragiketak. Donostia. 1993.
Matematika. Bigarren zikloa 2. Magnitudeak eta geometria. Donostia. 1993.
Matematika. Bigarren zikloa 2. Zenbakiak eta eragiketak. Donostia. 1993.
Matematika 5. Kalkulu tailerra eta problemak ebazteko tailerra. Donostia. 1994.
Matematika 5. Zenbakiak, magnitudeak, estatistika eta geometria. Donostia. 1993.
Matematika 6. Kalkulu, problemak ebazteko eta geometri ikerkuntzako tailerrak. Donostia. 1994.
Matematika 6. Zenbakiak, magnitudeak, geometria eta estatistika. Donostia. 1994.

Gaztelera

- El Medio. Segundo ciclo 1.* Donostia. 1992.
El Medio. Segundo ciclo 2. Donostia. 1993.

El Medio 5. Donostia. 1994.

El Medio 6. Donostia. 1995.

Matemáticas. Segundo ciclo 1. Magnitudes y geometría. Donostia. 1993.

Matemáticas. Segundo ciclo 1. Números y operaciones. Donostia. 1993.

Matemáticas. Segundo ciclo 2. Magnitudes y geometría. Donostia. 1993.

Matemáticas. Segundo ciclo 2. Números y operaciones. Donostia. 1993.

Matemáticas 5. Números, magnitudes, geometría y estadística. Donostia. 1993.

Matemáticas 5. Talleres de cálculo y de resolución de problemas. Donostia. 1993.

Matemáticas 6. Números, magnitudes, geometría y estadística. Donostia. 1994.

Matemáticas 6. Talleres de cálculo, de resolución de problemas y de investigación sobre geometría. Donostia. 1994.

IBAIZABAL

Bi ta bi 3. Matematika. Euba. 1993.

Bi ta bi 4. Matematika. Euba. 1993.

Bi ta bi 5. Matematika. Euba. 1994.

Bi ta bi 6. Matematika. Euba. 1995.

Txepetx 3. Inguruaren Ezaguera. Euba. 1993.

Txepetx 4. Inguruaren Ezaguera. Euba. 1993.

Txepetx 5. Inguruaren Ezaguera. Euba. 1994.

Txepetx 6. Inguruaren Ezaguera. Euba. 1995.

Txor txor 3. Euskara. Euba. 1993.

Txor txor 4. Euskara. Prozedura koaderno. Euba. 1993.

Txor txor 5. Euskara. Euba. 1994.

SANTILLANA

Conocimiento del Medio 3. Animales y plantas. Madril. 1993.

Conocimiento del Medio 3. El paisaje y los trabajos. Madril. 1993.

Conocimiento del Medio 3. La tierra y el agua. Madril. 1993.

Conocimiento del Medio 4. Historia de las cosas. Madril. 1993.

Conocimiento del Medio 4. Paisaje y territorio. Madril. 1993.

Conocimiento del Medio 4. Tu cuerpo. Madril. 1993.

Conocimiento del Medio 5. El medio ambiente. Madril. 1994.

Conocimiento del Medio 5. Comunidad de Madril. Madril. 1994.

Conocimiento del Medio 5. Materia y energía. Madril. 1994.

Conocimiento del Medio 6. El cuerpo humano y la salud. Madril. 1995.

Conocimiento del Medio 6. España y Europa. Madril. 1995.

Conocimiento del Medio 6. Momentos de la Historia. Madril. 1995.

Lengua 3. Madril. 1993.

Lengua 4. Madril. 1993.

Lengua 5. Madril. 1994.

Lengua 6. Madril. 1995.

Matemáticas 3. Madril. 1993.

Matemáticas 4. Madril. 1993.

Matemáticas 5. Madril. 1994.

Matemáticas 6. Madril. 1995.

SANTILLANA-GRUP PROMOTOR

Coneixement del Medi Natural 3. Bartzelona. 1993.

Coneixement del Medi Natural 4. Bartzelona. 1993.
Coneixement del Medi Natural 5. Bartzelona. 1994.
Coneixement del Medi Natural 6. Bartzelona. 1995.
Coneixement del Medi Social i Cultural 3. Bartzelona. 1993.
Coneixement del Medi Social i Cultural 4. Bartzelona. 1993.
Coneixement del Medi Social i Cultural 5. Bartzelona. 1994.
Coneixement del Medi Social i Cultural 6. Bartzelona. 1995.

SANTILLANA-ZUBIA

Euskaraz

Hizkuntza 3. Leioa. 1993.
Hizkuntza 4. Leioa. 1993.
Hizkuntza 5. Leioa. 1994.
Hizkuntza 6. Leioa. 1995.
Inguruaren Ezaguera 3. *Animaliak eta landareak*. Leioa. 1993.
Inguruaren Ezaguera 3. *Lurra eta ura*. Leioa. 1993.
Inguruaren Ezaguera 3. *Paisaia eta lanbideak*. Leioa. 1993.
Inguruaren Ezaguera 4. *Gauzen historia*. Leioa. 1993.
Inguruaren Ezaguera 4. *Paisaia eta herrialdeak*. Leioa. 1993.
Inguruaren Ezaguera 4. *Zure gorputza*. Leioa. 1993.
Inguruaren Ezaguera 5. *Euskal Herria*. Leioa. 1994.
Inguruaren Ezaguera 5. *Ingurugiroa*. Leioa. 1994.
Inguruaren Ezaguera 5. *Materia eta energia*. Leioa. 1994.
Inguruaren Ezaguera 6. *Espainia eta Europa*. Leioa. 1995.
Inguruaren Ezaguera 6. *Giza gorputza eta osasuna*. Leioa. 1995.
Inguruaren Ezaguera 6. *Historiaren uneak*. Leioa. 1995.
Matematika 3. Leioa. 1993.
Matematika 4. Leioa. 1993.

Gaztelera

Conocimiento del Medio 3. *Animales y plantas*. Leioa. 1993.
Conocimiento del Medio 3. *El paisaje y los trabajos*. Leioa. 1993.
Conocimiento del Medio 3. *La tierra y el agua*. Leioa. 1993.
Conocimiento del Medio 4. *Historia de las cosas*. Leioa. 1993.
Conocimiento del Medio 4. *Paisaje y territorio*. Leioa. 1993.
Conocimiento del Medio 4. *Tu cuerpo*. Leioa. 1993.
Conocimiento del Medio 5. *El medio ambiente*. Leioa. 1994.
Conocimiento del Medio 5. *Materia y energía*. Leioa. 1994.
Conocimiento del Medio 5. *Pais Vasco*. Leioa. 1994.
Conocimiento del Medio 6. *El cuerpo humano y la salud*. Leioa. 1995.
Conocimiento del Medio 6. *España y Europa*. Leioa. 1995.
Conocimiento del Medio 6. *Momentos de la Historia*. Leioa. 1995.

ARGITALETXEEN IRIZPIDEAK

ASKOREN ARTEAN

Aztergai izan ditugun hezkuntz proiektuen arduradunei euren jokabidearen eta irizpideen berri eman dezaten eskatu diegu. Kanpoko hezkuntz proiektutan oinarritutako liburuak argitaratzen dituztenei, ikasmaterialak egokitzean zein irizpiderekin jokatzeko duten galdetu diegu. Testuliburu guztiak bertako proiektuen arabera lantzen dituztenei, euren irizpideez ezezik, beste argitaletxeen lan-moduak eurengan duen eraginaz ere galdetu diegu.

Lehen Hezkuntzako euskal testugintzako sei argitaletxe nagusiei egin diegu eskabidea —Bruño, Elkar-GIE, Erein, Giltza-Edebé, Ibaizabal eta Zubia-Santillana—, eta lauk bidali digute erantzuna.

Hona Elkar-GIEko eta Ereineko arduradunei igorri dizkiegun galdegaiak:

- Zure argitaletxeak bertoko lantaldeek mamituriko proiektua lantzen du. Zein irizpidez jokutzen duzue EAERI buruz, Euskal Herriaren lurraldetasunari buruz, Euskal Herriaren historiari buruz, antolamendu politiko-administratiboari buruz?

- Berton egindako hezkuntz proiektuez gain badira Espainiako autonomi elkarte guztiei begira egindakoak eta hemen itzuli edota moldatuz zabaltzen direnak. Edukiak eduki, zer ondorio du horrek proiektu propioa landu nahi duen zure enpresarentzat?

- Jatorri desberdinetako hezkuntz proiektuek maila bereko onespena jasotzen dute Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Hemen bertan landuriko proiektu propioek Eusko Jaurlaritzaren aldetik diskriminazio positiborik izan beharko luketela iruditzen al zaizu?

Bruño, Giltza-Edebé, Ibaizabal eta Zubia-Santillana proiektuetako arduradunei, berriz, galdera hauek egin dizkiegu:

- Zuen hezkuntz proiektuaren oinarrian Bruño / Edelwives / Edebé / Santillana dago, Euskal Herritik kanpo egina eta Espainiako autonomi elkarte guztiei begira pentsatua. Jatorrizko proiektu hori zein neurritan lantzen duzue hemen (testua eta ilustrazioa), hau da, zein neurritan itzuli, moldatu, aldatu, sortu?

- Zehazkiago, zein irizpidez tratatzen dituzue Euskal Herriko lurraldetasuna, euskararen mugak, historia, antolamendu politiko-administratiboa, eta abar?

Jasotako erantzunak hitzez hitz ekarri ditugu orrialdeotara:

ELKAR-GIE

Egia da Elkar-GIE argitaletxeok bertako lantaldeek mamituri-ko proiektuak lantzen ditugula. Honetarako, kontu handiz zaintzen dugu Euskal Herri osoaren trataera eta aipamena lurraldetasunari, historiari, antolamendu politiko-administrati-bo desberdinei eta abarri dagokienean, eta hau Inguruneari da-
gokionean nabari daiteke batipat. EAE aipatu behar denean, berriz, Euskal Herri osoaren zati bat bezala aipatzen dugu be-ti eta Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herriaren egoerarekin batera gainera. Espainia zein Europa aipatzean ere Euskal Herri osoaren kokapena eta aipatzen den gaiare ki-ko erlazioa azaltzen ere saiatzen gara. Bestalde, eta Inguruneaz gain beste arloetako jarduerak tratatzeko orduan ere, hala no-la Matematika, Hizkuntza, Arte Hezkuntza... Euskal Herria bere osotasunean hartzen batetik eta hemen bertako adibideak ipintzen bestetik saiatzen gara.

Espainiako autonomi elkarte guztiei begira egiten dituzten hezkuntz proiektuei dagokienean esan, gehienak, denak ez esatearren, Euskal Herrikan kanpo diseinatutako proiektuak direla eta euskaraz argitaratzen badira ere, itzulpen hutsak direla gehienak eta moldatuak edota egokituak gutxi batzuk. Honek zera dakar berarekin, alegia, itzulpenak izatean berta-ko ikasmaterialak baino askoz lehenago merkaturatzeko aukera dutela batetik, eta gure lurraldeaz kanpoko proiektuetan oina-rrituta euskaraz eskainitako materialek ikasleari ematen dio-ten informazioa arrunt okerra dela bestetik, Euskal Herriaren ikuspegi herrena garatu besterik ez baitute egiten testuliburu hauek erabiltzen dituzten haurrengan eta jokabide hau onarte-zina dela iruditzen zaigu.

Honez guztiaz gain, jatorri desberdineko hezkuntz proiektuek maila bereko onspena jasotzen dute Hezkuntza Sailean eta jokabide honek ere mereziko luke azterketa sakon bat eta, ondorioz, jokabide aldaketa bat ere bai. Gure iritziz, Euskal Herrikan kanpo diseinatu eta euskaratu ondoren hemen salmen-tan ipintzen diren proiektu arrotzek beste era bateko trataera jaso beharko lukete Hezkuntza Sailaren aldetik. Hezkuntza

Sailak sakontasunez aztertu beharko lituzke kanpoko proiektu hauetan azaltzen diren edukiak, ilustrazioak, egiten diren aipamenak, eta abar, eta Euskal Herriaren osotasuneko kontzeptzioa kontuan izanez, bertako ezaugarri errealetara moldarazi, hemen funtzionatu behar duen ikasmateriala dela kontuan hartuz. Baina, zoritxarrez, hemendik oso urrun gaudela uste dugu eta gaur egun berdin-berdin onesten dituela Hezkuntza Sailak hemendik bertatik sortutako proiektuak zein kanpotik datozenak.

EREIN

Lurraldetasuna eta kulturaren trataera

Guretzat hauek dira irakaskuntzaren helburu nagusietako bi: ikaslea gizarteratzea eta ikaslearen garapenean laguntzea.

Gizarteratze hori era egokian burutzeko, lurraldetasunari eta historiari buruzko erreferentzia garbiak behar dira. Gure ikuspegitik, bi erreferentzia behintzat izan behar ditu ikasleak:

- Alde batetik, herri hau ezagutu behar du, antzina-antzinatik gaurdaino kultur eremu berebean bizi izan den eta bizi den Herria. Herri honek bere ezaugarriak ditu (hizkuntza, sinismenak, ohiturak, historia...), eta bertako biztanleak ezaugarri horien arabera gizarteratuz joan dira belaunaldiz belaunaldi, mendeetan zehar. Herri hau diogunean, jakina, zazpi zatik osatutako Euskal Herria esan nahi dugu; horixe hartzen dugu geure proiektuan. Gure ustez, gaur egun Herri horretan bizi den ikaslea ere ezaugarri horiek ardatz gisa harturik gizarteratu behar da.

- Bestetik, munduko beste herri asko bezala, Euskal Herria ez dago antolamendu politiko-administratibo bakar batean bilduta. Ikasleak, era egokian gizarteratuko bada, non bizi den ezagutuko badu, Herri hori zein gobernupean antolatua dagoen ezagutu behar du, nondik sortu den antolamendu hori eta abar.

Bi alderdi horien ezaguera ezin zaio lapurtu ikasleari inolako aurriritzi politikoan oinarrituz.

Bestalde, ez dugu ahazten Euskal Herriaren errealitate hori ez dela estatikoa. Ahalegintzen gara agertzen etengabe erakiz joan behar den errealitatea dela, eta ikasleak berak ere errealitate horren eraikitzaile izan behar duela. Zentzu horretan, garbi agertzen ditugu gure testuetan Euskal Herria osatzen duten elkarte sozial eta kulturelek, erakunde politikoek eta abarrek zer kezka, ikuspegi, aldarrikapen dituzten, eta Euskal Herriaren geroa eguneroko partaidetzatik eraikitzen dela agertzen diegu ikasleei.

Alderdi horiek guztiak hartu nahi izan ditugu kontuan gure materialetan, ikaslearen eskubidea delako, Oinarritzko Curriculum Diseinuak markatzen duen ildoari atxikitzen gatzazkiolako, eta ikaslea ikuspegi kritikoz hezi dadin baliagarria delako.

Euskal Herrian egindako hezkuntz proiektuen funtsa

Espainiako argitaletxeek argitaratzen dituzten liburuak Espainiako autonomi elkarte guztiei begira eginak dira, autonomia bakoitzarentzat egokitzapen txiki batzuk txertatuz.

Gure liburuak eta haienak paretsuan dabilta grafismo aldetik, paperaren kalitate aldetik eta beste zenbait ezaugarri teknikoren aldetik; beraz, hasierako produkzio-kostuak berdintsuak dira kasu guztietan. Hala ere, haien tiradak lau, sei edo hamar aldiz handiagoak dira, eta horrek laurdenera edo gutxiagora jaisten du liburu bakoitzaren kostua. Beraz, marketing eta promoziorako erabil ditzaketen baliabideak askosaz ere handiagoak dira, eta promozio erasokorrari esker esparru zabala lortzen dute, hainbat ikastetxetan sarbidea dutelarik.

Bistakoa da, beraz, ez garela ari baldintza ekonomiko berdinetan. Hala ere, hori gure arazoa litzateke, eta ez beste inorena, baldin eta:

— gure Herriaren, bere lurraldetasunaren eta kulturaren traera lehen aipatu dugun eta guk ematen diogun ikuspuntutik kontenplatuak baleude;

— kanpotik datozen argitaletxeen liburuak Euskal Herriko pedagogi taldeek eginak baleude. Hori horrela balitz, sorkuntza intelektuala bultzatzen arituko liriateke, bertako irakasle-taldeen prestakuntza hobetuz, materialen esperimentazioa praktikan bultzatuz eta material horiek eraberrituz. Hau guztia egiten dugu, hain zuzen, hemengo argitaletxeek.

Euskal argitaletxeek pedagogi arloan egiten ditugun ekarpen horiei beste bi gehitu behar zaizkie:

- Materialak prestatzen dituzten irakasleek ikastaro ugari ematen dituzte beste irakasle batzuk prestatzeko, eta hori ezi-

nezkoa litzateke —hain neurri zabalean, bederen— argitaletxeek lan-taldeak izango ez bagenitu. Kanpoko argitaletxeek ez dute horrelako ekarpenik egiten.

- Bertako produkzioak ilustratzaile- eta grafista-belaunaldi berri bat sortzeko bidea ematen du. Ondorioz, bertan burututako pedagogi sorkuntza, irakasle-taldeen espezializazioa eta prestakuntza, arte-sorkuntza eta industri garapena eskutik doaz Euskal Herriko argitaletxeen planteamenduan, eta hori ez da horrela gertatzen kanpotik datozen argitaletxekin.

Hau dena kontuan hartu beharko lukete Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak laguntzak emateko unean.

IBAIZABAL

Hezkuntz Erreforma dela eta, Ibaizabal argitaletxeak gogor ekin dio sistema berriari Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta baita, momentu honetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere.

Dirudienez, zuen azterketak ez du ikutzen gure lan osoaren atal bat baino; Ingurunearen alorra bereziki, baina gure ikuspegi eta irizpideei buruz galdetzen diguzuenaz, hona hemen gure erantzun xehea eta laburra.

Lehenengo eta behin, lehen galdegaian ageri diren hiru baieztapen horiekiko ezadostasuna azalduko dizuet:

- Ibaizabal Hezkuntz Proiektua propioa da, Euskal Herrian sortua, eta zenbait arlotan Ibaizabalek Edelvivesekin elkarlanean dihardu. Beraz, bigarren baieztapena («Euskal Herritik kanpo egina») ez da zuzena, ezta hirugarrena («...eta Espainiako autonomi elkarte guztiei begira pentsatua») ere. Hain zuzen ere, zenbait arlotan Euskal Herrirako Ibaizabal eta Edelvives elkarlanean ari diren bitartean, beste autonomi elkarteetarako ere beste argitaletxe batzuk ari dira Edelvivesekin elkarlanean.

- Orain arte azalduko guztia zehazteko zenbait adibide ipiniko ditut:

— Haur Hezkuntzan, Ibaizabalek Hezkuntz Erreformatarako bere material curricularrak argitaratu ditu (*Mizintxu 3, Sagu eta Magu 4 eta Lea Balea 5*). Hemen argitaraturiko materialak Edelvivesek urtebete beranduago argitaratu ditu, euskarazkoak oinarritzat hartuz.

— Zerbait antzekoa gertatu da Lehen Hezkuntzan Erljio Katoliko arloan ere.

— Une honetantxe eta Ingurunea alorrarekin erlazionaturik, Lehen Hezkuntzan landu beharreko sei oinarritzko zeharlerroak prestatzen dihardugu: Bide Hezkuntza, Ingurugiroaren Hezkuntza, Bake Hezkuntza, Osasun Hezkuntza, Kontsumo Hezkuntza eta Hezkidetza. Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako eta zeharlerrobakoitzerako karpeta bat prestatzen ari ga-

ra, eta karpeta bakoitza ipuin, prozedura-koaderno, joko eta gidaz osatuko da.

— Honelako lanetan koordinatzaileak, egileak, marrazkilariak, maketatzaileak, fotomekanika... Euskal Herrikoak dira eta proiektuak geureak dira, hau da, Ibaizabal argitaletxearenak.

- Gure asmo nagusia honako hau da: guk prestaturiko materialak Edelvivesek ere argitaratzea, hauek ahal denik eta merkeen argitaratzeko.

Orainarteko xehetasunak argi geratu direlakoan eta Inguru-nearen alorra Lehen Hezkuntzan aztertuz, hemen bidaltzen dizuet *Txepetx* (Inguruaren Ezaguera) bildumaren triptikoa. Triptikoa argi ikusten denez Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako liburuak eta prozedura-koadernoak ageri dira, eta beraiekin batera *Mintxo Euskal Herrian* bideo-bilduma. Triptikoaren atzealdean azaltzen denez, *Txepetx* bildumaren helburuak honako hauek dira:

1) eskola curriculumaren diseinuan eta ezarpenean Euskal Herriko irakaslearen ahaleginen euskarri izatea,

2) ikasketaren ezaugarriak errazago bideratzeko proposamen didaktikoak iradokitzea,

3) ikaslearen ikasketa-prozesua gertuagotik zaintzea, eta

4) betiko metodoen ondoan beste aukera didaktiko batzuk proposatzea.

- Hirugarren helburua (ikasketa gertuagotik) kontuan harturik, lehen zikloan landu ditugun ikasgaiak Euskal Herrian bertan eginak dira (egileak, marrazkilariak...) eta ikaslearengandik hurbil dauden gaiak aztertzen eta proposatzen dira (ikaslearen etxea, auzoa, eskola eta bizilekua). Gabonetan Olentzeroen inguruan arituko dira, animaliak gure ingurukoak dira...

- Lehen helburua (Euskal Herria) kontuan harturik, bigarren zikloan landu ditugun ikasgaiak ere Euskal Herrian bertan eginak dira (egileak, marrazkilariak...). Bizilekua, eskualdea, probintzia eta Euskal Herria (zazpi probintziak) aztertzen dira. Bigarren zikloko bederatzigarren gaiaren izenburua «Eus-

kal Herritik Euskal Herrira» da eta Euskal Herriko geografia aztertzen da batipat. Hamabigarren gaian «Gure iragana» (Euskal Herrikoa) aztertzen da.

- Hirugarren zikloan Euskal Herria eta Autonomi Elkartek (5. mailan), eta Espainia eta Europako Elkartea (6. mailan) aztertzen ditugu; horrela, Eusko Jaurlaritzaren Oinarrizko Curriculum Diseinuak gutxiengoz eskatzen dituen helburuak eta edukiak jasoz.

- *Mintxo Euskal Herrian* ere hemen egina da eta *Txepetx* bildumarekin loturik dago.

Hau guztia kontutan izanik eta zuen galdegaiak ahal denik eta zehazkien erantzuten ahalegindu garelarik, eskerrik asko gure balorazioa eskatzeagatik.

GILTZA-EDEBE

Edebé talde editoriala honako hauek osatzen dugu:

- Edebé (Catalunya eta MEC)
- Rodeira (Galizia)
- Marjal (Valentzia)
- Guadiel (Andaluzia)
- Giltza (Euskal Autonomi Elkartea)

Hezkuntza proiektuaren ardatz nagusiak (oinarri sikipedagogikoen trataera, ikuspegi metodologikoa...) amankomunak dira, baina materialak, itzuliak edo sortuak izan daitezke. Horietan ikasgai motak du zerikusia. Laburtuz:

Testua

Hemen itzuliak dira:

- Zientziak saileko liburuak (eduki unibertsalak dituztenak).
- Matematika. Natur Zientziak.

Hemen sortuak dira:

- Hizkuntza eta literatura.
- Inguruaren Ezaguera. (Gure autonomiari dagozkion eduki espezifikoak. Liburuaren barruan Autonomia guztientzat baliagarriak izan daitezkeen eduki orokorrak egon ohi direnez, elkarrekin konpartitzen dira. Adibidez: «Zer da klima?» (orokorra) / «Euskal Autonomi Elkarteko klima» (espezifikoa).

Ilustrazioa. Argazki-irudiak

Testurako erabiltzen den irizpide bera: eduki espezifikoetarako, euskal ilustratzaile, edota argazkilariak. Eduki orokorretarako, Edebé artxibategia (edonongo iturriak).

Ingurunearen Ezaguera

Inguruaren Ezaguera testuliburuetan, irizpide hau darabilgu orokorki, gaur eguneko errealitate politiko-administratiboaren arabera:

- Euskadi (Euskadiko Autonomi Elkarte), ekonomia eta geografiarako.
- Euskal Herria, alderdi kulturalak agertzeko orduan: hizkuntza, folklorea...

Oharrak

- Bereizketa honek —iritziak iritzi— Edebé editorialaren barne-ideologiari erantzuten dio neurri handi batean, baina badu merkatuaren zatiketarekin zerikusia ere.
- Nafarroarako liburua gaztelaniaz bakarrik egiten da.

IRITZI-BILKETA

ASKOREN ARTEAN

Hezkuntzaren munduan zeresan handia dutela uste dugun hainbat erakunderi aztergai dugun gaiaren gaineko iritzia eskatu diegu. Eusko Jaurlaritzara, alderdi politikoetara, sindikatuetara eta irakaskuntzan zeresana duten beste hainbat erakundetara bidali dugu eskabidea. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, EAJ, PSE-EE, HB, EA eta PP alderdiei, ELA, LAB eta EILAS sindikatuei, eta Ikastolen Elkaritea, Partaide, FERE (Irakaskuntzako Erlijosoen Federazio Espainiarra), Hik Hasi pedagogi aldizkaria, Euskadiko Eskola Kontseilua, EHUko Pedagogia Fakultatea eta EHUko Donostiako Irakasle-Eskolari eskatu diegu iritzia.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Ikastolen Elkarteak, EAJk, HBk, ELAk eta LABek bidali digute erantzuna.

Gure azterketaren ondorioen artean hiru nabarmendu dizkie - gu, gaiaren gaineko iritzia ematerakoan aintzat hartzeko mo - dukoak izan daitezkeelakoan.

- *Aztertu ditugun sei argitaletxeetatik (Elkar-GIE, Erein, Bru - ño, Giltza-Edebé, Ibaizabal, Zubia-Santillana), lehenengo biek bai - no ez dituzte argitaratzen Euskal Herrian landutako liburu orji - nalak, bertako pedagogia taldeek landuak. Gainerako lauek, Madrileko edo Bartzelonako argitaletxe nagusien proiektuen araberrako liburuak banatzen dituzte batez ere: itzulpen hutsak batzuetan, itzulpen egokituak bestetan, lan propioak ere bai beste batzuetan. Edukiak, beraz, Estatuko ikuspegitik jorra - tzen dira gehienetan, ez Euskal Herriaren ikuspegi espezifikotik.*

- *Ingurunea alorreko gai sozialetan (historia, geografia, politi - ka, kultura, hizkuntza...) oso irizpide desberdinekin jokatzeko dute argitaletxeek. Bertako proiektu pedagogikoa dutenek Eus - kal Herria bere osotasunean hartzen dute gai hauek lantzeko. Gainerakoan artean gora-behera handiak daude: «gure lurraldea» Espainia eta Euskal Autonomi Elkartearen direla erakusten dute ba - tzuek, «euskal lurraldea» EAE da kasu batzuetan, Euskal Herria bestetan... Irizpide eza ageri da batzuetan, eta irizpide garbirik ageri denean, ikasgaiak Euskal Autonomi Elkartera eta Espainia - ra mugatzen dira.*

- *Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Lehen Hezkuntzako Curriculumaren ezartzen duen 237 / 1992 Dekretuak Euskal Auto - nomi Elkartearen, Estatu Espainiarra eta Europako Elkartearen era kon - tzentrikoz ulertzen ditu, eta Euskal Herria bere osotasunean eta bere historian tratatzeko elementurik ez du zehazten. Helburu bereko Generalitat-eko Dekretuak (Decret 95 / 1992) delakoak, aldiz, Curriculum-aren definizioa eduki historiko eta geografiko zehatzez hornitzen du, hainbat ezaugarri eta data espreski ai - patuz.*

Ondoko orrialdeetan datoz jasotako erantzunak.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza-sistemaren euskal dimentsioa (nortasuna), legegintzaldi honen erronka

Hezkuntza-sistemen dimentsioa eta aurrekariak Euskal Herrian

Hezkuntza-sistemak, estatalak nahiz bestelakoak, aldaketa sakon batean daude murgilduta, inguruneko errealitateetara hobeto egokitzeke nortasunaren bila eta, aldi berean, gaur egungo munduan gertatzen ari den intemalizazio-prozesuan homogenotzeko saioan. Europako herrialde gehienetan gertatzen ari diren hezkuntza-erreformak nagusitzen ari den prozesu bikoitzaren (nortasunarena eta homogenotzearena) lekuko dira. Bestetik, sozietateetako kulturek ez dute parekotasun politiko eta ekonomikorik bizi, ez eta prestigio-parekotasunik ere. Kultur desabantaila eta gatazkak nagusi diren egoerak sortzen dira, zuzendu behar diren asimilazio-kasuak gertatuz.

1993ko irailean Europako Batzordeak «Hezkuntzaren dimentsio europarrari buruzko liburu berdea» deritzan dokumentua zabaldu zuen eta bertan, B Eraskineko 7. Erabakian, garapenerako etapa desberdinak planteatzen ziren eta ondoko helburuak zehazten zituen:

- Gazteengan nortasun europarra sendotzea eta zibilizazio europarraren balioa ulertaraztea, hots, Europako herrialdeek beren garapenerako oinarrien balioa ulertaraztea, demokrazia, justizia soziala eta giza eskubideen errespetuaren printzipioen babesa hain zuzen ere;
- gazteak Elkarteko garapen ekonomiko eta sozialean parte hartzeko prestatzea eta batasun europarra lortzeko aurrerapausu nabarmenak ematea, Europako Agiri Bakunean ezartzen den bezalaxe;
- honek, espazio ekonomiko eta sozial zabalagoa irekitzen duela-eta, dakartzan abantailaz ohartaraztea eta, era berean, honen ondoriozko erronkaz jabetzea;
- Elkartearen beraren eta Estatu elkartekideen historia, kultura, ekonomia eta gizarteari buruzko alderdien ezaguerak hobetzea eta Europako Elkarteko elkartekideek Europako eta munduko beste herrialdeekin duten lankidetzaren esanahiaz ohartaraztea.

Bestetik, jasoarazi behar dugu Euskal Herrian euskal kultura, Herriaren kohesiorako elementu gisa, hezkuntzan barnebiltzearen kezka errebindikazio historikoa dela: gehiegi zehaztu gabe ondoko gertakari esanguratsuak emango ditugu aditzera:

- Mende honetan egindako Eusko Ikaskuntzaren Biltzar desberdinek pedagogi ideia berritzaileak txertatzearen komenigarritasunari buruz eta Euskal Herriko kultur esparrurako egokitzapenari buruz jardun dute. Gasteizen 1993an egindako Biltzarrak euskal ikasketa hezkuntza-sistemaren barruan izan zuen aztergai.

- 60ko hamarkadan indarrez eratu zen Ikastolen mugimenduak euskara hezkuntzaratzea errebindikatu eta planteatu du eta, areago, nagusi den eskola-eredua aldatzeko beharra ere planteatu du.

- 80ko hamarkadan erakundeek garatutako prozesu autonomikoak aurreko aldiaren ezarritako euskalduntzeko ekintzak sakondu eta errazteko eta euskal kulturaren inguruko jarduerak sustatzeko programak ezarri zituen. Programa hauek gorabehera desberdinak izan dituzte azken urte hauen barruan, alabaina, euskalduntze-prozesuari euskarri handia eskaini diote. Gaur egun, 1996. urtean, beharrezkoa gertatzen da Euskal Autonomi Elkartereko hezkuntza-sistemaren osotasunari beste bultzada bat ematea.

Kultur kohesioa eta balore demokratikoen garapena

Hezkuntza-sistemaren euskalduntze-prozesuan urrats garrantzitsuak eman dira. Dena den, datozen urteetan beste urratsak eman beharko ditugu, gure Herriko hezkuntza-erreformaren beraren erronka handiari erantzunez. Gure ahalegina ezin da hezkuntzaren alderdian mugatu. Irakaskuntzaren edukietan gehiago sakondu beharko dugu, ezaguerak, gertakariak, ikuspegiak eta baloreak prozedura demokratikoen bidez belaunaldi berrietara zabaltzeko.

Legegintzaldirako hezkuntza-politikari buruz 1995eko otsailan egindako agerpenean konpromisu hau bere gain hartu

eta ondoko hitzetan eman zen aditzera kultur kohesioari eta balore demokratikoei dagokienez:

Euskal hezkuntza-sistemak gure Herriko egoeraren ezaguera erreala eskaini behar du eta euskaldunei etorkizunaren erronka irabaztea eta gero eta mundu lehiakor eta homogenotuago batean beren nortasunari eustea garantizatuko dien prestakuntza zientifikoa eta humanistikoa eskaini behar du.

Horrek guztiak hezkuntza-edukiek beharriaz erantzutea exigitzen du, beti ere nortasun propioa duen herri bat eratu duten alderdi historiko eta kulturalak abiapuntutzat hartuta. Ildo horretan, hezkuntza-sistemari Euskal Autonomi Elkarte berariazko prestakuntza-beharriaz erantzun egokia ematea ahalbidetuko dioten curriculum-eduki propioak ezartzeko ahalmena ahalik eta gehien sustatuko da.

Beste hitzetan esanda, beharrezkoa gertatzen da belaunaldi berriek kultura unibertsalaren testuinguruan euskal kulturaren nortasuna transmititzea / eskuratzea ahalbidetuko duen moduan jardutea.

*Nola garatu hezkuntza-sistemaren euskal dimentsioaren prozesua?
Bere gain hartzearen erronka*

Jasoarazi behar dugu hezkuntzaren praktikak eta gogoetak ez diotela erritmo berari jarraitzen, bizitza sozialaren beste alderdi askok bezalaxe. Gure aldetik, funtsean lortu nahi duguna zera da: eskolak eta gizarteak garatu behar duten berezko kultur nortasuna abiapuntutzat hartuta, ikasleek beste kulturak ezagutzea eta aintzat hartzea, komunikazioa errazteko eta aditze eta bizikidetasun hobea lortzeko xedez.

Prozesu honetan, inolako zalantzarik gabe, zenbait urrats eman beharra dago eta urrats hauen *helburuak* berariazko *jarduketan* bidez artikulatu behar dira. Epe ertaina eta luzea duen zereginari ekin diogu.

- Hezkuntza-sistemaren euskal dimentsioa lantzeko honako helburu hauek jarri dizkiogu geure buruari:

- 1) gazteengan Europako ingurunean Euskal Komunitatearen partaide izatearen nortasuna sendotzea;

2) gazteak Herriaren garapen ekonomikoan eta sozialean parte hartzeko prestatzea;

3) honen ondoriozko erronkaren abantailez ohartaraztea;

4) testuinguru zabalago baten barruan alderdi historiko, kultural, ekonomiko eta sozialen ezaguera hobetzea.

• Helburu hauen garapena eskola-programen, ikasmateria-
len, irakasleen prestakuntzaren eta Ikastetxeen planen eremue-
tan egin beharreko *berriazko ekintzetan* gauzatzen da.

a) Hezkuntza-Erreforma planteatzen dituen *eskola-progra-
mak edo curriculum-programak* Haur-Hezkuntzan, Lehen Hez-
kuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan garatzen di-
ra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa eta beste ere-
mu batzuetan, ordea, garatu gabe geratzen da. Hezkuntza Sai-
lak ondoko orientabideari jarraituz jardungo du:

— Haur-Hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren eta DBHren
ikasketa-planak *berrikustea*, eduki propioak txertatzeko. Ho-
nek adierazitako dokumentuak birplanteatzea ekarriko du.

— *Aukerazko* dokumentuak berrikustea, dokumentu hauek
esperientzi eta eremu zientifiko desberdinetan ingurune so-
zio-ekonomikoak egindako ekarpenekin aberasteko xedez.

— Batxilergoari buruzko dokumentu berriak berezko ikuspe-
gitik landuko dira.

Arestian adierazitako dokumentuak landu eta aztertze-
ko lan-taldeak antolatu dira.

b) *Irakasleen prestakuntza* funtsezkoa gertatzen da aipatu-
tako helburuak lortzeko, are gehiago gaur egungo irakasleen
hasiera bateko prestakuntza kontuan izanik, izan ere, gehie-
nak ez dute mota honetako ezaguerarik jaso. Nabarmena da
beste oztopo ideologiko eta politikoak gainditu behar-
ko direla. Etengabeko prestakuntzako programek bereziki aztertu behar-
ko dute prozesu hau eta ildo horretan bideratutako jardue-
rak aurrikusi dira.

c) *Curriculum-materialak eta testuliburuak*. Dualtasun batek
definitzen du gaur egungo errealitatea: berezko produkzio bi-

dez produzitu eta sortutako liburuak eta eremu globaleko testuak, itzulitakoak edo itzuli gabekoak.

Gaur egun berrikuspenari ekin zaio eta horretarako ondo-ko alderdiak izango dira kontuan, besteak beste: materialek eta testuek isladatzen duten ikuspegi «sinbolikoa», Euskal Herriaren lurraldearen tratamendua eta euskal kultura eta historia-ri eskainitako edukiak.

Ildo horretan, Hezkuntza Sailak materialak lantzeko oinarri eta kode amankomunak lantzen saiatuko den lan-talde bat sortu du.

d) Hezkuntzaren-sistemaren euskal dimentsioaren elementuak praktikan aplikatzea Ikastetxeen beraien *Hezkuntza-Proiektuetan eta curriculum-proiektuetan*. Zeregin honek zerbitzu laguntzaileen berariazko aholkuak eskatuko ditu.

Hezkuntza Sailak, lau gako estrategiko oinarritzat hartuta, *guztien jarduna* planteatzen du, baliabide teknikoetan oinarritzea bilatuz eta eskola-komunitatearen eragile desberdinen lankidetzat bilatuz.

XABIER AGIRRE

(Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea)

IKASTOLEN ELKARTEA

Euskal ikasmaterialgintza

Paulo Freire pedagogoak dioenez, «Heziketa orok dute bere baitan gizakiaren eta munduaren kontzepzio bat». Horra hor, hitz gutxitan adierazia, hezkuntzaren esanahia edonolako kulturaren. Euskal Herriari dagokionean, Ikastolen Elkarteak aitortzen du ekoizten dituen ikasmaterialetan saiatzen dela gizakiaren eta munduaren kontzepzio jakin bat aurkezten, irakasleek, ikasleek eta hauen gurasoek aktiboki eta kritikoki gara dezaten.

Euskal curriculum propio baten garrantzia

Euskal irakaskuntza bezain zaharra da ondoko galdera hauei erantzun aproposa bilatzea:

- Euskara, eta euskaraz ezezik, *zer* irakatsi?
- Eduki hauek bai, eta horiek ez, *zergatik*?
- *Ze irizpide* hautaketa hori egiteko garaian?
- Zein *helburu* lortu nahi dira?
- Zein *ekintza* eta *eragilez* baliatu?
- Eta abar.

LOGSE indarrean jartzeak, besteak beste, curriculum-diseinuaren eztabaida ekarri du irakaskuntza mundura, eta —bide batez— euskal irakaskuntzaren sektore arduratsuenengan ohizko burutazioa berpiztu da: oinarrizko curriculum-diseinuan, ikaslearen hezkuntza integralaren kontzepzioaz bat egin da ere, non da euskal irakaskuntzari dagokion curriculum espezifikoa, *euskal sen kritikoa* garantzen duena, alegia?

Argi dago Herri bakoitzak, bere Kultura transmititu nahi izaten duela hainbat estrategia erabiliz. Hauen arteko garrantzitsuenetako bat, haur/gazteen irakaskuntzan eragitea izan da. Estatu guztiek, kontzientzia nazionalaren, abertzaletasunaren, eta —ondorioz— aberrigintzaren oinarrietako bat (*Oinarria*, agian) hezkuntza antolatua, eskola-sarea, kontsideratu dute.

Hezkuntza-sistemaren antolaketa administratibo edota arauemaileaz gain, Estatuak bere ikuspegi kulturala ezartze-

ko, eragin du beste faktorerik: curriculuma. Hain zuzen ere, ezkutuan edota agerian ikasleengan lantzen diren edukiak, prozedurak eta jarrerak.

Eraso-curriculumak, Euskal Herrian

Bai Estatu espainolak, bai frantsesak, eragin dituzten hezkuntza-sistemak, espainiartasuna/frantziartasuna Euskal Herrian sartzeko eta finkatzeko parekorik gabeko tresnak izan dira, euskaldun izatearen, senaren eta kontzientziaren kalteetan. Gaur egun, oraindik orain, hezkuntza-sistema horiek sorrarazi dituzten eta sorrarazten ari diren ondorio ezkorrak nabari dira.

Euskal belaunaldi ugariak, jasan dituzte —eskolaren bidez— Espainia/Frantziaren handitasunaren adierazpenak: hizkuntzan, ohituretan, kantetan, siboloetan, ideologian... bere kultura osoan, alegia. XVIII. mendeko Antzinako Erregimenak, XIX. mendeko Liberalismoak, edota XX. mendeko diktadurak zein demokraziak, modu eta maila berezitan, baina amankomuntasun batez, euskaldun-nortasunaren ukazioa eragin dute.

Baina, Estatuaren interesak zaintze-lanetan, bada elementu arrunt eraginkorra: ikasmateriala. Estatuak irakasleak, ikuskarriak, eskolak, hornidurak... antolatu izan dituen legez, argitalerak jokatu dute kultur erreproduziorako agente leialen papera, ideologia nagusiaren transmisioa eraginez.

Berezko euskal curriculum ofizialik eza

Gaurko egoerara etorrira, arazoak sakon-sakonean dirauela esan behar da, diseinu curricularretan formak leundu nahi diren arren, «irekitasuna», «malgutasuna»... gisako ezaugarri mozzorrotuen azpian.

LOGSEren aplikapenaren inguruan, Curriculumak garatzeko Dekretuak, adibidez, derrigorrezkotzat hartzen dituen edukiak aztertuz, zera beha daiteke: euskal errealitatea EAera mugatzen dela, eta hori bera lantzerakoan beti Espainiarekin itsatsirik behar dela egin. Argi dago Administrazio publikoak Euskal Herriarekiko egina duen ikuspegi politikoa, curriculum bihurtu nahi duela eskolaren bidez, eta euskal gizartean

naturala, normala, bezala azaldu, legitimazioa, zilegitasuna irabazteko asmoz.

EAEko Eusko Jaurlaritzak har zitzakeen erabakiei buruz, ez da inongo emaitzarik azaldu curriculum propio baten inguruan. LOGSEk, curriculum zati bat garatzea Autonomi Elkartearen esku utzi arren, begi-bistakoa izan da ikuspegi ideologiko espainola zuten PSOEko agintarien ondarea (curriculum propioaren diseinurik eza). Une honetan agintearen kudeaketa duen ikuspegi ideologikoak desideratum berri bat duela dirudi bere esanetan:

(...) Horrek zera eskatzen du; batetik, hezkuntza-edukinek behar propioei erantzutea, testuinguru europarrean lehiatzeko prestakuntza egokia eskaintzen duten alderdi zientifiko eta teknologietatik, eta bestetik, nortasun propioa duen herri bat eratu duten elderdi historiko eta kulturalen ezaguera sakona. Horretarako, curriculum-eduki propioak ezartzeko gaitasuna ahalik eta gehien bultzatuko da, sistemak Euskal Autonomi Elkarteko hiritarren prestakuntza-premia espezifikoei behar bezala erantzuteko.

(1995. Otsailak 24. Inaxio Oliveri Hekuntza Sailburua)

Alternatiba askatzaile bat: ikastola

Ikastola da, frantses zein espainol estatuetan, euskal gizarteak sortu eta eratu duen erantzunetako bat, hezkuntza-sare propioa izateko asmoz, estatuen eskola sistemari kontrajarria.

Ekarpen pedagogiko eta organizatibo askoren artean (koedukazioa, haur hezkuntzaren berformulazioa, didaktika alternatiboa, teknologia berriak, gurasoen protagonismoa), ikastolak urratu, landu, erein eta jorratu du curriculum berri bat: herri-ohitura eta usadio galduak berreskuratu, euskara hizkuntza nagusitzat garatu, eleaniztasunaren kontzepzioa plazaratu, Euskal Herriaren osotasun territoriala defendatu, euskal historia eta geografia aurkeztu, euskal nazioaren proiektua eta sinbologia eragin, kantagintza, literatura, bertsolaritza, pilota... uni-bertso euskaldun ustezkoa eskolaratu.

Ikastolen literaturan, bada sen honi erantzuten dion pasarterik:

Beste nazio eta herrietara zabalik egonik, gizon-emakumeak bere idiosinkrazia propioa duen komunitate kultural baten nortasunetik hezi nahi ditu Ikastolak. Mendebaldeko kulturaren partaide eta kultura unibertsalera irekia egonik —eremu bereko beste ikastetxeekin konpartitzen ditugun ezaugarriak horiek—, Ikastolak bere hezkuntz substantzia espezifiko bat du, bere sinbolo, mito eta erritoetan; bere ohitura, tradizio eta historian; bere elezhar, abesti eta dantzetan; bere mundu materialarekin erlazionatzeko, komunikatzeko eta organizatzeko, bizitza interpretatzen duen eran... isladatzen dena, hau da, Euskal Herriaren jeinu eta izpiratuan isladatzen dena, alegia.

Hezkuntz substantzia hau, beste kulturekiko etengabeko elkarrekintza batean, izan liteke egokitua eta eguneratua, asimilatua izaten den heinean. Kontrakoa, alienazioa litzateke.

(EHIK. 1988)

Euskal Eskolarako ikasmaterialgintza

Aurreko lerroetan deskribaturiko koordenatueta kokatu nahi ditu Ikastolen Elkarreak bere eskaintza eta proposamena: Euskal Herritik, Euskal Eskola lortzeko ikusmolde pedagogikoan hain zuzen ere. Ez dugu, beraz, kultura hegemonikoa erreproduzitzen duen curriculumik onartu nahi, aitzitik ikasmaterialgintza propioa planteatzen dugu, honako bi jorrabide hauen arabera: bat, zentripetoa, barrura begira, Euskal Herriaren berezko errealtateari so eginez, eta bestea, zentrifugoa, kanpora begira, Euskal Herriaz gain dagoen beste errealtatea behatuz:

(...) Pertsonak eta herria bere identitate propioarekin jazen badiugu, orduan bai Estatuko beste herriekin, Europarekin eta mundu osoarekin erlazionatu ahal izango garela.

Bizimodu ezberdinei buruz, baloreei eta ohitura plurikulturalei buruz, komunikabideen bitartez bereziki jasotzen dugun abertarun informatiboa era positiboan hartzen badugu (eta gogoan izan honek garapen pertsonaleko eta kolektiboko mugak zabaltzen dizkigula), beharrezkoa da aldi berean geure kultura propioa jasotzea eta gureganatzea, elkarren arteko interakzio aberasgarria posible izan dadin.

(EHIE, Euskal Eskola, 1990)

Ikasmaterialgintzarako euskal enpresak

Beste hainbat eremutan (mass-mediak...) gertatzen den legez, gurea bezalako herri ttipietan, indar ekonomiko erraldoia duten enpresek, beren legea merkatuan ezartzearen mehatxupean bizi gara, hau da, merkatuaren kontrola eta —honekin batera— ideologia hegemonikoa (ez euskalduna, besteak beste) inposatzea. LOGSE martxan jartzeak, hau guztia begi-bistan jarri du, berrikuntza handiak gertatzen diren aldi orotan bezala. Euskal Herrian, kanpoko argitaletxeak saiatu dira estrategia berriak urratzen, iragan urteetan izandako porrotaren eskarmentutik ihes egin nahian. Bertako argitaletxeekin tratu eginda, edo bertakoak bailiren berriak sortuta, merkatuan nagusitzen ahalegindu dira, eta oraindik orain horretan dihardute.

Ikastolen Elkarteak, berriz, euskal argitaletxeen arteko proiektu bateratua bultzatu nahi du, gisa honetan bertako produkzioak egiten jarrai dezakegulako, euskal eskolak barn eratzen duen kalitatezko hezkuntza- eta kultura-egitasmo nazionala bermatzen dugulako, euskalgintzak behar dituen baliabide autonomoen (enpreseen) aldeko apostua egin nahi dugulako, eta —finean— euskal pedagogia modernoak gero eta ikasmaterial hobetoak izan ditzala gura dugulako.

Administrazio Publikoak, bestalde, euskal lurraldeetan ikus daitekeenez, sentiberatasun (-ezaren) gradu ezberdinetaz dihardu, euskal eraikuntza nazionalari atxikiriko Hezkuntza eta Kultura proiektu politiko adostu baten gabezia nabaria delarik, garaian garaiko eta gora-behera handiko erantzunak eta jarrerak eragin dituelarik.

Ekonomiaren arloko beste hainbat ataletan, industrian esaterako, egin den bezalaxe Ikastolen Elkarteak proposatu eta gauzatu egin duen enpresen arteko batasuna, etorkizunerako giltza dugulakoan gaude, merkatuan lehiakor izateko, euskal ikasmaterialgintza bermatzeko, eta honen kalitatea gorengo gradutara igotzeko. Euskalgintzan, oro har, eta hezkuntzan bereziki, Euskal Herriak etorkizun propioa duela, eta izango duela, uste dugu, baldin eta bertakook geure sormena, baliabideak eta jarrerak bateratzen baditugu. Osterantzean, geure

kulturaren eta heziketaren teknologia kanpotar enpresei erosi beharko diegu, autonomia galduz eta kontsumitzaile hutsak bihurtuz.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA

Euskal testuliburuez gogoetarako gaiak jarritz

Testuliburuak aukera egin beharrean izaten diren hainbat hezkuntz arduradunek esaten dutenez, ez da ezagutzen liburu hauei buruz egindako azterteketa askorik edo egin izan direnak ez dira eman argitara.

Duela 25 urte inguru *Saioka* testuliburuak argitaratu zirenetik hona, asko ugaritu dira, zorionez, euskaraz idatzitako testuliburuak eta ikastetxeetako arduradun eta irakasleek badute non aukeratu. Baina, nola egin aukera hori? Nola jakin zeintzuk izan daitezkeen testulibururik egokienak ikastetxe batek dituen hezkuntz eta curriculum proiektua bideratzeko?

Harrigarria bada ere, ez dago finkatuta (eta agian ezta ezta-baidatuta ere) testuliburuak azterketa egiteko orduan zein eratako corpus-ak diren aztergaitzat hartzekoak edo zein nola-koak izan daitezkeen metodologiarik egokienak...; lan polita beraz —eta beharrezkoa esango nuke— hezkuntz alorrean ikerketak egin nahi dituztenentzat, corpus-a eta metodologia egokia lortu eta ereduak eskaintzearena, gero Lehen eta Bigarren Hezkuntzan diharduten profesionalek euren testu-azterketa eta aukerak egin ditzaten.

Esan beharrik ere ez dago, hainbat interes politiko, ekonomiko eta finantziario dagoela ikasleentzat ekoizten diren testuliburu, entziklopedia, atlas, hiztegi eta bestelako kontsulta-liburuak inguruan. Eta horrexegatik da, hain zuzen, beharrezkoa testu-azterketarako eta hautaketarako metodologiak ikertu eta zehaztea, irakasle bakoitzak egin diezaion ikastetxeko pedagogia-arduradunari bere testu-proposamena. Hau dena, ikastetxeak duen hezkuntz proiektuaren baitan baina, beti ere, intuizioa eta testuei egindako gainbegiraturua gainditu eta azterketa metodologia homologagarriak egindako lanaren ondorioz. Kanpotik egindako testu-azterketak (argitaletxe bakoitzak bere testuez egindakoak alegia) ezin du ordezkatu ikastetxe edo pedagogia talde batek egin lezakeen testu-azterketa eta, ondoriozko hautaketa.

Nire aldetik hainbat testuliburu irakurri eta aztertu ondoren aitortu behar dut beharrezkoa bezain zaila dela testuliburuak aukeratzea. Hala ere garrantzizkotzat jotzen ditudan zortzi iritzi edota ezaugarriak nahiko nituzke adierazi gogoan hartzekoak izan baitaitezke testuliburuaren aukera egiteko orduan.

1) Testuliburu eta gainontzeko euskarri didaktikoak aukeratu aurretik, begibistan izan behar dira ikastetxeko hezkuntz proiektua eta bere baitan dituen kultura-, hizkuntza- eta gizarte-ezaugarri nagusiak.

2) Ikastetxeko curriculum-proiektuaren ardatz nagusiekin koherentea behar du testuliburuak. Beraz, argitaletxeetako eskaintza horizontala eta bertikala ezagutzea beharrezkoa da eta, beraz, ikas-eduki nagusien trataera eta mailakatzea zer nolatan garatzen diren aztertzea.

3) Testuliburuaren eduki-ardatz edo -multzo nagusi bakoitzaren baitan, ikas-eduki zehatzagoak garatzen dira, kontzeptu, jarduera eta jarrerak alegia. Eta azken bi hauek ez dira ahaztu behar, lehen atalean aipatutako kultura-, hizkuntza- eta gizarte-ezaugarriak islatzen dituzten edukiak direlako kontzeptuzko edukiekin batera.

4) Testuliburu baten atal bat —unitate didaktiko bat— hartu eta azterketa zehatza egiteko orduan, ez da nahikoa testu arruntarena egitea: irudiak, grafoak, eskemak, adibide mota, etab., testu idatzi arruntaren adinako ikas-irakasgaiak dira.

5) Gizarte-, hizkuntza- eta kultura-ikuspegia ez da eratzten eta zehazten bakarrik «Inguruaren Ezagutza Arloa» edota «Hizkuntza Arloa» testuliburuetan. Fisika- edota Matematika-alarrak jorratzen dituzten testuetako buruketa, adierazbide grafiko eta abarretan ere ezagutzera ematen dira aipatutako ikuspegi horiek.

6) Hezkuntz eta curriculum-proiektuek ez dute izaten lerro bakarreko ulerpena eta garapena; beharrezkoa iruditzen zait, bada, ikuspegi zabala eta didaktikoa izatea testuliburu batek gure hezkuntz proiektuaren biko duen koherentziaz iritzia ematerako orduan.

7) Testuliburuak ez du inola ere irakaslea ordezkatzeko, alderantziz baizik: irakasleak testuliburua gaindituz, ordezkatzeko edota osatuz egiten du bere irakas-lana. Horrexegatik eduki puntual guztietan curriculum-proiektuarekin adostasuna izatea baina garrantzizkoagoa deritzot liburu batek bere osotasun hartuta izan dezakeen balio didaktikoa, puntuz puntuako akatsak ikas-irakas lanak gaindi edo osatzen baititu.

8) Testuliburua, kontsulta-liburuetan gidari izaten da eta sarritan ikasleek eskuartean erabiltzen duten bakarra. Hala ere, geroago eta gehiago ditugu gure artean bestelako liburuak ere erabiltzen saiatzen diren ikastetxe eta irakasleak. Eta esan beharra dago zorroztasun berarekin aztertu eta aukeratu behar direla atlasak, entziklopediak, irakur-liburuak, etab., irakasleak era autonomoan erabiltzen dituen baliabide didaktikoak baitira eta, beraz, neurri horretan ordezka ezinak.

Zer esanik ere ez, ezaugarri hauek ez dutela agortzen testuliburuaren azterketaren eremua ezta ere behin betirako iritziak izateko bokazioa dutenik. Testuliburugintzan dabilzaneiei eta aukeraketa egiteko erantzukizun zuzena dutenei gogoeta egiten lagungarri zaizkien neurrian bete dutelakoan nago lerro hauek euren zeregina; hala balitz, ondo, eta ez balitz, hurrengoan asmatuko dudalakoan jarraituko dut lanean. Besterik ez.

*JOSUNE ARIZTONDO
(EAJko Hezkuntza Batzordea)*

HERRI BATASUNA

Hezkuntza, espainolkerian murgiltzen ari da

Aspaldidanik konturatzen ari ginen Euskal Herrian joera espainolizatzaile izugarria errotzen ari zela. Hainbat urte dira kezka hori kaleratu nahirik gabiltzala. Baina ikusten denez ez dugu jakin bere sakontasunean azaltzen eta ondorioz gizartea ez da konturatzen zenbateraino sartzen ari zaizkigun kultura «arrotzak» gure herrian. Askotan aipatu da alderdi politiko estatalistak indartzen ari zaizkigula baina gutxitan hausnartu dugu, nola ari zaizkigun sartzen ikuspuntu espainolak gure Hezkuntza Sistematan. Zentzu honetan, *Jakin*-en argitaratzen duzuen azterketa eta aurreratzen dituzuen datuak, benetan interesgarriak direla esanaz hasi behar nauzue.

Espainiako Estatuan, duela sei urte, Hezkuntza Sistemaren Erreforma bat egin behar zela erabaki zuten. Berau gauzatu eta bideratzeko LOGSE delakoa eta beste hainbat lege eta dekretu publikatu dituzte. Eta honen guztiaren ondorioz, gure eskoletan ere espainiar ikuspuntutik eta bere interesen arabera pentsatu eta araututako Erreforma aplikatu eta inposatu digute.

Hemengo Parlamentu Autonomikoei zer egin duten? Ixil eta kikildurik agindutakoa bete. Estatuako erakundeek egindakoa kopiatu. Plangintza estatal hori gauzatzen lagundu. Euskaratu dute bai aipaturiko Erreforma, baina ez dute Euskal Herriaren ikuspuntutik eta gure interesen arabera gauzatzeko gaitasunik izan. Hemengo Instituzioen orientabideei jarraiki gure kultura, historia, geografia... Espainiako beste edozein erregio gisa aztertuak dira. Lanbide heziketari dagokionez ere, ez dira kontuan hartzen gure arrantzak, abeltzaintzak, industriak edo zerbitzu sektoreak izan ditzaketen beharrezko bereizirik. Hitz batean, Estatuaren ikuspuntua izan da oinarizko erreferentzia eta ez gure herria.

Egoera kezagarri honen aurrean, guraso, irakasle eta ikasleak astindu beharrean gara. Herri gisa bizi ahal izateko, Hezkuntza Sistemak jaso eta bultzatu behar du gure *nortasun* pro-

pio eta berezia. Eta horretarako aldaketa sakonak eragin behar ditugu gure eskola eta Unibertsitatean. Bide horretan:

- Hezkuntz Sistemaren *desnazionalizazioaz* hausnartu eta herria ohartaraztea dugu lehen urratsa.

Aurretik ere honelako zenbait iritzi eta azterketa plazaratuak baldin badira ere, bistan da zenbaki honetan *Jakinek* eskaintzen duen zerbitzua izugarri interesgarria dugula. Hemen agertzen diren hainbat xehetasun guztiz argigarri izan daitezke irakaskuntzan lanean dihardugunok kontura gaitezen zer irakasten ari garen, ikasleak zer ikasten ari diren eta gurasoak esna daitezen eta seriooki planteatu zer egin behar dugun elkarlanean egoera hau iraultzeko.

- Pedagogi Plan Nazionalaren beharrezana zabaldu, landu eta bideratzen lagundu.

Ikastolako Konfederakuntzak eman dituen urratsen bidetik, eskola publikoetan eta pribatuetan dauden irakasle zein guraso eta ikasleak inplikatu, aipaturiko plangintza gorpuzten joan dadin. Zer den Pedagogi Plan Nazionala? Euskal Herria *nazioa* dela abiapuntutzat harturik gure eskolaren helburu, edukiak eta bitartekoak definitzea. Hizkuntza, historia eta kultura ezberdin eta propioa duen herrian txertaturiko eskolaren hezkuntza-plana garatzea. Alegia, Espainiako eskolaren kopia ez den Euskal Eskola eraikitzea.

Ez dugu oraingoz, Euskal Hezkuntza Ministeriorik, eta ondorioz beste batzuk dira ildoak markatzen diguten agintariak. Baina bitarteko horren faltaz inizatiba herritarrak izan behar dira hau gorpuztu behar dutenak. Pedagogia ez da zerbait aseptikoa edo neutrala, herri bati buruz dugun ikuspuntua eta kulturaren oinarritzen den hezkuntz proiektua baizik, eta beraz, nahitaez naziotasunez hornituriko plangintza. Eta bestetik, ez da inola ere bakarrik «profesionalei» dagokien zerbait, herrigintza-ren muinetariko bat baitugu.

- Euskal curriculumari buruzko lan mardula bultzatu.

No mola denez, azken boladan sektore edo lan talde asko dira honetaz arduraturik eta zerbait egin nahirik dabilzanak. Hau

ez da soilik argitaletxeei dagokien zeregina. Naziogintzan garrantzi handia duen eginkizuna izanik, kultur eta hezkuntz mundu hainbat mugimenduena baizik. Hori guztia esperantza-garri izanik, lan talde horien koordinaketa eta gutxienez elkarren berri jakitea beharrezkoa dugu alferrikako lanik egin ez dezagun.

Koordinazioa eta elkarlana beharrezkoak ditugu, hain zuzen eta batez ere, hemenego instituzioek egin ez duten Euskal Nazio ikuspuntua definitzeko. Euskal Herria bertatik eta bere beharrianetan oinarriturik, gure Euskal Curriculum definitu eta bere eduki geografiko, historiko eta kultural propioa ongi zehazteko.

Besterik esan arren, irakaskuntzako plangintza guztiak ikuspuntu kultural eta ideologiko batean dute abiapuntua eta oinarria, hori ukatzea oraingo sistema «arrotza» izkutatzeko eta zuritzeko trikimailua hutsa delarik. Euskaldun gisa ez dugu nahikoa gure eskoletan euskaraz aritzea. Biharko haurrak euskal kulturaren hezi eta murgiltzea nahi eta behar dugu.

TASIO ERKIZIA

(HBko Hezkuntza Batzordea)

ELA

Euskal Herriaren ikuspegi kultura (hau da, historikoki euskaldunak izan diren lurraldeena) izan beharko litzateke nagusi argitaratutako liburuetan, Erein eta Elkar argitaletxeek argitaratutako liburuetan gertatzen den bezala.

Kanpoan egiten diren proiektuetan, ikaslearentzat arrotza den ingurunea agertzen zaio sarritan, eta orrialde batzuren egokitzea besterik egiten ez dutenez, koherentziarik ez duten liburuak ikusten dira.

Gizarteko eremu oso zabal batek, komunikabideek, zenbait erakundek eta abarrek inplizitoki onarturik dute Euskal Herriaren errealitate kulturala, eta hori izan beharko litzateke ikaslearen gizarteratze-prozesuaren abiapuntua. Hori da egunero errealitatean ikasleak hizkuntza, kultura eta historia ikuspegi-tik jasotzen duen errealitatea. Horrek ez du esan nahi agertu beharko ez litzaiekeenik ikasleei (Lehen Hezkuntzaren azken zikloan) zein den Hegoaldeko errealitate politikoa (Euskal Herria autonomi elkarte desberdinetan banatua, eta autonomia horiek Espainiako Estatuan integraturik). Alegia, Euskal Herriaren errealitate kulturala eta politikoa ez datoz bat, eta hori agertu beharko lukete liburuak, ingurunearen ezagutza horretara iristen laguntzeko informazio guztia eskainiz.

LAB

Euskal testuliburuaren azterketa dela medio

Bidalitako gutunean oso ondo azpimarkatzen duzue euskal testuliburuaren egoera hiru ataletan: egileak, edukiak eta araudi-esparrua.

Hiru atal hauez balorazioa egiterakoan oinarri bezala hartzen duzue *Euskal Herria nazio kontzeptua* eta horregatik nazio-gintza ikuspuntutik abiatuko dut nire ekarpena, hiru alorretan.

Egoeraren islada

- Euskal Herria instituzionalki zatitua dago: Euskal Elkarte Autonomoa, Nafarroa eta Iparralde Akitaniaren barne. Errealitate horretatik abiatuz instituzio bakoitzak forma ezberdinen bidez, hezkuntza-curriculumean Euskal Herriko errealitateari erantzun edota uko egiten dio: Euskal Elkarte Autonomoa eta berari dagokion lurralde instituzionala Euskal Herriarekin nahastuz, Nafarroako euskaldunen eskubidea zonaka mugatuz eta Iparraldeari dagokionez, Akitaniatik edo, hobeto esanda, Frantziatik Euskal Herriari bere nortasuna ukatuz.

- Egoera instituzional horretatik, euskal —hots, euskarazko— testuliburugintza, salbuespenak salbu, Euskal Elkarte Autonomoak babesten du. Aipatzekoa da Nafar Gobernuak eta Nafarroako beste instituzioek, «bertoko» historia, geografia, kultura... bultzatuz egiten duten argitaratze-politika.

Elkarte autonomoaren politika euskal testuliburugintzan, zuek aipatutako Lehen Hezkuntzako Curriculumak ezartzen duen 237/1992 Dekretuak, zeinak Euskal Herriaren osotasunezko definizioaren ezan duen oinarria, ahalbideratzen du Jaurlaritzaren eskuzabaltasuna edozein euskal testuliburu baimentzeko.

Honez gain interesgarria iruditzen zait beste bi aspektu hauek aipatzea:

— Bertoko testuliburugintza eta materialgintzarako politika falta eta EIMAREN bidez ematen den dirulaguntza eskasa.

— Irakasle-formakuntza jarraituaren plangintzetan euskararen erabilpen testimoniala (irakasle euskaldunak irakaslego osotik erdia baino gehiago izan arren).

Testuliburuaren eragina identitate nazionalaren gizarteratze-prozesuan

- Batezbeste, ikasleek ikasgelan pasatzen duten denboraren % 75 eta etxerako lanak egiteko denboraren % 90 testuliburu-ekin dihardute. Baita ere kontuan hartu behar da testuliburuak ikastetxeetan erabiltzen den tresna bakarra ez izan arren, bai dela tresna normaldu eta zabalduena.

- Datuak argi uzten dute testuliburu-ekin ikasleek zenbat denbora pasatzen duten. Dena den, eta bere garrantzia kendu gabe, ausnarketa hau ezin dugu utzi pasatzen beste faktoreak kontuan hartu gabe, eta hain zuzen ikasleengan identitatearen eraikuntzarako eragin handia daukatenak:

— Ikasleak gero eta denbora gehiago egiten dute telebistaren aurrean, eta hainbat kasutan, telebistak gero eta gehiago ordezkatzen ditu familia eta eskola identitatearen eraikuntzarako gizarteratze-prozesuan.

— Ikastetxeetan testuliburu-denboratik kanpo gelditzen den apurra, aisialdiak edota kanpoko ekintzetarako estrategiak: hizkuntzaren erabilpenak, jolasek, ohiturek, abestiek ere badute garrantzia.

Egin beharrekoak

- Euskal Herria berezko lurralde bezala instituzionalki kontsideratua izatea. Hain zuzen zatiketa instituzionalak irauten duen heinean, «Euskara-Herria»-ren errekonozimendua instituzio guztien aldetik eta ahal diren baliabide eta erabaki koordinatuenak exigitu. Hezkuntzaren alorrean honek suposatutako behar du parekatzea: irakaslegoaren prestakuntza, testuliburuaren onarpena, hizkuntzaren normalkuntzarako plangintzak...

- EAEren kasuan, horrek suposatutako behar du arlo guztietan: curriculumaren arautegietan, materialgintzarako politikan, dirulaguntzetan eta baita ere ikusentzumenen erabilpenean «Euskara-Herria»-rekiko estrategia askoz argiagoa eta sendoagoa.

- Ezin da itxaron, hori bai ondo ikasia duela gure herriak. Orain dela 20 urte oztopo guztien gainetik testuliburugintzan «Saioka» metodo eta testuliburuak argitaratu baziren, gaur inizatiba berriak martxan jartzen ari dira, hots, Ikastoletako Pedagogi Plan Nazionala, *Hik Hasi* lehenengo euskal hilabete-kari pedagogikoa...

- Amaitzeko, sindikalgintzatik, edo zehazki, euskal sindikalgintzatik badugu zer egin eta zer esan Euskal Hezkuntza Sistemari dagokionez. Lan harremanen negoziaketetan (berrikuntza, talde pedagogikoak...) eta gure herriak behar duen Hezkuntza Sistemaren oinarritzko ezaugarriekin bat egitea ezinbestekoa da.

IÑAKI GONZALEZ MURUA
(LAB Irakaskuntza)

TESTULIBURUAK AUKERAN

XABIER ISASI / LORE ERRIONDO

Euskal Curriculum Berezia Hezkuntzaren Berrikuntzan Koka-
tutako Oinarrizko Diseinu Curricularretik Eratorritako Lehen
Hezkuntzako Testuliburuaren Azterketa, honako helburu na-
gusiak dituen EHUK finantzaturiko ikerketa proiektua (UPV
096.230-HA 150/95) dugu:

- Berezko euskal curriculumara zer den definitzea.
- Lehen Hezkuntzako Euskara eta Literatura, Gaztelera eta Literatura, Ingurunearen Ezaguera eta Matematika jakintza-ar-
loetako testuliburuaren azterketa kualitatibo zein kuantitatibo
egitea.

- Testuliburuen arakaketarako prozedura bat finkatu, ikerketaz gainera irakaslegoarentzat baliagarria, fidagarria eta erabilgarria izan dadin.

- Argitaletxe desberdinetako testuliburuetan agertzen den euskal curriculumaren islada agertzea.

Horren haritik, lehenik eta behin, Hego Euskal Herriko ikastetxeetan erabili ohi diren testuliburuak zeintzuk diren jakin nahi izan dugu eta horretarako prestatutako galdeketa bat igorri genuen ikastetxe guztietara.

Hasteko, Euskal Herrian berezitasunik badago euskara berbera da, eta hezkuntza-alorrean, euskarari berari dagokio beste ezerean gainetik *euskal hezkuntzaren* ezaugarri bereizgarria izatea.

Hori horrela, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako *eredu elebidunetako* (A, B eta D) ikastetxeetara jo genuen. Ikastetxe guztietara, publiko zein pribatu. Gure azterketatik kanpo geratu dira Iparraldekoak eta Nafarroako G ereduak —gazte-lera hutsez—.

Bildu nahi genuen informazioa, aldeztatik aipatutako jakintza-arloetarako eskolan (Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan) erabiltzen diren testuliburuak buruzkoa zen; ikasleek erabili beharreko testuliburuak zeintzuk diren alegia. Horrezaz gain, testuliburuen aukeraketarako irizpideak, nork aukeratzeko dituen eta gurasoen eskuartzea zein nolakoa den ere arakatu nahi izan dugu.

Nafarroan eta Euskal Autonomi Elkartearen egun Lehen Hezkuntzako 900 ikastetxe baino gehiago egonik, ezinezkoa da informazioa ikastetxez ikastetxe biltzea, eta hori dela eta hautatu genuen galdesortarekin batera atzera guri itzultzeko zigitudun gutunazala zuen eskutitza bidaltzea ikastetxe bakoitzera.

Ikus dezagun, ondoko taulan, Hego Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako *eredu elebiduneko* (A, B edota D) ikastetxeak nola banatzen diren:

I. Taula. Hego Euskal Herriko eredu elebiduneko ikastetxeak

	PUBLIKO		PRIBATU		Guztira (%)
	Publikoak (%)	Pub. Ikast. (%)	Ikastolak (%)	Pribatuak (%)	
ARABA	66 (58,41)	14 (12,39)	8 (7,08)	25 (22,12)	113 (12,01)
BIZKAIA	207 (53,77)	15 (3,90)	29 (7,53)	134 (34,81)	385 (40,91)
GIPUZKOA	137 (47,57)	20 (6,94)	34 (11,81)	97 (33,68)	288 (30,61)
NAFARROA	133 (85,81)	—	16 (10,32)	6 (3,87)	155 (16,47)
<i>Guztira</i>	543 (57,70)	49 (5,21)	87 (9,25)	262 (27,84)	941 (100,0)

Aurreko taulan (I. Taula) bildutako ikastetxeak, bi irizpideen arabera banatu ditugu. Batetik, herrialde historikoak, horretan argi ikusten da Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe-kopuruak Hego Euskal Herriko ikastetxeen ia bi herenak biltzen dituela (% 71,52). Bestetik, hezkuntza sarearen araberrako banaketa. Bigarren honetan, ohiko dikotomia publiko/pribatu ilunari ihes egin nahi izan diogu. Argiago iruditzen zaigu, *Ikastetxe Publiko*, *Publifikatutako Ikastola*, *Ikastola* eta *Ikastetxe Pribatua* kategoriak erabiltzea.

Oro har, Hego Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako (eredu elebiduneko) ikastetxe gehienak *ikastetxe publikoak* (% 57,70) dira. *Ikastetxe Pribatuak* % 27,84 dira eta ikastolen artean, *Publifikatutako Ikastolak* eta *Ikastolak* % 14,56a biltzen dute.

Deskribapen xume eta oinarrizko honetatik eremu publikoko ikastetxeen nagusigoa argi dagoela erdiets dezakegu. Badakigu jakin ikastetxe *publikoetan* batezbesteko ikasle-kopurua urriagoa dela besteetan baino. Hala ere, testuliburuak ikastetxeetan bertan aukeratzen direnez, *Ikastetxe Publikoen* jokarera erabakiorra da, aukeraketa honek baldintzatu egiten duela ikaslego-zati handi baten curriculum. Azken buru, testuliburuaren argitaletxeen merkaturik handiena *Ikastetxe Publikoetan* dago. Beste aldetik, jakina denez, *Ikastetxe Pribatuen* artean, ikastetxearen izaerari lotutako testuliburuak erabili ohi dira. Hau da, zenbait argitaletzek, ikastetxe pribatu jakin batzuetarako argitaratzen dituzte haien testuliburuak. Horri, zenbaitek, *aukera ideologikoa* esaten dio baina egia esan, egiten diren guztiak dira aukerak.

Dena den, aurrerago helduko diogu eztabaida horri. Bien birtartean, egindako datu bilketa azaltzeari lot gataizkion. Aurreko taulan (I. Taula) agertzen diren ikastetxe guztietara gutuna bidali eta handik 20 egunetara, esandako 941 ikastetxeetatik heren batek baino gehiagok erantzun digu. Esan dezagun bide batez, euskara hutsez egin dugula bai eskutitza zein galdetara ere, horrek eragiten duela jakinik. Hala ere, Arabako ikastetxe batek bakarrik bidali digu eskutitza gazteleraz nahi zutela ihardetsiz. Alborapen horrek ez gaitu gehiegi kezkatzen; izan ere, gure interesgunea, euskal eredueta baizetzan (B eta D).


Hori horrela, ondorengo II. eta III. tauletan, bildutako erantzunen banaketa lurralde, hizkuntz eredu eta hezkuntza-sarearen arabera agertzen dizuegu. Jasotako erantzunetatik erratutakoak, helduen hezkuntza edo eskolaurrekoa soilik zutenenak eta gaizki betetako galdesortak baztertu behar izan ditugu.

II. Taula. Erantzun duten ikastetxeen banaketa lurraldearen eta hezkuntza-sarearen arabera

	PUBLIKO		PRIBATU		<i>Guztira(%)</i>	<i>Erantzun-tasa</i>
	<i>Publikoak(%)</i>	<i>Pub.Ikast.(%)</i>	<i>Ikastolak(%)</i>	<i>Pribatuak(%)</i>		
ARABA	14 (40,0)	8 (22,9)	7 (20,0)	6 (17,1)	35 (11,1)	30,97
BIZKAIA	64 (60,4)	7 (6,6)	11 (10,4)	24 (22,6)	106 (33,8)	27,53
GIPUZKOA	64 (51,6)	16 (12,9)	18 (14,5)	26 (21,0)	124 (39,5)	43,05
NAFARROA	35 (71,4)	—	12 (24,5)	2 (4,1)	49 (15,6)	31,61
<i>Guztira</i>	177 (56,4)	31 (9,9)	48 (15,3)	58 (18,5)	314 (100)	
<i>Erantz.tasa</i>	32,59	63,26	55,17	22,13	33,36	

Ikusten denez, Bizkaikoak dira urrien erantzun dutenak, gero Arabakoak. Oro har, honetan lehen esandako alborapena antzeman daiteke, herrialde euskaldunek hobeto erantzun dute alegia. Hortaz, Gipuzkoak oso ondo erantzun du, erdiak baino gehiagok. Hezkuntza-sarearen ikuspegitik berriz, sarea zenbat eta euskaldunagoa izan, erantzun-maila orduan eta hobea izan da. *Ikastetxe pribatuak* eta *Bizkaia* dira beraz okerren daudenak.

I. Sektore-diagrama. Ikastetxeen banaketa lurraldearen arabera



Aurreko sektore-diagraman herrialde bakoitzetik jasotako erantzunen kopuruak (ikastetxeka) eta dagozkien portzentaiak ikus daitezke. Irakurleak erantzun-maila eskasa izan dela pentsa badezake ere, horrelako inkestetan erantzun tasa % 19-20koa izan ohi da. Gure kasuan erantzun-maila hori herrialde guztietan gauditua izan da, ikastetxeen ardura erantzutera-koan eskertzekoa da beraz. Are gehiago, estatistikoki, populazioaren tamaina (N=941 ikastetxe) ezagutuz gure laginaren kopurua adierazgarria da nahiz zorizko lagina izan ez. Lehen aipatutako alborapenez gairi —euskarari lotutakoa—, beste zenbait egon daitekeela uste dugu. Badakigu jakin, erantzuten ez dutenen artean, zenbaiten artean behintzat, horrelako inkestetikiko aurriritzia izan ohi dela. Oso interesgarria izan zitekeen jakitea zergatik ez duten erantzun, baina, tamalez ezin diezaiokegu horri erantzun.

Jasotakoa jasota euskal eredu-tako ikastetxeen kopurua oso egokia dela erdiets dezakegu. Ikus dezagun bestela (III. taula) nola banatzen diren hizkuntza eredu desberdinak.

III. Taula. Hizkuntza eredu eta lurraldearen arabeko banaketa


Lurraldea	A eredu	B eredu	D eredu	Guztira
ARABA (%)	16 (33,3)	16 (33,3)	16 (33,3)	48
% ²	18,4	12,6	8,2	11,8
BIZKAIA (%)	42 (27,8)	54 (35,8)	55 (36,4)	151
%	48,3	42,5	28,4	37,0
GIPUZKOA (%)	10 (6,6)	57 (37,7)	84 (55,6)	151
%	11,5	44,9	43,3	37,0
NAFARROA (%)	19 (32,8)	—	39 (67,2)	58
%	21,8	—	20,1	14,2
Guztira (%)	87 (21,3)	127 (31,1)	194 (47,5)	408

1. Eredu bakoitzak herrialdean duen pisua.

2. Herrialde bakoitzak eredu horretan duen pisua.

*Hizkuntz eredu*a ikastzeko ikaslerroari dagokio. Hau da, D ereduko 194 unitate irakurtzerakoan eredu hori 194 ikastetxetan dagoela ulertu behar dugu. Ageri denez, guk bildutako datuak hein handienez (% 47,5) eredu horri dagozkio. Egiten ditugun aipamenak eta eratorritako ondorio nagusiak eredu horri doazkio beraz. III. taula horretan herrialde bakoitzeko hizkuntz ereduaren banaketa agertuagatik berorrek ez du errealitatea zuzen isladatzen. Gogoan izan arestian aipatutako alborapena: A ereduko ikastetxekoek oso urri erantzun dutelarik bildutako datuetan errealitatean baino proportzio urriagotan agertzen dira. Dena den horrek ez du gure ikerketan ezertan eragiten *euskal eredu*en azterketa egin nahi dugu eta.

II. Sektore-diagrama. Ikastetxeak hezkuntza-sarearen arabera



Bigarren sektore-diagraman hezkuntza-sare desberdinen banaketa agertzen dugu. Ikastetxe publikoen pisua nabarmena da baina sare bakoitzak biltzen duen ikaslekoa kontuan hartzen badugu sare publikoaren pisua urritzen da.

TESTULIBURUEN AUKERAKETA

Testuliburuak *irakasleek eurek hautatzen dituzte*. Irizpide bartzuei jarraituz ala jarraitu gabe, clastroan, zikloan edo banaka irakasleak dira testuliburuak aukeratzen dituztenak. Gurasoek ikastetxeetan aitortu digutenez, ez daukate inolako eskuhartzerik testuliburuaren aukeraketan. Gehienbat zikloko edo ikasmilako irakasleei dagokie testuliburuak aukeratzea (% 67). Ikastetzeko clastroak aukeraketan duen pisua ez da espero zitekeen bezainbatekoa (% 17a). Testuliburuaren aukeraketan gurasoek parte hartzerik ez izanagatik haiei (% 49) edo gura-

soen elkarteei (% 25) dagokie irakasleek hautaturiko testuliburuak erosteak.

Testuliburuaren aukeraketarako irizpideei buruz galdetu diegunean ikastetxeen % 40k aukeraketarako irizpiderik ez dauka -tela erantzun digute. Hala ere, ikastetxe horietan, gehienetan bederen, testuliburuak badarabiltzate erabili.

Ikusten denez, testuliburuaren aukeraketa baldintza askoren menpe dago baina, batez ere, irakasleen erantzukizuna dela azpimarratuko genuke. Testuliburuaren aukeraketarako irizpideak finkatuak dituztenen artean 107 irizpide desberdin jaso ditugu. Testuliburuak erabiltzen ez dutenek, osterak, ez dute gehienetan adierazten ez erabiltzeko arrazoiak zeintzuk diren.

Eusko Jaularitzak zabaldutako *Material edo baliabide curricularrak aztertze*ko gida delako txostenetik testuliburuaren ebaluaketarako 9 irizpide-multzo atera ditugu. Honako hauek hain zuzen:

1. *Aurkezpen orokorra.*

a) *Formatoaren ezaugarriak:*

1.1. *Estetika*

1.2. *Erabilgarritasuna.*

b) *Aurkezpen eta eurastruktura ereduak:*

1.3. *Hiztegia, notak.*

2. *Zenbait aspektu edo eite ezagutzen.*

2.1. *Adin honetako garapen-mailara egokitua dago eta ikasleak alde aurretik dituen kontzeptu-maila -ra?*

2.2. *Testuliburuaren maila ikasleena baino: Altuagoa, Egokiagoa, Baxuagoa.*

2.3. *Motibagarria da? Ariketak, irakurgaiak, irudiak.*

2.4. *Ikaslearen lan autonomoa bultzatzen du?: Ez, Gutxi, Nahiko, Asko.*

3. *Aniztasunaren trataera.*

4. *Testuingurua/kontestualizazioa.*

4.1. *Egokia da? Gure inguruaren erreferenterik badu, ala ingurune fiktizio bat errepresentatzen da?*

4.2. *Adierazpen kulturalak: Zer motatakoak dira? Bertokoak?...*

5. *Zehar lerroak barneratuta daude?*

5.1. *Hezikidetza.*

6. *Ekintzak.*

7. *Baloratu ze neurritan baliogarria den:*

7.1. *Ikastetxeko helburuekin.*

7.2. *Ikastetxeko planteamendu metodologikoekin.*

7.3. *Ikastetxeko ICPan agertzen diren edukiekin.*

8. *Material hau uste dugu:*

8.1. *Egokia dela, kontsulta-liburu bezala.*

8.2. *Egokia dela, material osagarri bezala.*

8.3. *Egokia dela, fidagarria, ezaguna, kalitatezkoa.*

9. *Euskara.*

Aipatu bederatzi multzo horietatik 9. multzoa eta 8.3. azpi-multzoak, Eusko Jaularitzak emandakoen artean ez zeuden eta geronek sortu ditugu jasotako erantzun guztiak sailkatu ahal izateko. Jakina denez, 9 kategoria horien artean ez daude Hezkuntza Sailak adierazitako guztiak. Soilik hartu ditugu jasotako erantzunak sailkatzeko baliagarriak diren kategoriak. Izan ere, gainerakoak ez baitzaizkie egokitzen ikastetxeek adierazitako irizpideei.

Aurkeztutako irizpide-tauletan, atal nagusiak *euskararena* ezik, arestian aipatutako Hezkuntza Saileko txostenekoak dira. Berari dagozkio era berean atal bakoitzean gainmarkaturik agertzen diren irizpide eta azpisailkapenak. Gainerakoak, jaso ditugun bere horretan ekartzen dizkizuegu. Egin dugun gauza bakarra, irizpide bakoitza dagokion kategoriatan sailkatzzea izan da.

Taularen egiturari dagokionez, atalen hurrenkera erabilitako txosteneko bera izan da. Euskararen atala, amaieran jarri du-

gu beraz, irakurlea ohar dadin, irizpide-multzoak ez daudela garrantziaren arabera ordenaturik.

Irizpideekin batera, hezkuntza-sare bakoitzean ematen zaien garrantzia isladatu nahi izan dugu tauletan. Horrela, taularen eskuinaldean, hezkuntza-sareen sailkapena txertatu dugu —ikastetxe publikoak, publikatutako ikastolak, ikastolak eta ikastetxe pribatuak, hurrenez hurren—. Zutabe horietan, aseriskoaren bitartez, irizpide bakoitza neurririk handienean zein hezkuntza-sareko ikastetxeek hautatzen duten adierazi nahi izan dugu. Gogoan har, ikastetxe publikoek duten pisua dela eta, gehienetan hezkuntza-sare horrek bereganatzen dituela irizpide gehienak.

IV. Taula. Ikastetxeen erantzunetan oinarritutako irizpide-taula						
IRIZPIDEA	SAREA					
1.-AURKEZPEN OROKORRA: a) <i>Formatoaren ezaugarriak</i>	Pub	P.Ik	Ik	Pr		
• Estetika						
Atsegina	*					
• Erabilgarritasuna	*					
Berrerabilera	*					
Liburu-kopuru txikia denez ekonomikoki ondo, salneurria	*			*		
b) <i>Aurkezpen eta estruktura-eredua:</i>						
• Hiztegia, notak						
Gaien tratamendua (hiztegia, errekursoak...)	*	*				
Hiztegi egokia	*		*	*		
Barne-egitura	*					
Guztira	7	(% 6,54)	9,4	13,8	2,1	7,9
2.-ZENBAIT ASPEKTU EDO EITE EZAGUTZEN						
• Adin honetako garapen-mailara egokitua dago eta ikasleak alde aurretik dituen kontzeptu-mailara?						
Ikasleen ezaugarri eta beharrei egokituak, ikasleen erritmoarekin bat egitea	*					
Ikasleengan emaitza eta jarrera onak lortzen dituelako, ikasleen onerako direlako			*	*		
Ikasleentzat ezaguera aproposak lantzen dituen kontzeptuak				*		
Eduki esanguratsu eta baliagarriak ikasleentzat, argi eta						

ordenaturik					*
Eduki, ariketa eta aurkezpenaren arteko oreka					*
Umeen erabilpenerako adierazgarri eta ulergarria					*
IRIZPIDEA	SAREA				
	Pub	P.Ik	Ik	Pr	
Ulegarria	*				
• Testu liburuaren maila ikasleena baino: Altuagoa, Egokia, Baxuagoa					
Ikasleen maila begiratu, ikasleen aurre-ezagupenak, ikasleen kultur maila	*				
Egokitasuna	*				
Ikasmailarako egokitasuna			*		
Eduki-maila egokia	*				
Edukien zabalera				*	
• Motibagarria da? Ariketak, irakurgaiak, irudiak					
Ariketa motibagarriak eta erakargarriak izatea	*				
Testu/irudi/ekintzen erakargarritasuna, motibagarria	*				
• Ikaslegoaren lan autonomoa bultzatzen du?					
Ikasleen autonomia bultzatzea	*				
Umeak berak bakarrik edo irakaslearen laguntza gutxiengoarekin erabilgarria izan dadila	*				
Ikasle eta irakasleen lana errazten dutena	*				
Guztira	17 (% 15,89)	21	17,2	15,5	22,4
3.-ANIZTASUNAREN TRATAERA					
Aniztasuna aurrera eramatea eskaintzen duena			*		
Irekiak izatea			*		
Guztira	2 (% 1,87)	0	0	2,1	0
4.-TESTUINGURUA/KONTESTUALIZAZIOA					
• Egokia da? Gure inguruaren erreferenterik badu, ala ingurune fiktizio bat errepresentatzen da?					
Inguruarekiko hurbiltasuna, inguruneari egokitua			*		
Eskolako berezitasunetara egokituena izatea	*				
• Adierazpen kulturalak: Zer motatakoak dira? Bertokoak?					
Euskal curriculumari gehien hurbiltzen zaiona		*	*		
Euskal Herriko errealtaterako egokitzapena, euskal kultura			*		
Euskal Herriko materiala izatea			*		

Guztira	5 (% 4,67)	0,9	0	8,2	0
5.-ZEHAR LERROAK BARNERATUTA DAUDE?					
Zehar lerroen trataera arlo ezberdinetan		*		*	
IRIZPIDEA		SAREA			
		Pub	P.Ik	Ik	Pr
• Hezikidetzta					
Sexuen trataera, koedukazioa		*			
Guztira	2 (% 1,8)	2,1	3,4	2,1	1,3
6.-EKINTZAK					
Aktibitatea teoria baino		*			
Ekintza interesgarriak		*			
Jolasgai		*			
Eduki gutxikoak izatea, ez luzeegia, beste ekintza batzuk egiteko		*			
Eskaintza zabala (eduki, ariketak... eskaintzen dituenak)		*			
Kanpoko lana proposatzea		*			
Elkarlana					*
Elkarrekintza bultzatzen duena		*			
Guztira	8 (% 7,48)	5,2	0	0	5,3
7.-BALORATU ZE NEURRITAN BALIOGARRIA DEN					
• Ikastetxeko helburuekin					
Helburuen egokitasuna hiruletasun proiektuari					*
Helburuen garapena lortu, jarritako helburuekin bat etortzea, helburu eta edukien arteko egokitasuna		*			
Landu nahi diren gaien agerpena		*			
Kreatibitatea eta irudimena lantzeko egokiak					*
• Ikastetxeko planteamendu metodologikoein					
«Aprender a aprender»... aztertzea					*
«Unitaria» deritzon gure eskolatan baliogarria izatea		*			
Aprendizaia esanguratsua lortzea, «aprendizaje significativo» delakoan oinarrituta		*			
Argitasuna gaiak azaltzen, ordenatua, kontzeptu argiak		*			
Ikastetxeko oinarri metodologikoak errespetatu				*	
Diziplinartekotasuna		*			
Globalizazioa		*			
Gure lan-ohituretara hobeto egokitzen dena, gure metodologiari egokitua		*		*	

Lan egiteko estrategia eta prozedura praktikoak					*
Metodologia aktiboa eta deduktiboa, ekintzen aberastasuna, ikuspegi konstruktibistan oinarritutako metodologia izatea	*				
IRIZPIDEA	SAREA				
	Pub	P.Ik	Ik	Pr	
Metodologia bera eskaintzen dutenak, bat datozenak			*		
Metodologia induktiboa			*		
Metodologia, metodologia egokia	*				
Linea metodologiko baten beharra			*	*	
• Ikastetzeko ICPan agertzen diren edukinekin					
Alorrak eta diseinu curricular artean adostasuna					*
Ikastetzeko proiektuarekin lotura, koherentzia, baliagarritasuna, curriculumaren egokitzapena	*				
Erreformatarekin bat egitea	*				
Erreformatari begira liburuak argitaratu zituen lehen argitaletxea izategatik	*				
Hezkuntza-proiektuaren egokitasuna					*
Lehen hezkuntza osoan jarraipena, helburu eta edukien jarraipena zikloan zehar	*				
Ziklo berekoak argitaletxe bera, koordinaketa. Argitaletxe bera maila guztietan, liburuen jarraipena	*				
Koordinazioa, maila edo ziklo arteko lotura			*		
Testuen elkarrekiko lotura	*				
Ikasmaila guztietan egotea	*				
Lotura material guztien artean			*		
Programa koherente eta jarraia duelako					*
Proiektu baten inguruan gaiak lantzea	*		*		
Guztira	31 (% 28,97)	47,2	41,4	50,5	50
8.-MATERIAL HAU USTE DUGU,					
• Egokia dela, kontsulta-liburu bezala					
Ikasgelako «liburutegia» osatzeko balio izatea	*				
• Egokia dela, material osagarri bezala					
Material osagarria		*			
• Egokia dela, fidagarria, ezaguna, kalitatezkoa					
Argitaletxea etxekoa delako					*
Argitaletxea lehenik ezaguna delako		*	*		

Ikastolen Konfederazioak egina delako					*
Aurreko irakasleak aukeraturiko testuak (oraingoak ordeztuko dira)	*				
Aurreko urtean egokiak izan diren liburuak mantenduz	*				
IRIZPIDEA	SAREA				
	Pub	P.Ik	Ik	Pr	
Aurretik esperientzia onak zeudelako maila batzuetan, alde aurretik izandako esperientzia	*		*		
Betidanik hartu dira				*	
Egilearen urtetako lan baten esperientziaren ondorioz	*				
Formakuntza-lanetan jorratutakoak txertatzen dituztenak			*		
Irakasleari gustatzea	*				
Kalitate didaktikoa				*	
Liburuaren «azterketa» baten ondorioz egindakoa, argitaletxearen ebaluaketa egin ondoren	*				
Onenak				*	
Pedagogikoki eta teknikoki onak				*	
Testu-sortzaileekin elkarlanean aritzen garelako			*		
Guztira	17 (% 15,89)	3,9	6,9	7,2	7,9
9.-EUSKARA					
D eredukoak izatea	*				
Ematen den eredurako prestatuak	*				
Euskalkia (bizkaiera)			*		
Euskara	*				
Euskararen erabilpen egokia			*		
Euskararen trataera	*				
Euskaraz egotea			*		
Euskaraz izaterakoan, ez dago horrenbeste aukerarik	*				
Euskaraz eta erdaraz egotea bi erduetan testu bera erabiltzeko	*				
Ez dago beste editorialik bizkaieraz			*		
Gure hizkuntz eredura egokituak			*		
Hizkuntza		*			
Hizkuntz eredia	*				
Hizkuntza-maila (itzulpena ez izatea), euskara-maila	*				
Hizkuntza-maila, euskara-mailaren egokitasuna, euskara-maila ulargarria	*				

Hizkuntzaren (euskara) erraztasuna		*		*
Hizkuntzaren trataera			*	
Testuliburua euskaraz egotea				*
Guztira	18 (% 16,8)	10,3	17,2	12,4 5,3

Aurkeztutako irizpide-tauletan, atal nagusiak *euskararena* ezik, arestian aipatutako Hezkuntza Saileko txostenekoak dira. Berari dagozkio era berean atal bakoitzean gainmarkaturik agertzen diren irizpide eta azpisailkapenak. Gainerakoak, jasotugun bere horretan ekartzen dizkizuegu. Egin dugun gauza bakarra, irizpide bakoitza dagokion kategoriatan sailkatzea izan da.

Taularen egiturari dagokionez, atalen hurrenkera erabilitako txosteneko bera izan da. Euskararen atala, amaieran jarri dugu beraz, irakurlea ohar dadin, irizpide-multzoak ez daudela garrantziaren arabera ordenaturik.

Irizpideekin batera, hezkuntza-sare bakoitzean ematen zaien garrantzia isladatu nahi izan dugu tauletan. Horrela, taulare n eskuinaldean, hezkuntza-sareen sailkapena txertatu dugu. Zutabe horietan, asteriskoen bitartez, irizpide bakoitza neurririk handienez zein hezkuntza-sarek hautatzen duen adierazi nahi izan dugu. Gogoan har, ikastetxe publikoek duten pisua dela eta, gehienetan hezkuntza-sare horrek bereganatzen dituela irizpide gehienak.

Emandako irizpideen banaketari kasu eginez, irizpide-multzo erabakiorra testuliburuaren aukeraketarako, zazpigarrena da (*Baloratu ze neurritan baliogarria den...*). Multzo horretan, ikastetxeko helburuak, planteamendu metodologikoak eta Ikastetxeko Curriculum Proiektuari dagozkionak biltzen dira. Irakurleak ikus dezake irizpide-multzo bakoitzaren pisua, atal bakoitzaren amaieran agertzen den *Guztira* errenkadan. Hezkuntza sare bakoitzaren zutabearen, dagokion irizpide-multzoen banaketa adierazi dugu.

Horrela, orokorrean *ikastetxeko proiektua*, hezkuntza-sare guztietan aurreneko irizpide multzoa bada, hurrena, *euskara* deitutako atala dugu. Hala ere, irizpide multzoen hurrenkera ez da berdina hezkuntza-sare guztietan.

Euskal curriculumua zehatzenean islada ditzaketen irizpide-multzoak aztertuz gero —Euskara (9.a) eta Testuinguru, kontestualizazioa (4.a)—, ikastolak dira, dudarik gabe, gehien lantzen dituztenak. Alderdi horretan, ikastola eta gainerako hezkuntza-sareen arteko diferentzia nabarmena da. Halaber, ikastola hezkuntza-sarea, *aniztasunaren trataera* deitutako irizpidea darabilen bakarra da.

Aipamen berezia merezi du *euskararen* inguruko irizpideak. Izan ere batetik, ikastetxeetan benetako kezka baitago eta bestetik, ez dirudi kasu guztietan maila bereko kezka denik. Zentzuz, euskara-maila erraza eskatzen den bitartean, bestetan berriz, euskararen kalitatea da irizpide testuliburuak aukeratzekoan.

Nolanahi ere, laburbilduz, jasotako irizpideen arabera honako hauek esan ditzakegu:

- Sareak baino, ikastetxe bakoitzak aukeratzen ditu testuliburuak, bere proiektuaren arabera, ikastola hezkuntza-sareak salbu.

- Oro har, Euskal Herrian ez dago irizpide-ildo nagusirik hezkuntza-sareguztietarako. Hori nabarmen ikus daiteke testuingurua, kontestualizazioa atalari ematen zaion garrantzi urrian.

- Euskarak duen garrantzia testuliburuaren aukeraketan, gure hizkuntzaren egoeraren islada zuzena delakoan gaude. Horretan, euskalkien aipamenak, hizkuntza-mailarenak edota kalitateari buruzkoak gailendu egiten dira testuliburuak aukeratzekoan, beraien edukiaren azterketa baino.

AUKERATUTAKO TESTULIBURUAK

E redu elebiduneko ikastetxeen testuliburuaren aukera aztertu baino lehenago, arestian aipatutakoak gogorarazi nahiko genituzke. Orotara, 314 ikastetxek erantzundakoa aztertzen dugu, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako Matematika, Euskara eta Literatura, Gaztelera eta Literatura eta Ingurunea-


ren Ezaguera jakintza-arloetan erabiltzen diren testuliburuak zehatzago. Jakinaenez, informazioa galdesortaren bitartez jaso izan dugu. Ikastetxe bakoitzean zegokion hizkuntz ereduaren arabera esandako ziklo eta jakintza-arloetarako zeintzuk argitaletxe aukeratzen zituzten adieraztea eskatzen genien.

A, B eta D eredueta orotara 15 argitaletxe baino gehiago agertzen zaizkigu. Dena den, merkatuaren % 3 edo agerpen gutxiagoko argitaletxeak, kategoria bakar batera ekarri ditugu. Horrela, hurrengo taulan ikus daiteke nola banatzen diren argitaletxe garrantzitsuenak ereduaren arabera.

V. Taula. Argitaletxe aukeratuenak hizkuntz eredu desberdinetan


EREDUA	ARGITALETXEAK								
A	—	—	Edebé	—	—	—	Santillana	S.M.	Vives
B	Anaya	Bruño	Edebé	Elkar	Erein	Ibaizabal	Santillana	S.M.	—
D	—	—	Edebé	Elkar	Erein	Ibaizabal	Santillana	—	—

Ikusten denez, bederatzi argitaletxe dira gehienetan aukeratzen dituztenak. Bederatzi horietatik soilik bi agertzen dira eredu guztietan, Edebé (Giltza proiektua) eta Santillana (Zubia




proiektua). Bederatzi argitaletxe horiek eredu desberdinetan no-

l a
bana-
tzen
diren
ikus-
teko
ja-



rraian agertzen dugu hizkuntz ereduko sektore-diagrama baina.



IV. sektore-diagrama. Argitaletxeen banaketa B eremuan

V. Sektore-diagrama. Argitaletxeen banaketa A eremuan

Bildutako datuetatik arreta handien ekarri diguna, *testuliburuak ez erabiltzeari* dagokiona da. Zenbaitek testulibururik ez erabiltzea proiektu pedagogiko berritzaileari lotu izan dio baina, ikuspegi orokorretik (estatistikotik) aztertuz gero irudia bestelakoa da: euskalduntasuna eta publikotasuna baitira faktoreadierazgarriak. Hau da, irakaskuntza zenbat eta *euskaldunagoa*, eta zenbat eta *publikoagoa* izan testuliburuak ez erabiltzeko joera areagotu egiten da. Gure aburuz, *hezkuntza-ereduari dagokiolarik*, testuliburuak ez erabiltzearen arrazoi nagusienetakoa *normalizazio eza* besterik ez da. Izan ere, ikasketeen erantzunen arabera, testulibururik ez erabiltzea ez dagokio ikastetxe osoari; gehienetan, ikasmaila edo jakintza-alor zehatzetan ematen baita. Horrexegatik, deigarria da matematika jakintza-alorrean testulibururik ez erabiltzearen hautapeña urritu egiten dela; aurreko horrek azalarazten digu testulibururik ez erabiltzea ez dagokiola —salbuespenak salbuespen— plangintza alternatiboari. Testuliburuaren erabilerarekiko propo-

samen alternatiborik balego, testulibururik ez erabiltzea eta ordezeko materiala sortzea, hizkuntz eredu guztietan eta jakintza-
-alor orotan maila batean edo bestean agertu behar luke. Ez da horrela. Testulibururik ez erabiltzearen aldeko joera soilik *D eta B eredu*etako ikastetxe publiko, *publikatutako ikastola eta ikastoletan* ematen da, ez ostera, *A eredu*ko inongo saretan, ez publiko ezta pribatuetan ere. Sare pribatuan berriz, argitale-
txeen aukeraketan hautapen trinkoenak agertzen dira ikaste-
txeko.

Horrek guztiak nolabaiteko *akulturazioa* ematen dela pentsa-
raz diezaguke. Izan ere, berriz diogu, Ingurunearen Ezaguera
eta Euskara eta Euskal Literatura deituriko jakintza-alorretan
testulibururik ez erabiltzeko joera nabarmenagoa dela Matema-
tikan baino. Proiektu pedagogiko berritzailea izatekotan ez da-
gokie maila berean jakintza-alor guztiei, eta ikastetxe osoari?
Ikastolak, Publikatutako Ikastolak, Publikoak eta Pribatuen
arteko desberdintasunak adierazgarriak eta ulergarriak badi-
ra, nola azal daiteke hizkuntz eredu en eta ikas-arloen artean
agertzen direnak sare beretsuetan? Zeri dagozkio bestela, dife-
rentzia horiek?

GAIAK

MARKOS ZAPIAIN

FOUCAULT ETA MEDIKU PSIKIPELMAK

FOUCAULT ETA MEDIKU PSIKIPELMAK

MARKOS ZAPLAIN

Foucaultek bere aitarekin —mediku kirurgilaria— harreman ilun, arraro eta txarrak izan zituen, hori egia da, baina zenbait psikoanalistek arinegi eta gustoraegi darabiltzaten eskemen arabera aitak Estatu eta legea ordezkatzeko duenez (amak berriz familia eta berotasun amorfoa, noski), «ondorioa» izango da Foucaultek Estatuari egin kritikek, eta bere obra aberats eta konplexuak, txikitan aita zirujauak anputazio bat ikustera behartu izanak dutela oinarri ia bakar. Antzeko horikeriez josia, sekulako arrakasta lortu du Estatu Batuetan James Miller-en *The Passion of Michel Foucault* zikoitzak; ordea, euskaldunoi (nahiz feministei —Foucaultek gizonezkoak maitatzeko ez baitzuen beharrezko emakumezkoak gorro-

tatzea, feminista batek idatzi berri duenez—) zenbait gutxiengo gero eta txikiagotuagoren ikuspuntua ozenki plazaratu eta berau defendatzeko arma teorikoak zorroztu ostean eskaini zizkigulako izan dakiguke apika maitagarri Foucault.

FOUCAULT ETA BERE GARAIA

Foucaultek bere lehen obra garrantzitsua argitaratu zuenean (*Eromenaren Historia*, 1961) Frantzian indarrean zeuden filosofiek (existentzialismoa, fenomenologia, hegelismoa) subjektuari ematen zioten lehentasuna. Hegel, Husserl nahiz Heideggerenean proiektua, intenzionalitatea, geroa nagusitzen dira: sarritan aldarrikatzen zuten Sartre existentzialistak zein Kojève hegeldarrak gizakiak askatasunez sortzen duela historia, iraganak, izaerak, ekonomiak edota geneek determinatutako orainaz libre. Estrukturalistek, aldiz, egitura inkontziente kontrolagaitzen sareetan ikusten dute askotan gizakia preso eta itsu, eta subjektua oinarri gisa hartzeak dakartzan zenbait ondorio gaitzetsiko dituzte hirurogeiko hamarraldian: Lévi-Straussek Mendebaldeko etnozentrismoa, Lacanek kontzientzia indibidualaren subiranotasun soilik itxurazkoa, Althusserek kontzientzia burges faltsua eta Foucaultek berak Historia Autokontzientzia Bat eta Bakarrak Azken Helburuaren (zerua lurrean, klase-rik gabeko gizartea, azken egia: Hegelen mintzoa...) bila egin behar dituen amarruen multzo gisa ikustea, adibidez.

Izan ere, hirurogeiko hamarraldian Foucault estrukturalismoan kokatzen dute (nahiz eta hark sailkatze hau maiz arbuia-tu), *Eromenaren Historia* (1961) —eromenaz, eroetxez—, *Klinikaren sorkuntza* (1963) —eritasunaz, ospitaleez—, *Hitzak eta gauzak* (1966) —hizkuntzalaritzaz, biologiaz, ekonomiaz— eta *Jakintzaren arkeologia* (1969) —aurreko liburuetan erabili metodoez— obrak kontuan hartuta. Liburuotan Foucault jakintza ikertzen saiatzen da, hau da, kultura eta garai jakin batean egiten eta esaten diren guztien azpian legokeen pentsamendu inkontziente ezkutua, «episteme» ere deitzen duena, agerikoa baldintzatzen duena. Oraina kritikoki ulertu ahal izateko, garena ganoraz diagnostikatu eta izanarazi gaituztena

aldatu nahiz ahaztu ahal izateko (hauxe baitu Foucaultek azken helburu), beharrezkoa da, hortaz, geure garaiko jakintza zuzen aztertzea. Ez du, hala ere, historialari eta pentsalari gehienen antzera, geure iragana zientifikoki zehaztu gura, ez du gure iraganaren egia azaldu nahi, baizik eta geure orain arteko egiak iragan egin direla azpimarratu, Foucaultek geure oraina etorkizunaren iragan bezala ikusten baitu batez ere (eta Europa apurtze bidean).

Arkeologiko izendatu ohi den lehen aro honetan, gainera, idazketa eta eromena uztartu dituzten zenbait idazleren obrak ere arakatuko ditu, hala nola Roussel, Artaud edota Nietzsche-renak. Izan ere, idazleok (baita azken Goyak ere, eta Sadek) eromena mintzarazten dute, eta entzulego bat sortzen diote; ordu-rarte, aitzitik, zentzudunak bakarrik mintzo ohi ziren eromenaz, eroa bera isilaraziz.

Diskurtsoaren ordena (1970) —hitzen kontrolaz— (euskara-tua, eta primeran hala Tutatis!, dugun Foucaulten liburu bakarra oraingo) hartu ohi da aro arkeologikoaren eta genealogikoaren arteko zubitizat. Igarotzea ulertzeko kontuan eduki behar da, aurrena, 1964tik 1968ra Foucaultek Nietzsche sistematikoki irakurri zuela; gainera, 1971n Espetxei buruzko Informazio taldea sortu zuen, presoek eurek ukan zezaten mintzatzeko aukera, beste inork euren izenean berba egin barik; eta, azkenik, Frantziako maiatza dugu, 1968ko eztanda, mugimendu sozial berri eta antiautoritarioen arrago eta kabia: ikasle, feminista, preso, antipsikiatra, antimilitarista (Vietnam, Praga), drogen eta sexuaren erabilpen desberdinen aldeko, komunen eta bizimodu alternatiboen aldeko, arrazakeriaren aurkakoen, besteak beste. Mugimenduok borroka politikoaren abangoardia gisa Alderdi Komunistek zuten nagusitasuna, eta egiazko aldaketa sozial posible bakartzat erabateko eta behin betiko Iraultza hartu ohi duen kontzeptu marxista klasiko teleologikoa zalantzan ipintzen dituzte, hierarkiarik eta ordezkariarik gabeko iraultza berri eta arraroak bultzatuz.

Era berean, «Gulag artxipelagoa» gero eta ozenkiago salatzen da hirurogeita hamarreko hamarraldian Frantzian, eta «sozialismo erreala» gaitzesten. Mugimendu antiautoritariook

kordokatuko dituzte alde batetik nazismoaren egiturak ezabatu zituztelako harro zeuden herri demokratiko eta liberalen botere-egiturak, eta, bestetik, gizarte kapitalisten desberdintasun sozialak gaindituak zituztelakoan zeuden Ekialdeko herri komunistenak. Egoera politikoa berria da, eta, ondorioz, berau analisatzeko kontzeptuek ere berriak izan beharko dute. Gure garaiko botereen konplexutasuna aztertzeke ez zaizkio egoiak irudituko Foucaulti ez legean oinarritutako liberalen eredu juridikoa, ez ekonomian oinarrituriko klaseen eredu marxista; aldiz, taktikak, estrategiak, praktikak hartuko ditu batik bat aintzakotzat: legeak bezala egunkariak ere gerra-tresnak dira, jakina baietz. Funtsezko galdera, hortaz, ez da zer ote den boterea izango, nola funtzionatzen ote duen baizik.

Boterearen genealogia deitu aroko liburuak hauexek dira: *Zaindu eta zigortu* (1975) —zigorrez, espetxez—, *Sexualitatearen Historia*-ko lehendabiziko liburua (1976) —biobotereaz, aitortzaz— eta *Egia eta egitura juridikoak* —boterearen genealogiaz—, 1978an argitaratua baina 1973an Brasilen emandako hitzaldi batzuk jasotzen dituena.

Oso famatu dugu ordurako Foucault: makina bat komunikatu sinatzen du, goizero apaintzen duen bere gazta-buru xarmanta eta lepoa estaltzen dion polo zuria manifestaldi askotan ikus daitezke (etorkinen alde, Poliziaren hilketen aurka...), Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru kideen aurka Francok agindu herri-zigorraren kontra azaltzeagatik Espainiatik botatzen dute, atxilotu egiten dute, beste edozein intelektual ospetsuk baino sarrixeago jasotzen du CRSkoen egurra...

Gure garaia, dio orain Foucaultek, itxitura, bahiketa eta diziplinan dago sustraitua. Izan ere, ospitalean, eroetxean, eskolan, espetxean, lantegian, koartean, gorputzak leku hertsietan ordutegi zorrotzen pean bahituta dauzka botereak (giza zientzien laguntzaz), kontrolatu eta goardia egiten duen baina kontrolatua ez den jagolearen begiradaren menpe. Gure gizartea espetxe-artxipiela da. Eta Foucaultek itxiturak apurtu eta gorputzak, bizitza, askatu nahi ditu. «*Toleraezinak dira —dio— epaimahaiak, poliziak, ospitaleak, zaharretxeak, eskolak, soldaduska, prentsa, telebista, Estatua, eta, batez ere, espetxeak*».

Izan ere, kartzelan agertzen da boterea biluzik eta den bezain izugarri: norbait espetxeratu, bertan egonarazi, janaria eta beroa ukatu, irtetea eta maitasuna debekatzea, hau da, xehetasunik ezdeusenak ere zinikoki kontrolatu eta zigortzea, ahalbidetzen baitu botereak presondegian. Baina, aldi berean, jokamolde basati hau moralki zuritzeko beharra ere sentitzen du: *«Neuk daukat arrazoia jipoitzen zaitudanean, bai baitakizu gaizki dagoela lapurtu edota erahiltzea»*. Bere burua Gaizkiaren gaineko Ongiaren nagusitasun bare eta ordenatu gisa mozorro-tzeko behar hori da Foucaulti botereaz gehien interesatzen zaiona. Mozorroak humanismoaren eta eskuzabaltasun gupidatsuaren itxura hartu ohi du, eta giza zientziak ditu kolaboratzaile funtsezko.

Nolanahi ere den, dio Foucaultek hirurogeita hamarreko hamarraldiaren hasieran, Europak osotoro aldatu behar du. Gizarte burgesa abstraktuegia da, ez zaio gizaki errealarari egokitzen: espetxeak sortzen ditu, eta eroak baztertu, gorde eta arakatu. Ordea, gizartearen beraren kontraesanak argiegi azaltzen dituelako zokoratzen dugu zoroa. Marxentzat gehiengoaren miseria aski zen hura sortu zuen gizarte mota apurtzen saiatzeko; Foucaultek batez ere eroen eta presoen egoera hartzen du aintzat.

Eta urteotan proposatzen duen iraultza goitik-beherakoa da. Haren hitzetan esateko: *«Humanismoak sistema ideologikoa aldatu nahi du, erakundea ukitu gabe; erreformismoak, aldiz, erakundea aldatu, sistema ideologikoa berdin utzirik. Ordea, ekin-tza iraultzaileak aldi berean hausten ditu hala kontzientzia nola instituzioa»*.

Eta ziur aski Foucaultenean ez-ohikoena egiten zaiguna da honek, Platonek edota Rousseauk ez bezala, ez duela alternatibarik hain sutsuki kritikatzeko duen gizartearentzat. Izan ere, Foucaulten iritzirako, daukagun gizartea apurtu ostekoaz ez da oraingoz deus ere esan behar. Orain, txikitu. Ondoren, ikusiko dugu zer gertatzen den. Programarik ez.

Aro genealogiko honen bide erdian-edo hasten da Foucault azaltzen botereari buruzko kontzepzio berria: botereak debekua, zapalketa eta zigorra normaltasuna sortzea azken helburu

duen estrategia orokorrago baten baitan kokatzen ditu. Bote-reak ez baitu batez ere eragozten, baizik eta asmatzen.

Sexualitatearen Historia-ko lehen liburua argitaratu ondoren (1976) eta proiektua osatuko zuten beste bostak oso aurre-ratuak zeuzkala, heldutasunera ailegatua zela zirudien: lan teorikoak eta praktika politikoak bide egokia aurkitua zuten, antza; historialari, legegile, psikologo, soziologo, filosofo eta literatur kritikariek haren obra onesten zuten eta hizkuntza nagusietara zen itzulia. Hala ere, ostera baztertuko du harrapatuta daukan nortasuna, eta berriro aldatuko da —orain hasi-ko da jendaurrean galdegiten, adibidez, ea iraultza benetan desiragarria denentz—.

Aldaketa zehazki Collège de France-ko 77-78ko ikastaroan hasten da, eta HIESak jota 1984an zendu baino aste gutxi batzuk lehenago argitaratu ziren *Sexualitatearen Historia*-ko II. eta III. liburuetan azaltzen da argiro. Foucaulten obran bereizi den azken garai honi subjektibazio-prozesuen aroa deitu ohi zaio.

Izan ere, hirurogeita hamarreko hamarraldiaren hasieran Estatuaren aurka gogor oldartzen bazen, azkeneko urteetan lasaituko ditu jarrera politikoa nahiz estilo literarioa. Apurtzai- le porrokatua zenak orain dio ezinezkoa dela nolabaiteko mugake- ta eta zapalketarik gabeko kultura eta gizartea antolatzea; exi- gitu behar dena da, hori bai, mugatu eta zapalduon erabateko eskubidea eta ahalmena mugatu eta zapaltzen duen sistema aldatzeko. Hau zaila izan ohi da, ordea, sistema inperatibo mor- ral, erlijio-agindu edota determinismo zientifikoekin lotzen denean.

Foucaultek dioenez, halaber, jakintza eta botereek bizimo- du eta izaera bereziak bultzatzen dituzte, interesatzen zaiz- kien subjektibazio-prozesuak, gizabanako «normalak», kontro- lagarriak, neska-mutiko automatikoak, untxitxo txintxoak, sortzeko. Foucault, aldiz, bizimodu eta izaera desberdinak, arraroak, berriak, sustatzen saiatuko da. Puntua da nork be- re burua artelan eder gisa sor dezan, daukagun normaltasuna- rentzat egoki eta jatorra ez izan arren. Foucaulten filosofiaren muina askatasun berrien bilaketa eta ekoizpena baita, gure ga- raiak ezartzen dizkigun mugak gainditzeko saioa.

EROEN GORDELEKUETAN BARRENA

Foucaultentzat libre ez da dakiena, ikaslea eta asmatzailea baik, dakiguna batzutan inkontzientea baita, eta bestetan ikaste-prozesuak atzean utzitako hilotza besterik ez. Hala eta guztiz ere, libreago gara ohartzeke jakintzat ematen genuenaz jabetu ostean, aurretik baino. Izan ere, jakintza anonimo baten sareetan gaude harrapatuak gizarte orotan: esaten den guztia (ideiak, epaiak, iritziak, bazterketen zuriketak), alde batera, eta, bestera, egiten den oro (erakundeak, ohiturak, salerosketak, Poliziarren makilkadak), jakintza-sistema inkontziente horri dagokio. Ohiko zientzia, filosofia eta erlijioaz oso bestelakoa da jakintza hau, baina haiek agertu ahal izateko derrigorrezkoa.

Beraz, garai eta hizkuntza bateko pentsamendu inkontzientearen baitan pentsatzen dugu nahitaez. Eta, aske izateko, garrantzitsuena ez da gizakiek pentsatzen dutena, baizik eta pentsatzen dutena pentsatzea ahalbidetzen dien jakintza pentsatu gabea. Izan ere, amaraun hori deseraiki beharra dago, ikasle eta asmatzaile bilakatuko bagara. Horrenbestez, askatasunari bagagozkio, garaiz eta tentuz apurtzea lagungarriagoa da betikoan lasai aritzea baino. Arazoa soluzioa baino inportanteagoa denez gero, Sokrateren «*dakidan gauza bakarra deus ez dakidala da*», eta Kanten «*ez da filosofia ikasten, filosofatzen baizik*» berpizteko, gizakiak hil egin behar du. Foucaulten «gizakiarren heriotza» sonatuaren esanahietako bat, Moreyk artez dioenez, hauxe litzateke: jakintza-gizakiak (hau da, aldi berean dakien gizakia eta jakintza-objektu den gizakia) zendu egin behar du, ikaslea, asmatzailea, abenturazalea, esperimentatzailea sortuko badira.

P reso gauzkan jakintza-itxitura hautsi eta eroenganako jarrrera esperimentatzaile eta libreagoa sortu ahal izateko, hortaz, aurrena daukagun errotze-sarearen derrigorrezkotasunaren justifikazioak deseraiki beharko ditugu. Foucaultek gure garaiko erakunde eta giza zientzien sorrera interesatu eta irrazionala agertarazten du beti, hauen «arrazoizkotasuna» eta «naturaltasuna» «frogatzeko» argumentu-asmaketa atzekoz aurrerakoa desestaliz. Morroi bat erotu da eta zoroetxean sar-

tzen dugu: betidanik ikusi dugunez, naturala izango da, horre-
xegatik ikusi dugu hain zuzen ere beti horrela, «pentsatu» ohi
dugu. Foucaultek, aldiz, erakutsiko digu oso berria eta bitxia
dela jokamolde hori. Eta gaur egun dauzkagun erakundeak
eta kolaboratzaile dituzten giza zientziak funtsean XIX. mendea-
ren hasieran Ilustrazioaren eraginez sorturikoak dira, eta in-
teresa, bortxa, bataila dute oinarri, ez humanitarismo zerutia-
rra. Izan ere, eroetxeen eta presondegien kasuan esate baterako,
sortu eta berehala garbi geratu zen omen zeuzkaten helbu-
ruak —ero eta hiltzaileen «zentzate» eta bergizarteratzea, bes-
teak beste— ez zirela inondik inora lortzen. Foucault argitzen
saiatu den interesek mantendu izan dituzte ordea gaurdaino
indarrean.

Hemendik aurrera *Eromenaren Historia*-ri psikiatria tradizio-
nala ~~ra~~ kritika ardatz hartuz egindako gainbegirada bat dator.
Antipsikiatriak eta Leopoldo María Panerok sarritan erabil-
tzen dute gerra-tresna legez liburu hau.

Dirudienez, antzinako zenbait gizartetan, bestea, «desberd i-
na» —sorgina, aztia, txamana, eta baita *energoumenos* edota
mente captus-a ere—, poseditu bat zen: nolabaiteko egia zuen
bere baitan, beraz, txerren-egia besterik ez bazen ere. Naturaz
gaindikoarekin, sakratuarekin, loturik zen zelanbait; hortaz, tal-
dekideek begirada anbiguoz egiten zioten so: maitasunez bezala
gorrotoz, errukiz eta nazkaz, beldurrez baina begirunez... Ez zen
orduan, geurean bezala, baztertua, gordea eta arakatua.

Erdi Aroan zehar legendunak Europako hirien atarietan ba-
rreiatutako legendundegietan sartu zituzten. Hesiez kanpo, ho-
ri bai, baztertuak eta isolatuak, zer gerta ere; baina hiritik ger-
tu, ikusgarri eta eskura. Izan ere, legendunak ere arriskutsu eta
kaltegarritzat jotzen zituzten, Jainkoaren zigorra nozitua bai-
tzuten, baina, aldi berean, Jainkoaren indarra nabarmendu
eta gogorarazten zuten etengabe, eta gupidatsu izan beharra,
kristau legez. Laster, legena desagertu eta legendundegiak hus-
tu ahala, artean libre samar zebiltzan eroek beteko zuten, bes-
te batzuekin batera, giza talde orok bestelakoa geografikoki zo-
koratu baina izpiritual eta kulturalki berreskuratzeke duen be-
harra, eroak izango ziren Europako madarikatu sakratuak.

Lehenengo gaztigua Errenazimentuan iritsi zen, orduantxe hasi baitziren eroak *Narrenschiff*, *Stultifera Navis* edo erountzietan sartzen, Renaniako ibaietan eta ubide flandriarretan barrena noraezean utziz, zentzun galduaren bila-edo. Untziratutako eroa, horrenbestez, preso zen nolabait, baina bide eta bidaiak zabal eta librearen baitan.

Foucaultek dio eromenak Errenazimentuan Erdi Aroan heriotzak gizartean nahiz kulturaren zuen garrantzia bereganatu zuela, biok adierazten dutelarik existentziaren deuseza. Erdi Aroan, ordea, azken zuloa kanpoan eta amaieran dago, heriotzaren orenean, aldi berean mehatxu eta bukaera, eta Errenazimentuan, berriz, bizitzak barne-muinetan eta etengabe darama ezereza. Heriotza eta eromena, beraz, deusezak sortu ezinegon unibertsalaren ikur izan ziren hurrenez hurren Europan.

XVII. mendean, Errenazimentutik Aro Klasikora —honela izendatzen du Foucaultek XVII. mendearen erdialdetik XVIII. mendearen bukaerarainoko tartea— igarotzean, supituki, Europa osoan barrena, ordurako hutsik zeuden legendundegiak txirotxe bilakarazten dituzte. 1656ko zenbait hilabetetan 425.000 paristarretatik 40.000 sartu zituzten Erregeak fundatu Ospitale Nagusian, eskaleak, mozkorrak, pobreak, lan egiteko gaitasunik gabekoak eta baita eroak ere, «txiro» kategoriapen guztiak. Laster hedatuko da Europan barrena txirotxe-sarea.

Foucaulten ustez sistema honen arrakastaren oinarrian Europan zehar isilean eta urte luzeetan garatua izana zen sentsibiltate sozial berria zegoen, XVII. mendearen bigarren zatian bat-batean agertu zena. Sentsibiltate honek orain isolatuko du itxitegi etsiok beteko zituztenen kategoria («txiro» alegia): mintzamolde berria eta erakunde berria aldi berean sortzen ohi baitira. Lana, moral nahiz sozialki, beharrezkotzat jotzen baitzen, itxitegiak nagusitu ziren. Aisialdia eta eskaletza arriskutsuak ei ziren gizartearentzat, eta, beraz, zigortu beharrekoak. Norbakoak eta taldeak Estatu-kontrolaren menpe egon behar hau presio ekonomiko eta sozialen ondorio izan zen, besteak beste. Geurea ere den ohiturak, eroak gordetzea alegia, interesa eta grina izan zituen oinarri, eta ez eroen egoera hobetu nahia.

Izan ere, medikuek txiroetxeok bisitatzeko agindua jaso zuten arren, Foucaultek azpimarratzen du funtsean ez zirela inondik inora medikuntza-guneak, itxilekuak baizik. Ez du hemen aurrerapenik antzematen. Aldiz, aipatu neurrietan —jendetza gorde eta isolatu— ikusi behar dira egun dauzkagun medikuntza, psikiatria eta giza zientzia modernoek aurreneko pausoak. Geroa zientziok euren metodoak garatu, kontzeptuak landu eta gremio-defentsak zorrotzko dituzte, bai, baina beti aritu izan dira, eta ari dira ondino, gordeketan oinarritutako erakunde eta egiturekin lankidetzan. Giza zientziek sekulako garrantzia hartuko dute gizabanakoak sailkatu eta kontrolatzeko lanetan; ez dira, jakina ezetz, egia xurien bilatzaileak, itxitegietako kate psikologikoak zorrotz estutzen dituzten hersgailuak baino.

Hurrengo aldaketa funtsezkoa Frantziako Iraultzaren ostean gauzatuko da; geure garaiak eromenarekin duen harreman bixiaren azken ezaugarria, zokoraketa eta gordeketa ostean, hau da, mania ikertzailea, arakakeria, bertan erabakiko da.

Izan ere, antzina ez bezala, modernitatean eromenak ez dio naturari naturaz gaindikoa gehitzen, ez da Jainkoaren obrari egindako deabruzko apartazioa, baizik eta gizakiaren goi-mailako dohaien gabezia. Entziklopediak dioenez erokeria eza besterik ez da: aluzinazioa bezala eldarnioa, kasu, ilusioa, erroreak eta egiazkoa ezagutzeko gaitasun ezak sortua da. Zenbait erok egia fisikoa, sentsazioen egia, ignoratzen du: aingeru-kontzertuak entzuten dituztenek esate baterako. Beste batzuk egia moralez jabetu barik bizi dira: norberekoegiak, grinatsu itsuegiak. Eroa ez da, beraz, Entziklopediaren arabera, poseditu bat, desjabetu bat baizik, alienatua, inorenganatua. Eroa, Aro Klasikoaz geroztik, ez da ez egiaren ez deusen jabe izango. Aldiz, eroa bera izango da egia, erokeriaren egia zorabiozkoa, baina besteentzat soilik: erokeria ikergai bilakatuko da, gauza. Eta erokeriarekin batera, noski, baita eroa bera ere. Azkenik, giza zientziek joera hau muturreraino eramango dute, eta gizakia bera bilakaraziko dute gauza, ikergai, jakintza-objektu. Hementxe dugu, beraz, sendagileen begirada aztertzaile «gizalegezkoaren» pean kokatua zoroa, «erokeria» eta «eroa» objektu kliniko legez asmatuak.

«Eroa» eta «hiltzailea», itxitegietan elkarrekin gordetzen bazituzten ere, XIX. mendearen hasierarako intelektualki bedere n berezirik zeuden kategoriak ziren. Gainera, hilketengatik atxilotutako noble eta intelektualen protestak ditugu, eroekin nahasten zituztela-eta. Jauntxo kriminal eta intelektualek euren interesengatik exigitu zuten «kategoria desberdin eta bateraezinen nahasketa ergela» apur zedin; ez zuten eroak askatzea, edota hauen osabidea hobetzea, eskatu. Kriminal «zentzudunek» eroekin ez nahastea besterik ez zuten gura, itxitegiak utzi aurretik kutsaduraz arrazoia galtzeko beldurrez-edo. Gorte-gietan eroak herstea bidegabekeria baldin bazen, ez zen erentzat eurentzat, gainerakoentzat baizik. Psikiatra eta historialariek kriminalen protestak jaso, eurenganatu eta amorratu egin ziren: kontzeptu desberdin bi, eroak eta kriminalak, elkarrekin gordetzea eskandaluz salatu zuten. Egun eroen eta kriminalen, drogazaleen, eskaleen artean ezagutzen dugun bereizketa garbia garai hartako hamaika oihu-protestatan bide du oinarri. Baita eroak medikuenera biltzea ere. Baina hemen ez dugu, ezta hurrik eman ere, zientziaren lankidetzan emandako aurrerapausorik gaixoen osabide humanitarioan, baizik eta interesa eta bostere-nahia, betiko legez.

Izan ere, sentsibilitate soziala eta harreman ekonomikoak sakonki ari baitziren berritzen XIX. mendearen hasieran. Pobrezia, ordurarte bizio edo mehatxu sozialtzat hartua, orain nazioarentzat ongile ezkutu baina funtsezko gisa ageri da. Txanpon exkax batzuen truke lan egitea onartu eta oso gutxi kontsumitzen duten txirook nazioaren aberastasunaren osagarri garrantzizko bilakatzen dira. Orain dela mende bi, hortaz, jendetza behartsua aberastasun-iturri gisa ikusia izaten hasi zenez, gordetza zabalegia erro re baldar eta akats ekonomiko bezala izango da kontzebitua harrezkero.

Asmatu zitzaion ordezkoa gordemolde ez hain orokor eta «zientifiko» eta «gizalegezkoagoa» izan zen: bertan, noski, kriminalak eta eroak ez daude elkarrekin. Geroztik, eroak arakatu eta «zentzudun» bilakarazi nahi izango dituzte. Foucaultentzat, aldiz, eroekiko omen dugun gizatasun gero eta jatorragoa mito ilustratu bat besterik ez da.

Ikus dezagun, azkenik, geure jarre ren azken osagaiak —aitakeria eta moralkeria sadismoz zipriztinduak alegia— pinta-tu zituzten Tuke erreformatzaile kuakeroen ordezkariaren eta Pinel sendagile razionalistenaren berrikuntzak zertan erabakitzen diren. Bide batez esateko, eromena eta kriminaltasuna tratatzeko teknika eta estrategiak antzekoak dira hala ingelesean (Tuke) nola frantsesenean (Pinel).

Tukek paziente bakoitzak bere kriminalkeria edota erokeriaren erantzukizuna onar zezan zuen helburu. Hark sortu itxitokian, Foucaultek dioenez, eromenaren izu librea erantzukizunaren angustia etsiak ordeztu zuen: beldurra orain kontzientziaren ezkutaleku xumeenez ere jabetuko da. Pazienteak bere errua onartu beharrak asiloan egitura hierarkikoki zorrotza antolatzea exigitzen du, azpi-hondoan, jakina, eroa datzala.

Zoroa denez zorakeriaren hobendun, zigorra izango da terapiaren oinarri. Eta xedea pazienteak bere egintza traketsen erantzule dela jabe dadin bada, eroa, hasiera batean jagoleek zaindu eta zigortua, tentuz eta metodikoki eraturiko estrategien bitartez bere burua jagon eta zigortzera izango da bideratua, harik-eta erruaren barneratze prozesua erabat burutzen den arte, pazienteak sendatu dela seinale.

Pinelek, Frantzian, uniformizazio moralak lortzeko tresna bihurtzen ditu eroetxeak. Moral unibertsalak nagusitu behar-ko du asiloan. Eroei ulertarazi behar zaie Gizatasunaren Etikak hautsi dutela, eta birziklapen teknika berezien bitartez arau sozialak onartzera bideratu, hau da, zoroaren kontzientzia apaldu eta gorputz-arimak diziplinatu. Teknika hauen artean xehetasun ezdeusenetara ere heltzen den aitortpenak garrantzi itzela hartuko du. Sakonduko dugu gai hau.

Foucaulten ustetan, bai psikiatreek bai giza jakintzek gord e-keta sustatu eta geure gizarteko menpekotasunak sendotu egiten dute. Eromedikuaren eraginez ikusten dugu egun eromena alienazio eta medikuntza-irakasgai bezala: psikiatreek sortu dute buru-gaixotasuna. Tuke zein Pinel ados zeuden eroetxe-ko kiderik garrantzitsuena zalantzarik gabe medikua zela onartzeko orduan. Aurrena, hark du eroetxean nor sartu edo

irten ahal den erabakitzeko ahalmena. Halaber, asiloa erdi-ospitale bihurtzen du, medikuntza izpirituz ziprztintzen du oro. Hala ere, ez da asiloko agintari goren eromenaz tekniko-ki eta zehazki beste inork baino gehiago dakielako, ez: sendagi-lea erdi-aztia da, jauntxo bat.

Giza zientziek (bereziki psikiatriarekin zerikusia dutenek) deus gutxi lagundu dute gizakia hobeto ezagutzen; hala eta guztiz ere, sekulako boterea hartu dute Mendebaldean. Benetan paradoxikoa da sasizientzia ahulok geure garaiko botere n osagai hain funtsezkoak izatea. Paradoxikoa ezezik, mingarri samarra ere bai jasan behar dituztenentzat. Leopoldo María Pannero batek badu zeresan franko honen inguruan.

Izan ere, psikiatrak, eroa ezagutu baino areago, menperatu egiten du: objektibotasun zientifikoa zapalketaren mozorroa da. Geure psikiatriaren sakoneko egiturak magikoak dira, eta XIX. mendearen hasierako moralarekin lotuak, gure eroetxeetan positibismoaren eta objektibotasunaren mitoen mozorropean gorde ditugularik.

SEXUA ETA EGIA: AITORPENA

1976ko *Jakingura, Sexualitatearen Historia*-ko lehendabiziko liburuan, sexu-medikuntza eta psikoanalisia giza zientziak kritikatu zituen Foucaultek, eta, oroz lehen, botereak galara-zi eta zapaldu baino egiten ez duela dioen uste hedatuegia, botereari aurre ganoraz egitea eragozten baitu. Hau da, orduko progrezkeriarren artean erabat nagusi zen freudomarxis- moari (Fromm, Reich, Marcuse) oldartzen zaio. Horrexegatik da harrigarri samarra, eta behar bada filosofiaren betidaniko egoe- ra patetiko, enigmatiko eta apur bat tetricoaren adierazgarri, Luis Fernandez lako kazetari informatu batek Foucaulten obra «*psikoanalisi eta marxismoaren max-mix patetiko*» bezala defini- tzea (*Tetris*, Elkar), hain oker ere Marxen nahiz Freuden kritika- rik eraginkorrena ekarri digunean alajaina. Izan ere, Fou- caulten esanetan, kontzebi bailiteke boterea errege barik bezala sexua lege barik ere.

Sarritan aldarrikatzen du Foucaultek, Platonengandik hasi eta Nietzsche arterainoko filosofia klasiko ia guztiak ez bezala, «egiaren» nahiz sexualitatearen historikotasuna: sexua ez baita denboraren joanaz berex edota aldaketa ororen azpian letza-keen eremu batik bat biologikoa, ez da ezkutuko grina arkai-ko esentziala; aitzitik, ideia hauek guztiak garai zehatz batean sexualitateaz sortu mintzamolde berezi eta estrategiko baten baitakoak baizik ez dira, eta berben astuna gorputzen desirez jabe zedin antolatu taktika politikoe-kin daude lotuak. Esate baterako, «sexualitatea» XVIII. mendean sortu zen, eta «sexua» XIX.ean. Aurretik «haragia» genuen.

Sexualitatea XVIII. mendean zehar, eta batez ere XIX. mendean, zientzien ikergai, administrazioaren kontrolaren menpeko eta gizartearen kezka bilakatu zen. Sendagileentzat, erreformatzaileentzat eta giza zientzietako ikerlari-entzat sexualitatea giltzarri bihurtu zen norbanakoaren osasuna, patologiak eta izatera ulertzeko orduan. Bistan denez, Foucaultek ez du indarrean dagoen kronologia eztabaidatzen: garai hartan iraganarazi ez zuten sexualitatea eguneroko bizitzan eroso eta libre samar onartua izatetik ezkutuan eta kontrolpean gorde beharreko zerbait izatera. Baina Foucault izan da lehena azpimarratzen kontrolo- ezartzearekin batera sexuari buruzko diskurtsoen garapen benetan espektakular eta berria eman zela. Azken hiru mendeotan ez baitugu pairatu, boterea zapaltzaile huts bihurtzen duen hipotesiak horixe defendatzen badu ere, gero eta larritzenago lihoakeen sexu-zapalketa, baizik eta sexuaz berba egiteko egundoko bultzada, hura «hobeto» bideratze-arren. Ez baita zapalketa menperamolde nagusia. Izan ere, «geure burua ezagutuz» edota «egia» aldarrikatuz zapalketaren aurka erresistitzen ari garela sinistek menperakuntzari laguntzen dio, boterearen egiazko funtzionamendua mozorrotzen baitu.

Gorputz indibidualak bezala giza talde zabalak ere kontrolatu eta bideratu nahi dituen botereari Foucaultek biobotere deritzo, azken batean bizitza bera baitu helburu. Aitortza, berri- z, Mendebaldean asmatutako teknologia berezi bat da, gorputza, jakintza, mintzoa, plazerra eta boterea uztartzen dituen- a, biobotereak gorputzaren mugimendurik xumeena zein arima-

ren emoziorik arraroena kontrola ditzan eratua. Garai batean aitortza batik bat burgesiari egokitu bide zitzaion, diziplina eta zigorra, aldiz, langileak eta azpikoak kontrolatzeko bideratuak izan ziren bitartean.

Foucaultek azaldu nahi du sexuaren gaineko aitortzak norbanakoak moldatzeko teknologia gisa —niaren teknologia deritzona— nola funtzionatzen duen «geure barne-muinetako nia» asmatzeko tenorean. «Niaren azken egia» errebelatu eta ezagutzeko promesak hainbestearaino erakartzen ohi du ezen lotu egin baikaitu txarto hautematen ditugun eta askatzea arras zail zaizkigun botere harremanekin. Mendebaldean behinik behin, kontzientzia indibidualaren azterketarik pertsonalena ere, zientziek, sasizientziek eta doktrina erlijioso eta moralek inposatzen dizkiguten kontrol-sistema indartsuekin dago lotua. Nork bere buruaren gaineko egia ezagutzeko desira kulturalak aitorpena bultzatzen du eskuarki: aitorpenak, halatan, bata bestearen ondoren kateatzen dira, eta desirak berbetan ipintze horrek ezartzen ditu hain zuzen ere gizabanakoaren eta aitorpen horien azken egia erabakitze ahalmena omen dutenen artean menpekotasun loturak.

Niaren teknologiok norbanakoak «jakintsuen» laguntzaz bere buruaren gaineko egia esan dezakeela hartzen dute abiapuntu. Oinarrizko printzipioa da hau, ez soilik medikuntzan edota zientzia psikiatrikoetan, baita justizian, heziketan eta maitasun harremanetan ere. Egia kontzientzia aztertuz eta pentsamenduak eta egintzak aitortuz aurki daitekeela hain dago onartua egun, hain dirudi eztaba daezina eta naturala, ezen bazterrak nahasteko nahikeria baino ez baitirudi hala kontzientzien azterketa nola aitortza bera ere botere-estrategien funtsezko osagarri gisa aurkezteak. Hala eta guztiz ere, Foucaultek dioenez, asmo hau desarrazoizkotzat ematen badugu hasieratik bertatik, botere batik bat zapaltzailearen hipotesiak duen indarra eta atxikimenduagatik baizik ez da. Zeren pentsatu ohi dugu egia berez dagoela boterearen aurka, eta, horrenbestez, zalantza izpirik gabe, egia desestali eta aldarrikatzea askatasunaren bidean aurrerapausoa izango dela. Ordea egia ez da desestaltzen, baizik eta asmatzen, eta beti dago nahiaren menpe. «Geure egiazko nor-

tasuna» omen denari atxikitzeak estu lotzen gaitu bioboterearen saretan, «nortasunari» berez baitarizkio identitate nahiz identifikazio geldiarazleen kateak, itxurari itxiturarenak bezala.

Mendebaldean «arau eta analisi zientifiko inpartzialak» ia sakratutzat jotzen dira. Era berean, metodo zientifikoaren garapenari esker, norbanakoa bere buruarentzat eta besteentzat ezagugai bihurtu omen da, bere buruari buruzko egia esan omen baitezake, bere burua ezagutu eta ezagutarazi. Honela, bere izaera aldatu eta egokitzen ikasten du. Hauxe dugu hain zuzen ere niaren teknologietako bat, aitortza eta zientzia lotzen dituen.

Niaren teknologioak, bestalde, sekulako antza dute norbanakoa gorputz apal eta mutu bihur dadin bilatzen duten teknologia diziplinarioekin. Hala ere, desberdinak ere badira, ez baita biltza gizakia mututzearen bila, alderantziz baizik, mintzatzeraren behartzea baitute xede. Indarkeria hutsa barik, boterea Foucaultentzat diziplina-teknologiaren eta niaren teknologia maltzurragoaren arteko harreman-sarea baita besteak beste.

Foucaultek, beraz, aitortzen, eta batez ere norbanakoak bere sexualitateaz egindakoa, gorputz indibidualak zein populazio osoak kontrolatu eta diziplinatzearen antolaturiko teknologiaren osagarri funtsezkoenetakotzat du. Eta, genealogista legez, aitortzenaren historia mamitzen saiatu zaigu, eta erlijioa, botere politikoa, medikuntza eta giza zientziekin dituen loturak ikertzen.

Aitortzeko bultzada areagotuz eta sotilagotuz doa etengabe. Foucaultek dio XVI. mendean geroztik aitortzen-technikak erlijioaz gain pedagogiararen hedatzen direla aurrean, ondoren presondegi zein beste itxitegietara, eta, azkenik, XIX. mendean, medikuntzara. Aitortzari esker, arimaren mugimendurik ezdeusekin eta gorputzaren plazerrik bitxienak ezagutu, neurtu eta arautu ahal izan dira. Kristauren sexuarenganako ardurak erabaki zuen sexuak «esanahia» duela. Zeren eta kristauak, jakinaenez, bere arima ezagutuko badu, pentsamendu eta egin-tza sexual oro aitortu beharrean baitago. XIX. mendean oro har sinistarazi zenean aitortzen sexuala agintari erlijiosoen gain sendagile, psikiatra eta giza zientzietako «jakintsuei» ere hedatu behar zitzaizela, aitortzena estu uztartu zen boterearekin.

Beraz, Foucaulten ustetan, aitorpenaren bitartez «egia» «aurki» dezakegula dioen ideiaaren adierazpenik nabarmenena sexuaz dugun interesa da. Eta jende orok onartzen bide du desirretan datzala gizakiaren egiarik sakon eta funtsezkoena. Egiok, noski, norbanakoen aitorpenez «jakintsuek» egindako interpretazioak baino ez dira. Kristauen penitentziatz gero gaur arte, nolalahi ere, gorputzaren desirak izan ohi dira aitorpen-gai nagusiak. Erdi Aroaz geroztik gaurdaino, Erreformatik igarota, perfektionatu egin dira erlijiozko aitorpen zaharren teknika eta mintzairak. Gorputzaren eta arimaren desira bakoitza eta guztiak mintzaraztea da helburua. Sexuarekin zerikusia dukeen edozer, etengabeko kalakan sarrarazi beharra dago, mintzook ondoren agintaritzaman ordezkari den abadeak edota belarriak diru-truke alokatzen dituen psikoanalistak interpretatuko dituelarik.

XIX. mendean erabat lortu egin zen norbanakoak pentsa zezan aitorpenaren bitartez bere burua hobeto ezagutuko zuela. Egia da sexua izan dela nagusi harrezkero areagotu baino egingo ez den aitorpen-manian, baina ez da gai bakarra. Aitortza nabarmen hedatu baita: justiziara, medikuntzara, pedagogiara, senide-harremanetara, hala txikikeriarik arruntenera nola ospakizunik esanguratsuenetara; hilketak, bekatuak, gogotak, irudipenak, desirak, gaixotasunak, mixeriak, aitortzen dira; nor bere buruari besteri egin ezineko aitorpenak egiten dizkio... ondoren maizegi oroitzapen-liburutzar ezin astunagoetan isurtzeko: gizakia Mendebaldean, dio Foucaultek, aitortza-pizti bilakatu da.

Hala eta guztiz ere, Foucaultek ez du esaten sexuaren gaineko interesa derrigorrez dagoela botere-harremanen eta niaren teknologien menpe. Historian zehar modu bi izan ditugu sexuarengana hurbiltzeko: *ars erotica* eta *scientia sexualis* alegia. Alde batera, egia plazerretatik ateratzen da, eta plazerra praktika eta esperientzia da. Plazerra bera da xede: ez dago ez erabilgarritasunaren ez moralaren ez edozelako egia zientifikoren baten menpe. Sexualitatea ez da hemen ni indibiduala ulertzeko bidea, baizik eta zenbait ariketa praktikoko eta doktrina esoteriko bat, maisu batek inimizazioaren bidez dizipuluari transmititzen diona; Ekialdeko arte erotikootan erritualen bidez gorpu-

tzaz erabat nagusitzea, plazer izugarria, denbora nahiz mugak ahaztea, luzaro bizitzeko elixira eta Herioren mehatxuak uxatzea lortzen omen da.

Mendebaldeak, berriz, *scientia sexualis*-aren bideari ekin zion. Gurean ez da plazerrak sotiltzea bilatzen, baizik plazerrarekin zerikusia duen edozein pentsamendu edo egintza zorrotz analisatzea. Desiren arakatze sistematiko honek norbanakoaren nahiz populazioaren ongizatearen giltzarria omen den jakintza bat sortu du. Jakintza analitiko horren helburua erabilgarritasuna, morala edota egia bera omen da.

Esana dugu XIX. mendean sexualitateari buruzko diskurtsoak nahastu egin zirela giza zientzia modernoekin. Piskanaka-piskanaka plazerraren artxibo eskerga bat antolatu zen. Medikuntza, psikiatria eta pedagogiak desira mintzo zientifikora bildu zuten: sailkapen-sistema erraldoiak eraiki ziren, deskribapen zehatzak, eta aitortpenaren zientzia bat eratu egin zen, hau da, gauza sekretu eta aitortezinez diharduen «zientzia» barrengarri xamar bat.

Foucaultek hemen bereizketa garrantzitsua egiten du. Esaten du sexuari buruzko medikuntza-jakintzak zientzia biologikoen adar bezala izan direla aurkeztuak; baina erreprodukzioaren biologiarenean arau eta irizpideak askoz ere onargarriagoak dira nagusitu zaizkigun sexuaren gaineko pepelerdokeriak baino. Sexuaren medikuntza asmo eta praktika politikoen mende egon da, nabarmen, baina «zientifiko huts» bezala agertu nahi izan du, erreprodukzioaren biologia mozorrotu, babestu eta zuritzeko erabiliz. Eta hain da ahula, ez soilik zientziatasunari dagokionez, are oinarriko zentzuzkotasunari dagokionez ere, ezen ezagutzen historian leku berezi bat merezi baitu, biziki uherra alajaina.

Antza denez, giza sexuari buruz zentzunez jardutea arras zail zaigu. Eta, zalantza barik, sexuari buruzko espezialisten azken nahia beren hitzontzikeria ilunaz zerbait benetan gerta dadin eragozte besterik ez da.

Dena dela, Foucaultek ez ditu zientzia guztiak boterearen ondorio soil bihurtzen. Sasizientziak, ia zientziak, giza zientziak

bereriki, ikertu ditu, zientzia onargarrien babespean egia-
 terearen praktikekin estu daudela lotuak azalduz. Esate bate-
 rako, medikuntzak XIX. mendean sexuaz dioenak garbi azal-
 tzen du zertan den sasizientzia bat. Foucaultek argi ro erakus-
 ten du nola paratu zuten sexuaren teorikoek «egia» boterearen
 menpe. Garrantzikoena da sexuaren egia «sekretu esentzial»
 izan dela bihurtua, sexua egiarekin izan dela uztartua. «Sexua»,
 nagusitu zaigun «sexua», beraz, Foucaulten iritzirako, bata-
 sun artifiziuala da, asmatutako dispositiboak, bertan anatomia,
 biologia, jokamoldeak, sentsazioak, jakintzak eta plazerrak es-
 tu lotu eta «bideratzeko». «Ezkituko zentzu» bateratzaile honen
 ezean, geure berbek eta ekintzek norabide anitz, arraro eta
 kontrolagaitzetatik egingo lukete ihes agian. Ez lukete, bede-
 ren, egun duten itxura tristea izango. Izan ere, sexua fikzio
 lez barik indar biologiko bezala aurkezteak ahalbideratu du
 jakintza biologikoak bioboterearen praktika normalizatzailee-
 kin uztartzea, zeren eta, sexua funtzio funtsean natural gisa ka-
 teorizatzen badugu, eta, beraz, gaizki funtziona dezakeena, or-
 duan puntua izango da funtzio natural hori menperatu, kontro-
 latu eta bideratzea, halatan izorramenditik izorramortura goa-
 zelarik artez. Guztiarekin, «sexua» izan da botereak gorputzen
 materialtasunaren, indarren, sentsazioen eta plazerren gai-
 nean, inguruan eta azpian antolatatu dituen hersgailuen artean
 berrietsuena eta nekagarriena.

HITZONTZIKERIAK

Foucaulten zerbait benetan gerta dadin eragotzi baino nahi
 ez duen hitzontzikeriaren aurkako kritikek *El Correo*, *El Diario*
 edota *El País*-en Euskal Herriaz idazten ohi duten edota Parisko
 Parlamentuan Euskal Departamenduaz deliratzen duten argi-
 turriak ekartzen dizkirate gogora. Arrazoizkotasunaren, zen-
 tzuaren, unibertsaltasunaren eta eskuzabaltasunaren izenean
 praktikan bestelakoa apurtu eta garbitu besterik ez dute nahi.
 Eta, oroz lehen, basko sentzillo jatun turistiko eta apalak sor-
 tu. Ez dute guk geure erara ezer egin dezagun gura; mugitzen
 hasten garenerako, euren tramankulu ideologiko heterofobo be-

zain ergelak martxan jartzen dituzte bazter guztiak nahaste aldera, betiko moduan geldituz gaitzezen xedez, haien menpe alegia.

Zendu aurretik Foucaultek telebistan palestinar borrokalari gazte bati entzun zion esaten «*gauza bakarra dakit, neure arbasoen lurrak berreskuratu nahi ditudala. Betidanik sentitu izan dut grina hori. Ez dakit nondik dator kidan, baina halaxe da*». «*Azkenean. Bazen ordua —esan zuen Foucaultek—. Guztia esan du, eta ez dago deus gehitzerik*».

Espainia nahiz Frantziaren batasuna intolerantzia defenda-tzen dutenen monologo monotono monokordearen kontrako ikuspuntu interesgarri honi gehitzen baldin badiogu Foucaulten beraren, eta, hura hil ostean, haren inguruko —Deleuze, Guattari, Châtelet— Iparraldeko euskal errefuxiatuen deportazioen aurkako borroka, eta, gainera, Suediara edota Tuniziarra bizitzera joan zenean, epe labur samarrerako baino izan ez bazen ere, egin zuen aurreneko gauza, nahiz eta harentzat beharrezkoa ez izan, ezta hurrik eman ere, eta inork horrelakorik aholkatu ez zion arren, bertako hizkuntzak ikastea izan zela, aski dugu apika ulertzen hasteko zertan datzan pentsalari handi baten begirune eskuzabalaren eta *El País*-eko Euskal Herriari buruzko euskaraz ez dakiten «espezialista» moralki liliptiarren arteko aldea.

BIBLIOGRAFIA

- FOUCAULT, M. *Histoire de la folie à l'âge classique*, Gallimard, 1972.
- FOUCAULT, M. *L'ordre du discours*, Gallimard, 1971 (Diskurtsoaren ordena, Xabier Apaolazak itzulia, in *Filosofi Testuak*, EHU, 1991).
- FOUCAULT, M. *Surveiller et punir*, Gallimard, 1975 (Aurreneko kapitulua, benetan zirrara garria, in *Filosofiako Testuak*. UBlrako, Nafarroako Hezkuntza Departamentua, 1993).
- FOUCAULT, M. *La Volonté de savoir*, Gallimard, 1976.
- FOUCAULT, M. *Dits et Ecrits*, Gallimard, 1994.
- DREYFUS, H.L.; RABINOW P. *Michel Foucault: Beyond Structuralism and Hermeneutics*, Hemel Hempstead Harvester, 1982 (liburuko lehenabiziko, seigarren eta zortzigarren kapituluak).
- DELEUZE, G. *Foucault*, Minuit, 1986.
- ERIBON, D. *Foucault*, Flammarion, 1991.
- ERIBON, D. *Michel Foucault et ses contemporains*, Fayard, 1994.
- MOREY, M. *Lectura de Foucault*, Taurus, 1983
- CAMPILLO, A. «Nola ez aipa Michel Foucault?», in *Filosofi Testuak*, Xabier Palaciosen ardurapean, EHU, 1991
- LETAMENDIA, F. («Ortzi»), *Nazionalismoa eta beste ideologia garaikide*, Gaiak, 1992 (Azkeneko kapitulua, «Foucault: Botereak gartzela erabiltzea», *Surveiller et punir* liburuaren ganorazko laburpena da).

GUNEN GURPILEAN

JOXERRA GARZIA

DESCARTES
KULTURAREN LURRALDE MORTUAK
EUSKARAREN UNIBERTSOA
MADE IN ESKORIATZA
HITZAK ETA HORTZAK

IÑIGO ARANBARRI

BETI PENETAN
HERIO LITERATURAN DARRAIGU
NORK FUSILATU ZUEN LIZARDI?

IMANOL AGIRRE

MUNDOPOLIS
HERIOTZA-ZIGORRA
OSKARREN TURISMOA
MARTXA, BORROKA ETA SAGARDOA
ZENTSOREAREN KATALOGOA

LONTXO OIHARTZABAL

IKASKETA-PLANGINTZA BERRIAK
PLANGINTZA BERRIAK ETA EUSKAL ADARRETAKO IRAKASLEAK
KALITATEA ETA IKASLE-KOPURUAK

KIKE AMONARRIZ

UKRAINIA
HELDUEN HAURREKIKO HIZKUNTZ HARREMANAK
GOBERNUA OSATZEKO NEGOZIAKETAK
DONOSTIAKO GAZTEAK ETA EUSKARA

KULTURA
LITERATURA
IKUSKIZUNAK
UNIBERTSITATEA
SOZIOLINGUISTIKA

KULTURA

JOXERRA GARZIA

DESCARTES

Aitzol eta Lizardiren aipamenarekin amaitzen nuen aurreko kronika. Handikiro ospatu ditugun bi urteurrenok betiko kezka berbiztu didate: euskal ghettotik kanpora jakin al du inork Lizardi eta Aitzol izan zirenik ere?

Denboran atzerago eginez, René Descartes, filosofo eta zientzilari handia jaio zela lauhun urte bete direla eta, izan da aipamenik aski hedabideetan. Kongresu handi bat ere bai, erdia Donostian eta beste erdia Bartzelonan, pentsalari frantsesarekin inguruan, unibertsitateko jendeaz aparte inork gutxi inguratze-ko moduko egun eta ordutan. Behar baino gehiagotan ematen du unibertsitateak irudi hori, bere baitan bildurik bizi den

erakundearena, alegia. Segurki, ikastegi nagusiaren kokalekuak baduke horretan eraginik, baina campusa hiriarekin fisikoki lotuko lukeen metrorik ezean, unibertsitatea eta gizartearen artean zubiak eraikitzeari ekin beharko genioke ahalbait azkarren, horretarako unibertsitate-barneko sailak koordinatzetik hasi behar litzatekeen arren.

Denok gara, neurri batean, cartesianoak, Kant ezkeroko denak kantianoak edo Marx ezkeroko marxista garen bezala. Horixe baita pentsalari handien handitasuna eta miseria. Handitasuna, ez baitago haien esanen eta idatzien ostean mundua lehen bezala ikusterik, pentsatzerik. Miseria, haien ekarria, Hans Magnus Enzensberger poeta eta saiogile alemaniarrek dioen bezala, gizartean urturik geratzen baita, Alka-Seltzer pastilen moduan. Baina ez ote da hori, hain zuzen, haien handitasuna?

Zentzu horretan gara denok cartesianoak, eta zentzu horretan da Descartes Aitzol eta Lizardi bezain «gure». Filosofia akademikotik aspaldi aldentua nagoen arren, gogoan dut Bartzelonako filosofia-irakasle batek maiz esaten ziguna: pentsamentuaren geniorik genialenek ere bizpahiru gauza baizik ez dutela, jeneralean, genial-genialik.

Era guztietako urteurrenak ospatu behar honetan, berriz, arriskua dago omendua bera erabateko geniotzat, eta haren esan, idatzi eta eginak genialtzat hartzeko den-denak. Descartesenean ezezik, Lizardi renean edo Aitzolenean ere arrisku latza da gehiegizko mitifikatze eta sakralizatze hori. Ez litzaiguke gaizki etorriko noizean behin genio handien hankasartzei buruzko kongresuren bat egitea.

Descartesi buruzkoan izan zen euskarazko txostenik. Hala ere, gizarteari begira oso elkarren urrutiko agertu dira hiru ekitaldiok. Batetik Descartes. Bestetik, berriz, Aitzol eta Lizardi. Mundu diferenteak bailiren. Hori da gure gaitzik gaitzenetakoa. Bi mundu horiek uztartzen ez ditugun bitartean, euskal kulturak beti egingo du herren. Hanka batetik ez bada, bestetik. Bi norabideetan lan egitea eskatzen du horrek: giza pentsamentuaren ondarea etxekotzen, batetik, eta geure apurtxoaren modu duin batez kanporatzen, bestetik.

Inorenak geure egiteko orduan, itzulpena dugu, noski, baliabiderik behinena, eta dezentee aurreratu dugula esango nuke alor horretan. Descartesen obrarik funtsezkoenetakoa ere, *Discours de la méthode* delakoa ere aurki izango omen dugu euskaraturik, Iñaki Iñurrietari esker. Ezein kongresuk baino gehiago balio digu horrek. Bigarren norabideko martxan, ordea, motelago gabiltzala uste dut, euskarazko ekoizpenak Euskal Herrian bizi diren erdaldunengana helarazteko ere ez baikara gauza. Hemen ere, itzulpena dukegu tresnarik egokiena, sustapenarekin batera. □

KULTURAREN LURRALDE MORTUAK

El Correo egunkariak *Territorios de la Cultura* gehigarriaren aurkezpena egin zuen handikiro otsail aldera, Mari Karmen Garmendia kultur sailburu anderea eta Bernardo Atxaga bertan zirelarik, besteak beste. Kulturen uztartzeari buruzko hitzak entzun eta irakurri nituen biharamunean, eta produktu berriaren miran jarri nintzen, itxaropentsu.

Laugarren alerako zapuztu zaizkit esperantzak oro. Lehengo ere bai, baina laugarreneneraino eutsi diot etsipena hartzeko. Batetik, gaiak jorrazteko ikuspegia guztiz espainola da, txitean-pitean euskal ukitu batez hornitzen badira ere. Bestetik, betikoa: laugarren zenbakian, adibidez, hamabi orrialde dakartzatza, eta euskararen presentzia ez da orrialde laurdenera ere heldzen. Gehigarriaren % 2a inguru, beraz.

Gauzak horrela, ez dut ulertzen zer onura dakarkion gehigarri honek euskal kulturari, ulertu nahi den modura ulertzen direlarik ere «euskal» eta «kultura».

Mugak pasabide bihurtu nahian dabiltzanak ez dira, tamalez, asko. Hemengo poeten obrak bildu, euskarazkoak erdaratu eta erdarazkoak (frantsez nahiz gaztelerazkoak) euskaraturik argitaratzeari aspalditxo ekin zion Felix Marañak, hizkuntzak elkartzeaz gainera autoreen arteko harremanak eta elkarren eza-gutza bultzatuz. Argitaraturiko lanak poesiazkoak izateak are txalogarriago egiten du ekimen hori. Azkena (oraingoz) Joan Ma-

ri Lekuonaren obra osoa biltzen duen ale mardula izan da, gainerakoak bezala elebiduna. □

EUSKARAREN UNIBERTSOA

Kontuak kontu, ez dirudi aurreko kroniketan aipatzen nuen kultur alorreko ezinegon horrek desagertzera egin duenik. Aitzitik, gero eta ugariagoak dira kexuak eta kezkek. Plazaratu, behintzat, gehiago plazaratzen ari dira, norbaitek lehen urratsa eman zain egon izan balira bezala. Auzi zahar batzuk berpiztu egin dira egunotan, Guggenheim buru dela. Beste batzuk, berriz, inoiz ez bezain gordin plazaratu dira. Hauetakoa bat aipatzekotan, orkesten ingurukoa aipatuko nuke, oso adierazgarria delako, sintoma eta eredu moduan. Hor ere, euskal kulturgintzako beste alor askotan bezala, lehendik zegoen orkesta (Bilbokoa) ganoraz indarberritu ordez, hutsetik berria sortzea erabaki zen, bitasun horren kontrako ahotsei entzungor eginez. Orain bientzat behar adina diru ateratzen nahikoa lan dago, eta adituen batzordeak erdiko bidetik jotzeko aholkua eman omen du: biei eustea komeni dela, bakoitzari bere esparruan. Horretarako, plantilak laburtu eta baliabideak gutxitu beste erremediorik ez omen da izango. Musika ezaguna, orkesten sinfoniatik datorkiguna. Desafinatua, baina.

Kezka giro horrek eraginda, kulturaren hainbat alorretako jendea hasi da kexutik proposamenerako pausoa eman beharra aldarrikatzen. Otsailaren 24ean egin zen lehen bilera, hogei ta hamarren bat lagun bildu zelarik. Horrelakoetan ohiko diren nigar-saio katartikoez gainera, izan zen ekarpen positiborik ere, nahiz eta lanik gehien alor bakoitzean egitekotan geratu.

Besteak beste, «euskararen unibertsoa» kontzeptua plazaratu zuen Iñaki Zabaletak, ohi duen grina metodologikoaz. Alegia, euskara unibertsoztat ez hartzetik datozkigula gaitzik gehienak. Kronika honetan gorago aipatu ditudan kasu batzuk kontuan harturik, bistan da euskara unibertso kontsideratzetik oso urruti dagoela hainbat eta hainbat jende. Erdararen (gehienetan gaztelaniaren) eranskin huts besterik ez bailitzan

hartzten baita euskara. Eranskin nahiz apendiz, atal hori alferrik omen du giza gorputzak. Euskara ere hor nonbait askoren aburuz. Alferrik egonik ere, ordea, ez da txantxetakoa handitu eta gaiztotutakoan eragiten duen mina. Besterik ez balitz ere, horretara jo behar genuke. □

MADE IN ESKORIATZA

Kultur diru gehienak jaten dizkigun piramidegintzaz aparte, zorionez, bada isilean lan eskerga eta eskergarria egiten duenik. Eskoriatzako irakaslego-eskolakoa iruditzen zait aipagarrienetako bat. Mundu guztiak irakasle izan nahi zuela zirudien garaian sortua, bokazio-bolada hori ere gainbehera etorri denean ongi bai ongi jakin izan dute beren burua birmoldatzen, eta gaur egun, irakasle berriak hezi ezezik, lehendik eskolatik pasaturikoak etengabe trebatzen dituzte.

Horrez gainera, bideogintzaren eta media berriagoen santutegia osatu dute irakasle-eskolaren sotoetan. Euskal Herrian egiten diren CD-ROM apurrak egiteko gehienek Bartzelonara jotzen duten honetan, Kataluniako hainbat enpresak Eskoriatzako Luis Mari, Mikel eta konpainiarengan jarri dute konfidantza osoa. Besteak beste, *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariaren hogeita bat urteko ale guztiak jasotzen dituen CD-ROMa «made in Eskoriatza» duzue. Anaya argitaletxeak aurki plazaratuko dituen ipuin interaktiboak ere hantxe bikoiztuak izango dira. Eta esan dezadan, bidenabar, Eskoriatzan ikusi dudala lehen aldiz interaktibotasun zorioneko hori zer izan litekeen. Eta, nahi izanez gero, media berriak jar litezkeela irakurtzaletasunaren zerbitzutan.

Horra hor erakunde pribatua, publikoa behar lukeen zerbitzu bat eskaintzen. *Chapeau!*

Lerro hauei azken ukitua ematen ari naizela, Txalaparta argitaletxeak ETAren historia aurkeztu du, Josu Landak moldaturiko CD-ROMean. Dakitenek diotenez, Josuk CD-ROMari eman dion taiua guztiz egokia omen da, tresna berriari dago-kion moduan moldatua, eta ez, tamalez oraindik gehiegitan

gertatzen den bezala, inprimakien logika besterik gabe euskarrri elektronikora aldaturik. □

HITZAK ETA HORTZAK

Nahiago nukeen hemen ez aipatu, baina gehiegi izan da oraingo honetan. *Hitzetik Hortzera* berriroapirilaren 12tik aurrera pantailaratuko zela zirudienean, Jose Mari Iriondoren izendapenak alferrik galdu du akordioa. Ohi bezala, Iriondoren inguruko arazo pertsonal moduan saldu nahi izan du ETBk afera, baina ez da horrelakorik.

Besteak beste, ETB eta Elkartearen artean adostu eta sinaturikoen artean saioaren zuzendari Maite Odriozola izango zela azaltzen zen. Iriondo ez zuten proposatzen aurkezle huts moduan, zuzendari eta aurkezle baizik (normala den bezala, bestalde). Beraz, sinaturikoa zapuztuz harturiko erabakia izan da izendapen hori, gero egin diren espantuak gora-behera. Askotan bezala, pertsona jakin baten inguruko arazotzat azaldu nahi izan dute gero telebistatik, baina ez da horrelakorik. Edo agian bai, baina ez hain justu Iriondoren ingurukoa.

Apirilaren 21ean bete dira bi urte, Otermin jaunak Iturriaga, Lujanbio, Elortza eta Irazuren saioa zuzenean mozteko agindua eman zuela. Orduko hartan Otermin jaunaren bulegoan entzun behar izan nituenak isilik eduki ditut orain arte, ETB eta Elkartearen arteko akordioa ez oztopatzearren. Alferrik da, ordea, zentsura haren eta *Hitzetik Hortzera*-ren etenaren artean erlaziorik ez dagoela esatea.

Bertsolari Elkarateak egundoko ahaleginak egin ditu programa aurrera ateratzeko, nahiz eta orain bere bertsoia jakinarazten lanak izan, ETBk bitarteko gehiago eta indartsuagoak dituelako berea zabaltzeko. Arriskuak arrisku, Jon Sarasuak behin kantatua esan beharko: *hitza duenak jakin behar du / hortzak erakusten ere*.

Kulturgintza ulertzeko modu bat baitago jokoan hemen ere. □

LITERATURA

IÑIGO ARANBARRI

BETI PENETAN

Heldu da apirila, eta beste urtebetez ohitura zaharrak mantentze aldera, geure liburutxoia ehuneko hamar merkeagoan erosi —ezta Durangon ere!— eta Shakespeare eta Lepantoko Mantoari kandelatxoa pizten harrapatu gaitu Liburuaren Eguna. Bizi gara oraindino. Argitaletxeak hasiak dira urteko lehen ortukariak ekartzen eta biba gu. Gabeziak gabezi, ezin uka normalak, homologableak ez garenik. Urtero bezalaxe, Espainiako kritikoen biltzarra batzartu da eta aurkitu du gurean ere, Bidasoako mugak errespetatuz, nori eman, errekonomizimenduak direla eta, beti ere ondo datozen kritika sariak: Saizarbitoriari narratiban eta Otamendiri poesian.

Eta *Hamaika pauso* eta *Lur bat zure minari* bi obra berri eta baliente diren aldetik merezi izan zuten bere garaian bere lekutxoa euskal prentsan. Ez lekutxoa, lekua esan beharko nuke, galderei zuzen eta artez erantzuteko tribuna, norberaren lanaren defentsa egiteko behintzat beti izan baitugu paperik. Horrela eskatzen baitu kortesiaren legeak, horrela berripapereen eguneroko dinamika basatiak. Eta horraino, hala pentsatu nahi dut, ulertzen gaitu Azpeitiako Santxo bere gorrian erakutsi zigun Cervantesek, ulertzen Juan Garziari sonetoak itzuli zizkion Shakespearek homologazio unibertsalaren izenean.

Baina behin prentsarekiko patrifilioak beteta sano okertzen da euskal liburuaren andabidea. Altxamendurik gabe, apirilaren hogeitabia kulturaren santutegitik kendu eta beste egunen bat proposatzeko gauza ez den irakurleak —nola ba, jaiotegunik ezezik urterik ere ez duen Etxepare batekin!— galdu du betirako liburuaren pista. Gure negarrek ez dute non erori eta kritika, Sarrionandiaren *Izuen Gordelekuetan Barrena* hartako Europa hura bezala, ez da puta zahar bat baizik euskal irakurlearen ahotan.

Arazoa, larria da. Eta ez kritikak funtzionatzen ez duelako edo azterketak gizartetik urrun dagoen Unibertsitateko apaletan geratzen direlako soilik. Literaturaren katea, euskal literatura ren katea esan nahi dut, uleriezadazue, erabaki politikoz dago kondentatua paperezko dachauetan bizirautera. Eta pape-rera kondentatua diodanean gizarteratzen lagunduko liokeen telebistaren jarrera ekarri nahi dut oraingoan. Bereizketa gero eta garbiagoa da. Tutu katodikoan agertzen ez dena ez da mundu ofizialean. Bi mundu. Favelak hoteleko hondartzako haresien bestaldean.

Arrazoiak asko egon litezke orain arte ETBko zuzendaritzari liburuei buruzko saio bat egiteko erakundeetatik —Euskal Idazleen Elkartetik hasita— egin zaizkion proposamenei muzin egiteko, produktuaren garestitik hasi eta demokrazia eta gehiengoari zor zaion begiruneraino. Eta badakigu. Horegatik asmatu beharko genioke bederen egun bat Etxepareri. Homologazio guztien biktimen izenean. □

HERIO LITERATURAN DARRAIGU

Astakeria bat: hil arteko onik ez duen literatura honek hildako idazleekin duen zorra hain da alea non Balbeak salbatzen digun ia urteko hausnarketaren aurrekontua. Alegia, idazle zenduak eta hauen obrak leitzen barik hauek beteriko lekua gogoratzen eman dugula Durango osteko Bardea agorra. Boutade hutsean geratzeko arriskuarekin, zulo eaginean jarri behar izan dut neure burua, behin negu-bedatseko karroin eta lei beltzek lurra beratu eta bilatzen hasten utzi didaten arte. Eta bilatzen hasita, hiru behintzat ekarri beharrean izan naiz otsailetik apirilera bitartekoan memoria kolektiboa deitzen den plaza honetara: Santi Onaindia, Gotzon Etxebarria «Dirauket», eta Aita Iturria.

Izenok ez dute gezurrik saltzeko. Gerraostean Hegoaldeko aldizkarietako orriak bete zituztenak dira joaten ari direnak. Diagnostika, egungo begi funtzionarioetara garbia da: *Bigarren Dibisioko* asko. Eta honekin obra handirik gabekoetarik dire-

la horien gehiengoa esaten da. Antzinako orbainak. Idazle es-tu, garbizaleak. Klasikoen itzultzaile. Olerkari, ez poeta. Hitz ba-tean: antimodernoak. Mediokreak.

Eta egunkarietan hildakoen gorazarrez egin artikuluak ira-kurtzen eman ditugun azken hilabeteak luze egin zaizkigu gu-re modernotasunean. Izan dugu irakasle *txintxetak* harrikatzen ditugun bitartean zer irakurri: Etxebarria «euskaldunak euta-nasiaz hilko dira» gaztigatzen; Joxe Azurmendi *Mila Euskal Olerki Eder-en* aldeko *striptease* zintzoan, belaunaldi baten-tzat izan zuen garrantziaz ohartarazten. Eta horrenbesteko lo-re artean irribarre txikiz gustura irakurri dut Mielanjel Unanua beti poeta baten apuntea: Arestik ez zuen Onaindiaren zeru-lu-urretan sinesten.

Polita da. Esan nahi dut Unanuak ez ziola hil berriari eraso-tzen. Ez litzateke estiloa. Baina asmatu du. Gorazarrearen teknika baliatuz memoriaren bestaldea baino ez digu ekarri nahi izan. Orduko historia txatal bat eta muturtze ederren ar-gia. Sugar King Aresti Dum Dum Onaindiaren kontra. Bi mun-du, bi poetika, bi etika elkarren aurrean eta bekoz beko. Eta sasoi zaharrak gogoratzekotan, esan beharra zegoen eskuna-rruak emateko daudela eginak. Poesia gai serioegia da lausen-guaren atzapar errazetan jausteko. Larreako zekorrak aitortu zaizkionak eta bi ondo mereziak zituen arren. Hortik Unanua-ren gutun txikiaren balioa.

Eta poztu nintzen, biziak ez bezala, sikera hildakoek eman digutelako bakoitzak hautatu bidearen zaila erakusten duen sei-nalea. Horregatik segitzen du Onaindia batek lanjerosa izaten hil eta gero ere. Eta ez arestizaleentzat, ez Unanuarentzat bera-rentzat ere. Lanturutan lur heze eman zioten askorentzat bai-zen.

Onaindia, Pello Zabaletak gogorarazi bezala, *Mila Euskal Olerki Eder-en* edizioa poliziaren esku zurietarik ezkutatzea lortu zuen tipo peligr osoa izateaz gain *Olerti* aldizkaria eskain-tzea eta mantentzea lortu zuen gizona izan baitzen. Eta poesia aldizkariak, zer esango dizuet nik, lehegarririk ederrena iza-ten segitzen dute herri honetan. Benetan. □

NORK FUSILATU ZUEN LIZARDI?

Eta behin Balbea hona ekarrita, onar diezaiogun kamuflajerako duen trebezia, abildade apartekoa. Aurten ehun euskal urte eder Lizardi jaio zela Zarautzen, ehun euskal urte eder Aitzol sortu zela Tolosan. Eta Euskal Herri osoa —Gipuzkoa esan nahi dut— inoiz ez bezala jantzi da, gertu da egingo zaizkion galderei erantzuteko. Nola zaio Lizardiren poema-liburu lehena-ri? Nongo kanposantuan eta noiz fusilatu zuten Aitzol? Eta beti Eguberri bezperaz hilko diren Xabiartxoren antza hartuko diegun euskal umeek ondo baino hobeto erantzungo diete irakasle prestu eta prestatuen galdera maltzurrei: *Biotz-begietan*. Hernanin, 1937ko urrian. Dударik ez da, asko aurreratu dugu formazio nazionalen.

Horrelako edo antzeko gogoetekin nenbilen Lizardiren argazki zoragarriei begira —Granadako Fuentevaqueros-en Lorcaren gurasoen ohea erakusten dizute!— pentsatzen ea hemen ez ote dugun etxerik —Eta Brasileko oihanetan *sirengueirozen* garaiko maleta Ferreira de Castro-renean!— museo xume bat egiteko Tolosan, Orexan, Laukizen, mendeurrenen izpirituei kontra gogor egingo ziena, ume batek tiro bat bezalako galdera egin zionean asasinoa eta honen ikaskideak Koldo Mitxelenako bunke-rrera eraman zituen irakasleari: Nork fusilatu zuen Lizardi? Lizardi irribarretsu agertzen zen argazkian, semea lepoan zeramala, pajaritarekin —frantsesez bai polita: tximeletarekin— larretik noranahi. Irakaslea gazte lasaia da eta tenplatu errepikatze-ko patxada hartu zuen: Lizardi gaisorik hil zen. Ohean. Fusilatu zituztenak Lauaxeta eta Aitzol izan ziren. Ulertzen? Lauaxeta eta Aitzol.

Anekdotatonia da, eta ziur ere ez nago benetan gertatu zen, kasualitatea ere izango litzateke, auskalo. Baina begirada urdu-riko Xabiartxo haren galdera irakasleak biografia data hutsez estali izana, gutxienez adierazgarria, zerbaiten seinalea ere bazen. Edo hala ulertu nuen nik behintzat.

Egia esango dizuet. Ez nintzen umearen alde atera, agian irakaslea ezagun nuelako eta korporatibismoak duen indarrarekin kobarde kokiltzen naizelako, baina ahotsa garbitu eta bio-

grafietan maixu zen hari galdetzekotan ere egon nintzen ea ez al zuen ulertu. Azkarra ni. Xabierto hark, Michael Radford-en Postaria eta Pablo Nerudaren filmean bezalaxe, ikasi duela metaforak egiten eta fusilatu esan duenean ez zioela pelotoia reketez osatua zegoen ala alkandora beltzeko italiarrez. Fusilatu zioenean, fusilatu, ea nork hil zuen Lizardiren olerkia, poesia esaten ari zela. Zertarako behar ditugun hildakoak bizitzeko balio ez badigute. Famatuak nabarmen uzten gozatzen zuen Massimo Troisi gazte bat zela gure Xabierto, eta hura bezain tristea eta maitebera.

Jakina, azalpena luzea litzateke eta irakasleak ez du astirik. Oraindik beste irakasleekin eztabaidatu eta erabaki behar dituen puntu asko daude. Zergatik jazartu ziren Altube, Aitzol eta Ibar Lauaxeta eta Lizardi hil gaztearen kontra 1935etik aurrera? Zergatik Lizardi ez zuen apenas libururik saldu bere garaian? Zergatik eman zitzaion abertzaletasunetik bertsolaritzari berez literaturari zegokion esparrua? Erantzunak gaitzak dira eta inolaz ere ez umeez ulertzeko modukoak. Politika ere bada tartean, eta hara, zein da bera Hildakoen Pakea nahasteko? Lanjerosa zen azken batean, bat gehiago. Gainera zer, nola azaldu fusilatu batek fusilatu zuela Lizardi?□

IKUSKIZUNAK

IMANOL AGIRRE

MUNDOPOLIS

Ikuskizunaren kolore guztiak arrazakeriaren kontra. «Antzezan soil baten bitartez ez dugula mundu hau konponduko jakin badakigu, baina hemen duzue elkartasunean oinarritutako gizartearen aldeko ekarpen txiki bat». Hegoa-ren, nazioarteko ekonomia eta garapenari buruzko ikasketa-institutuare n arduradunak adierazitako berba hauek Barakaldoko oihala

itxi zuten *Mundopolis*-en estreinaldian. Ezohiko ekimen hau ongi etorria izan dadila taulen erresuma zaharrera. Euskal antzerkigintzan soberan baitaude lan hutsalak eta arinkeriak. *Mundopolis* antzezlanak zuzen eta artez konpromezua taularatzten du. Gizarte berri baten aldeko konpromezua. Mugarik gabe, arrazakeriarik gabe, zapalkuntzarik gabe. Antzerki-solasaren jokoa, poesia eta umorea dira lan honen giltzak. Hiru antzezlan ikuskizun batean.

Aurrenekoa, *Begiratzeaz aski badute...* Helena Pimentak zuzendu du. Errenteriako Ur talde sarituaren gidariak bi pertsonaien arteko elkarrizketa proposatzen digu; buruz buru, disko-teka baten enkargatua eta atariko zaindari armatua. Boterearen jabetza dute arazo. Eta gainera droga-mundua bertan dago isladaturik. Teatrak sarritan ematen duen testu-joko bikoi-tzak ikuslearen arreta korapilatuko du.

Bigarrena Carlos Panerak, Maskarada antzeki taldeko zuzendariak, *Txinago*, Jack Londonen narrazio baten moldaketa bat, eraman du eszenara. Indotxinaren gazte bati benetan gertatu zitzaion pasarte anker bat, hain zuzen. Errugabea izaki heriotza-zigorra kondenatu zuten indarrean zeuden frantziar mandatariek. Giro goibel eta hits honetan narrazioak ez du xamurtasuna galtzen. Lan poetikoa eta sentibera da. Urruneko kulturetatik hamaika ikasteko dugula gogora ekartzen diguna. Nabariak dira zuzendariaren ikus-entzunezko ikasketak, zinema-technikak antzerki-narrazioari ekar diezaiokeen norabide berria begi bistan utziz.

Azkena Ramon Barearen eskutik dator kigu. *Gulliver janari arinak* Karrakaren hainbat antzerki-lanetan eta joan zen urtean errodatuturiko *Adiós Tobi adiós* laburmetraian jorratu duen bizi-tzairen parodia umoretsu beraren ildotik abiatu da. Kontsumo-gizartearen erokerian aurkitu du abiapuntua. Mundu garaia eta ez garatuen arteko kontraesanak agerian uzten ditu diskurtso atsegín eta probokatzailea erabiliz. Garzia izeneko protagonistaren izaera gero eta gehiago antzeman daiteke gure artean. Saltzaile amorratua, etikarik gabekoa eta handiputza, alegia.

Hiru urrezko antzerkigile. Hiru lan zuzen eta aurrerakoi. Hiru istorio xede bakar batekin. Ikuskaria mundu justu baten aldeko borrokarekin bat egina. Pena bakarra egitasmo honen muga, ez baita antzerki-aretoetan ohi legez banatuko.□

HERIOTZA-ZIGORRA

Hollywood-en zirrikituak oraindik begia badu. Arestian antzerkigintzan aurkitzen dugun arinkeria genuen hizpide. Zinemagintzan ere, EEBBetatik datorrena batik bat, joera zimel honetako maisu-lan ugari pantailaratzen dira. Horregatik, urtean zehar oso filme gutxik betetzen naute. Narrazioaren kalitateaz gain, gizakiak dituen barne-kezka edota giza erronkei buruzko gogoeta aurrerakoiak eskatzea gogoko dut.

Tim Robbins–Susan Sarandon bikotearen itzalak zeharkatu du ozeanoa eta gaur Hollywood-en alderik aurrerakoien bandera gisa datozkigu. Egia esan, nekez konpreni dezakegu industria lizun eta ustel horretan nola zabaltzen diren honelako haize bolada garbien zirrikituak baina emaitzak denon begien aurrean daude. *Heriotza-zigorra* (*Dead man walking* —Hila badabil— jatorrizko tituluari iradokorrage deritzogu) arras lan biribila da. Mundu-polis honetan tamalez heriotza-zigorra ez da iraganeko amesgaiztoa, gaurko drama bat baizik.

Tim Robbins Robert Altman-en filmeetan ezagutu dut. Al-tua bezain sinesgarria iruditu zait. Independenteen taldean sartu ohi dute. Baina Hollywoodeko industrian independentea zer den dakien inor ba al dago? Nahiago dut esatea gaur arte lan egiteko profesional minbera izan dela.

Susan Sarandon-ek, berriz, ez du beti bere lagun minak erakutsi duen zorrotzasunik adierazi. Iparramerikar txepelkeriatan ikusia baitut nik. Alabaina, adorea izan du hainbat egitasmo aurrerakoietan esku hartzeko. Honen lekuko izan genuen abenduan Bilboko Laburmetraien Zinemaldian. Bertan bere offeko narrazioa entzun ahal izan genuen Amnesty International-ek burutu duen torturaren aurkako dokumental zirrarragarrri batean.□

OSKARREN TURISMOA

Heriotza-zigorak oskar bakar bat eskuratu du. Azken batean Robbins eta Sarandon industriaren partaideak dira. Er-tzean ibili arren zelaiaren barnealdean jokatzen dutela ezin dugu ahan-tzi. Zeluloidearen industriaren laudoriorik bero e-nak, berriz, erdialdeko mutur-muturra aritzen den batentzat izan dira. Mel Gibson mendebalde garatuaren jokaerarik atzera-koienen mezularia da. *Braveheart-en*, zuzendu duen estreinako filmean, Eskoziako independentzia dekoratu bat baino ez da bere burua lehen planoan agertzeko.

Begira noraino heltzen diren Kalifornian emandako sari er-gel hauek Eskoziako turismo-bulegoak dagoeneko prestatzen ari direla udako bisitarien uholdea. Highlands-eko muin ber-de-berdeak izan baitira, Gibson-ekin batera, filmearen honda-rra ikusleen erretinan. Paisaia baino ez. Hau da hau kalamita-tea! Ea hurrengo batean askatasuna eta justiziaren alde bo-rrokatzeko gogoia bizten duen zinezaleengan.

Propaganda ere izan zuen helburu Joseba Arregik, aurreko kultur kontseilariak, 80ko hamarkadako euskal zinemaren politika bideratu zuenean. Jakina denez, zine bolada honek ikuslea gogaitu baino ez zuen egin. Akaso, gaur egun, Rosa Diez-ek arrakastaren sekretua eskatu dio Mel Gibson-i gure iru-dia garbitzeko zazpi kontinenteetan. Dena den, ez dut uste kontseilari sozialistak independentziaren gaia egoki ikusiko zuenik. Bestela, zertara eraman iaz Hego Amerikara *Dias conta-dos* Imanol Uriberen filmea. Madrileko porlan grisean etakide eta emagalduen arteko maitasun istorioa kondatzen duena. Madrilen aurkituko ote zuen bere Euskal Herriko postala?

Honetatik guztitik lekutan, Nikaraguan, buru-belarri ari da errodaia berri batean Ken Loach. Beste askok ez bezala, zapaldu dituen lurrekiko atxikimendu sakon eta kritikoa plazaratu ohi duen zinegilea. Horrexegatik nire kuttunetakoa da. Ez du behin ere kale egin, nire iritziz. Irlandako iparraldean, Ingalaterrako auzo txiroetan, Espainiako gerra zibilean, kamara bikain mu-gitu du. Oraingoan, sandinisten iraultza aztertu nahi du. Ja-

kin badakit *Carla's Song* izeneko lan berriak ez duela mundua aldatuko baina ziur naiz duintasuna ez zaiola faltako.□

MARTXA, BORROKA ETA SAGARDOA

Bilboko otsail hotz eta euritsuan rock-gazteen ikuskaririk erraldoiena ikusteko parada izan genuen. «Egin Txotx» festak altxatu zuen Etxebarria parkean aspaldian lurperatuta zegoen haizkora musikala. Hamarkada bat baino gehiago igaro da est-reinako «Egin Rock» lehiaketa mitikotik. Garaiko irabazleak gogora ekarri berri dizkigu Josu Zabalak, euskal kantagintzari buruzko mintegi batean: Bizkaian, Zarama; Gipuzkoan, Rip; Nafarroan, Barrikada; eta Araban, Hertzainak. RRV delakoa martxan zegoen. 80ko matxinada musikalak kalea bereganatu zuen. Eta Herri Batasunak asmatu zuen «Martxa eta Borroka» kanpainiari esker aire berriak hedatu ziren Euskal Herriko bazter orotan.

Euria barra-barra egin du ordutik. Eginek eutsi nahi izan dio ekimen zaharrari eta 90eko erdialdeko musika-bolada berria taularatu zen Etxebarriako oihal-etxolan. Bertan sagardo z blai eta trikitixa zaharra alde batera utzita, rocka nagusitu zen: Pilt, Fundiziyue, Martxoak 31, Amen, Latzen, Ipar Rap-Eroak, Iluna Beltz, Kashbad, Kaptan Egurrak eta Lugarri.

5 talde gipuzkoar, 3 bizkaitar eta 2 iparraldetar aritu ziren bi eszenatokitan. Oro har euskal gazte-musika berria soinu gogorra da. Hard, nazioarteko hiztegia harturik. Ez dago biguntasunik. Horra hor heavy-en semeak diren Latzen talde irabazlea, Su ta Garrek zabalduetako bidetari estu-estu segituz.

Hitzetan ere ausartak dira eta sutan dagoen gazte-mugimendua rekin bat egiten dute. Begi bistan dago, musikak zein mezuak 80ko ereduari jarraitzen diotela. Dena den ez dut berritasunik ikusten. Orain dela hamabost urte punkak zabaldu zituen gure begi lokartuak. Gaurko hard-doinuek, errepikapenaren poderioz, logura sortarazten didate. Belaunaldi-arazoa ala berritzeko gaitasun falta?

Oroz gain, ukaezina da euskal ereduak ez duela zer ikusirik musika-industria boteretsuak ezartzen dituen ardatzekin. Blur eta Oasis, Britainia Handiko gazte-ikur berriek ez dute eragin izpirik izan alternatiboaren norabidea hartu duen euskal rock aitzindariarekin.

Azken hileotan Euskadi Gaztea irratiak plazaratu du telebis-tako iragarkiaren bigarren atala. Berriro ere laino gozo artean galduta dagoela dirudi. ETBn pantailaratu berri duen spotak ematen duen gazte-irudia Coca Colarekin bat dator bizitzare n koloreei dagokienez. Non ote dira Guggenheim-en nerabe li-rainak? Bi gaztetatik bat langabezia dago. Oraindik gazteen zalaparta ozenagoa izan daitekeela aurrikusten dut. □

ZENTSOREAREN KATALOGOA

Kantuak abisua eman zigun: *borreroak baditu milaka aurpe-gi* eta borre roak etengabe ekiten dio lanari. Hurrengo leroetan ikuskari zentsuratuen akta jaso nahi dut. Kulturaren esku zuriaren historia beltza.

ETBko mandatariek Bizkaiko Emakumeen Asanbladari iragarki arrunt bat isilarazi zioten. Ideologia gora ideologia behe-ra. Denok dakigunez, ETBk esku zuriak ditu. Emakunde eta Arartekoa baino itsuago oraingoan. Eta ez dago dimisiorik.

Hitzetik Hortzera afera ere nahiko ikusgarria izan da. Gogoratu behar dugu saio zentsuratua izan zela. ETBko zuzendari-tzak azkenengo emisioa moztu zuen bortizki. Ez zen aurreneko aldia eta tamalez azkena ere ez. Beraz, den-dena konpotzeko jar dezagun azeria oiloak zaintzen, otu zitzaion norbaiti. Alegia-ren amaiera iragarrita zegoen: Txoria ez da bertsotan arituko. Isilik hobeto dago-eta.

Arrazoi komertzialak direla medio, *Cachita* Enrique Urbizu bilbotarraren azken filmea ez da erakutsi Madrileko zenbait zinematokitan. Hitz lizunak ez omen dira zinezale batzuen gustoko eta horrexegatik zinematokien kudeatzaileek ez dute programatu. Jakin gura nuke zer filme fin eta zuhur ikusten

di ren hauen pantailetan. Zurikeriaren beste adibide bat baino ez, adierazpen-askatasunerako sasoi gorriotan.

Oskarretan ere *Big Brother*-en esku sartzea agerian izan genuen. Ekitaldian debekua zabaldu zen: kazetariak ez zuten baimenik izan izendapenetan zinegile eta aktore beltzen eska-siak sortutako iskanbilari buruz aritzeko. Itsurakeriari Stop!

Edizio mugatu batean (1.500 ale baino ez) Negu Gorriak-ek plazaratu berri duen konpaktoa zentsuraren ondorioa da. *Ustel-keria* izeneko lana taldearekiko elkartasuna adierazi dutenen-tzako oparia da. 14 kantu zentsuraren atzaparrari aurre egite-ko. Hasiera: *Oker Dabiltza*; eta amaiera: *Hipokrisiari Stop!* □

UNIBERTSITATEA

LONTXO OIHARTZABAL

IKASKETA-PLANGINTZA BERRIAK

Irakurleak jadanik badakikeenez, aldakuntza eta berrikun-tza handiak proposatzen ziren unibertsitateko ikasketen ere-muan. Aurrekoak baino malguagoak, ikaslearen ikaste-erritmo-ra eta interesetara egokituagoak izan beharko lukete plangin-tza berriek. Oinarrizko eta derrigorrezko ikasgaiekin batera hautazkoak ere eskaini beharko litzaizkioke ikasleari. Ikasketetan aurrera doan neurrian hautazko ikasgaien kopurua eta portzentaia gehitu egingo litzateke gainera.

Aukeratutako ikasketa-eremuko oinarrizko ezagutzak eta jakintza-gaiak aztertzeke eta lantzeke aukerekin batera, eremu horren inguruan ikasle bakoitzak izan ditzakeen interes eta jakinmin bereziei ere garapenbide bat ireki nahi izan zaie horrela jokatzuz. Ikaslearen motibagarritasuna modu egokiagoan eragin daitekeela aukera ezberdin horiek eskainiz pentsatu izan da. Eta izan ere, halaxe beharko luke izan.

Unibertsitateetik pasa den edonork daki nolako itxituraz mugaturik zeuden aurreko aldiko ikasketa-plangintzak. Oinarritzko eskolan bezalaxe, urtez urte erabakita eta antolatuta zeuden ikasgai guztiak. Edozein haur-eskoletako ordutegia ziru dien gure unibertsitateko ordutegiak.

Hori guztia solfan jarri denean, ordea, larritasunak eta urduritasunak jo du irakasle bat baino gehiago. Legez ezarrita etorri dira karrera bakoitzeko ikasgaiak. Ez dira horien artean agertu hainbat eta hainbat katedradunek eta irakasle titularrek urte luzez irakatsi dituzten gaiak. Eta hortxe hasi da norgehiagoka: oinarritzkoak ez badira, derrigorrezko bezala ager daitezela, behintzat, fakultateko plangintza berrietan, fakultateek baidute-eta oinarritzkoak ez izanagatik ere hainbat ikasgairi derrigorrezkotasuna ezartzeko ahalmena. Eta horrelaxe ezarri dira derrigorrezkotzat landu beharreko ezagutza-eremuak azalazaleko loturak baino ez dituzten ikasgaiak. Ez da plangintza arazoitu eta koherente bat moldatu; irakasle batzuen interes partikularrak izan dira gorde nahi izan direnak.

Modu bertsuan jokatu da unibertsitateko zenbait sailetan hautazko ikasgaien zerrendak moldatzerakoan ere. Ez zaio ezagutza-eremua jakintza-egiturari begiratu; irakasle bakoitzak lanbidez edo afizio hutsez aurrez prestatuak izan edo zituen gaiak proposatu ditu eta horiek eskaintzen zaizkio ikasleari; jakintza-arloarekin loturarik izan edo ez izan, horrek ez du axolarik irakasle eta unibertsitateko sail askorentzat.

Bada gehiagorik ere, ordea. Hautazko ikasgai-kopuru ikaragarriak eskaini dira zenbait fakultateetako zenbait sailletako plangintzetan, malgutasunaren itxura emateko edo. Sartu dira indarrean plangintza berriak eta aurrera ezin eramana sumatzen hasi dira han eta hemen. Ikasgaiak eskaini bai, eskaini dira, baina zeinek emanik ez dago orain, eskaini eta proposatu zituenak gehiegi eskaini eta proposatu zituelako, edo eskaini eta proposatu zituen irakaslea jada fakultatean ez dagoelako. Plangintzei eta ikasleei begirunerik ez dienak ezin eskatu-ko du errespatorik beretzat! □

PLANGINTZA BERRIAK ETA EUSKAL ADARREKO IRAKASLEAK

Aipatu plangintza berriak direla eta zaildu egiten zaio bere bete-beharra euskal adarreko hainbat eta hainbat irakasleri. Kontuan hartzen bada 24 kredituko lana burutu behar duela irakasle bakoitzak (kreditu 1= 10 ordu), euskal adarreko taldeak ez direla bikoizten oraindik (salbuespenak beti albuespen), zenbait fakultatetan oinarrizko eta derrigorrezko irakasgaiak bakarrik eskaintzen direla euskaraz eta mota horietako irakasgaiak nagusiki 6 eta 9 kreditutakoak direla, euskaraz irakatsi behar duen irakaslea 3 edo 4 irakasgai ezberdin prestatzera beharturik dago urtean zehar. Eta zenbaitetan elkarrekiko loturarik ez duten irakasgaiak gainera (ez da albuespena!).

Gaur egun ikerkuntzak daraman abiadura kontuan harturik eta edozein ezagutza-eremutan argitaratzen diren lan-kopuruak begibistan izanik, nahiko lan sortzen zaio irakasle bati «bere gaiko» lanen nondik-norakoari jarraitzen. Zer esanik ez hiru edo lau gai ezberdinetako azken emaitzak kontuan hartuz prestatu nahi baldin baditu bere irakas-saioak. Ikerkuntza nondik nora dabilen kontrolatu beharra du gutxieneko kalitatez irakatsi nahi duenak. Euskal adarreko irakasleoi Euskal Herriko Unibertsitateak eskatzen digun eginkizuna ezin da gutxieneko kalitatez bete baldintza horietan. Baina izan, horietxek dira irakasle askoren baldintza errealak.

Gehitu horri guztiari euskaraz idatziriko irakas-materialen eta argitalpenen urritasuna eta edonor kontura daiteke egoeraren larritasunaz. Herri honetako administraritzako arduradunek eta politikariek jabetu beharko lukete lehenik horretaz, baina erregela berdinez ateratzen dituzte beren kontuak horiek oraingoz: 24 kreditu= irakasle bat.

Erdal adarreko zenbait irakaslek, aldiz (eta hau ere ez da albuespena), irakasgai bakar bat prestatu behar du: bi edo hiru talde paralelori sei edo bederatzi kreditutako irakasgai bat irakastea nahikoa du eta. Begibistan izan behar da hirugarren zikloko irakasgai bat (doktoradutzarako ikastaroak izenpean ezagutzen direnak) ere ematen dutela irakasle horiek:

beraiek ikerkuntzaren bidez ondotxo ezagutzen duten gairen bat eta kredituz bikoitzak direnak (5 ordu= kreditu bat).

Eginkizunetan, betebeharretan, ez gabilta baldintza berdinetan; eskubideetan, ordea, parekoak gara: soldatak berdinak, oporraldi berdinak, etab. Zuzena ote da hori guztia? Diskriminazio baikorraren irizpideak ez ote du balio eremu honetarako? Balegoke zer esanik. Badago, behintzat, zertaz pentsaturik.□

KALITATEA ETA IKASLE-KOPURUAK

Ziurtasun osoz langabezira doazen lizentziatuak eta diplomadunak prestatzen ari da gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatea (beste asko eta asko bezalaxe). Hala eta guztiz ere uholdeka datoz ikasle berriak unibertsitatera. Eta berdintasunerako ez dakit zein eskubide aipatuz, eska dezaten ikasle guztiak onartu nahian gabilta begi-belarri ezinezko ahaleginetan: gogoz kontrako ikasketak egitera behartzen ari gara ehundaka eta ehundaka ikasle, ikasle beraien kaltetan eta irakaskuntzaren kaltetan, talde batean inolako jakinminik gabeko ikasleak dituzunean talde osoaren martxa oztopatzen baitizute horrelakoek. Eta kontu, bigarren edo hirugarren urterako unibertsitatea utziko dizute ordurarteko ahalegina ezerezean lagaz.

Egia da bizibide duin bat izan ahal izateko prestakuntza egoki baterako eskubidea duela gizaki orok. Eskubide hau, ordea, ezin gauza dezake unibertsitateak orain datozkion ikasle-kopuruekin; ez toki egokirik eta nahikorik, ez baliabide aproposik, ez behar hainbat irakaslerik duelako betebehar hori behar bezala burutzeko. Gizarteak unibertsitateari nagusiki eskatzen diona, aldiz, beste zerbait da: kalitate handiz prestatuturiko goi-mailako teknikariak behar ditu gaurko gizarteak; teknikaren eta aurrerapenaren eskakizun berrietara moldatzeko eta egokitzeko gai izango diren goi-mailako teknikariak eskatzen zaizkio unibertsitateari industriaren, jakintzaren eta ikerkuntzaren eremuetatik.

Goazen eran inolaz ere konpondu ezineko gatazka hauxe, nire ustez. Oso maila ezberdinetako eta berezitetako langile

eta teknikariak behar ditu egungo lan-munduak. Lanbide-hezkuntzak eta unibertsitateko ikaskuntzek ezin prestatuko dituzte era horretako langile eta teknikariak, gaur daudenean jarraituz behintzat. Maila eta ibilbide ugariagoko eta berezituagoetako prestaketa-aukerak ireki beharra dago ezinbestean, teknikari-eskola-mota ezberdinak sortuz horretarako. Bere interesei eta etorkizunari era egokiagoan erantzungo lieketen aukerabideak ikusiko lituzke horrela ikasleak eta ilusio handiagoz ekingo lioke prestakuntzari. Ikaslearentzat onura, gizartearentzat abantaila eta unibertsitatearentzat egokitasun hobea.

Hortxe dago, bestela, paradoxa: administrariak eta administrari-laguntzaileak prestatzen dituzte lanbide-hezkuntzako ikastegiekin; baina administrari edo administrari-laguntzaile batek duen eginkizunetarako ekonomi-zientzietan edo enpresa-ikasketetan lizentziatuak eskatzera jarri dira administrazio-mundua bera eta kutzak eta banketxeak: langabezia dagoen lizentziatu ugari baitago administrari edo administrari-laguntzaile baten soldataren truke lan egiteko. Non lan egingo dute unibertsitaterako aukerabiderik izan ez eta lanbide-hezkuntzarako irtenbidera jo beharrean aurkitu zirenek? □

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

UKRAINIA

Gurean ez dira oso ugariak Europa ekialdeko hizkuntz normalizazio-prozesuei buruz iristen zaizkigun berriak; are gutxiago azterketak edo hausnarketak.

Llengua i dret aldizkariaren azken zenbakian, Oleksander Butsenko izeneko idazle ukrainiarraren «Los aspectos lingüísticos de la nueva democracia en Ucrania» artikulua zekarrela ikusi-

takoan, ez nuen denbora gehiegi behar izan, artikulua irakurketari ekiteko.

Artikulu labur eta sakona. Zer pentsa ematen duena.

Hasteko ukrainieraren historia laburra eskaintzen digu idazleak. Historia horretan paralelismo asko aurki genitzake gu-rearekin. XIX. mendearen amaieratik aurrera esate baterako, Errusiako tsar-ek ukrainieraren erabilpena debekatu egin zuten esparru formaletan (irakaskuntza, administrazioa, hedabideak...). Ukrainiera «baserritarren eta ezjakinen» hizkuntza bilakatu omen zen.

Errusiako Iraultzaren ondoren oso egoera desberdinak eza-gutu omen zituen Ukrainiak:

- Leninen ukrainizazio garaian izan zuen hizkuntzak bere loraldirik emankorrena. Hizkuntza bizitzaren alor sozial guztietara zabaldu zen (aldizkarien % 90 eta liburuen % 60 ukrainieraz idazten ziren, konparazio batera).

- Stalinek hizkuntzaren egoera guztiz okertu bide zuen: arazketa odoltsuek eta errusifikazioaren indartzeak hizkuntzaren atzerapena eragin zuten.

- 1950. urtetik aurrera, ukrainierari bideak zabaldu egin zitzaizkion; beti ere, muga batzuren barnean.

- Glasnost eta Perestroikarekin berriz, aldaketa nabarmenak gertatu ziren; Ukrainiari eta ukrainierari aukera berriak sortu zitzaizkielarik.

- Azkenik independentziarako bidea 1990-91 urteetan.

Hamarkada honen hasiera inguruan, sentimendu nazionalaren aldeko leherketa soziala gertatu bide zen: biztanleen % 65ek ukrainiera jo zuen berezko hizkuntzatzat, aspaldian errusifikatutako ekialdeko zonaldeetan ere ukrainieraren aldeko mugimenduak sortu ziren, bertako hizkuntza hedatu zen komertzioetan, industrietan, administrazioan...

Azken bi urte hauetan ordea, atxikimendu gartsu hori epeldu egin da eta, ukrainieraren erabilpena atzendu eta errusierarena indartu egin da. Baita betidanik ukrainieradunak izan

dirien mendebaldeko hirietan bizi diren «aberats berrien» artean ere (sistema aldaketak sortutako klase agintari berria emeki-emeki errusieraren alde ari omen da makurtzen).

Idazleak dioenez aldaketa azkar eta sakon honen azpian arrazoi hauek suma daitezke:

- Ukrainiak ez du tradiziozko estatu subirano moduan.
- Eraikitzen ari den estatu honek, bi joera menperatzaile gainditu behar ditu:
 - Errusiar inperioarena.
 - Sobietar totalitarismoarena.
- Independentziaren etorrerarekin eta sistema aldaketarekin, biztanleen gehiengoak, komunismoaren garaiko estatuaren babes soziala galdu egin du eta honek estatuarekiko desengainu eta mesfidantza-giroa sortu omen du.
- Gaur egun, herritarren kezka nagusiak, norbanakoen bizi-raupenari loturik daude eta batzuetan estatu berriaren helburuetatik oso urrun dabilta.

Arrazoi soziolingustikoen artean honako hauek aipatzen ditu:

- Badirudi independentzia lortutakoan mundu guztiak ukrainiar bilakatu nahi izan zuela, sobiet mundu zaharretik eta ordurarteko hizkuntza ofizial bakarretik (errusiera) desmarkatzeko bide modura (Euskal Herrian Francoren heriotzaren garaian izandako giroa dakar gogora baieztapen honek).
- Hizkuntzaren standarizazioa erabat burutu gabe edukitzeak eta standarren inguruan sortutako eztabaidek nahaspila izugarria sortu dute. Arrazoi honegatik, asko errusieraren inguru egonkorragora itzuli zen (euskara batuaren inguruan egon den —eta dagoen— segurtasun falta sozialak eta eztabaida-giroak badute zerikusia aspektu honekin).
- Estatuaren hizkuntz politika maiz ez da kontsekuentea izan. Batetik, helburu politikoak lortzeko propaganda besterik ez da izan batzuetan eta bestetik, ez dago laguntza estatalik hiz-

kuntzaren garapenaren oinarri izan daitezkeen indarrentzat (salgai dauden liburu gehienak errusieraz daude gaur egun).

- Ukrainierak ez dauka ez argot modernorik, ez kaleko hizkerarik. Mailegu gehienak ingelesetik edo errusieratik hartzen ditu.

Honen guztiaren inguruan ondorio nagusi hau ateratzen du egileak.

Estatu independentea sortzerakoan, hizkuntz arazoa, maila izpiritualetik maila sozialera iragan zen eta bizimailarekin, gizarte-ongizatearekin eta berme eta askatasun sozial guztiekin zerikusi zuzena zuen gaitzat hartu zen. (...) Ahalegin nazionalak, estatuaren politika ofizial bilakatu dira, bere ideologia. Eta estatuaren hizkuntzak, ideologia horren zerbitzari modura, gertatzen den guztiaren ardura dauka, neurri batean.

Arazoaren konponbidea helburu nagusian ezartzen du: «*Estatu demokratikoaren finkapena eta garapena*».

Eta ni Ukraina urruti zegoelakoan! □

HELDUEN HAURREKIKO HIZKUNTZ HARREMANAK

- «*Haurrek nola egingo dute bada euskaraz, eskolatik edo ikastolatik atera eta euskaraz dakiten gurasoak, elkarren artean erdaraz gozo-gozo ari direla ikusten badute*».

- «*Gure herrian euskaraz haurrekin eta txakurrekin egiten da*».

- «*Zertarako eskatzen diegu erdaldunei euskaraz ikasteko, gero euskaldunok gure artean barra-barra erdaraz egitekotan?*».

Era honetako hamaika esaldi eta baieztapen entzun ahal izan dugu bazterretan, eta intuizioak adierazten digunez, ez dira funtsik gabeko burutapenetan oinarrituriko usteak. Zein neurritaraino dira ordea, errealitate baten islada eta zein neurritaraino topiko zaharkitu batzuren oihartzun?

Galdera honi erantzun nahian, eta Donostiako eta Pasaia-ko Udalek leku publikoetako euskararen erabilpenaren neurke-

ta burutu behar zutela profitatuz, «hurrekiko harreman motaren» aldagaia txertatu zen aipatu udalerrietako neurketetan.

Emaitzak oso argiak eta esanguratsuak izan dira. Emaitzak bi udalerrri hauetan jaso baldin badira ere, pentsa genezake, antzeko egoerak gertatuko direla, gutxienez, Gipuzkoako udalerrri nahikoa erdaldundu eta hiritartuetan (beste herrialde eta zonalde soziolinguistikoetan zer gertatzen den eta joesa horiek zabalagoak diren jakin ahal izateko, datu gehiago beharko lirateke).

Emaitza nagusienak honako hauek izan dira:

- Haurrak (14 urtetik beherakoak) dira euskara gehien darabilen adin-multzoa: Donostian % 18 eta Pasaian % 27.

- Helduen (26-64 urte) hurrekiko harremanetan euskararen erabilpena, udalerrriko batezbesteko erabilpena baino altuagoa da: Donostian % 14 (batezbeste % 9) eta Pasaian % 23 (batezbeste % 14).

- Dagoen erabilpen-mailarik eskasena aitzitik, eta alde handiz gainera, haurrik gabeko helduen arteko harremanetan gertatzen da: Donostian % 3 eta Pasaian % 7.

Bestela ere, ezagupenetik erabilpenerako jauzia altua baldin bada, helduen arteko harremanetan, jauzi hori izugarria bihurtzen da.

Egoera honek eragin handia du noski ingurune nahikoa erdaldunetako haur euskaldunengan; beren testuinguruetan euskararen presentzia behar baino urriagoa baita (askoren familiak erdaldunak dira eta guraso euskaldunek maila apalean darabilte hizkuntza).

Ezin dugu ahaztu bestalde helduen erabilpenak zerikusizuzena duela hizkuntzaren transmisioarekin (bai transmisioa bermatzeko garaian eta baita transmititutako hizkuntzaren kalitateari dagokionez).□

GOBERNUA OSATZEKO NEGOZIAKETAK

Prentsaren bidez, PPrekiko negoziaketetan bai EAJk, bai CiUk darabiltzaten puntuak, testuak, etab. ezagutu ahal izan ditugu.

Negoziaketa-mota hauek, normala den bezala, diskrezio handiz egiten direnez, plazaratzen diren testu hauen kokapen eta balioen inguruko zalantzak sor daitezke.

Hala ere, hizkuntz normalizazioari dagokionez, funtsezko desberdintasunak daude, bi alderdien planteamendu eta testuen artean.

CiUkoen lan-agirietan lehentasunezko lekua egin zaio hizkuntz-normalizazioaren aspektuari. Gizarteratu den eskaera nagusia honako hau izan da: PPK behar diren neurriak hartu beharko dituela, mintzo den lurraldeetan kataluniar hizkuntza eta kulturaren garapena ahalbideratzeko, eta alor honetan Kataluniako gobernuak gara dezakeen politika ez oztopatzeke.

Bestelako eskaera esplizitoen artean honako hauek daude:

- Komunitate zientifikoaren nazioarteko irizpideei jarraiki, hizkuntzaren batasuna bermatzea Valentziako komunitatean eta Balearre Irletan.
- Unibertsitateetan katalaneraren sailak sortzea, bigarren zikloan beronen borondatezko ikasketa sustatuz.
- Kataluniako hizkuntza eta kulturaren zabalkundeaz arduratuko diren sailak sortzea enbaxadetan.

Prentsaren bidez ezagutu dugun EAJren txostenean ordea, ez da hizkuntzari buruzko erreferentziarik egiten, eta egonda ere ez dirudi hizkuntzaren inguruko aspektuek garrantzi aipagarririk jaso dutenik negoziaketetan.

Negoziatzaile kataluniarrek, hizkuntz normalizazioarentzat ezinbestekoak diren baldintzak eskatzeaz gain, barrura begira, nazio-erakuntzan hizkuntzak duen leku zentralaren imajina azpimarratzea lortu dute.□

DONOSTIAKO GAZTEAK ETA EUSKARA

Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren eskariz, Nekane Jausorok burutu duen «Gazte donostiarren hizkuntzare kiko harremanak» ikerketak, ikasteredu desberdinetan ikasi eta hizkuntz ezagupen-maila desberdina duten Donostiako gazteek, hizkuntzekiko dituzten harreman eta jarre ren berri ematen digu.

Egileak dioen bezala *«gazte hauek hiru zentzu-mundu ezberdinetan bizi dira (diskurtso bakoitzak hedatzen duen zentzu-munduan), eta hor euskarak definizio ezberdinak ditu, batzuk kontrajarriak eta beste batzuk konplementarioak».*

Irakur daitezkeen ondorio interesgarrien artean honako hauek aurki daitezke:

- A eta B ereduken artean beldur dira, euskara ikasteak gaztelania galtzea ote dakarren.
- A/B ereduoketan D ereduken «pribilegio» irudia azaltzen da.
- B ereduoket D ereduken aurrean ziurtasun falta azaltzen dute.
- Lan munduaren irudiak eragina du unibertsitatearen hizkuntza-aukera egiteko orduan.
- Euskararen kontrako diskurtsoa hedatzen duen posizioa tinko azaldu da nahiz eta gutxiengoa izan. Honek esan nahi du gizarte-mailan diskurtso honek dituen argumentazioak kristalizatuta (nolabait errotuta) daudela.

Txostenak gaur egungo errealitatea deskribatzeaz gain, agerian uzten du, hizkuntzarekiko imajina sozialak aldatzen ari direla eta oso garrantzitsua izango dela etorkizunean, datozen belaunaldi berriek euskararen eta hizkuntz normalizazioaren aspektu desberdinen inguruan dituzten jarrerak eta iritziak eza-gutzea. □



IBURUAK

IDAZKARITZA
JASO DITUGU

JASO DITUGU

- Afasiko elebidunen hizkuntz trebetasunen azterketa.** ERRIONDO KOROSTOLA, Lore. EHU. Donostia. 24 x 17 cm. 596 or.
- Altzaga Ikastola. 25. Urteurrena. 1968-69/1993-94. Ikastola, biziraupen-eskola.** AURREKOETXEA URKIJO, Txetxu. Altzaga Ikastola / Ikastolen Elkartea. Erandio. 24 x 22 cm. 102 or.
- Andra Mari Ikastola. 1969-1994. 25. Urteurrena.** Andra Mari Ikastola / Ikastolen Elkartea. Etxarri Aranatz. 24 x 22 cm. 103 or.
- Antropología-Etnografía.** ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 319 or.
- Apatxe zuria. Santiago McKinn-en historia.** (i). JEIER, Thomas/Zabaleta, Pello. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 155 or.
- Arabiako gau-ipuinak.** (b/i). X.X./Mendiguren, Iñaki/Mendiguren, Iñaki**//Ortiz, José Mari. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 74 or.
- Arantzazuko Ama Ikastola. 1968-1994. 25. urteurrena.** ASKOREN ARTEAN. Arantzazuko Ama Ikastola / Ikastolen Elkartea. Loiola-Martutene. Astigarraga-Ergobia. 24 x 22 cm. 94 or.
- Arizko Ikastola. 1969-1994. 25. Urteurrena.** Arizko Ikastola / Ikastolen Elkartea. Basauri. 24 x 22 cm. 99 or.
- Autobabesari buruzko gidaliburua.** (i). OLEAGORDIA AGUIRRE, Andoni; ORDUNA ZUBIRI, J. Javier/IVAPEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala//Kartel. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 23,6 x 17 cm. 87 or.

- Bekatuaren itzala.** MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Euskaltzaindia / BBK. Bilbo. 20,5 x 13 cm. 98 or.
- Bidaia ahaztezina.** (i). GOMEZ UGARTE, Amado/Sarasola, Joan Mari//Lucas, Jesús. Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 107 or.
- Bidea.** (i). ESCRIBA DE BALAGUER, Josemaría/Kerexeta Gallaiztegi, Jaime. Wilsen. Ollobarren. 24 x 16,5 cm. 179 or.
- Bilbao Hiria Ipuinak / Cuentos Villa de Bilbao. 1980-1989.** (e). ASKOREN ARTEAN//Casado, Nacho. Bilboko Udala. Bilbo. 21 x 15 cm. 381 or.
- Bizi-kondizioen inkesta. Emaitza nagusiak. 94 / Encuesta de condiciones de vida. Principales resultados. 94.** (e). EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 159 or.
- Bostak primeran dabilta.** (i). BLYTON, Enid/Altuna, Margarita//Correas, J. Elkar. Donostia. 19 x 13 cm. 196 or.
- Colomba.** (i). MERIMEE, Prosper/Azkune Mendia, Iñaki. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 174 or.
- Cooperación pública vasca. Ayudas al Tercer Mundo. Memoria 1988-1994.** JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 249 or.
- Drakularen etxean.** (i). STOKER, Bram/Azurmendi, Joxemari. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 72 or.
- Eibarko bilakaera soziolinguistikoa (1981-1991) eta 1995-2000 jardunbiderako oinarriak / Evolución de la situación sociolingüística en Eibar (1981-1991) y bases de intervención 1995-2000.** (e). AZKARRAGA, Joseba; MUNIOZGUREN, Fernando. Eibarko Udala. Eibar. 24 x 17 cm. 184 or.
- Ekonomiarako sarrera: Konpetentzia, autoritarismoa eta aldaketa ekonomia kapitalistetan.** (i). BOWLES, Samuel; EDWARDS, Richard/Arrizabalaga, Itziar; Ezpeleta, Miren/Zaldua, Iban**. EHU. Bilbo. 24 x 17 cm. 252 or.
- El perfil profesional del educador y la educadora social en Euskadi.** LOPEZ-AROSTEGI, Rafael. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 269 or.
- Estatistika Boletina. I. hiruhilekoa. 96 / Boletín de estadística. I. trimestre. 96.** (e). EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 101 or.
- Estatistika deskribatzailea. Koerlazioa, erregresioa eta datu anizkoitzen analisisa.** (b). FERNANDEZ AGIRRE, Karmele. UEU. Bilbo. 24 x 17 cm. 245 or.
- Estudio del somatotipo en la comarca de Busturia.** REBATO, Esther; ROSIQUE, Javier. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 77 or.

- Europar Legebiltzarra / Parlamento Europeo. 1994 ekainak 12 junio 1994.** (e). HERRIZAINGO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 29,5 cm. 314 or.
- Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko Euskal gizatalde eta etxekiko harremanetarakoari buruzko Legea / Ley de relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.** (e/b). OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 17 x 12 cm. 59 or.
- Euskaldunak munduan / Construyendo el futuro.** (e). LEHEN-DAKARITZA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 30 x 21 cm. 147 or.
- Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco. 1994 urriak 23 octubre 1994.** (e). HERRIZAINGO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 29,5 cm. 333 or.
- Gabriel Aresti Sariak / Premios Gabriel Aresti. 1990-1993.** (e). ASKOREN ARTEAN. Bilboko Udala. Bilbo. 21 x 15 cm. 283 or.
- Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista-albistegietan. Euskal Herria Teleberri, Telenavarra eta Telenorte albistegietan.** ARANA ARRIETA, Edorta. EHU. Leioa. 24 x 17 cm. 538 or.
- Gizarte zerbitzuen estatistika (entitate eta zentroak). 93 / Estadística de servicios sociales (entidades y centros). 93.** (e). EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 154 or.
- Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak.** ETXEBARRIA, Juan Manuel. Labayru Ikastegia / BBK. Bilbo. 24,5 x 17 cm. 349 or.
- Grupos de apoyo en la vejez.** ORMAZA SIMON, Imanol. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 188 or.
- Guías dietéticas y dietoterapia básica para colectivos de ancianos.** OSASUN SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 113 or.
- Hauteskunde Nagusiak / Congreso de Diputados. 1993 ekainak 6 junio 1993.** (e). HERRIZAINGO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 29,5 cm. 339 or.
- Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak.** AMEZAGA ALBIZU, Josu. EHU. Leioa. 24 x 17 cm. 346 or.
- Hilerrri itxia.** MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Euskaltzaindia / BBK. Bilbo. 20,5 x 13 cm. 59 or.
- Historia-Geografia.** ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 425 or.
- Hizkuntzak irakasteko metodologia. Irakasleentzako testuliburu.** (i). NUNAN, David/Morales, Ana Isabel. HABE. Donostia. 24 x 17 cm. 270 or.

- Idiaren eraman handia.** ALONSO FOURCADE, Jon. Euskaltzaindia / BBK. Bilbo. 20,5 x 13 cm. 101 or.
- III. Jardunaldiak "Iturritik".** ASKOREN ARTEAN//Xali. Barrainkuako Udala Kultur-Etxea. Bilbo. 24 x 17 cm. 211 or.
- Ilargia ihesi.** (i). RINNEKANGAS, Rax/Ispizua, Jose Fran. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 129 or.
- Ipuinak.** MOGEL, Jose Antonio//Altzibar, Xabier. Labayru Ikastegia. Bilbo. 24 x 15,5 cm. 350 or.
- Irakasle alu bat.** MENDIGUREN, Xabier. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 186 or.
- Irakasleen hizkuntz eskakizunak. 1995eko azterketak.** HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 144 or.
- Itsasargiko misterioa.** GALARRETA, Xabier//Olariaga, Antton. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 84 or.
- Itzaleko hitzak.** GARZIA DE CORTAZAR, Mirari. Euskaltzaindia / BBK. Bilbo. 20,5 x 13 cm. 44 or.
- Jendaurreko ikuskizunak eta joas iharduerak arautzeko Legea / Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.** (e). OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 17 x 12 cm. 112 or.
- Josetxo.** (b). ETXEITA, Jose Manuel//AREJITA, Adolfo//. Labayru Ikastegia / BBK. Bilbo. 21 x 14,5 cm. 355 or.
- Juan Larrea: versiones del poeta.** DIAZ DE GUEREÑU, Juan Manuel. Universidad de Deusto. Bilbo. 22 x 15 cm. 205 or.
- Lizarra Ikastola. 1970-1995. 25 urte muga.** ARAMBURU GEREÑU, Jon; ETXANIZ ITURBE, Pello; MAIZ ULAYAR, Eneka; REPARAZ LEIZA, Josu; UIÑUALES GALE, Koldo. Lizarra Ikastola / Ikastolen Elkartea. Lizarra. 24 x 22 cm. 67 or.
- Lurralde antolamendu eta hirigintzari buruzko Hitz-Bilduma / Glosario sobre términos de ordenación del territorio y urbanismo.** (e). LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 23 x 16,5 cm. 1.010 or.
- Madame Doubtfire.** (i). FINE, Anne/Mendiguren, Iñaki. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 194 or.
- Mendebaldeko Euskal baladak. Antologia.** AREJITA, Adolfo; ETXEBARRIA, Igone; IBARRA, Jaione. Labayru Ikastegia / BBK. Bilbo. 24,5 x 17 cm. 174 or.
- Mezua.** (i). PEREZ DIAZ, Enrique/Ituarte, Mari Eli//Rodríguez, David. Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 77 or.
- Mikroekonomia I.** (b). ZURBANO IRIZAR, Mikel. UEU. Bilbo. 23,5 x 16,5 cm. 250 or.

- Minimal.** Koldo Mitxelena Kulturunea. Donostia. 23,5 x 17 cm. 181 or.
- Moskuko gereziak.** VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari//Vélez de Mendizabal, Ekain. Elkar. Donostia. 19 x 12 cm. 148 or.
- Nazareteko Jesus.** (i). DOCX, Ludo/Harymbat, Pierre; Agirre, Esteban J.//Ireland, Sandra. Ibaizabal. Euba. 24, 5 x 17,5 cm. 111 or.
- Nazareteko Jesus. Gida.** (i). DOCX, Ludo/Harymbat, Pierre; Agirre, Esteban J.//Ireland, Sandra. Ibaizabal. Euba. 24, 5 x 17,5 cm. 127 or.
- Pedrotxo.** UGALDE, Martin. Elkar. Donostia. 19 x 12 cm. 199 or.
- Plan Gerontológico de Euskadi (1994).** JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 173 or.
- Premio Sustatu '94. Investigación. De la administración a la gestión de los servicios sociales / Diagnóstico y planificación de la acción social municipal.** RAYA DIEZ, María Ester; SACANELL BERRUEDO, Enrique. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 246 or.
- Programen egiaztapena eta eratorpena.** ARREGI, Xabier; DIAZ DE ILARRAZA, Arantza; LUCIO, Paqui. UEU. Bilbo. 24 x 17 cm. 181 or.
- San Antonio. Urkiola. 8. mendeurrena 1195-1995 urteak.** (i). LEGARZA ASTEGIA, Joseba I./Gallaztegi, Juan B.. Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbo. 21 x 14,5 cm. 71 or.
- Senez. Itzulpen eta terminologiazko Aldizkaria.** GARZIA, Juan; MONTORIO, Bego; MENDIGUREN, Xabier; SARRIEGI, Andoni; ZABALONDO, Beatriz/BIGURI, Koldo**. EIZIE. Donostia. 24 x 16 cm. 206 or.
- Sociedad civil, protesta y movimientos sociales en el País Vasco. Los límites de la teoría de la movilización de recursos.** TEJERINA, Benjamín; FDZ. SOBRADO, José Manuel; AIERDI, Xabier. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17 cm. 184 or.
- Tom-Sawyer-en abenturak.** (i). TWAIN, Mark/Mendiguren, Iñaki/Mendiguren, Iñaki**//Ortiz, José Mari. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 133 or.
- Txingudi Ikastola. 25 urteurrena.** BERAZADI, Elena eta beste/Izagirre Igiñiz, Martin**. Txingudi Ikastola / Ikastolen Elkarte. Irun. 24 x 22 cm. 93 or.
- Txirike-Parú.** IRIZAR, Sabin. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 206 or.

Udal biztanleriaren eguneratzea. 93 / Actualización de la población municipal. 93. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika Erkunde. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 87 or.

Urrutiko intxaurrak. LOPEZ GASENI, Manu//Zabaleta, Jon. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 55 or.

Uzturpe Ikastola. 25 urteurrena 1970-1995. IMAZ, Iñaki; AIESTARAN, Felix. Uzturpe Ikastola / Ikastolen Elkarte. Ibarra. 24 x 22 cm. 45 or.

Zer duzu, Nuria? (i). LLOBET, Glòria/Bengoetxea, Ales. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 144 or.

Zure haragi bereko. EZKIAGA, Patxi. Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 123 or.

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1. C
TEL.(943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

